


ANDOAIN



ANDOAINGO TOPONIMIA
Onomasticon Vasconiae, 10. zkia.

© EUSKALTZAINDIA/ANDOAINGO UDALA (Edizioarena)
© Amaia USABIAGA FLORES (Lanarena), 1992.

Kartografia lana Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza eta
Arkitektura Departamenduko Lurraldearen
Informazio Zerbitzuaren laguntzari esker egina da.

ANDOAIN



ONOMASTICON VASCONIAE

ONOMASTICON VASCONIAE

10

AMAIA USABIAGA FLORES

ANDOAINGO
TOPONIMIA



EUSKALTZAINDIA

1993

ANDOAINGO UDALAREKIN KOEDIZIOZ ARGITARATUA



Onomastika batzordea: *Buru:* **Endrike Knörr**
Burorde: Alfonso Irigoien
Idazkari: Mikel Gorrotxategi
Kideak: Ricardo Cierbide
José Antonio Gonzalez Salazar
Andres Iñigo
José Maria Jimeno Jurío
Jose Luis Lizundia
Jean Baptiste Orpustan
Patxi Salaberri
Juan San Martin
Jose M^a Satrustegi

© Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. — 48005 Bilbo
Tel.: 94-415 81 55. — Faxe: 94-415 81 44

Legezko gordailua: Donostia: 940/93
I.S.B.N.: 84-85479-71-8

Mapen moldaketa: EGIA, SAL. Donostia

Fotokonposaketa eta inprimaketa: IZARBERRI, S.A. Usurbil

Eraketa: Enric Mir.

*Joni,
ilunak argitzeagatik*

AURKIBIDEA

Aurkezpena	11
Sarrera	13
1. Andoain: ikuspegi orokor bat	14
2. Metodologia	17
2.1. Ahozko erabilera	17
2.2. Bibliografia eta dokumentazioa	17
2.3. Normalizazio linguistikoa	18
Bokalak	19
Kontsonanteak	19
2.4. Normalizazio geografikoa	23
3. Oharrak	23
Laburdurak	26
Bibliografia	26
Kartografia	28
Dokumentazioa	28
Hiriguneko toponimoak	33
Leizotz Auzoa: toponimoak	151
Goiburu Auzoa: toponimoak	243
Buruntza Auzoa: toponimoak	271
Sorabilla Auzoa: toponimoak	307
Kokatu gabeko toponimoak	345
Toponimoen aurkibidea	355

AURKEZPENA

Atsegin handiz bete ahal izan dugu, noizbait, andoaindar askotxoren aspaldiko nahia: jario-jarioan galtzen ari ginen toponimiaren ondarea behingoz gogotandu eta ondare horri zegokion gordailu duin eta eraginkorra landu eta osatzea. Handia izan da andoaindar zenbaitek aspaldidanik herriko etxe, ibai, mendi eta, orohar, toki izenekiko zuen kezka eta ardura, eta handiagoa mendeetan zehar bizirik iraun duten izen horiek guztiek jasan duten galera azken hamarkada hauetan.

Geure herri eta inguruneari buruzko lekukotasunik fidagarriena eskaintzen digu, zalantzarik gabe, toponimiak. Berau da hainbat eta hainbat datu eta ezaugarri geografiko, topografiko, historiko edota etnografiko azaltzen diguna herriaren beraren mintzori hurbilenaz. Horrexegatik, 1988. urteaz geroztik harik eta Andoaingo Izendegi Ofiziala finkatu eta onartzen dugunaino ezinbesteko eginkizun izan da Udalarentzat hemen aurkezten dugun azterketa toponimikoa egitea.

Lan hori egiteko ardura nagusia Amaia Usabiaga Flores andereari eman zion Udalak, eta berak, lanorduen mugak goitik eta behetik apurtuz eta jaiegun gehienak emanez, gure udalerriko zoko guztiak arakatu eta miatu ditu lana amaitzeraino. Lan horretan garrantzi handikoa izango da biltzaileek, eskuar informatzaileek eta, oso bereziki, herritar jakin batzuek emandako laguntza eta babes. Udalak lehenago ere Usabiaga andereari eta orohar herritarrei azaldu izan dien eskerrona berrestea eta areagotzea dagokit niri orain, lanak, atzerapenik eragin dioten traba guztiak gainditu ondoren, argia ikusten duen honetan.

Eskerrona azaltzeko garaian ezin dugu ahaztu Euskaltzaindiak uneoro eman digun laguntza itzela. Azterketa toponimikoari hasiera eman genion unetik bertatik Onomastika Batzordearen aholkua eta laguntza iraunkorra izan da, eta laguntza hori guretzat ohoregarri gertatu da azterlana bilduma honetan argitaratzeko aukera eskaini zigun unetik aurrera. Bene-benetan atsegin eta gogoko izan dugu Euskaltzaindiko kideekin hartu-emanen


ibiltzea. Eskerrona ere, azkenik, azterlana inprimatzeko moldeetara itxuratu duen Izarberri Inprimategiari, profesionaltasunetik haruntzago lan gaitz eta neketsu hainbat bere gain hartu dutelako.

Orain, gure toponimia ezagutu, aberastu eta gordetzeko aukera izan dezagun egindako lana azaltzea baino ez zaigu falta. Aurrera, bada!


Verba volant, scripta manent. Hala bedi.

M^a Pilar Collantes Ibáñez
Andoingo Udaleko Alkate burua

1. Mapa: ANDOAINEN KOKAPENA



2. Mapa: ANDOAIN. AUZOAK



SARRERA

Azkenik, 1988ko abenduaren 13an Udalaren eskariz eta berak kontraturik hasitako lana amaitutzat jo daiteke. Larogeita zortzigarreneko urte amaiera hartan, karrera bukatu berri nuelarik, erronka handia izan zen niretzat ezagutzen ez nuen herri batean tamaina honetako lan baten arduraduna izatea. Une hartan ez nuen susmatu ere egin hasieran emandako epea, lanaren helburuak gehitzen joan ziren neurrian, horrenbeste luzatuko zenik, ez eta, artean, herri ezezaguna zen hartan burutu behar nuen lanak segidako hiru urteetan bete betean harrapatuko ninduenik, Udaletxeko lanorduak motz eta jaiegunetakoak luze eginez. Are gutxiago, nere lehen abentura profesionala eta laborala liburu baten argitalpenaz amaituko zenik. Hori guztiagatik ezinbestekoa da, besteak beste, garai hartan Andoaingo Udaletxean Euskara Zerbitzuko arduradun zen Patxi Baztarrikari eta ENBAko (Euskara Normalkuntzarako Batzordea) partaide zirenei lerro hauen bidez nire eskerrik beroena luzatzea, beraiek izan baitira hasieratik bukaeraino lan honen bultzatzaile sutsu. Eskertu nahi dut ere lan honekiko azaldu duten arreta eta ardura berezia, hala nola niregan izandako konfidantza.

Andoaina iristean asko harritu ninduten bertan bultzatzen eta burutzen ziren ekintza kultural ugariak eta herriaren historiari loturiko gaiak herritarrengan sortzen zuten jakinminak eta ardurak. Horrela, baserritar bateg, harrituta urtero lauzpabost gazte galdezka joaten omen zaizkiolako, Udalak gazteoi horrelako lanak egitea agintzen ote digun galdetu zion lan honetan parte hartu zuen datu-biltzaile bati. Zentzu berean azaltzen da, adibidez, zenbait herritarrek euren kontu baserrien zerrendak osatu izana, hauetako bik, Joxe Eizmendi eta Luxio Aranburu jaunek alegia, inongo traba edo zalantzarik gabe zerrendak gure esku utzi zituztelarik. Juan Jose Larrea jauna, orain dela gutxi arte Andoaingo La Salle ikastetxean irakasle eta Udalak argitaratzen duen 'Andoaingo Paperak' izeneko bildumaren arduraduna, berriz, bere ikerketetan erabilitako dokumentazioa utzi eta edozein zalantza argitzeko prest izan dugu uneoro. Era berean, Iñaki Agirre jaunak herriko bordei buruz egiten ari zen zerrenda eta mapa azaldu zizkigun. Lerro hauen bidez guztiei nire

esker ona adierazi nahi diet. Dena den, aipatu ditudan toponimia zerrenda eta lan horiek eskura izan arren, ez zegoen toponimiari buruzko lan osatu eta orokorrik eta, beraz, hori zen Udalaren nahia eta neri agindutako lanaren helburua: herriko toponimoak jaso eta finkatzea. Amaitu dugun honetan esan behar, burututako lanak ageri duen orokortasuna ez dela ikerketa toponimikoak gai eta puntu ezberdinak sakontzeko ematen duen aukeren artean bakar batera mugatzearen ondorio, ez horixe. Aipatu jakinmin horrek ikuterik edo, zaila izan zaigu lanari mugak ezartzea, eta toponimo bakoitzaren ahozko erabilera, historian zehar izandako bilakaera, kokapena, deskribapena, etimologia, hauei buruzko historiotxoak, normalizazio-proposamena, eta abar azaltzen saiatu gara. Mendizale eta argazkilari bihurturik, ahal izan dugun toki guztietara igo edo jaitsi gara, izena duten lekuak ezagutu eta toponimo bakoitzaren diapositiba pare bat egiteko asmoz. Horregatik, agian, norbaitek arinkeriak aritutzat sala gaitzake, gai ugari azaldu nahiean ez dugulako bakoitza behar edo nahi adina sakondu.

Eskerrak emateko orduan ezin ditut ahaztu lan hau bideragarri egin duten protagonista 'ezezagunak'. Eta 'ezezagunak' diot galdetua izan den informatzaile kopuru ugariagatik (300 inguru) ezinezkoa zaidalako guztien izen-abizenak hemen jasotzea. Hala ere, nik beraiekin izandako harreman esutuago eta eurak eskainitako lankidetzaren bereziagatik horietako biren izenak aipatu nahi ditut: Inaxio Etxeberria, *Kaxkabeltza*, eta Agustín Zinkunegi jaunak. Inaxio izan da topatu dugun informatzailerik bikainenetariko bat eta berarekin izandako solasaldi atseginetan kontu zahar eta bitxi ugari berri ere izan dugu. Atseginak izan dira ere Agustinekin mendi eta basoetan zehar egindako ibilaldi luzeak. Azpimarratu eta eskertu nahi dut informatzaile gehienek egin diguten harrera ona eta gurekin izandako pazientzia. Eskerrak behinik behin zeuen ezagupideak gure egiteagatik.

Ezin ahaztu ere, metodologiari dagokionez eta geografiari loturiko zalantzak sortutakoan, DEIKER Institutoko toponimia sailaren zuzendari eta Deustuko Unibertsitateko irakasle den Nerea Mujikarengandik jasotako laguntza eta aholkua. Toponimoei eta bere normalkuntzari loturiko alde filologikoei buruzko lehen urratsak, berriz, Deustuko Unibertsitatean Euskara Sailko katedradun eta euskaltzain oso den Alfontso Irigoien jaunaren eskutik eman nituen, eta berari ere nire esker ona azaldu nahi diot. Nola ez eskertu Esukaltzaindiari eta, bereziki, bere Onomastika Batzordeari lan hau *Onomasticon Vasconiae* bilduman argitaratzean egindako ohorea.

Bukatzeko esan behar da, hiru urte hauetako lanordu ugariak, buruhauste, zalantza eta gorabehera guztiak ondo baino hobeto sarituak izan direla ezagututako herri eta jendearekiko harremanaz eta, noski, liburu honen argitalpenaz. Era berean, espero dut lan hau arreta eta ilusioz jarraitu duen oren gustokoa izatea.

1. Andoain: ikuspegi orokor bat

Andoaingo kokagune geografikoa ekialdeko longitudo $1^{\circ}39'20''$ ko eta ifarraldeko latitudeko $43^{\circ}13'20''$ koa da. Gipuzkoako Beterri kokatuta dago, Donostiatik hamabost kilometrotara, Oria eta Leizaran ibaiak elkartzen diren tokian. 15.654 biztanle eta 28,1 kilometro karratu inguru ditu, muga eginez

ifarraldetik Lasarte-Oria eta Zubietarekin; hegoaldeetik Elduain, Berastegi eta Billabonarekin; ekialdeetik Urnietarekin eta mendebaldeetik Zizurkil eta Adunarekin. Andoaingo lurraldea ondo mugatutako lau auzotan banatuta dago: Buruntza, Leizotz, Goiburu eta Sorabilla. Azken hau aintzinean Aiztondoko Alkatetza Nagusiaren barne egon zen, eta urte batzuz herri independentea izan zen arren, azkenik 1882an Andoainek bat egin zuen. Gaur ezagutzen den hirigunea sortu zen arte Buruntza zen herriko gunerik garrantzitsuenetako bat, bertan zegoelarik gaur desagertutako San Martin eliza. Dena den, Goiburu eta Sorabilla auzoak dira auzo-entitatea eta izaera ondoen mantendu dutenak. Biek dituzte eliza edo ermita baten inguruan sortutako auzagunea, auzokideen eta bisitarien solasaldirako taberna eta urtean behin ospatzen diren jaiak. Leizotz izeneko luzezabalerari dagokionez auzorik handiena den arren, ez du elkargunea eragingo lukeen gune erlijiosorik eta, beraz, berezko jairik ere ez. Horregatik, ez da inoiz izan besteen gisako auzoa.

Andoainek, Gipuzkoako beste herriren antzera, Kantauri aldeko klima du: euritsua eta epela, urteko hozberoa batazbeste 13^otakoa delarik. Topografia aldetik Andoainen haranak dira nagusi, eta garrantzitsuenak Oria eta Leitzarain ibaiarenak. Gainerako lurraldean muinoak eta mendi aldapatsu eta harkaitsuak daude. Altuera handiena Onddo mendia da (786 m.) eta baxueña, berriz, Oria ibaiaren haranean dago (24 m.). Ezaugarri hauen ondorioz abere eta nekazaritzarako erabiltzen den landalurrea gehienbat herriko zonalde baxuetan dago, lurralde osoaren %35,85a hartuz. Baso ustiaketarako lurraldearen %42,52a erabiltzen da, eta %9,56ri, berriz, baldintza fisikoak medio, ezin zaio erabilpenik eman. Landalurrearen zati zabal baten degradazioa handia izan arren, Andoainen oraindik badaude naturaren aldetik interesgarriak diren zonaldeak. Dena den, beste herri askotan gertatu den antzera, zuhaitz autoktonoen ordez koniferak nagusitu dira eta horrek, jatorrizko faunaren urritzearekin bat, zelai eta pinu basoetara egokituriko animalien ugalkuntza ekarri du.

Tolosatik Donostiarako erdibidean egotean komunikazio bide ugari zeharkatu du aintzinatik, Santiagorako Bidea eta Errege Bidea bezain garrantzitsuak, adibidez. Gaur, berriz, saihetsetik igarotzen da 1. errepide nazionala. 1864. urtean, bestalde, Madridetik Iruna doan trenbidea inaguratu zen eta 1914an Iruñetik Lasartera zihoa, gaur egun desagerturik dagoen Plazao-lako trena edo *Trentxiki* izenaz ere ezagutzen dena, alegia. Komunikazio bide garrantzitsuak bertatik igarotzeak izan du, noski, eraginik herriko ekonomia eta garapen industrialean.

Gipuzkoa osoan gertatu zen antzera, XIX. mendearen bigarren erdialdera Andoainen ere industria berri baten sorrerako lehen urratsak ematen hasi ziren. Ordurarteko aktibitate esparru nagusia nekazaritzak eta abelgintzak eta horiei loturiko industria tradizionalak —errotagintzak eta burnigintzak (burniolak)— osatzen zuten, baina aipatu garai horretatik aurrera, Gipuzkoako hainbat herritan bezala, ehungintza eta papergintza jorratzen hasi zen. Horrela, 1857. urtean martxan jarri zuten Andoainen hain ezaguna izan den *La Algodonera Guipuzcoana* izeneko lantegia. 500 langile izan ziren kontratatuak, eta kontutan izanik garai haietan (1857an) Andoainek 2.125 biztanle basterik ez zuela, begibistakoa da honek biztanlegoarengan izan zuen eragina: alde batetik, ordurarte ogibide bakarra zena, nekazaritza, alegia, une hortatik aurrera fabrikako lanarekin tartekatzen hasiko da, eta bestetik lehenengo familia kanpotarrak etorri ziren. Garai berean ordurarte Andoainen ezarrera han-

dirik izan ez zuen aktibitate bati ere heldu zitzaion: harri eta mea erauzketari, alegia, baina azken hau beste aktibitateen artean beti izan da minoritarioa. Mende hasieran, berriz, trenbidearen eraiketa lanak erakarriko du etorkin kopuru handia. Dena den, Andoainek jasandako hazkundeak ez da zuzenean herriko garapen ekonomikoari lotuta egon eta, ondorioz, Gipuzkoarekin parekatuta ezberdintasun nabarmenak atzematen dira. 1950erako probintzian hazkunde demografikoa erdira jaitsi eta finkatu egin zen bitartean, Andoainek urte horretan hasi eta 1977ra arte %49,62ko hazkunde tasa jasan zuen, mende hasieran zuena kontutan izanik, biztanlegoaren kopurua laukoiztu egin zelarik (1960tik 1975era 6.953 biztanle izatetik 14.703ra igaroko da). Gipuzkoan, ordea, oraindik ez da horrelakorik gertatu. Udalaren eskariz eginiko azterlan sozioekonomikoan azaltzen denez, 1960an industriaren garapena gelditu zen arren, hazkundeak aurrera egin zuen eta horren arrazoietakoa bat, Donostiatik Tolosarako erdibidean egoteagatik, etxebizitzaren salneurri merkeagoan leutzake. Horrela, Andoaingo langilegoaren erdiak herritik kanpo egiten du lan, hots, Andoain herri 'residentzialtzat' jo daiteke.

Hirigintza arloko nahasketa, ekipamendu soziokulturalen urritasuna, hala nola eguneroko bizitzan somatzen diren hutsuneak dira hazkunde desorekatuaren eta 60eko hamarkadan eginiko prebisio okerren ondorioz gaur herrian nabaritzen diren arazoetariko batzuk, Andoainek ez baitu gaur bertan bizi den biztanlegoaren beharrei aurre egiteko behar adina garapen eta ahalmen ekonomikorik. Egun bizi den krisialdi ekonomikoak, bestalde, ondorio latzak izan ditu Andoainean, bertako ekonomia gehienbat industriara mugatuta baitago. 1986. urtean, adibidez, biztanlegoaren %64,3a industria alorrean ziharduen lanean, %33,9a zerbitzuetan eta nekazaritzan soilik %1,5a, hau da, 67 lagun besterik ez. Ondorioz, 1986. urtean Gipuzkoa osoan baino langabezi portzentaia altuago jasaten zen hemen, probintzian %22,1ekoa zen bitartean Andoainean %27,6koa baitzen. Horren arrazoietariko bat, lehen aipatutakoaz gain, biztanlegoaren gaztetasuna litzatekeelarik.

Orain arte aipatutakoaz Andoainek gaur bizi duen egoera sozioekonomikoa eta horren arrazoiak edo oinarriak azaldu nahi izan ditugu, baina ikus dezagun segidan, Udalak 1990. urtean argitaratutako *Andoaingo Azterketa Soziolinguistikoa* liburuan oinarrituta, zein den bertako egoera soziolinguistikoa.

Orain arte aipatutako ezaugarrietan oinarrituz, atzeman dezakegu Andoaingo egoerak epe labur batean etorkin ugari jaso dituen hainbat herriren parekoa izan behar duela. Dena den, goazen azaltzera aipatu azterketan ematen diren zenbait datu adierazgarri. Andoaingo biztanlegoa bi talde mugatutan banatuta dago: alde batetik, %40 inguru euskaraz ondo hitzegin eta ulertzen dutenak, eta bestetik, %40 inguru batere hitzegin eta ulertzen ez dutenak ditugu. Tartean zer edo zer ulertu eta hitzegiten duen %15a dago. Irakurmen eta idazmenari bagagozkio, noski, lehen eta hirugarren taldeak asko gutxitzen dira. Aipatu behar da portzentaia hauek 1986eko erroldan oinarriturikoak direla eta, baita, 81eko erroldakoekin parekatuz nabaria dela euskararen ezagupen mailaren igoera. Dena den, aurrerago ikusiko dugunez, horrek ez du esan nahi berreskuratze prozesu hori erabiltzen isladatzen denik. Lehenago aipatu datuak Gipuzkoa osoaren portzentaiekin parekatu ezkerok ez da ezberdintasun nabarmenik atzematen. Ezagupen mailaren igoera gehienbat haurrengandik dator, baina ezin gauza bera esan helduen euskalduntze eta alfabetatze

prozesuari bagagozki, atal honetan azken urteotako emaitzak nahiko ezkorrak baitira. Ezkorrak dirudite ere kaleko erabilerari buruzko datuek, %40ak ondo hitzegin eta ulertzen duen arren, kalean egindako neurketen arabera %19ak baino ez baitzuen euskeraz hitzegiten. Dena den, 1979. urtean egin zen beste neurketa batekin parekatu ezker, bederatzi urtetan kaleko erabilerak %4,3ko igoera globala izan duela ohartarazi behar dugu. Baikorra da ere, herritar euskaldunen %78,8ak administrazioarekin harremanak euskara hutsen nahi izatea. Udalak eskaera hori neurtu eta euskaldun horiei erantzuna emateko zentsu berezi bat osatu zuen.

Bukatzeko, esan behar da, 1979tik 1988ra biztanlegoaren ezagupen eta erabilera mailak orokorrean gora egin dutela eta, espero bezala, haurren artean igoera bereziki nabarmena izan dela, jaitsi diren bakarrak gazteriarrena eta, gehienbat, zaharren arteko erabilpena izan delarik.

2. Metodologia

Lehen aipatu bezala, lan honetarako erabili dugun metodologia Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutoak bere toponimia lanetan erabili ohi duenean oinarrituta dago. Ondoren, emandako urratsen azalpena egingo dugu, kasu bakoitzean izandako gorabeherak eta balorazioa eginez. Toponimia lan osatu bat egin nahi izan dugunez, ikerketa lau ataletan banatu dugu: ahozko erabilera, bibliografia eta dokumentazioa, normalizazio linguistikoa eta normalizazio geografikoa.

2.1. Ahozko erabilera ezagutu eta neurtzeko Udalak Josune Irazu eta Pili Igerategi andoaindarrak kontratatu zituen. Bi lagunak landako zein kaleko toponimoak jasotzen aritu ziren, bi kasuetan informatzaileekin izandako elkarrizketak grabatuz (17 kaset guztira). Baina eremu batean zein bestean gure helburuak eta, noski, jasotako toponimoak ere, ezberdinak izan dira: kalean odonimo eta oikonimoetara mugatu gara gehienbat; landan, ordea, oikonimoez gain oronimo, geonimo eta hidronimoak ere jaso ditugu. Aipatu bi andoaindarrek egindako datu bilketan informatzaileak ez ziren alde aurretik aukeratuak izan eta une horretan bibliografian eta dokumentazioan jasoko ziren toponimoen berririk ere ez genuen, bi atalak aldi berean landu baitziren. Dena den, bi iturrietatik jasotako toponimoak parekatu ondoren dokumentazioan azaltzen zirenetariko ugari informatzaileek ezagutu ez edo aipatu ez zituztenaz ohartu ginenez, bigarren galdeketa bat egin genuen, oraingo honetan lehen saioan emankorren eta ziurren gertatutako informatzaileengana joaz soilik, beraiei zuzenean toponimo zehatz batzuren berri eskatu genielarik. Hori guztiarekin adierazi nahi dut, etekinak onak izatea nahi bada, informatzaileei galdera zehatzak egin behar zaizkiela, halako entitateen izenez edo toponimo jakin batzuren kokapenez galdera eginaz. Bestela, kaset baten eta pertsona arrotz baten aurrean, informatzaileak ezagutu nahi ditugun toponimo guztiak gogora ez ekartzea gerta liteke. Esan behar da ere, sarritan zaila gertatzen dela informatzailearekin bertara joan gabe toponimo bat kokatzea, baina laguntza hori ez dugu beti prest izango halako mendi puntara edo bazter izkutu hartara joateko —kontutan izan, gainera, informatzaile onenak jende zaharren artean aurkituko ditugula—, eta kasu horietan beharrezkoa da tokia alde aurretik ezagutzea.

Atal honetan jasotakoarekin Andoaingo hizkera, toponimoek urteetan zehar jasandako bilakaeraren azken maila, toki bera izendatzeko erabiltzen diren toponimoak, toponimo beraz egiten den erabilera ezberdina,...e.a. ezagutzeko aukera izango dugu.

2.2. Bibliografia eta dokumentazioa atala ondoren egingo den normalizazio linguistikoaren oinarri da eta, beraz, oso garrantzitsua. Dena den, Andoaingo kasuan behintzat, bibliografia, toponimoei dagokienez, ez da hain emankorra eta garrantzitsua gertatu. Bai, ordea, erreferentzia historikoei buruz. Erabilitako liburuen zerrenda aurrerago azaldu dugu, baina, aipatu behar da, horien aukera egiterakoan Juan San Martinen *Introducción a la toponomástica guipuzcoana* artikuluan oinarritu garela. Iturri dokumentaletarako, berriz, profitatuz herri bakar bateko toponimia-lana egin behar zela, Udal artxibora mugatu gara. Egia da, erabaki horrekin dokumentu zaharragoak alde batera utzi ditugula, baina bestetik hain ezagunak ez diren Udal artxiboak miatzeko aukera izan dugu eta, aitortu beharra daukagu, bertan lan honetarako dokumentazio ugari eta oso interesgarria aurkitu dugu. Sarreran aipatu bezala, puntu honetan ere zaila gertatu zaigu mugak ezartzea, eta dokumentu ugari izan dira erabilitakoak (ikus aurrerago dokumentazioaren zerrenda), guztira 5.000ren bat fitxa osatuz. Dena den, Udal artxibokoa ez da kontsultatu dugun dokumentazio bakarra izan, 1945. urteko amilaramenduak eta Oñatiko protokoloen indizeak ere eskuartean izan baititugu. Azken honi buruz esan gure asmoen artean ez zegoela iturri horren erabilpena eta, horregatik, ez dugu aipatu indizeen hustuketa exhaustiboa egin, soilik datu berri edo aipagarriak jaso ditugarik.

Andoaingo Udal artxiboa 1813. urtean sute batek erre egin zuen eta, beraz, lan honetarako erabili ditugun dokumentu gehienak XIX. mendekoak dira. Zorionez, sutean ez ziren guztiak desagertu eta XVIII. mendeko liburu bat ere erabili ahal izan dugu. Horrekin batera Udal Artxibariak eta Juan Jose Larreak egindako XVII eta XVIII. mendeko zenbait dokumenturen traskribapenak ere aztertu ahal izan ditugu (ikus Dokumentazioaren atalean: I.E.A.).

Dokumentazioan jasotako aipamen zaharren bidez, lekuen jatorrizko izenak edo jatorrizko erabilpena inguratzen direnak ezagutu ditzakegu. Dena den, iturri honen bidez zaila izaten da toponimoen kokapena zein den jakitea, eta horregatik informatzaileen laguntza eta ezagupena ezinbesteko suertatu ohi dira. Horrela, toponimo baten berri soilik dokumentazioaren bitartez jasotakoan, gehienetan galdua eta berreskura ezina —kokapenaren alde tik— den toponimo baten aurrean gaude.

2.3. Normalizazio linguistikoa prestatzeko ezinbestekoa da ahozko erabilera ezagutu eta iturri dokumentalen hustuketa eginda izatea, izenaren jatorria eta bilakaera ezagutu ondoren toponimoaren forma egokia zein izan daitekeen jakin ahal izateko. Orain arte burututako toponimia lan ugaritan ez da toponimoen normalizazioa egin ohi eta egin den kasuetan, berriz, lanaren arduradunaren irizpide 'pertsonaletan' oinarrituta izan da. Horregatik, irizpideak bateratu eta normalizazio lan guztiak koordinatuko dituen erakunde bat sortzen ez den bitartean, lan honetan egindakoa proposamen gisa eta behin-behineko normalizaziotzat hartu behar da. Sarritan koordinazio eta irizpide bateratu horien gabezia somatu dugu eta gure zalantzak ezin argituz ibili gara.

Hala bada, segidan azalduko ditugun irizpideak, normalizazioa egiterakoan jarraitu ditugunak, ezin dira eredutzat edo erabat onetsitzat hartu, sarritan erabakia gutuz arbitrarioa izan baita.

Normalizazioaren lehen urratsa 'jatorrizko' izena, hau da, dokumentu zaharretan azaltzen dena, eta gaur erabiltzen denaren arteko oreka bilatzean datza, kontutan izanik, gainera, toki bakoitzeko era bakar batean idatziriko izen soil bat normaliza daitekeela. Orduan, entitate bat izen bat baino gehiagoz ezagutzen den kasuetan erabilienaren alde egin dugu, galdeketaren emaitzen bidez erabiliena zein den jakiterik ez dagoen kasuetan dokumentazioan gehien aipatzen dena hartu dugularik oinarriztat. Erabileraz gain, zenbait kasutan izenaren aintzinasuna eta orijinalitatea ere kontutan hartu ditugu. Idazketari dagokionez, esan behar da, oro har jarraitu dugun irizpidea arkaizantea izan dela. Toponimo gehienak belaunaldi batetik bestera ahoz-ahoz pasa eta geroz eta gutxiago erabiltzen diren heinean, jatorrizko formatik urrunduz joan ohi dira. Kontutan izanik ere hizkuntzaren bilakaera normala dena, ahozko iturritik jasotako toponimoak, besteak beste, ebakeraren deformazio eta sinkopazioaren menpe daude. Dena den, ezin dira nahastu ahozko erabileraren ezaugarri horiek euskalkiaren bereizgarriekin, ez eta azken hauek fonetismoekin. Honekin esan nahi duguna zera da: euskalkiaren bereizgarriak eta hizkuntzaren bilakaera normala dena errespetatuz sinkopazioa eta fonetismoak baztertu egin ditugula. Ikus dezagun jarraian zein den zenbait toponimoen ahozko erabilera, horien bidez Andoingo hizkeraren ezaugarri zenbait ezagutu asmoz eta kasu bakoitzean normalizazioa nola moldatu dugun agertuz. Azpimarratu beharrean gaude, lanaren helburua ez dela joera eta ezaugarri linguistikoak ikertzea izan, ondoren azalduko dugun alde ugari soilik toponimoen ahozko erabilera oinarrituta daudelarik eta hori, gure ustez, ez da nahikoa. Kaleko informatzaileek, adibidez, odonimo gehienak, generikoa behinik behin gazteleraz ahoskatuz, edo gaztelerazko entonazioaz esan dizkigute eta kasu ugarian, agian grabatzen edo idazten aritzeagatik, informatzaileek toponimoa 'ondo' esaten saiatzen dira. Ondorioz, jasotako erantzun ugari ez dira ahozko erabileraren islada. Ohar hauek egin ondoren goazen ikustera aipatu ezaugarri horiek.

Bokalak

- *Elkarketak: -ai > -ei *Mizpirei*
- ia- > -ie- *Mieka*
- ea > -ia *Igerateginia, Malentxunia, Lavia* (1813)
- oa > ua *Patxaranekua, Estaziya, Eguabil* (1813),
Torres Azpicua (1813)
- *Hiatoak: -ia > -iya *Kale Nausiya*
- io > iyo *Kamiyo, Palaziyo Zarra*
- ua > uba *Putzuba, Itxubania*
- *Galerak: -a# > Ø *Benezi, Talai, Olaberri, Olazar*
- eta > -ta *Txertota, Pagota, Arrita*

Aipatu kasu guztietan ezkerreko zutabeak proposatu ditugu normalizaziorako.

*Apofonia. Lehen osagaiaren azken bokala -e edo -o denean -a bilakatzen da. Dena den, joera hau maizago topatzen dugu dokumentazioan gaur-

ko erabileran baino: *Elzamendi* (1897) > *Eltzemendi*, *Sorachiqui* (1745) > *Sorotxiki*. Horrelako kasuetan dokumentazioan azaltzen diren aipamenetan oinarritu dugu proposamena.

Kontsonanteak

Bustidurak: adibide gehienak txistukarien artean topatu ditugu, hauetako asko espresiboak, hau da, ez automatikoak direlarik: *Urxalto*, *Presatxabal*, *Prexaburnu*, *Kaxkabeltza*, *Exkerrania*, *Arribeltx*, *Xeotei*, e.a. Beste zenbait kasutan bustidura *-i-* bokala edo *-i-* diptongoaren bigarren osagai denaren eraginez gertatzen da (automatikoa): *Erdoxta* (*Erdoizta*), *Egitxorrotx*, *Astabixkar*, *Baltzunbixkar*, *Urrexti* (*Urrizti*), *Bekaxtei* (*Bekaizti*), *Buenabixta*, e.a. Aipagarriak dira ere *Axintxionia* (*Asensioea*) eta *Marixintxinia* (*Mariascensioea*) oikonimoetan ematen direnak. Urriago dira, ordea, *-t-* eta *-d-* herskariaren bustiduraz jasotako adibideak (generikoak alde batera utziz: *iturri*, *tton-ttor*,...e.a.): *Onddo*, *Muntto*, *Muntte(g)i* eta *Onddottiki*. Azken kasu hauetan, aipatu besteetan ez bezala, ez da toponimo hauen forma neutroa erabiltzen eta, horregatik, kasu hauetan erabiltzen diren eran normalizatu ditugu. Azken multzo honetan sar daiteke ere *Iyuya* (*Idoiaga*), baina kasu honetan, sinkopazioa ere gertatuenez, jatorrizkoa berreskuratu nahi izan dugu. Azpimarragarria da ere informatzaile pare batek aipaturiko *goina* (baina *Argaña*), lursailaren goiko aldea adierazteko, edo beste zenbaitek erabiltzen duen *Linaputzu*, kontutan izanik, gainera, bigarren kasu honetan dokumentazioan toponimoa *ñ-z* azaltzen dela. Dena den, ez dakigu hauek kasu isolatuak diren ala ez, eta hala ez bada, zenbatetaraino dauden hedatuta edo zein kasuetan, nahiz eta testuingurua horren aldeko izan, gertatzen den ez palatalizazioa.

Bokalarreko kontsonanteak: herskari ahostunak eta dardarkariak posizio honetan galdu egiten dira:

R. *Azaitokieta* (*Azaritokieta*), *Uban* (*Ubaran*), *Amane* (*Aramanea*), *Antzaluze* (*Arantzaluze*).

B. *Ixal* (*Idiazabal*), *Etxolarri* (*Etxolaberrri*).

D. *Goosti* (*Gorostidi*), *Galtza* (*Galtzada*), *Penai* (*Penadi*).

G. *Izwztei* (*Izoztegi*), *Gaartza* (*Garagartza*), *Otita* (*Otegieta*), *Lasterrain* (1813) (*Lasterregin*).

Kasu guztietan hitzegiterakoan galtzen diren kontsonanteak berreskuratu ditugu.

Txistukariak: orokorrean txistukari frikariak (*s*, *z*, *x*) eta afrikatuak (*ts*, *tz*, *tx*) ondo bereizten direla esan daiteke, hala nola sail bakoitzekoak elkarren artean, *n*, *l*, *s* eta *r* kontsonanteen ondoren eta azken posizioan gehienetan afrikatuak soilik topatzen ditugularik: *Antzizu*, *Galtza* (*Galtzada*), *Baltzun*, *Ortzaika* (*Ortzeriagoka*), *Iyeluts*, *Errekabeltz*, ... Zenbait kasutan txistukari etimologikoaren aldaketa gertatu da, horrelakoak gehienbat herskari ahoskabeen aurrean topatu ditugularik: *Anastei* (*Aranaztegi*), *Santakrusko zubiya* edo *subiya*, *Aspilla* (*Azpillaga*), ... zenbait informatzailek kasu horietan *s* eta *z*-ren arteko soinua ahoskatu duelarik. Horien ondoan, ordea, *Uztondo*, *Aizkorri* eta *Mizpirei* jaso ditugu. *Ondarzulo*, *Sorginzulo*, *Elurzulo* dira beste salbuespen batzuk.

Zalantzazko kasuetan, hau da, txistukari baten aldeko joera garbirik ez badago, etimologikoa dena normalizatu dugu.

F (ezpain-hortzetako frikaria). Gutxi dira kontsonante hau duten toponimoak eta urriago oraindik horren orde *p* ahoskatzen duten hiztunak. Dena dela, informatzaile pare batek esandako *Puerteko Txabala* eta dokumentu batean azaltzen den *Alparo* (1813) dira bilakaera horren bi adibide.

Kasu honetan, noski, frikaria mantendu dugu.

Bokalaratean *-d-* > *-r-* bilakatzeko joera dago. Hor ditugu, adibidez, informatzaileek esandako *biria* eta *Patxarania* edo dokumentazioan jasotako *Iriazabal* (1813), *Marocenea* (1818), *Churicari* (1813).

Aipatu aldaketa dokumentazioan aurkitutako aipamenetan hedatuta badago onartu egin dugu.

H (hasperena). Gipuzkoako herri gehienen antzera, Andoainen ere ez da hasperenik ahoskatu —dokumentazioan ere ez da *h*-rik idazten— eta horregatik, espezifikoa beti *h*-rik gabe idatzi dugu: *Baltzusketa Aundi*, *Aizbeltz*,...e.a. Generikoaren kasuan, ordea, egokiago iruditu zaigu idaztea: *Uztondoko Harkaitza*, *Azpikolako Harrobia*,...e.a.

Aipatu behar dugu, azkenik, 1615. urteko dokumentutik 1813 edo 1818. urtekorra, gutxi gorabehera, aldaketa zenbait nabarmentzen direla. Hemen hauetako batzuk azalduko ditugu:

eleiz > *eliz*: *Eleyçagarate* (1615), *Elizagarate* (1813)
-rena > *-(e)nea*: *Oynandirena* (1615), *Oñandinea* (1813)
areitz > *aritz*: *Areyzmendi* (1615), *Arizmendi* (1813)
ttipi > *txiki*: *Ydiaçabal Chipia* (1615), *Ydiazaval Chiqui* (1813)
andi > *aundi*: *Belaunçaran Andia* (1615), *Belaunzaran Aundi* (1818)

Aipagarria da, ere, dokumentu zaharrenetan *garaicoa* eta *azpicoa* azaltzen den bitartean, berriagotan *goicoa* eta *becoa* nagusitu izana.

Bukatzeko, esan behar da atal berezi bat osatzen dutela azken urteotan eraikitako etxe berrien izenak. Berriak izanik ez dugu oinarri dokumental edo bibliografikorik, eta bestetik ez dira izen erabiliak. Gainera, toki gehienetan bezala, Andoingo etxe berri gehienei errotugabeko eta interes gutxiko izenak eman ohi zaizkie. Horregatik, hauek idazterakoan soilik gidoiak kendu eta zenbaitetan osagaiak elkartu ditugu. Ezin daiteke esan, beraz, hauen normalizazio linguistikoa egin dugunik. Bestetik, esan behar da, hauei sarritan *chalet* edo *villa* generikoa ematen zaiela, baina ez dakigu zertan oinarrituta, maiz antzeko eraikinak direnek generiko ezberdina baitute eta, hala, guztiak 'etxe' gisa azaldu ditugu. Dena den, aipagarria da baserritarrek landan eraikitako etxeentzat erabiltzen duten izen polita, horiei *kaletxeak* esaten baitiete.

Orain artekoa, nolabait esateko, ahozko erabilera eta iturri dokumentalen aipamenetan oinarrituriko normalizazioa genuke, baina normalizazioarako proposamenak luzatzerakoan beste zenbait arazori ere aurre egin behar izan diogu, hala, noiz elkartu espezifikoaren osagai ezberdinak edota nola lotu generikoa eta espezifikoa. Azken atal honetan hartutako erabakiak maiz arbitrarioak eta pertsonalak izan dira eta, beraz, aldagarriak, lehen esan bezala, gure ustez toponimoen normalizazioa burutzeko erizpide bateratuak jarraitu

behar bailirateke. Segidan, egoera bakoitzean zein erabaki hartu dugun azalduko dugu:

a) Toponimoa generiko eta adjetibo edo lokatibo batez osatuta dagoenean biak batuta idatzi ditugu: *Kaleberria*, *Errotazar*, *Garaikoetxea*, *Goi-koplaza*,... Kasu hauetan bi osagaien arteko lotura oso estua da, hau da, biak osatzen dute espezifikoa eta horregatik ezin dugu bietako ezin soilik erabili.

b) Espezifikoaren osagaietako bat lokatiboa edo kalifikatzailea denean bananduta idatzi dugu: *Arrantzu Goikoa*, *Garro Berri*... Bigarren hori soilik izen bereko beste baserri bat eraikitzerakoan azaltzen da eta bietako bat desagertzean kalifikatzailea edota lokatiboa ere maiz desagertu egiten da. Gainera, ez erabiltzeak zehaztasun eza dakar, baina zilegi da eta toponimoak ez du horregatik esanahi guztia galtzen. Ordea, adibidez, *Sagastiberri Etxea* idatzi dugu, ez delako inoiz *Sagasti* izeneko beste etxerik izan eta, ziur aski, *Sagastiberri* izeneko lur sailean eraikia izanagatik eman zaio izena (ikus 'a' atala).

c) Informatzaileek, kasu batzutan salbu, ez dituzte generikoak erabiltzen eta erabiltzeak espezifikoa eta generikoaren arteko lotura berezia edo estuagoa adierazten du gure ustez —hemen ez ditugu sartzen 'a' atalean azaldukoak—. Horrela, *Zillarriturri* eta *Ondarzulo* bezalakoetan ezinbestekoa da, ulergarria gertatzea nahi bada, bi osagaiak erabiltzea. Ordea, *Elkor Gaina* eta *Buruntza Mendia* bezalakoetan, ez dirudi, beti aipatzen ez dutenez, informatzaileek horrelako beharrik somatzen dutenik, generikorik gabe ere ulergarriak gertatzen direlarik. Horregatik lehenengoak elkartuta eta besteak bananduta idatzi ditugu. Gertatzen da ere zenbait lekuk izen bera izatea, adibidez, baserri batek eta bere ondoko gainak eta azken hauetan, gehienbat (normalean baserrien izenetan daude oinarriturik besteak), derrigorrezkoa da generikoa erabiltzea. Adibidez: *Garate Baserria* eta *Garate Gaina*. Dena den, horrelakoak ere, nahiz eta informatzaileek bigarren horien generikoa beti aipatu, bananduta idaztea erabaki dugu. Gauza bera egin dugu genitiboaren bidez elkar-turik daudenekin: *Tiloetako Gaina* eta *Trikuetako Malda*.

Arau internazionalak diotenez, toponimoa espezifikoa eta generiko batez osatuta dago: *Belkoain* (esp.) *Mendia* (gener.) eta kasu bakar batzutan salbu biak idatzi behar dira. Arau beroiei jarraiki, ez da onargarria toponimo berean bi generiko azaltzea, ez bada elkarren artean harremanik ez dagoelako. Adibidez: *Etxeberria Baserria* gaizki legoke, *etxe* eta *baserria* biak bizitokia adierazten dutelako —nahiz eta mota desberdinetakoak izan—. Ordea, gure ustez, *Sagastiberri Etxea* zuzena da. Era berean, *Zillarriturri Erreka* zuzena ez den aldetik bada *Benturaiturriko Erreka*, bigarren kasu honetan, osagaien arteko loturak adierazten duen bezala, *iturrik* ez duelako generiko funtziorik betetzen. Oikonimoetan badira generikoaren esanahia eta funtzioa betetzen duten atzizki batzuk, hala nola *-ren(a)*, *-ene(a)* eta *-tegi(a)*. Lehenengo bietan *etxe* edo *bizitoki* adiera garbia denez, generikotzat onartu ditugu: *Perikonea*, *Enekorena*, etab., hirugarrena, ordea, ez. Atzizki hori 'bizitoki' adieraz gain —izen edo deitura baten atzetik: *Perikotegi*— 'leku' zentzuaz ere azaltzen da: *Gaztaindegi*, *Munttegi*. Horregatik, adiera garbia izan dadin, *-tegi(a)* / *-degi(a)* atzizkia duten toponimoetan entitate zehatzago adierazten duen generikoa azaldu dugu.

Erabilerak finkaturiko generikoez ez dute beti entitate geografikoa

zehaztasunez adierazten. Adibidez, *Garate Gaina* izenekoak berez mendia da, baina, lehen esan bezala, generikoen errepikapena ez da onargarria eta, beraz, horrelakoetan, erabiltzen den eran utzi dugu toponimoa. Horregatik, erabiltzen ez den toponimoetan entitatea zehaztasunez adierazten duen generikoa 'emateko' aukera izan dugu. Adibidez, *Pardaki Bizkarra*. Puntu honetan aipatu beharrean gaude sarritan zaila gertatu zaigula antzeko entitateen arteko bereizketa egitea: muinoa, gaina eta mendia, adibidez, zehazki zer diren jakitea eta zerk ezberdintzen dituen. Beste zenbaitetan, berriz, baserri eta etxe baten arteko bereizketa gertatu zaigu gaitza, gehienbat, eraberrituriko baserriak direnean edo desagertuta daudenean. Guzti honen ondorioz beharrezko somatzen dugu entitate geografikoen definizio zehatz eta zorrotz bat egitea. Definizio horren beharra dago ere generiko odonimikoei dagokionez, generiko bera duten komunikazio bideak —kaleak, etorbideak, pasealekuak,...e.a.— ezaugarri amankomunak izan behar bailituzkete.

Generikoen erabilerak beste arazo bat sortu digu, gehienbat oikonomoen artean, hitzegiterakoan generikoa ez erabiltzeak espezifikoa mugatzea ekarri baitu: *Allurralde Goikoa*, *Ikutza Zarra*,...e.a. Horrelakoetan, eta generikoa idaztearen beharra onartu eta arautzen ez den bitartean, espezifikoa ez ikutzea erabaki dugu, hots, egokia ez iruditu arren, erabiltzen den edo dokumentatuta dagoen espezifikoiari besterik gabe generikoa ipini diogu ondoan: *Allurralde Goikoa Baserria*, *Ikutza Zarra Etxea*,...e.a.

Bukatzeko esan behar da hagianimoen bi osagaiak bananduta idatzi ditugula. Baserri, zubi edo elizaren izena delarik ere, informatzaile gehienek bi osagaiak batzen dituzte hitzegitean: *Sanesteban*, *Santakrutz*,...e.a., baina eliza eta ermiten kasuan bananduta idazten den bezala, egokiago iruditu zaigu besteak ere halaxe idaztea.

2.4. Normalizazio geografikoaren atalean toponimoen kokapenez arduratu gara, hau da, leku izenen kokapena mapa batean grafikoki adierazteaz. Ikusirik argitaratutako mapetan azaltzen den toponimo kopuru urria, nola dauden idatzita eta kokapena ere maiz gaizki dagoela, hasieratik ikusi genuen mapa egoki bat osatzeko beharra. Bestetik, gainontzeko lan guztiak balio praktikoa izan dezan nahi bada, ezinbestekoa da ikerketa guztiaren ondorioak mapa batean isladatzea. Toponimoen kokapena ezagutu eta azaltzeko neurri handi batean horien berreskuraketa eta erabilpena baitakar, bidebatez mapa bera hedabiderik onenetakoa delarik. Kokapenez gain, tratamendu geografikoaren ardura da ere, lehen aipaturiko generiko egokien finkapena eta leku izena zein entitateri dagokion azaltzea.

Toponimoen berri informatzaile eta iturri dokumentalen bidez izan badezakegu, horien kokapena, gehienetan, soilik informatzaileen bidez lor liteke. Dokumentazioan erreferentziak orokorrak izaten dira eta gure lan honetan gutxi dira dokumentuen oinarri bakarrarekin kokatu eta berreskuratu ahal izan ditugunak.

Mapa lanaren azken atala da, horretarako ezinbestekoa baita toponimoen hizkuntzaren tratamendua eginda eta leku bakoitzeko izen bakarra aukeratua izatea (erabiliena, orijinalena, dokumentazioan gehien aipatzen dena, e.a.). Maparen alde batean hirigunea soilik azaltzen da 1:4.000 eskalan eta

bestean landa 1:10.000 eskalan. Asmoa lehena 'callejero' gisa erabiltzea da eta horregatik bertan odonimoek dute lehentasuna. Landakoan, berriz, jasotako toponimo gehienak azaldu ditugu, hau da, erabilienak izango direnez gain (baserriak, mendiak,...), ezagutu ahal izan ditugun iturri, borda eta abarrenak ere. Dena den, zenbait tokitan toponimo ugari izateagatik, hain garrantzitsuak ez direnak kendu egin behar izan ditugu, landako mapan azaltzen direnak, guztira, 500 toponimo inguru izango direlarik. Esan behar da ere batzutan ez zaigula batere erraza gertatu kokapen zehatza ezagutzeko, informatzaileek iritzi kontrajarriak agertu dituztelako edo hauetariko inorekin bertara joaterik izan ez dugulako. Bereziki aipagarria da Aizkorriren mendebaldeko errekatxoaren kasua. Malda horretan barrena isurian datozen errekatxo eta iturriak ugari dira eta ezin izan dugu inongo informatzaileekin bertara joaterik izan. Errekatxoak pinu artetik jaisten direnez, bata bestetik bereizteko erreferentziak eskasak dira eta sarritan ez oso zehatzak. Gainera, denek ez dute izenik edo batzutan errekatxo bera informatzaile bakoitzak izen ezberdin batez ezagutzen du.

3. Obarrak

Toponimo bakoitzaren azalpena eskema bati jarraiki ataletan banatu dugu. Horregatik, hemen azalduko ditugun oharrak irakurri eta bi edo hiru toponimoen azalpena ikusi ondoren, lanaren kontsulta edota irakurketa erreza eta arina gertatuko delakoan gaude. Hala espero dugu behintzat. Jarraian, atalez atal, bakoitzaren azterketa egingo dugu:

***TOPONIMOA.** Azalpenaren buruan toponimoaren normalizazio proposamena agertzen da, eta sarrien izen bakar bat ematen den arren, ez da beti horrela gertatzen:

—Izenak gidoi batez bananduta badaude, toki beraren izenak direla adierazi nahi da. Hauen artean edozein da egoki erabiliak direlako, dokumentatuta daudelako, etab., baina, oro har, lehendabizi idatzitakoa da mapan azaltzen den bakarra eta, beraz, lekua izendatzeko aukeratu duguna.

—Oikonimoen kasuan, izenak barra batez banatuta azal daitezke, ezkerretara dagoena jatorrizko izena —eskrituratu, dokumentatu,...— eta eskuinekoa erabilerak finkaturikoa delarik. Gehienetan jatorrizkoaren alde egin dugu.

—Lerro ezberdinetan baldin badaude, toponimo ezberdinak dira eta azalpen berean agertzeak horien arteko harremana edo lotura berezi bat adierazten du.

—Oikonimoaren aurrean gurutzetxoak egoteak egun etxea desagertuta dagoela adierazten du.

—Toponimoa minuskulaz idatzita badago, horrela 'toponimo' horren garrantzirik eza azaldu nahi izan dugu: erabilera txikikoa delako, informatzaileek zerbait esatearren emandako izena delako, e.a.

—Toponimoaren ordez generikoa parentesi artean azaltzen denean, entitate horiek izenik ez dutela edo oraindik ez direla ezagunak adierazten dugu. Hori da, adibidez, etxe berri zenbaiten kasua.

***AHOZKO ERABILERA.** Atal honetan galdeketaren emaitzak azaldu ditugu. Adibidez:

5/4 *Mendiola* (3)

Mendiolania

5/4 *Tuduri* (3)

Tudurinia

—Barraren ezkerretara dagoen zenbakiak toponimo bakoitzaren berri eman digun informatzaile kopurua da. Adibide honetan bost izan dira.

—Barraren eskuineko zenbakiak, berriz, tokia izen beraz, nahiz eta agian forma ezberdinaz, ezagutu edo erabiltzen duen informatzaile kopurua da. Adibide honetan tokia bi izenez da ezagun, hiru informatzailek bi izenak aipatu dituztelarik.

—Parentesi arteko zenbakia erantzun bera eman digun informatzaile kopurua da. Nahiz eta tokia izen jakin batez ezagutu, sarritan informatzaileek era ezberdinetan eman digute toponimoa. Goiko kasuan, adibidez, hiru informatzailek esan digute *Mendiola*, laugarrenak, berriz, *Mendiolania*. Bigarren kasu honetan toponimoaren eskuinean zenbakirik ez azaltzeak informatzaile bakarra dela adierazten digu. Beste batzutan, ordea, barraren eskuineko zenbakiarekin bat datorrela adierazten du. Adibidez: 11/3 *Txoriyana*, baina erreza da bereizketa egitea, azken kasu hauetan antzeko erantzunik ez baitago.

*DOKUMENTAZIOA. Atal honetan dokumentazioan toponimoei buruz aurkitutako aipamenak jaso ditugu. Oro har, aipamenak zaharretik berrienera azaltzen dira, dokumentuaren data lehen mailan idatzi dugularik. Adibidez: 1818 *Galardi*. Est.p.i. 62H/7.

Parentesi artekoa dokumentuaren signatura da, baina dokumentuaren izen osoa jakin nahi bada —Est.p.i. izenaren laburdura da— dokumentazioaren zerrendara jo behar da, dokumentuak zenbakien arabera ordenatuta azaltzen direlarik (44H/5, 44H/7,... 62H/7). Zenbait kasutan signaturan ez da horrelako zenbakirik ageri eta hauek dokumentuen zerrendaren hasieran, ordena alfabetikoz, azaltzen dira.

Dokumentu guztien data eman dugun arren, ez, ordea, aipamena zein orrialdetan azaltzen den. Horren arrazoia dokumentu gehienak espedienteak izatea da, hauek ez baitaude orrialde zenbakituz antolatuta. Zenbaitetan, dokumentu sorta bakoitza urtea edo hilabetearen arabera ordenatuta dago, eta, horregatik, kasu batzutan aipamenaren ondoan data osoa idatzi dugu. Amilaramenduetatik jasotako toponimoetan, berriz, jabearen inzialak (izena eta bi deiturak) idatzi baditugu, dokumentuan toponimoak abizenen ordena alfabetikoa jarraituz aipatzen direlako izan da.

Toponimo batzuk, izan duten garrantziagatik edo, oso sarritan agertzen dira dokumentazioan, eta horrelakoetan ez ditugu adierazgarrien diren aipamenak baino jaso. Zenbaitetan toponimoaren aipamen soila ez baizik eta testuinguruaren zati bat ere azaldu dugu, kokapenari buruz zenbait datu agertzeagatik edo bestelako informazio interesgarria edo bitxia emateagatik.

*BIBLIOGRAFIA. Atal honetan, berriz, liburuetan azaltzen diren aipamenak jaso ditugu, kasu honetan idazlearen izena eta orrialdea ere ematen ditugularik. Dena den, datu guztiak osorik izateko bibliografiaren zerrendara jo behar da.

*KARTOGRAFIA. Toponimo zenbaiten aipamenak mapetatik jaso

ditugu eta horiek atal honetan ageri dira. Kasu honetan ere data eta inimiziaz, horien bidez kartografiari dagokion atalean maparen beste datuak eskura daitezkeelarik.

*KOKAPENA. Atal honetan toponimoak duen kokapenari buruzko datuak azaldu ditugu. Aurkibidera jo ezkerreko, berriz, toponimoa mapan aurkitu ahal izateko erreferentzia eskura daiteke. Dena den, zenbait kasutan lortutako datuak ez dira kokapena ziurtatzeko edo zehazteko nahikoak, eta horrelakoetan (5) —gutxi gorabeherako kokapena— edo (?) —zalantzarikoa kokapena— ikurrak ipini ditugu. Oikonimoen atalean, berriz, sarritan izan dugu desagertutako etxeen kokapena ezagutzeko aukera eta parentesiak erabili ditugu hori adierazteko. Adibidez: KOKAP.: (Kale Nagusia 33). Parentesi arteko ohar honetatik desagertutako etxea gaur kale Nagusiko 33. zenbakia duen etxearen orubean zegoela adierazi nahi dugu.

*OHARRAK. Azken atal honetan azaltzen duguna ez da edukiari dagokionez finkoa toponimo guztietan, zenbaitetan alde linguistiko interesgarriak azaldu baititugu, eta beste batzutan, berriz, lekuaren ezaugarri geografikoak edo toponimoari buruz entzundako istoriotxoak.

Aipatutako hau orokorrean erabilitako metodologia izan arren, esan beharrean gaude herrigune zaharreko etxeei arreta berezia eskaini diegula. Arrazoiak, kaleko galdeketa eta dokumentazioan jasotako oikonimo kopuruen arteko alde izugarria izan da. Horregatik, 1897. urtean herrigunea osatzen zuten etxeen izenak eta kokapena azalatzeko erabaki genuen, horretarako herriguneko 1896. urteko mapa eta 1897ko etxe-zerrenda, etxeetako eskriturak eta jabeen testigantza funtsezko iturriak izan direlarik.

1897ko dokumentuan (Est.e, 48H/4) oikonimoak kalez kale eta zenbakien ordenaren arabera azaltzen direnez, honetan oinarrituta osatu genuen lehen inguruketa. Ondoren, eskrituren bidez izena eta kokapena banan-banan frogatuz. Hala ere, arazo ugariekin egin dugu topo. Alde batetik esan behar da, zenbaitetan ezin izan dugula eskrituren berri izan eta, beste batzutan, berriz, eskrituretako izena 1897ko zerrendakoarekin ez zetorrela bat. Kontutan izan behar da ere ez dugula etxeen eraikitze data galdetu eta mende bukarako etxe ugari bota eta izen berriak (edo gabekoak) dituzten beste asko eraiki direla. Gainera, maiz, etxeek bi izen edo hiru ere dituzte/zituzten eta dokumentu batzutan hauetako bat eta besteetan beste bat ager daiteke.

Honekin guztiarekin ez dugu ikerketaren emaitzei baliorik kendu nahi, baina bai azpimarratu datuak ezin direla itsu-itsuan hartu. Etxeen kokapena eta izena zenbait daturen interpretazioan oinarrituta dago eta, kasu batzutan frogatu ahal izan dugunez, datu berriak eskuratzeak hipotesia zeharo alda dezake. Beraz, kasu bakoitzean izandako oinarri eta gorabeherak erakutsiko digute hipotesi bakoitzaren ziurtasun-maila.

Amaia Usabiaga Flores

Laburdurak

AHOZKO ERAB.: ahozko erabilera (ikus gorago 3. Oharrak)

Al.: alea

Ap.V.: ikus bibliografian L. Mitxelena

ASEF: *Anuario de la Sociedad Eusko Folklore*

BEHSS: *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*

BIBLIO.: bibliografia (ikus gorago 3. Oharrak)

BRSVAP: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*

Edit.: editorial

ETM: ikus bibliografian L.Mª Mujika

FLV: *Fontes Linguae Vasconum*

I.A.: Iñaki Agirre (ikus Sarrera)

KARTOGRAF.: kartografia (ikus gorago 3. Oharrak)

KOKAP.: kokapena (ikus gorago 3. Oharrak)

OHAR.: oharrak (ikus gorago 3. Oharrak)

Orr.: orrialdea

Signa.: signatura

TOP.: toponimoa (ikus gorago 3. Oharrak)

Urt.: urtea

(5): gutxi gorabeherako kokapena (ikus gorago 3. Oharrak)

(?): zalantzazko kokapena (ikus gorago 3. Oharrak)

Bibliografia

AGUIRRE SORONDO, A., *Tratado de Molinología*, Edit. Eusko Ikaskuntza, San Sebastián 1983.

AIZKIBEL, F., *Diccionario BascoEspañol*, Tolosa 1883.

ARREGUI, R., *Aspectos de la Vida e Historia de Andoain*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 1970.

AZKUE, R.Mª, *Diccionario Vasco/Español/Francés* (faksimila), Euskaltzaindia, Bilbo 1984.

BAZTARRIKA, P., *Andoaingo Azterketa Soziolinguistikoa*, Andoaingo Udala, 1989.

BENGOECHEA DORRONSORO, J., La incorporación de Andoain al moderno proceso de industrialización. Apuntes de una evolución: 1850-1925, *Leyçaur 1*, Andoain 1990.

BERMEJO, J., Dos figuras en la Historia de Andoain, *Andoain 1759-1959*, Andoain 1959.

COMMISSION DE TOPONYMIE, *Guide Odonymique du Québec*, Gouvernement du Québec, 1987.

Guide Toponymique du Québec. Politiques, Principes et Directives, Gouvernement du Québec, 1987.

DIEZ de SALAZAR, L.M., *Ferrerías de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*, San Sebastián 1983.

EKOS (Estudios Ambientales S.L.), *Andoaingo Natura*, Andoaingo Udala, 1991.

ELEIZALDE, L., Lista alfabética de voces toponomásticas vascas, *RIEV XXIII* (1922), *XXVI* (1936), *BRSVAP XIX* (1963), *XX* (1964).

BIBLIO. *Barida, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Etxeberrieta Auzoa, z/g.

OHAR.: 1813. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Gaur, ondoko baserria ere *Barri(d)a* izenaz ezagutzen da. Galdeketaren emaitzetan ageri denez, bokalarteko herskaria ez da ahoskatzen.

TOP.: TXITIBAR BERRI ETXEA / Las casas azules
 † **MIRANDA BASERRIA**

- AHOZKO ERAB.:** 5/5 *Casas Azules* (3)
La Casa Azul
Etxe Urdiña
 5/1 *Monjetako Etxiak*

DOKUMENT.:

- 1897 *Chitibar Berri, Calle de Larramendi 2*. Est.e. 48H/4.
- 1615 *Miranda de Arriba La Mayor; Miranda de Suso*. I.E.A.
- 1813 *Miranda*. Lis.t. de A.
- 1818 *Miranda*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Miranda*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Miranda, Cuartel del poniente 5*. Est.e. 48H/4.
- 1950 *Barriola A - Barriola B, Calle Larramendi 2-4*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 2-4.

OHAR.: Balkoi eta leihoen kolorean datza *Las casas azules* deitzea. Jabea denak edo izandakoak (Barriola abizenekoa) etxearen izena *Txitibar Berri* edo *Miranda Zar* dela esan arren, *Miranda* etxe honen ondoan zegoen baserriaren izena da. Dokumentazioan ageri denez, bestalde, bi izan dira *Miranda* izeneko baserriak, baina hauetako bat 1813-rako jadanik desagertuta zegoen.

Lau solairuko etxe honetan izandako sutearen ondorioz, egun ez da bertan inor bizi eta eskubialdean izandako kalteak hain izan dira ugari eta handiak, alde hori behintzat berreskura ezina izango dela.

TOP.: LAUGARREN(A) ETXEA / ZEFERINONEA

DOKUMENT.:

1857-64 *Laugarrena*. Nomen., 83. orr.

1862 *Laugarren-echea (casa) ó Bosgarren echea*. I.c.h., H-532.

1897 *Laugarren Echea, C/ de Larramendi 21*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 21.

OHAR.: Galdeketaren atalean jaso ez den arren, jabeak etxea *Zeferino* izenez ezagutzen dela esan digu. Bestelakoa da, ordea, dokumentazioan azaltzen den izena. 1862. urteko dokumentuan bi izenekin azaltzen da, baina ordenari dagokionez, ez gaur ez eta 1897. urtean behintzat, ez da kale honetako ez laugarren ez eta bosgarren etxea izan. Esan behar da ere kale honetan (Aita Larramendi Kalea) ez dela 1897. urteaz geroztik etxe berririk eraiki eta horregatik ez da zenbaki aldaketa nabarmenik izan. Horrela, 1897. urtean etxeak zuen zenbakia gaur duen bera da.

TOP.: LONDRES ETXEA

DOKUMENT.:

1897 *Londres, Calle de Larramendi 15*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 15.

OHAR.: 1897. urteko etxe zerrendan agertzen den izena bat dator etxearen eskrituretan jasotakoarekin (ikus LAUGARRENA oharra).

TOP.: ZABALANEA BERRI

DOKUMENT.:

1897 *Zabalanea Berri, C/ de Larramendi 19*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 19.

OHAR.: Eskrituretan etxearen izena jasotzen ez den arren, bai ordea orubearena: "...construída en la finca urbana denominada Zabala-enea..." (ikus LAUGARRENA oharra).

TOP.: SUIZA ETXEA

DOKUMENT.:

1897 *Suiza, Calle de Larramendi 11*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 11.

OHAR.: Etxe honetan jaio zenetik bizitutako lagun batek 1897. urteko zerrendak dakarren izen bera eman digu (ikus LAUGARRENA, oharrak).

TOP.: PEKIN ETXEA

DOKUMENT.:

1897 *Pequin, Calle de Larramendi 13*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 13.

OHAR.: 1897. urteko zerrendaren bidez izan dugu etxe honen izen eta kokapenaren berri (ikus LAUGARRENA, oharrak).

TOP.: † TXITIBAR TXIKI ETXEA

DOKUMENT.:

1862 *Chitivar chiqui ó Yturrioz (casa)*. I.c.h., H-532.

1897 *Chitibar Chiqui, C/ de Larramendi 3*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi kalearen hasieran zegoen.

OHAR.: 1985. urtean zutik zegoenez, kale honetako biztanle gehienek gogorutzen dute oraindik etxea eta beronen izena ere. 1862. urteko dokumentuaren arabera, etxeak bi izen zituen, baina bigarren hori ez dirudi oso ezaguna zenik, informatzaileek ere *Txitibar Berri* izenaz soilik ezagutzen zutelarik. 1896. urteko mapan ez da agertzen eta urte bat geroago egindako zerrendan hirugarren zenbakiaz azaltzen den arren, etxea, ordenaren arabera, lehengo zen, hau da, Zipitrianea eta *Txitibar* baserriaren artean zegoen.

TOP.: HIPOLITONEA / MARIANONEA

DOKUMENT.:

1897 *Hipolitonea, Calle de Larramendi 29*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 29.

OHAR.: Informatzaile baten esanetan etxea garai batean *Marianonea* izenaz ezagutzen zen. 1897. urteko etxe zerrendaren arabera, berriz, *Hipolitonea* da etxe honen izena (ikus LAUGARRENA, oharrak).

TOP.: ESKOLETXEA**DOKUMENT.:**

1897 *Escuelas, Calle de Larramendi*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 31.

OHAR.: Garai batean eskola izandakoa, egun etxebizitza dena, auzokoek *Eskoletxea* izenaz ezagutzen dute. Ez da 1896-ko mapan azaltzen.

TOP.: PORTERIKO ITURRIA - KONTRARREJISTROKO ITURRIA

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 33.

OHAR.: Informatzaile baten esanetan, *Algodonera* lantegiaren *porteria*-ren ondoan zegoelako deitzen zaio iturriari horrela, baina Kontrarregistro baserriaren ondoan jaiotzen denez *Kontrarregistroko Iturria* ere esaten omen zaio.

TOP.: ZORIONEKO(A) ETXEA**DOKUMENT.:**

1897 *Zori-onecoa, Calle de Larramendi 29*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 27.

OHAR.: 1897. urteko zerrendaren bidez izan dugu etxe honen izen eta kokapenaren berri (ikus LAUGARRENA, oharrak). Kasu honetan zenbakiak ez datoz bat, baina hau, gure ustez, hurrengo etxean izandako aldaketagatik litzateke (Ikus MUÑAGORRINEA eta FORTALEZA ETXEBERRI, oharrak).

**TOP.: MUÑAGORRINEA
FORTALEZA ETXEBERRI****DOKUMENT.:**

1857-64 *Muñagorriñea; Echeberri-fortaleza*. Nomen., 83- 82. orr.

1897 *Muñagorriñea, Calle de Larramendi 25*. Est.e. 48H/4.

Fortaleza Echeverri, " 27 "

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 25.

OHAR.: 1897. urteko etxe zerrendan bi zenbaki ezberdinekin agertzen diren arren, egun hutsik eta egoera txarrean dauden bi etxe hauek zenbaki bakarra dute.

TOP.: BABILONIA ETXEA**DOKUMENT.:**

1897 *Babilonia, Calle de Larramendi 17*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 17.

OHAR.: Etxe honen izen eta kokapenaren berri 1897. urteko etxe zerrendaren bidez izan dugu (ikus LAUGARRENA, oharrak).

TOP.: MERDILLADI BERRI ETXEA

DOKUMENT.:

1857-64 *Merdilladi-berri*. Nomen., 83. orr.

1897 *Berdilladi Berri, Calle de Larramendi 9*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 9.

OHAR.: Etxe honen izen eta kokapenaren berri 1897. urteko zerrendaren bidez izan dugu (ikus LAUGARRENA, oharrak eta MERDILLADI BASERRIA).

TOP.: ZAKARIASENEA

DOKUMENT.:

1897 *Zacariezanea, Calle de Larramendi 7*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 7.

OHAR.: 1897. urteko etxe zerrendaren bidez izan dugu etxe honen izen eta kokapenaren berri (ikus LAUGARRENA, oharrak).

TOP.: KANTOIBERRI ETXEA

DOKUMENT.:

1897 *Cantoy Berri, Calle de Larramendi 5*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Aita Larramendi Kalea, 5.

OHAR.: 1897. urteko etxe zerrendaren bidez izan dugu etxe honen izen eta kokapenaren berri (ikus LAUGARRENA, oharrak).

**TOP.: AITA LARRAMENDI ATZEKALDEA - ETXEBERRIETA
AUZOA**

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Etxeberrietako Atzia* (2)
Etxeberrietako Atzekaldia (2)
Etxeberrieta (2)
Etxeberrieta Atzia
Etxeberrietako Etxeko Atzia
Etxeberrieta Atzekaldia

OHAR.: Harrigarria bada ere, nahiz eta errotuluan ipinita egon, galdeketa ez du inork kale edo atzekalde honen izen ofiziala aipatu. Hala ere,

informatzaile gehienek alde honi, Aita Larramendi kaletik bereiztuz, *Atzia* edo *Atzekaldia* esaten diote.

Esan behar da, bide batez, errotuluan *Larramendi Atzekaldea* azaltzen bada ere, atzekaldeak izena kaleak duen era beretsuan izatearren, egokiago litzatekeela hemen ere *Aita Larramendi* ipintzea edo, nahi izan ezke-ro, erabiliago den *Etxeberrieta Atzekaldea* finkatzea.

TOP.: BELABI KALEA

- AHOZKO ERAB.: 5/3 *Belabi*
 5/2 *Barrio Xanesteban*
Xanesteban
 5/1 *Etxeberrietako Atzia*

OHAR.: Hiru informatzailek eman digute kale honen izena. Kale honetako etxeak Goiburu (San Esteban) eta Etxeberrietako auzoen artean dau-denez, aipatu auzoen izenak kale honentzat ere jaso ditugu (ikus BELABI MENDIA, oharrak).

TOP.: TXITIBAR BASERRIA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Txitibar*

DOKUMENT.:

- 1615 *Albichitibar*, Sitibar. I.E.A.
 1813 *Chitibar*. Lis.t. de A.
 1818 *Chitibar*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Chitibar*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Chitibar*. Est.e. 48H/4.

- BIBLIO. *Chitivar*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Txitibar, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Belabi Kalea, 2.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Ba-serri zahar hau egun hirigunearen barruan geratzen da eta bere egoera ona da.

TOP.: MARISOL ETXEA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Marisol* (4)
Villa Marisol

KOKAP.: Belabi Kalea, 7.

OHAR.: Txitibar baserriaren ondoan dago eta etxea nahiko berria den arren (azken hogeitazero urteotako eraikia), galdeketa parte hartu duten infor-matzaile guztiek eman dute honen izena.

TOP.: KARRIKA KALEA - KARRIKA AUZOA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Karrika*

DOKUMENT.:

1950 *Carrica*. Cen. y p. 44/1.

1960 *Carrica*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Karrika*. Cen. y p. 45/1.

OHAR.: Galdeketa jasotako *Karrika* izena bi entitate ezberdini dagokio, hots, kaleari eta honen inguruko etxeek osatzen duten auzoari. Azken honi *Sorabilla* eta *Polígono Sorabilla* ere esaten zaion arren (autobus gidariari geltokia adierazteko, adibidez), auzokoek argi eta garbi adierazi digute izen horiekiko ezadostasuna, *Sorabilla*, zubiaren bestaldean hasten den auzoa omen delako.

TOP.: ASINDEGI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Axindei* (3)
Axindegi (2)
Atsegindegi
Ascendegi

DOKUMENT.:

1615 *Assia(y)ndegui(a)*. I.E.A.

1813 *Azindegui*. Lis.t. de A.

1818 *Asindegui*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Asindegui*. Nomen., 81. orr.

1897 *Asindegui*. Est.e. 48H/4.

BIBLIO. *Aziendegui*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Asindegui, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: *Karrika*, 1.

OHAR.: Jendeak iritzi ezberdinak ditu baserri honen jatorrizko izenari dagokionez eta *Atsegindegi*, *Ascendegi* edo *Asundegi* dira hauek proposaturiko etimologia zenbait. 1615. urteko dokumentuetan azaltzen denez, ordea, badirudi gaurko izenaren oinarrian *Assia(y)ndegui(a)* dagoela, hau da, *Asiainen etxea*. Baserri zaharra da eta bere egoera, kanpotik behintzat, ez da oso bikaina.

TOP.: ASINDEGIONDO ETXEA

DOKUMENT.:

1937 *Asindegui-ondo*. Pad.m.h. 65H/1.

1950 *Asindeguiondo*. Cen. y p. 44/1.

1970 *Asindegui-ondo*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: *Karrika*, 3.

OHAR.: *Asindegi* baserri zaharraren ondoan dago mende hasieran eraikitako etxe hau.

TOP.: KARRIKAKO ERROTA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Karrikako Errota*
 5/1 *Karrika*
 5/1 *Errota*

DOKUMENT.:

1950 *Agai(t)zco-errota*. Cen. y p. 44/1.
 1960 *Carricaco-errota*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Karrikako-errota*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Karrika, 5.

OHAR.: Errota izateko asmotan eraiki bazen ere, ez zuen iharduera horretarako baimenik jaso eta, horrenbestez, bertan ez da inoiz errota lanik egin. Bertara etorri zirenak Adunako *Agaizko Errota*-koak ziren eta 1950-eko erroldan Andoaingo hau ere izen honekin ageri da.

TOP.: IZTURITZAGA TORREA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Iztuizatorre (5)*
Iztuizta Aundi

DOKUMENT.:

1615 *Yzturizaga Torrea*. I.E.A.
 1813 *Esturizagamaior*. Lis.t. de A.
 1818 *Ysturizaga Torrea*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-62 *Isturizaga-torreá*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Ysturizaga Mayor*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Isturizaga Torrea*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Iztuizta Torre*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Izturisaga*. L. Isasti, *Compendio*. 102. orr.
Isturizaga-Toréa y -Txiki, caseríos de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
 "...señores de Isturizaga pertenecientes al bando oñacino...". M. Le-
 cuona, *Berrospe*, 13. orr.
 "...Una de estas torres, era la de 'Isturizaga', imponente aun hoy
 por sus proporciones. Servía de defensa contra incursiones que
 podían venir de la parte de Navarra por Amasa o Tolosa o de
 Azpeitia...". R. Arregui, *Andoain*, 18. orr.

KOKAP.: Karrika Kalea, 10.

OHAR.: Informatzaileek *Iztuizatorre* esaten dute, herskari ahoska-bea erabiliz, eta dokumentu gehienetan ere horrela idatzita azaltzen da.

R. Arregik ere eraikinaren bikaintasuna azpimarratzen du. Lau solairu ditu eta Andoainen dorretxe izandakoen artean gainera, honek gorde du ondoen eraikin horren itxura, oraindik dorrearen zati bat duelarik. Egun, etxebizitzatan banatuta dago eta, tamalgarria bada ere, bere egoera ez da batere ona (ikus IZTURITZAGA TXIKI, oharrak).

TOP.: ITURRIOTZ BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/3 *Iturrioz*
 5/2 *Iturriotz*
 5/1 *Itxubana*

DOKUMENT.:

1937 *Iturrioz*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Iturrioz-enea*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Caserío Iturrioz*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Karrika Kalea, 12.

OHAR.: Mende honen hasieran eraikitako baserria da, lehenbiziko aipamena 1937. urteko erroldan jaso dugularik.

TOP.: † IZTURITZAGA TXIKI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Iztuitza Txiki* (5)
Iztuitza
Eztu itza

DOKUMENT.:

1615 *Yzturizaga Chipia*. I.E.A.
 1813 *Esturizaga Menor*. Lis.t. de A.
 1818 *Ysturizaga Chiqui*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Isturizaga-chiqui*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Ysturizaga Menor*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Isturizaga Chiqui*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Iztuitza-chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.

KOKAP.: Azelaingo zubiaren parean zegoen (Andoaingo aldetik).

OHAR.: Informatzaile guztiek dute gogoan duela urte batzuk desagertutako baserri honen izena. Informatzaile baten esanetan *Eztu itza* litzateke izen honen jatorria. Mende honen hasierako erroldetan hasita iturri idatzietan ere izena sinkopatuta azaltzen da.

TOP.: IZTURITZAGA BERRI ETXEA

DOKUMENT.:

1937 *Iztuitza Berri*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Iztuitza-berri*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Iztuitza-berri*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Karrika Kalea, 8.

OHAR.: *Izturitzaga Torrea*-ren ondoan dago mendearen hasieran eraikitako etxe hau. Bertako bizilagun batek eman digu etxearen izena (ikus IZTURITZAGA TORREA eta IZTURITZAGA TXIKI, oharrak).

TOP.: † AZELAIN DORRETXEA
AZELAINGO ZUBIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Azelaingo Zubiya* (2)
Asalaingo Subiya
3/1 *Soabillako Zubiya*
3/1 *El Puente de las brujas*

DOKUMENT.:

1818 *Acelain*. Est.p.i. 62H/7.
1857 *Acelain, palacio de*. Pad.h.S. 96H/3.
1857-64 *Acelain*. Nomen., 103 orr.
1897 *Acelain*. Est.e. 48H/4.
1945 *Acelain*. P.m. de h. 27/2.
1945 *Puente Azelain*. Amil., jabea: M.E.E.

BIBLIO. *Acelain*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

- “...*el palacio de Acelain que es casa infanzona...*”. P. Madoz, *Diccionario*, 448. orr.
“...*hubo otras muchísimas y antiquísimas casas (...) las que nombra el bachiller Zaldivia son las siguientes: Acelain...*”. M. Larramendi, *Corografía*, 179. orr.
“...*Según el bachiller Zaldivia (...) parece ser que la casa Azelain de Sorabilla pertenecía al bando de los gamboínos...*”. R. Arregui, *Aspectos*, 19. orr.
“...*incursiones que podían venir de la parte de Navarra por Amasa o Tolosa, o de Azpeitia por el puente -legendario puente- de Azelain...*”. M. Lecuona, *Berrospe*, 6 orr.

KAP.: Karrika eta Sorabilla auzoen artean dago.

OHAR.: Lekuonak *legendario puente* dioena urak eraman zuen eta egungoa bere ordez eraikitako berria da. Jadanik ez dago ere zubiari izena eman zion *Azelain Dorretxea*. Hala eta guztiz ere, zubi berria zaharraren izen berberaz ezagutzen da. Oria ibaiaren gainean dago eta zubiak Karrika eta Sorabilla auzoak elkartzen ditu. Aipatu behar da ere Andoainen zubi eta sorginen artean dagoen erlazio bitxia, honentzat ere *puente de la brujas* jaso baitugu (ikus UNANIBIKO ZUBIA).

TOP.: ASINDEGIKO ARKUA

DOKUMENT.:

1904 “...*así como también en muy mal estado otro camino corto que se dirige del arco de Asindegui al caserío de Merdilladi...*”. Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Karrika kalean dago.

OHAR.: *Asindegi* baserritik gertu dago trenbidearen azpiko igarobide den arku hori. Kontutan izanik trenbidea dela Goiburu auzoaren muga, arku honek auzoa herriarekin lotzen duela esan genezake. Arku edo tuneltxo sendoa da, baina estua eta laburra.

TOP.: ASINDEGIKO ITURRIA

KOKAP.: Asindegiko arkuaren ondoan dago.

OHAR.: Informatzaile batek eman digu iturri honen izena. Iturriari ez dio batere mesederik egiten kalearen gertutasunak, honen urak jasotzen dituen harrizko aska sarritan zikinkeriaz beteta egon baita.

TOP.: ETXEBESTENEA

DOKUMENT.:

1937 *Echeveste-enea*. Pad.m.h. 65H/1.

1950 *Echeveste-enea*. Cen. y p. 44/1.

1960 *Echeveste-enea*. Cen. y p. 28/1.

KOKAP.: Karrika Kalea, 7.

OHAR.: 1937. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena. Bi solairuko etxe txikia da eta bere egoera ona da.

TOP.: KARRIKA ESKOLAURREA

KOKAP.: Karrika auzoan dago.

**TOP.: GURMENDI KALEA
† GURMENDI BASERRIA**

AHOZKO ERAB.: 5/3 *Gurmendi*
5/3 *Karrika*
5/3 *Polígono Sorabilla, Sorabilla*
Sorabillako Etxiak, Barrio Sorabilla
Polígono de Sorabilla

DOKUMENT.:

1615 *Gurmendi(a) (Egurmendi)*. I.E.A.

1813 *Gurmendi*. Lis.t. de A.

1818 *Gurmendi*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Gurmendi*. Nomen., 83. orr.

1897 *Gurmendi*. Est.e. 48H/4.

OHAR.: Egun CAR izeneko lantegia dagoen orubean zegoen baserriaren izena da kale honi ipinitakoa. Baserriaren lehen aipamena 1615. urteko dokumentuan aurkitu dugu eta honetan *Gurmendi(a)*-rekin batera jatorrizko izena izan daitekeena ere azaltzen da, hots, *Egurmendi*. Egindako galdeketaren arabera auzoaren izena kalearena bezain erabilia da. Aipatzekoa da ere inguruko zaharrek *Gurmendi* baserria ezagutu edo gogoratzen dutela, baina, aldiz, ez dutela kale honen izenaren berri (ikus KARRIKA AUZOA, oharrak).

TOP.: AIZTONDO KALEA

AHOZKO ERAB.: 5/3 *Aiztondo* (3)

Aiztondo

5/3 *Karrika*

5/3 *Polígono de Sorabilla*

Sorabillako Etxiak, Barrio Sorabilla

Sorabilla, Polígono Sorabilla

BIBLIO. “...*Tiene tres distritos, que de tiempo inmemorial se llaman alcaldías mayores (...) la de Aiztondo, y contiene Asteasu, Sorabilla y Larraul...*”. M. Larramendi, *Corografía*, 94. orr.

“...*Las alcaldías mayores a que me refiero eran tres: de Ariztondo, Areria y Sayaz, todas de inmemorable origen (...) la Alcaldía mayor de Aiztondo se componía en lo antiguo de los pueblos de Asteasu, Larraul, Soravilla...*”. P. Gorosabel, *Noticia de*, II. alea, 138-39. orr.

OHAR.: Kale honen izenaren jatorria, Asteasu, Larraul eta Sorabillak osatzen zuten Alkatetza Nagusiaren izenean datza. Kasu honetan ere, auzoaren izena kalearena bezain erabilia da (ikus KARRIKA AUZOA, oharrak). Esan behar da ere, nahiz eta Gorosabelek bere liburuan *Aiztondo* eta *Ariztondo* aipatu, Larramendik lehena bakarrik jasotzen duela.

TOP.: SANTA KRUTZ AUZUNEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Grupo Santakruz* (5)

Santakruz

Grupo Santakruz

5/1 *Cooperativa Alkartasuna*

5/1 *Lizarkolako Biria*

5/1 *Lenoko Larretako palaziyoko grupuak*

OHAR.: Errotuluetan *Grupo SANTA KURTZ AUZUNEA* eta *GURUTZE SANTUAREN ETXE TALDEA / GRUPO DE LA SANTA CRUZ* dago idatzita, baina, ez bata ez bestea, ez dira zuzenak. Kale izendegian *Santa Kurtz Auzunea* ipintzen duen arren, erabiltzen dena, ahoz nola idatziz (euskaraz behintzat), *Santa Krutz Auzunea* da (ikus SANTA KRUTZ ELIZA).

TOP.: GARAIKOERROTA

- AHOZKO ERAB.: 3/1 *Islan etxeak, Garaikoerrot*
 3/1 *Zentralekuak*
 3/1 *Las casas de la papelera*

DOKUMENT.:

- 1764 "...reedificación de la presa del molino de Garaikoerrot, propio del dho Leyzaur...". Lib.c.f., 63. orr.
 1813 *Garaikoerrot*. Lis.t. de A.
 1857-64 *Garáico-errot*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Garaico-errot*. Est.e. 48H/4.
 1950 *Garaico Errot* (Isla). Cen. y p. 44/1.

- BIBLIO.** "...Molino Garaiko-errot con producción de energía eléctrica para varios industriales de Andoain y luz eléctrica para dicha villa...". S. Múgica, *Geografía*, 88. orr.
 "...Que doña María Leizaur viuda de Isla, propietaria de un aprovechamiento hidráulico en el río Leizarán, en jurisdicción de la villa de Andoain y molino denominado GARAIKO-ERROTA...". A. Aguirre Sorondo, *Molinología*, 303. orr.

KOKAP.: Santa Krutz Auzunea, z/g.

OHAR.: Izena etxearen horman idatzita egon arren (*GARAI'KO-ERROTA*), jabeak soilik eman digu berezko izena eta honekin batera jende ugari —nahiz eta galdeketan erabilpen hau ez isladatu— erabiltzen duen *Islan etxeak* ere. Ibaiak alde honetan uhartetxo bat osatu du eta jendeak inguruarri ere *Isla* deitzen dion arren (ikus *AZPIKOERROTA* eta *ARTETXEPEA*, oharrak), badirudi errotari antzinako jabeen abizenagatik deitzen zaiola horrela, *Isla(re)n etxeak* eta ez *Islako etxeak* esaten baita.

Orain dela gutxi *Garaikoerrot*-n sutea izan da eta, ondorioz, bere egoera ez da batere ona.

TOP.: † OLAGAINBORDA JAUREGIA

DOKUMENT.:

- 1818 *Borda de Ola(gain)*. Est.p.i. 62H/7.
 1897 *Olagain Borda*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Cochera Olagainborda*. Cen.p. 70H/2.
 1950 *Olagain-borda (Cocheras); Olagain-borda (Palacio)*. Cen. y p. 44/1.
 1960 *Olagain Borda*. Cen. y p. 28/1.

KOKAP.: Santa Krutz auzunean zegoen.

OHAR.: Galdeketaren atalean jaso ez den arren, andoaindar askok gogoratzen du jauregiaren izena, 1960. urtean oraindik zutik baitzegoen. Oso jauregi ederra omen zen. Tontorrean zegoen eta inguratzen zuen hesiaren barruan arboladia eta paseatzeko toki ugari omen zuen.

TOP.: LIZARKOLA PASEALEKUA
LIZARKOLAKO ZUBIA
† LEIZAURKOLA

- AHOZKO ERAB.: 5/3 *Etxarrialdea* (2)
Etxarrialdekua
5/2 *Leizarango Biria*
Leizaranaldea, Valle Leizaranaldea,
Kamiyua Leizaranaldea
5/1 *Lizarkolako Biria*
5/1 *Bertxinaldea*
5/1 *Paseo de Cruz*
5/1 *Hidroelektrikako Bidea*

DOKUMENT.:

- 1771 *ferrería de Leyzaur*. Lib.c.f., 146. orr.
1813 *Leizaurcola, Lizarcola*. Lis.t. de A.
1818 *Leizaurcola*. Est.p.i. 62H/7.
1857-64 *Leizaurcola*. Nomen., 83. orr.
1862 *Leizaur (casa) ó herrería mayor y menor ó Lizaurcola*. I.c.h.,
H-532.
1894 “...desde el camino general que deja el paso para dicha Fábrica a lo cual se pasa por debajo de un arco que por encima está el ferrocarril hasta el punto en que las personas o familias toman la dirección para sus moradas que es el camino nombrado Lizarcola o Artache...”. Cam.v. 34H/3.
1897 “...Leiza-Urcola (antigua ferrería) hoy casa de labor...”. Est.e. 48H/4.
1903 “...para la conservación del camino denominado de Artachape trozo comprendido entre la carretera general y la casa vivienda de la fábrica de Aritzpiola...”. Cam.v. 34H/3.
1910 *Leizaurcola*. Cen.p. 70H/2.
1937 *Lizarcola*. Pad.m.h. 65H/1.
1970 *Lizarcola*. Cen. y p. 45/1.

BIBLIO.: *Leizaurkola, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Gaur *Celulosas de Andoain* lantegia dagoen tokiaren inguruan zegoen.

OHAR.: Galdeketan informatzaile bakar batek aipatu du errotuluan ipinita dagoen izen ofiziala, baina, hala ere, ez dago bestelako joera finkorik. Pasealekuari izena zubiaren ondoan zegoen burniolatik datorkio, Leizaurtarren ola zen *Leizaurkola*-tik, alegia. Dokumentazioan jasotako datuen arabera, bestalde, egun pasealekua den bide hau, garai batean, Kaleberrian hasirik, *Artetxepe* izenaz ere ezagutzen zen (ikus ARTETXEPEA).

Informatzaile baten esanetan, pasealekuaren aldamenen eta desagertutako *Leizaurkola*-ren ondoan dagoen zubiaren izena *Lizarkolako Zubia* da.

TOP.: OLABURU ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Olaburu* (2)
Casa Olaburu

DOKUMENT.:

1897 *Olaburu*. Est.e. 48H/4.
1910 *Olaburu*. Cen.p. 70H/2.
1937 *Olaburu*. Pad.m.h. 65H/1.

KOKAP.: Lizarkola pasealekuaren hasieran dago, Pagamendiren hego-mendebaldean.

OHAR.: Lau solairuko etxea da eta 1897. urteko etxe zerrendan jaso dugu honen lehen aipamena. Bere ondoan *Olabista* etxea dago eta bi hauen izenek garai batean inguru honetan zegoen *Leizaurkola*-n daukate zeharkako jatorria.

TOP.: OLABISTA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Olabista* (2)
Olabista Etxea
3/1 *Belokinea, Beloki*

DOKUMENT.:

1937 *Olavista*. Pad.m.h. 65H/1.
1950 *Olavista*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Lizarkola pasealekuaren hasieran dago, Pagamendiren hego-mendebaldean.

OHAR.: Hiru solairuko etxe hau 1929. urtean eraikia da. Informaziozake batek etxea izendatzeko bertan bizi direnen abizena ere erabili ohi du. Ondoan Olaburu etxea eta atzean Artetxepea dauzka.

TOP.: ARTETXEPEA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *La Villa de Arriba*
2/1 *Joxe Mari Soñujotzalliana*
Pilartxo

DOKUMENT.:

1777 *parage llamado Artechepa*. Lib.c.f., 153. orr.
1780 *Artachapea*. Lib.c.f., 218. orr.atz.
1862 *Artachepea* (isleta de); *Artechepa* (casa). I.c.h., H-532.
1894 "...desde el camino general que deja el paso para dicha fabrica á lo cual se pasa por debajo de un arco que por encima está el ferrocarril hasta el punto en que las personas ó familias toman la direccion para sus moradas que es el camino nombrado Lizarcola o Artache...". Cam.v. 34H/3.
1902 "...Piedra machacada para el camino de Artachagaña...". Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Trentxikiko bidearen ondoan dago, lehen tunelera (Andoaindik abiatuta) iritsi baino 150-en bat metro lehenago, Pagamendiren hegomendebaldean.

OHAR.: Galdeketaren emaitzetan agerienez etxe honen izena ez da ezaguna eta honen berri izateko bertara jo behar izan dugu. Jabeak izena aukeratzeko orduan etxearen kokagune den orubearen izenean oinarritu zirela esan digu. Izen hau XVIII. mendetik azaltzen zaigu dokumentatuta eta garai batean nahiko garrantzitsua zen, egun *Lizarkola Pasealekua* denari *Artetxepeko Bidea* ere esaten baitzitzaion (ikus LIZARKOLA PASEALEKUA). 1862. urteko dokumentuan, bestalde, etxe batena izateaz gain izena uharte bati ere atxeki zaio.

Txalet gisako etxe berri eta dotorea da, teilatu beltza eta horma gorrikoa. Aurrean Olaburu eta Olabista etxeak ditu.

TOP.: BERTXIN KALEA

AHOZKO ERAB.: 3/2 *Kale Bertxin* (2)
Bertxin
Calle Bertxin
 3/1 *Belkoain*
 3/1 *Barrio Leizaran*
 3/1 *Joakin Larreta*

OHAR.: Izen honen jatorria garai batean udalarena zen zentral hidroelektrikoaren izena da (ikus BERTXINGO ZENTRALA, oharrak).

TOP.: BIONA BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 4/3 *Bionaberri*
Biona
Biyona
 4/1 *Antoniona*
Antonion semia

KOKAP.: Bertxin Kalea, 2.

OHAR.: Bertxin kaleko etxe gehienek izena duten arren, galdeketa parte hartu duten informatzaileek honena bakarrik ezagutzen dute (ikus BORDATXO ETXEA, oharrak).

TOP.: BORDATXO ETXEA MAITETXO ETXEA GUBI ETXEA

KOKAP.: Bertxin Kalea, 1, 3 eta 5.

OHAR.: Hiru etxe hauek, inguru berean dauden beste hainbaten antzera, nahiko berriak dira eta izena dute, baina izen hauek, nahiz eta zenbaitetan hormetan errotulua ipinita egon, ez dira batere ezagunak. Horregatik,

oikonimo berri hauek kale izendegi berritik jaso ditugu, zenbaitetan hauen idazketa lan honetan jarraitu ditugun erizpideetara moldatuz. Guztiei, adibidez, *etxe* generikoa ipini diegu, gehienak bi solairukoak izanik, ez baitakigu kale izendegian zein erizpide jarraitu den batzuri *casa* eta beste zenbaiti *villa* jartzeko.

TOP.: JOAKIN LARRETA ETORBIDEA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Joakin Larreta* (2)
Avenida de Joakin Larreta (2)
Larreta Pasealekua
Joakin Larreta Kalea
Avenida Larreta
 6/1 *Apeaderoko Biria*
 6/1 *Barrio Leizaran*

OHAR.: Espezifikoa informatzaile guztiek ezagutzen duten arren, ez dute garbi pasealekua, kalea, bidea, *barrio* edo *avenida* den.

Joakin Larreta 1857. urtean Azelain dorretxean jaio zen. Barcelonan ingeniari industrial titulua eskuratu zuen lehenik eta kimika eta mekanika ingeniaritzarena ondoren. Berea zuen Andoaingo *Arizpiola* lantegiaren zuzendari kargua hartu zuen eta ur jauzi eta zentral hidroelektriko ugariren eraiketan parte hartu zuen. Andoainen, adibidez, Abalozkoa eta Hidroelektrikakoa dira horietariko bi. 1909. urtean hil zen.

TOP.: MUJIKA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Casa Mujika* (3)
Mujika
 3/1 *La de cocheras, Cocheras, Cochereta*

KOKAP.: Joakin Larreta Etorbidea, 39.

OHAR.: Bi informatzailek esan digutenez, garai batean eraikin hau Olagainborda jauregiko *cochera* zen, ondoren solairu bat gehituz etxebizitza bilakatu zelarik (ikus OLAGAINBORDA JAUREGIA, dokument.).

TOP.: AIERBE ETXEA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Ayerbe* (3)
Ayerbena (2)
Ayerbene

DOKUMENT.:

1970 *Ayerbe*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Joakin Larreta Etorbidea, 9.

OHAR.: Informatzaileek esan digutenez hau da etorbide honetako etxe zaharrenetariko bat. Agian horregatik da bere izena hain ezaguna (ikus BORDATXO ETXEA, oharrak).

TOP.: ONAINDIA ETXEA
 ARRUARTENEA
 NERE AINTZA ETXEA
 ARANBURU ETXEA
 APAÑA I ETXEA
 APAÑA II ETXEA
 OTEGI ETXEA
 LASA ETXEA
 MARIA ETXEA
 AZKUENEA
 FLORIDA ETXEA
 EGUZKIALDE ETXEA
 GURETZAT EGIÑA ETXEA
 ANAIETXE
 BOZAL ETXEA
 GURE NAIA ETXEA
 ZUBIGAIN ETXEA
 LAURON(A) ETXEA

KOKAP.: Joakin Larreta Etorbidea, 1, 3, 5, 7, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 23, 25, 27, 29, 31, 33, 35 eta 37.

OHAR.: (Ikus BORDATXO ETXEA, oharrak)

TOP.: JOAKIN LARRETA ATZEKALDEA

OHAR.: Galdeketan parte hartu duten informatzaileek ez dute *Joakin Larreta Etorbidea Joakin Larreta Atzekaldea*-tik bereizten (ikus JOAKIN LARRETA ETORBIDEA).

TOP.: VERDE ETXEA
 MENDIALDE ETXEA
 ARIZNOA I ETXEA
 ARIZNOA II ETXEA
 LUNA ETXEA
 GOIZEDER ETXEA
 ERRIGAIN ETXEA
 EDER ETXEA
 GURE KAIOLA ETXEA
 BISTAEDER ETXEA

KOKAP.: Joakin Larreta Atzekaldea, 1, 3, 5, 7, 9, 2, 4, 6-8, 10 eta 12.

OHAR.: Ikus BORDATXO ETXEA, oharrak.

TOP.: ANKORAS KALEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Ankoras*
 5/4 *Angusatei*

DOKUMENT.:

1897 *Calle de las Ancoras*. Cen.p. 48H/3.

BIBLIO. "...*subían las navichuelas que traían el mineral para las ferrerías de Andoain. Todavía queda en Andoain una calle con el nombre de Ancoras como recuerdo de aquella floreciente industria...*".
R. Arregui, *Andoain*, 32. orr.

OHAR.: *Ancora* latinez eta *Anclas* gazteleraz izanik, kalearen izen ofiziala bi forma hauen hibrido da. Izenaren jatorria kale honetan zegoen *Aingurasutegi* izeneko sutegia da, inguruko zaharrek, garai batean gehienbat baina gaur egun ere, kalea izendatzeko erabiltzen duten izena. Esan beharrik ez dago askoz ere jatorragoa litzatekeela beste hau kalea izendatzeko.

TOP.: † SUTEGI

DOKUMENT.:

1813 *Sutegui*. Lis.t. de A.

1818 *Sutegui*. Est.p.i. 62H/7.

1860 *Sutegui*, *Calle de Zumea*. Est.e. y h. 48H/1.

1897 *Sutegui*, *Calle de las Ancoras* 1. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Ankoras kalearen hasieran zegoen.

OHAR.: Jabeak esan digunez etxeak izan du inoiz sarrera Zumea kaletik, eta honetan datza 1860. urtean etxea beste kale horretan kokatzea (ikus ANDREFRANTZISKANEA, oharrak). Gure ustez —kontutan izanik 1896. urteko mapan ez dela etxe gehiago azaltzen—, gaur Gaztetxea denaren berezko izena *Andrefrantziskanea* litzateke eta bere atzean zegoenarena, berriz, *Sutegi*. Biak jabe berarena izateak argituko lituzke aipatu bi izenen arteko gorabehera eta nahaste guztiak.

Etxe honen jabeak *Sutegi* izenarekin batera *Perrategi* ere aipatu digu, dirudienez, lehenengoaren ondoan zegoen 'etxeari' zegokiona. Bi hauek aktibitate berari lotutako izenak dira eta ez da harritzekoa bata bestearen ondoan edo elkarrekin ere izatea. Dokumentazioan ez dugu bigarren honen aipamenik aurkitu.

TOP.: † GARABURU BASERRIA

DOKUMENT.:

1615 *Garayburu*. I.E.A.

1813 *Garaburu*. Lis.t. de A.

1818 *Garaiburu*. Est.p.i. 62H/7.

1862 *Garaiburu* (casa) n° 7 Zumea. I.c.h., H-532.

1897 *Garaburu*, *Calle de las Ancoras* 5. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: (Ankoras Kalea, 6).

OHAR.: Ondoko etxearen eskriturretan ere (gaur kale Berria, 7 eta garai batean, 15) jaso dugu baserri honen aipamena: "...*casa número 15 de la calle Nueva (...)* oeste o espalda casa Garaburu...". 1862. urtean etxea Zumea kalean azaltzen bada, garai haietan bi kaleen arteko bereizketarik egiten ez zelako da.

TOP.: † AINGURASUTEGI

AHOZKO ERAB.: (ikus ANKORAS KALEA)

DOKUMENT.:

- 1813 *Aingurasutegui*. Lis.t. de A.
- 1818 *Aingurasutegui*. Est.p.i. 62H/7.
- 1860 *Aingurasutegui*, *Calle de Zumea*. Est.e. y h. 48H/1.
- 1897 *Aingurasutegui*, *Calle de las Ancoras 4*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: (Ankoras Kalea, 4).

OHAR.: Informatzaile ugari gogoan du oraindik etxe hau, edo, gutxienez, bere izena. Oso etxe zaharra eta bertan egiten ziren aingurengatik ospetsua omen zen. Izan ere, sutegi honen aztarna kalearen izenean bertan atzematen da (ikus ANKORAS KALEA).

TOP.: OÑANDINEA BERRI

DOKUMENT.:

- 1813 *Oñandinea Menor*. Lis.t. de A.
- 1860 *Oñandinea Menor*, *Calle Nueva*. Est.e. y h. 48H/1.
- 1897 *Oñandinea Menor*, *Calle Nueva 13*. Est.e. 48H/4.
Oñandinea-berri, *C/ de las Ancoras 3*. "

KOKAP.: (?) Ankoras Kalea, 7.

OHAR.: Gure informatzailea bertan bizi izan da, baina honek emandako izena, *Oñandinea Txiki*, alegia, ez dator bat 1897. urteko etxe zerrendan azaltzen den izenarekin, hots, *Oñandinea Berri*. Zerrenda horren arabera, *Oñandinea Txiki* Kaleberrian 5. zenbakia duen etxea litzateke (ikus OÑANDINEA AUNDI). Etxe txiki eta zahar hau hutsik dago egun.

TOP.: LEITZARAN KALEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Leitzarar* (3)
Leitzarar (2)

OHAR.: Euskaldunak ere sarritan frikaria erabiltzen dute, *Leitzarar* esan ordez *Leitzarar* esanez. Joera hauek odonimoen kasuan nabarmentzen dira, hauek gehienetan gazteleraz erabiltzen baitira (ikus, adibidez, ETXEBERRIETA AUZOA, oharrak).

TOP.: GELTOKI AUZUNEA

- AHOZKO ERAB.: 6/4 *Barrio Estación* (3)
 Barrio de la Estación
 6/2 *Calle Estación*
 6/1 *Avenida Gudari, Avenida La Salle*

DOKUMENT.:

- 1930 *Barrio (la) Estación del Norte*. Est.e. y a. 51H/11.
 1950 *Barrio de la Estación*. Cen.y p. 44/1.
 1986 *Geltoki Auzoa*. Cen. y p.
 1989-90 *Estación Auzoa* (telefono-aurkitegian).

OHAR.: Sakabanatuta dauden sei etxez osatuta dago eta auzo baino auzunea dela esango genuke. Etxe bakoitzak bere izena du eta guztiak tren geltokiaren atzean daude. Galdetutakoen artean ez du inork *Geltoki Auzunea*-z ezagutzen.

TOP.: ARANTZUBI ETXEA
 † **ARANTZIBIA BASERRIA**

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Arantzubi* (3)
 Aranzubi (2)

DOKUMENT.:

- 1615 *Arancibia*: "...añadimiento o borda de la casa principal de le-rin...". I.E.A.
 1950 *Aranzubia, Barrio Estación*. Cen. y p. 44/1.
 1960 *Aranzubi*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Casa Aranzubi, Barrio Leizotz*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Geltoki Auzunea, z/g.

OHAR.: Inguru honetan *Arancibia* izeneko baserria izan zen (1615. urteko dokumentuan honen inguruan Galardi, Paris eta Belauntzaran etxeak zeudela aipatzen da —ikus hauen kokapena—), baina ez dakigu gaurko hauei zertan oinarriturik eman zaien izena. Aurrez-aurre dauden bi etxe dira eta 1947-an eraiki ziren. Horman *Aranzubi* dago idatzita.

TOP.: ITURRALDE ETXEA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Iturralde* (4)
 Casa Iturralde
 Casa Iturralde Txiki
 5/1 *Casa de la Estación*

DOKUMENT.:

- 1945 *Iturralde A / Iturralde B*. Pad.m.h. 27/2.
 1950 *Iturralde A / Iturralde B, Bº Estación*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Casa Iturralde, Barrio Leizotz*. Cen. y p. 45/1.
 Casa Iturralde Berri, Barrio Leizotz. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Geltoki Auzunea, z/g.

OHAR.: Lau solairuko etxea da eta bi ate ditu ezker-eskubi. 1945. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena.

TOP.: ALDAPETA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Aldapeta* (3)
Casa Aldapeta

DOKUMENT.:

1960 *Aldapeta, Andoain-Leizós*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Casa Aldapeta, Barrio Leizotz*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Geltoki Auzunea, z/g.

OHAR.: Izena etxearen horman idatzita dago eta galdeketa parte hartu duten guztiek ezagutzen dute berau. Etxea, Geltoki auzoko gehienak bezala, tren geltokiaren atzeko aldapan dago, Pagamendiren ifar-mendebaldeko maldan, hain zuzen.

TOP.: KAMIO BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/3 *Kamioberry*
Kamio Berri
Kamiyo Berri
5/2 *Casas de Arin, Arin*
La de los Arines
5/1 *La señora María*

DOKUMENT.:

1960 *Camiyo-berri, Andoain-Leizós*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Camiyo-berri, Barrio Leizotz*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Geltoki Auzunea, z/g.

OHAR.: Izena etxearen horman ipinita egon arren, zenbait informatzailek bertakoen abizenaz ezagutzen du etxea.

TOP.: MANTEROLANEA / ZAPATENEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Xapatenia* (2)
Xapata

DOKUMENT.:

1960 *Manterola-enea*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Manterola-enea*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Geltoki Auzunea, z/g.

OHAR.: Etxearen izena *Manterolanea* izanik, galdeketa parte harturiko inork ez du izen honetaz ezagutzen, bertan bizi den familiaren aurreko etxebizitzaren izenaz baizik (ikus TORREA TXIKI, oharra).

TOP.: Zentral elektrikoa

DOKUMENT.:

- 1950 *Central del Norte; Casa de la Central, B° de la Estación*. Cen. y p. 44/1.
 1960 *C. Central*. Cen. y p. 28/1.

KOKAP.: Geltoki Auzunea, z/g.

OHAR.: Zentral elektriko honetan eraikin txiki bat dago, 1950. urteko erroldan *Casa de la Central* izenaz azaltzen dena. Era berean, informatzaile batek *Zentraleko Etxia*-z ezagutzen du.

TOP.: Tren geltokia

- AHOZKO ERAB.:** 6/2 *Norteko Estazioa*
 6/4 *Estaziya (2)*
La Estación
Estación

DOKUMENT.:

- 1910 *Estación Norte, Bazkardo*. Cen.p. 70H/2.
 1950 *Estación del Norte, B° de la Estación*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Estación Renfe, Barrio Leizotz*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Geltoki auzunean dago.

OHAR.: Garai bateko erroldetan, egun bi informatzailek esan bezala, *Estación del Norte* gisara azaltzen da. XIX. mendearen bukaeran eraiki zen.

TOP.: GABRIEL ARESTI KALEA

- AHOZKO ERAB.:** 5/4 *Gabriel Aresti*
 5/3 *Polígono 25*
 5/2 *Barrio Galardi*

OHAR.: Kale bezala eratu aurretik bertan dauden etxeak Galardi kalea eta La Salle etorbidearen artean banatzen ziren. Zenbait informatzailek poligonoaren zenbakia ere erabili ohi du.

TOP.: DOKTOR HUIZI KALEA

- AHOZKO ERAB.:** 5/5 *Doctor Huici (3)*
Doctor Huici Kalia
Doctor Huizi
 5/5 *Grupo Padre Larramendi (4)*
Aita Larramendi
 5/5 *Buenos Aires*
 5/5 *(H)erriko Etxiak*

OHAR.: Erabilerari jarraiki, kalearen izen ofiziala *Doktor Huizi Kalea* da, baina hori euskaraz onartezina da. Askoz ere egokiago litzateke, adibidez, *Huizi Doktoarearen Kalea* finkatzea.

Kale honetako etxeek, Belkoain, Gernika eta Zuberoa kalekoek, Agustin Leitza Kaleko 15, 17 eta 19 zenbakia dutenekin batera, orain dela gutxi arte *Grupo Padre Larramendi* deituriko auzunea osatzen zuten eta horregatik informatzaile ugariak beste izen hau ere aipatu du. Jasotako beste bi izenak, berriz, eta aipatu kale guztiei dagozkielarik, garai bateko erabilerak finkatutakoak dira. Nahiz eta egun horiek ez erabili gogoan dituzte galdeketa parte hartu duten guztiek.

Modesto Huizi Andoaingo kale Nagusian jaio zen 1877. urtean. Madriden egin zituen medikuntza ikasketak, doktoradutza ere bertan eskuratu zuelarik. Obstetrizia eta Ginekologian espezializatu eta berak egin zuen lehen zesarea kontserbatzailea. Ospitaleko zuzendari, Medikuntza Akademiaren sortzaile eta lehen Lehendakari, Gurutze Gorriako zirujau eta maixu..., irismen itzeleko iharduna burutu zuen doktore ospetsu honek 1913-an hil zen arte.

TOP.: BELKOAIN KALEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Belkoain* (4)
 Belkoaingo Kalia
 5/5 *Grupo Padre Larramendi* (3)
 Grupo Larramendi (2)
 5/5 *(H)erriko Etxiak* (3)
 Las Casas del Pueblo (2)
 5/4 *Buenos Aires*

OHAR.: Kale hau izendatzeko Sorabillako *Belkoain* mendiaren izena erabili da (ikus DOKTOR HUIZI KALEA, oharrak).

TOP.: GERNIKA KALEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Gernika Kalia* (2)
 Gernika Kalea (2)
 Kale Gernika
 5/5 *Grupo Padre Larramendi* (2)
 Grupo Larramendi (2)
 Padre Larramendi
 5/5 *(H)erriko Etxiak* (3)
 (H)erriko Etxeak
 Las Casas del Pueblo
 5/5 *Buenos Aires*
 5/1 *Xagarmendi*

OHAR.: Kale honetako etxeak *Xagarmendi* baserriaren lurretan eraikita omen daudenez, informatzaile batek inguru hauek baserriaren izenaz ere ezagun ditu (ikus DOKTOR HUIZI KALEA, oharrak).

TOP.: ZUBEROA KALEA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Zuberoa* (3)
Calle Zuberoa (2)
 5/5 *Grupo Padre Larramendi* (4)
Grupo Larramendi
 5/5 *Las Casas del Pueblo* (3)
(H)erriko Etxiak (2)
 5/5 *Buenos Aires*

OHAR.: Ikus DOKTOR HUIZI KALEA, oharrak.

TOP.: ONDARRETA KALEA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Ondarreta* (3)
Grupo Ondarreta (2)
Ondarreta Kalea (2)
Barrio Ondarreta

OHAR.: Zenbait informatzailek esan digun bezala, etxe hauek eraiki zirenean jarritako errotuluan ere *Grupo Ondarreta* ipintzen du. Izan ere, hiru etxe ilaraz osatuta dagoenez, ezaugarri hauek kale batenak baino gehiago auzunearenak direla esan daiteke.

Kale hau izendatzeko inguru honetan zegoen *Ondarreta* baserri zaharren izena erabili da (ikus ONDARRETA BASERRIA).

TOP.: TXISTOKI PASEALEKUA

- AHOZKO ERAB.: 9/8 *Merkatuba* (3)
Mercau
Azoka
Merkatuko Tokia
Plaza Mercado
Merkatuko Plaza
 9/7 *Choperal* (4)
Chopera (2)
Makaldeya
 9/1 *Ondarretako Paseoa*
 9/1 *Txistokiko Biria*

DOKUMENT.:

1910 *Chistoqui*. Cen.p. 70H/2.

1916 "...camino vecinal de Chistoqui a Ondarzulo...". Cam.v. 34H/3.

OHAR.: Ez dakigu herritar askok odonimo hau ez ezagutzearen arrazoa errotulurik ez izatean datzan, baina nabarmena da egindako galdeketan jendeak ez duela izen honen berri (ikus TXISTOKIKO ZUBIA, ahozko erab.). Galdeketaren emaitzen arabera, bestetik, agerian dago bi entitate edo

leku ezberdin nahasten direla, azoka egiten den tokia eta pasealekua bera, alegia. *Choperal*, *Chopera* eta *Makaldeya* jaso badira ere, gure informatzaileek behintzat ez dituzte izen horiek erabiltzen, agian garai bateko makalak jadanik ez daudelako. Dena den, badirudi hori dela merkatua izendatzeko zenbait erakundek erabiltzen dutena, baina, zoritxarrez, izen zahar eta jatorraren ordezt *Mercado del Choperal* erabiliz. Egia da, galdeketaren emaitzetan ikus daitekeen bezala, gaur ezagunago dela aipatu hori, baina gure jarrera zaharrago den izen euskalduna berreskuratzearen aldekoa da, *Makaldegiko Merkatua* eta *Mercado de Makaldeg* finkatzearen aldekoa, alegia.

Zenbait informatzailek esan digunez, eta 1910. urteko erroldan ere agertzen baita, egun Gurutze Gorria dagoen tokian —*Txistoki* pasealekuan dago— *Txistoki* deituriko etxea zegoen. Aipagarria da ere informatzaile batek izenaren jatorriari buruz emandako bertsioa, hau da, Txistokiko zubia eraiki aurretik jendeak ibaiaren alde batetik bestera elkarri deitzeko “Txist, Txist!” eginez ibiltzen omen zirena.

TOP.: TXISTOKIKO ZUBIA

AHOZKO ERAB.: 9/9 *Txistokiko Zubiya* (6)
Txistoki (2)
Puente de Txistoki
 9/2 *Mataderoko Zubiya*
Puente del Matadero

KOKAP.: Txistoki pasealekuan dago.

OHAR.: *Txistoki Pasealekua* ezaguna ez izan arren, ezin zubiaren izenaz gauza bera esan. Zubia egin zeneko aktetan agertzen denez, zubiari lekuaren izena eman zitzaion (ikus TXISTOKI PASEALEKUA, oharrak). Mende honen hasieran eraiki zen.

TOP.: AITA MANUEL LARRAMENDI IKASTOLA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Ikastola*

KOKAP.: Txistokiko pasealekuan ibaiatz bestaldera.

OHAR.: Herriko ikastola bakarra izateagatik edo, informatzaileetarik inork ez du honen izenik eman. Eraikin berria da eta Ori ibaia eta errepede nazionalaren artean dago. Ikastolarenak dira ere Rikardo Arregi ka-lean dauden eraikin txikiak, hauek ere generikoaz soilik ezagutzen direlarik.

TOP.: AGUSTIN LEITZA KALEA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Agustin de Leiza* (4)
Agustin de Leiza Kalea (2)
 6/1 *Grupo Larramendi*

OHAR.: Garai batean *Leitza'tar Agustin Etxe Taldea* zena hiru odonimotan dago banatuta egun, izen bera duten kale, atzekalde eta plazan, alegia. Horregatik, bereizketa egiteko generikoaren erabilera ezinbestekoa da, nahiz eta zenbaitek espezifikoak soilik erabiltzen duen hirurentzat jakin gabe zehazki zein den zein (ikus DOKTOR HUIZI KALEA, oharrak).

Errotuluan *Agustin Leitza* idatzita dagoen arren, informatzaile guztiek garai bateko *Agustin de Leiza* erabiltzen dute. Andoaindar hau 1694-ean jaio zen. Ameriketara joan eta Argentinako San Salvador de Jujuy hirian bertakotu ondoren herrialde hartan bizi zen hilarteraino. Armadako jenerala izan zen eta, dakigunez, oso gizon diruduna, bere aberastasunaren zati bat elizen eraiketa eta hornidurarako eman zuelarik. Berak emandako diruaz eraiki zen, besteak beste, Andoaingo San Martin eliza eta berea izan zen Miserikordia etxea eratzeke proposamena, hori eraiki ez balitz herriko pobreentzako lur sail bat erositako zuelarik. 1763-an hil zen.

TOP.: AGUSTIN LEITZA ATZEKALDEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Agustin de Leiza* (3)
Agustin de Leiza Trasera (2)
Atzekaldea
Agustin de Leiza Atzekoaldea
Agustin de Leiza Atzekaldia
Agustin de Leiza Atzekaldea

OHAR.: Ikus AGUSTIN LEITZA KALEA, oharrak.

TOP.: ATORRASAGASTINEA GARAIKOA / ALDUNTZIÑENEA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Alduntzinen Etxia* (2)
Casa Alduncin
Alduntzineko Etxia
Alduntziñen Etxia
Alduntziñeneko Etxia
Alduntziñen Etxia
Alduncin

DOKUMENT.:

1860 *Atorrasagastinea Garaicoa, Calle Mayor*. Est.e. y h. 48H/1.
 1897 *Atorrasagastinea Garaicoa, C/ Mayor 12*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: Agustin Leitza Kalea, 1.

OHAR.: Etxea bertako familiaren abizenaz ezagutzen den arren, bestelakoa da ondoko etxearen eskriturretan (Kale Nagusia, 2) eta dokumentazioan azaldu zaiguna.

Gaur erabiltzen den *Alduntziñenea*-z gain jaso dugu ere garai batean erabiltzen zen izena, hau da, *Tronpoleon Etxia*, umeeek etxeko atea jo eta *Tronpoleon aleluya* esanaz aldapan behera korrika ihes egiten zutela ere kondatu digutelarik.

TOP.: ERRETORETXEA

- AHOZKO ERAB.: 12/11 *Erretoretxia* (4)
Erretoetxia (2)
Erretorian Etxia (2)
Errotetxia (2)
Erretoetxea
 12/1 *Parroki Etxia*
 12/1 *Serora Etxia, Sakristauan Etxia*

DOKUMENT.:

- 1818 *Casa Rectoral*. Est.p.i. 62H/7.
 1860 *Casa Rectoral, Calle Mayor*. Est.e. y h. 48H/1.
 1897 *Casa Rectoral, Calle Mayor 10*. Est.e. 48H/4.
 1940 *Casa Rectoral*. Pad.m.h. 18/3.
 1950 *Rectoral, Calle Mayor 12*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Agustín Leitza Kalea 2.

OHAR.: *Erretoretxea* eta *Sakristauetxea* bi etxe ezberdin izan arren, informatzaile batek egun desagertutakoaren izena aipatu du beste honentzat. *Erretoretxea* San Martín eliza eta Udaletxearen artean dago. Bi solairuko etxe dotore hau ez da, noski, 1818. urtetik aurrera dokumentazioan azaltzen dena, geroago eraikitako berria baizik.

TOP.: JOSE ANTONIO AGIRRE PLAZA

- AHOZKO ERAB.: 5/4 *Jose Antonio Agirre* (3)
Jose Antonio Agirre Plaza
 5/2 *Ayuntamiento Atzeko Plaza*
Ayuntamiento Plaza Txikiya
 5/2 *Aurreko Plaza*
Etxeaurreko Plaza
 5/1 *Oaingo Plaza Berriya*

OHAR.: Galdeketaren emaitzetan ikus daitekeenez, gehienek ezagutzen dute plaza honen izena, baina informatzaile guztiek aitortu dute bide batez, ez dutela erabiltzen. Horrela jaso dira ere beste izen batzuk, nahiz eta bestelako joera finkorik ez izan.

Egun plaza den honetan zegoen *Egoabil* izeneko etxea. Bota zute-nean, bertan bizi zirenek plaza honi etxearen izena ipintzeko proposamena luzatu zioten Udalari, baina erabakia hartuta zegoela eta, ezetsia izan zen.

TOP.: AGUSTIN LEITZA PLAZA

- AHOZKO ERAB.: 3/3 *Plaza Agustín de Leiza* (2)
Calle Agustín de Leiza (2)
Agustín de Leiza Plaza
Agustín de Leiza

OHAR.: Ikus AGUSTIN LEITZA KALEA, oharrak.

TOP.: GOIKOPLAZA

- AHOZKO ERAB.: 8/6 *Goiko Plaza* (4)
Goikoplaza (2)
 8/2 *Plaza Mayor*
Calle Mayor
 8/2 *Poligono 17*
 8/2 *Plaza España*

DOKUMENT.:

1896 *Plaza del Pueblo - Erriko Plaza*. Of.-cat. 51H/4.

OHAR.: Hau da herriko plaza nagusia, Udaletxearen aurrean dagoena, eta horregatik urteetan zehar aldaketa politiko bezainbeste izen ofizial izan ditu. Guk aztertutako dokumentazioan bakarra aurkitu badugu ere, Juanjo Larreak *Andoingo Paperak* liburuaren bosgarren alean (104. orr.) plaza honek izandako beste izen batzuk ere jaso ditu: *Plaza Nueva* (1650), *Plaza del Ayuntamiento*, *Plaza Alfonso XIII* (1927), *Arana Goiritar Sabin'en Zelaya / Plaza de Sabino Arana y Goiri* (1931) eta *Plaza de España* (1937). Egun erabili-ena izen ofiziala dena izan arren, informatzaileek plazak izandako beste izen batzuk ere aipatu dituzte (ikus sarreran normalizazio linguistikoari dagokion atala).

TOP.: SAN MARTIN ELIZA

- AHOZKO ERAB.: 7/3 *San Martingo Eliza*
Parroquia de San Martin
San Martinen Eliza
 7/3 *Eliza*
 7/2 *Goiko Eliza*

OHAR.: Andoingo aintzinako eliza Buruntza mendia-aren magalean zegoen (ikus inguru hartako toponimia), baina udaletxea gaur dagoen tokian eraikitzean, eliza hirigunea osatzen ari zen tokitik urrutiegi geratu zen. Horregatik, Agustin Leitzak (ikus AGUSTIN LEITZA KALEA, oharrak) bere jaioterrian eliza eraikitze-ko dirua eman zuenean, udaletxe berriaren aurreko plazan eraikitzea erabaki zen. Aita Larramendiren gidaritzapean eta Francisco Ibero arkitektoaren zuzendaritzapean 1759. urtean hasi eta 1770.-ean amaitu zen gaurko honen eraiketa.

TOP.: IRIARTE AUNDI ETXEA / UNANUENEA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Unanue* (2)
Unanuetarrak
Casa Unanue
Unanuenia
Unanue Etxia, Unanueneko Etxia
 5/1 *Meikuban Etxia*
 5/1 *Iriarte Aundi*

DOKUMENT.:

- 1615 *Yriarte*. I.E.A.
- 1813 *Yriarte*. Lis.t. de A.
- 1818 *Yriarte Aundi*. Est.p.i. 62H/7.
- 1860 *Yriarte Mayor, Calle Mayor*. Est.e. y h. 48H/1.
- 1897 *Yriarte Mayor, Calle Mayor 1*. Est.e. 48H/4.
- 1950 *Iriarte Mayor, Calle Mayor 1*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Goikoplaza, 9.

OHAR.: Egindako galdeketa jaso ez den arren, etxea *Okiñena* izenez ere ezaguna dela jakin dugu. Dena den, dokumentazio eta eskrituretako izena *Iriarte Aundi* da.

TOP.: (frontoia)

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Frontoia*

KOKAP.: Goikoplazan dago.

OHAR.: Duela gutxi eraiki dute eta ingurukoek ez dute izen berezi batez ezagutzen.

TOP.: (iturria)

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Plazako Itturriya*
2/1 *Elixondoneko Itturriya*

KOKAP.: Goikoplazan dago.

OHAR.: Iturri hau, herriko ur hornidura saretik hartua, nahiko berria da eta ez dirudi honentzat izen berezirik erabiltzen denik.

TOP.: ARTETA KALEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Arteta (3)*
Calle Arteta
4/2 *Polígono 17*

OHAR.: Izen ofizialaz gain zenbaitek poligonoaren zenbakia ere erabiltzen du.

TOP.: ARRATE ESKOLAURREA

AHOZKO ERAB.: 4/3 *Las Nacionales*
Parvulario de las Nacionales
Eskola Nazionalak
Escuelas nacionales
4/1 *(H)errikoak*
Escuelas del pueblo
Parvulario

KOKAP.: Arteta kalean dago.

OHAR.: Galdeketa inguruan egin denez inork ez du honen izenik aipatu.

TOP.: PIO BAROJA KALEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Pio Baroja*
5/1 *Polígono 17*

OHAR.: Informatzaile guztiek erabiltzen dute errotuluan ipinitako izena. Lehen erabiltzen zuten izenari buruz galdetutakoan informatzaile batek poligonoaren zenbakia aipatu du.

TOP.: PAKELEKU ETXEAK

AHOZKO ERAB.: 10/9 *Pakeleku (7)*
Pakeleku Barriyua
Casa Pakeleku
10/5 *Kattarron Etxia (3)*
Kattarroneko Etxia
Kattarro
10/4 *Urrutian Etxia*
Urrutiarrak
La casa de los Urrutia
Urrutianeko Etxia

DOKUMENT.:

1970 *Pake-leku*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Pio Baroja Kalea, 1, eta Rikardo Arregi Kalea, 2-4.

OHAR.: Inguru honetan lehenik eraikitako etxeei, egun dauden kaleak eratzeke zeudenez, *Pakeleku* izena eman zitzaien eta, galdeketa emaitzei jarraiki, gaur ere erabiltzen da. Kontratastaren abizena eta goitizenaz ere ezaguna da etxea, nahiz eta bigarren hau soilik pertsona ezagunekin erabili ohi den.

TOP.: ARRATE PLAZA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Plaza Arrate (4)*
Arrate Plaza
5/4 *Polígono 17*

OHAR.: Erabilia dena izen ofiziala bada ere, zenbaitek poligonoaren zenbakia ere aipatu du. Plaza honi izena garai batean inguru honetan izan zen *Arrate* baserritik datorkio.

TOP.: ARRATE PELOTALEKUA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Arrate Frontoya* (2)
Frontón Arrate
Arrate
 5/1 *Frontoia*

KOKAP.: Arrate plazan dago.

OHAR.: Pelotalekuari ere izena garai bateko *Arrate* baserritik datorkio.

TOP.: NAFARROA PLAZA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Plaza Nafarroa* (4)
Nafarroa Plaza
 5/4 *Polígono 17*

OHAR.: Erabiltzen dena izen ofiziala da. Kasu honetan ere zenbaitetik poligonoa aipatu du.

TOP.: ELIZONDO PLAZA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Plaza Elizondo*
 5/4 *Polígono 17*

OHAR.: Izen ofiziala erabiltzen da, baina, oraingo honetan ere, zenbaitetik poligonoa aipatu du.

TOP.: LA SALLE ETORBIDEA

AHOZKO ERAB.: 16/12 *Avenida La Salle* (7)
Avenida de La Salle (5)
 16/4 (Izena ezagutzen ez)

OHAR.: Informatzaile gehienek izen ofiziala erabiltzen duten arren, badago etorbidearen izena ezagutzen ez duenik ere. Bertan dago *La Salle* ikastetxea.

TOP.: URIGAIN JAUREGIA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Barriola*
Barriolanea
Barriolania
El Palacio Barriola
 5/2 *Urigain*
 5/2 *Palaziya*
Lengo Palaziyo Zarra
 5/1 *La Casa de Cultura*

DOKUMENT.:

1897 *Yriarte menor n° 3; Villa n° 3A*. Est.e. 48H/4.
1950 *Villa Urigain, Calle Mayor*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: La Salle Etorbidea, z/g.

OHAR.: Egun Kultur Etxearen egoitza den jauregia, galdeketa parte hartu duten gehienek garai bateko jabearen deituraz ezagutzen dute. Etxe dotore hau 1897. urteko etxe zerrendan azaltzen da, nahiz eta horretan izenik ez aipatu.

TOP.: LA SALLE-BERROZPE IKASTETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *La Salle* (4)
Colegio de La Salle (2)
Colegio La Salle (2)

KOKAP.: La Salle Etorbidea, z/g.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute ikastetxe honen izena.

TOP.: IRIARTE TXIKI ETXEA / ELIZONDO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Elixondo*

DOKUMENT.:

1818 *Yriarte Chiqui*. Est.p.i. 62H/7.
1860 *Yriarte Menor, Calle Mayor*. Est.e. y h. 48H/1.
1897 *Yriarte Menor, Calle Mayor 3*. Est.e. 48H/4.

KOKAP.: La Salle Etorbidea, 1.

OHAR.: Etxea bertakoen deituraz ezagutzen den arren, *Iriarte Txiki* da dokumentazio eta eskrituretatik jasotako izena. Egungo jabearen deitura, bestalde, bat dator etxearen kokapenarekin, etxea elizaren aurrez-aurre baitago.

TOP.: GALARDI BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 8/6 (Izena ezagutzen ez)
8/2 *Tokieder*
8/1 *Galardi Berri*

DOKUMENT.:

1960 *Galardi-berri, Andoain-Leizós*. Cen. y p. 28/1.

KOKAP.: La Salle Etorbidea, 6-8.

OHAR.: Informatzaile gehienek etxe honek izena baduela, baina ez dutela gogoratzen erantzun dute. Bertan orain dela gutxi arte bizitako batek esan digunez etxeak lehen *Galardi Berri* zuen izena, bat etorri 1960. urteko erroldan agertzen den izenarekin eta inguru honetan zegoen *Galardi* baserriarekiko lotura azalduz (ikus GALARDI BASERRIA). Ez dakigu, ordea, bi informatzailek aipatutako *Tokieder* izenaren nondik norakoa.

TOP.: PLAZAOLA KALEA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Plazaola* (3)
 Calle Plazaola (2)
 Plazaola Kalea
 Plazaola Kalia
 6/5 *Avenida La Salle*
 6/2 *Polígono 25*
 6/1 *Alkertasuna*

OHAR.: Informatzaileek lehen —kale hau eratu aurretik— erabili ziren izenak ere aipatu dituzten arren, egun izen ofiziala soilik erabiltzen da. Izenaren jatorria Iruñetik Lasartera, Leitzarar bailaran barrena, zetorren trenaren izenari zor zaio. Egun trenbidea izandakoa pasealeku ederra da eta jende ugari ibiltzen da Leitzarar ibaiaren bazterreko bide honetatik (ikus ALKARTASUNA KALEA, oharrak).

TOP.: JUANAPRE ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Juanapre*

KOKAP.: Trentxikiko bidean dago, Plazaola kaleko azken etxeak igaro eta aipatu biderantz abiatuz berehala.

OHAR.: Bi informatzailek esan digute iturri honen izen bitxia. Iturriaren ingurua txukunduta dago eta ura kanilatik estolda batera erortzen da.

TOP.: LEITZARAN IKASTETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/6 *Leizaran* (5)
 Colegio Leizaran
 7/1 *(H)erriko Eskola*

KOKAP.: Plazaola Kalea, 23.

TOP.: EXTREMADURA KALEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Calle Extremadura* (3)
 Extremadura Kalea (2)
 5/5 *Avenida La Salle*
 5/4 *Polígono 25*

OHAR.: Hasiera batean kale honi *Calle del Inmigrante* izena eman zitzaion, baina horrek zenbait istilu sortu eta Udalak izena aldatzea erabaki zuen, egun ezagutzen den *Extremadura Kalea* jarri ziolarik. Gure informatzaileen arteko hiruk, euskaldunak, izena erabiltzen duten arren horrekiko ezadostasuna adierazi digute.

TOP.: GALARDI KALEA
† GALARDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Calle Galardi* (3)
 Galardi Kalea (2)
 Kale Galardi
 5/3 *Avenida de La Salle* (2)
 Avenida La Salle
 5/3 *Polígono 25*

DOKUMENT.:

1615 *Galardi*. I.E.A.
1813 *Galardi*; *Galardi Borda*. Lis.t. de A.
1818 *Galardi*. Est.p.i. 62H/7.
1857-64 *Galardi*. Nomen., 82. orr.
1897 *Galardi*. Est.e. 48H/4.

BIBLIO. *Galardi*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Galardi, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

OHAR.: Egun erabiltzen dena izen ofiziala izan arren, informatzaile zenbaitek lehen —kalea eratu aurretik— erabiltzen ziren beste batzuk ere aipatu dizkigu. Kale honen izenaren jatorria inguru honetan zegoen *Galardi* baserrian dago. Baserriaren lehen aipamena 1615. urteko dokumentuan eta Eleizalderen zerrendetan (1922) agertzen da azkenekoz.

TOP.: GALARDI HAURTZAINDEGIA

AHOZKO ERAB.: 7/5 *Guarderiya*
 7/1 *La Guarderia*
 7/1 *(H)aurtzaindegiya*

KOKAP.: Extremadura Kalea, 6.

OHAR.: Galdeketa inguruko en artean egin denez, eta Andoainen dagoen haurtzaindegi bakarra izanik, informatzaile guztiek soilik generikoa aipatu dute (ikus GALARDI KALEA, oharrak).

TOP.: GALARDI ESKOLAURREA

AHOZKO ERAB.: 6/4 *Eskola Nazionalak* (2)
 Nazionalak
 Nazionaletako Parbulayua
 6/1 *Eskola Publikoak*
 6/1 *El parvulario*

KOKAP.: Extremadura Kalea, 11.

OHAR.: Informatzaileek ingurukoak izan direnez generikoa bakarrik erabili dute (ikus GALARDI KALEA, oharrak).

TOP.: ALKARTASUNA KALEA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Alkartasuna* (4)
Alkartasun Kalea
Calle Alkartasuna
 5/3 *Grupo Alkartasuna* (2)
Cooperativa Alkartasuna
 5/1 *Avenida de La Salle*
 5/1 *Barrio Leizotz*
 5/1 *Polígono 25*

OHAR.: Zenbait informatzailek esan digenez kale honetako 2, 4 eta 6 zenbakia duten etxeek eta Plazaola kaleko 9, 11 eta 13-a dutenek osatzen zuten orain dela urte batzuk *Cooperativa* edo *Grupo Alkartasuna*. Galdeketa kalea eratu aurretik erabilitako beste zenbait izen ere aipatu dira.

TOP.: BAZKARDO PLAZA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Plaza Bazkardo* (3)
Bazkardo Plaza (2)
Plaza de Bazkardo
 5/4 *Polígono Bazkardo* (3)
Polígono de Bazkardo
 5/1 *Polígono 18*

OHAR.: Egun izen ofiziala erabiltzen da soilik. Horren jatorria orain dela gutxi arte zutik zegoen *Bazkardo* dorretxea da.

TOP.: ALEJANDRO CALONGE AUZUNEA

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Grupo Calonge* (2)
Alejandro Calonge
Alejandro de Calonge
Grupo Alejandro Calonge
 5/4 *Bombas* (3)
Las Casas de Bombas
Barrio de Bombas

OHAR.: Auzunekoan artean egin dugu galdeketa eta informatzaile gehienek jasotako bigarren izenarekiko ezadostasuna adierazi digute, egun, *Bombas* lantegiarenak ez, baizik eta norberarenak direlako etxeak. Informatzaile baten esanetan, ordea, auzunetik kanpo inork gutxi ezagutzen omen du izen ofiziala, erabiltzen dena *Casa de Bombas* omen delarik.

Alejandro Calonge zen *Bombas* lantegiko zuzendari gerentea auzunea osatzen duten etxeak egin ziren garaian, geroztik auzune hori bere izenez ezagutu delarik.

4/3 *Txitxarrañ Berri* (2)
Txitxarrañ Berri Etxia

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Chicharráin-berri*. Nomen., 82. orr.
1897 *Chicharrain Berri*. Est.e. 48H/4.
1910 *Chicharrain Berri*, sección de Bazcardo. Cen.p. 70H/2.
1950 *Chicharrain Berri*, carretera a Urnieta. Cen. y p. 44/1.
1970 *Chicharrain-berri*, *Buruntza*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Gudarien Etorbidea, z/g.

OHAR.: Etxe honen parean *Txitxarrain* baserria dago eta bien arteko ezberdintasuna areagotzeko edo, hau bertakoen abizenaz ezagutzen da. Etxeak hiru solairu eta bi eskaratza ditu ezker-eskubi (ikus TXITXARRAIN BASERRIA, oharrak).

TOP.: GURE BABESA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Aizpurua*
Aixpurua
Aixpuruania
3/1 *Oriyo*

KOKAP.: Gudarien etorbidean dago, Urnietarantz goazela *Txitxarrain Berri* etxearen ondorengoa delarik.

OHAR.: Txalet gisako etxe berria da eta, hauetariko gehienekin gertatzen den antzera, informatzaileek ez dute honen izena ezagutzen, horretarako bertakoengana jo behar izan dugularik.

TOP.: KAMIO TXIKI BASERRIA
† KAMIO AUNDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 9/9 *Kamiyo Txiki*

DOKUMENT.:

- 1615 *Cami(n)o*. I.E.A.
1773 *Antonio de Camio*. Lib.c.f., 148. orr.atz.
1813 *Camio Maior*; *Camio Chiqui*. Lis.t. de A.
1818 *Camio*. Est.p.i. 62H/7.
1857-64 *Cámio Mayor*; *Cámio-chiqui*. Nomen., 82. orr.
1897 *Camio Mayor*. Est.e. 48H/4.
1910 *Camio Aundi*; *Camio Chiqui*. Cen.p. 70H/2.
1950 *Camio-aundi*; *Camio-chiqui*. Cen. y p. 44/1.
1960 *Camiyo-chiqui*. Cen. y p. 28/1.

BIBLIO. *Kamio*, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Kamio Txiki. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Gudarien etorbidean dago, Gure Babesa etxearen atzean. Desagertutakoa egun *Laborde* enpresa dagoen tokian omen zegoen.

OHAR.: 1960. urterako desagertuta zegoen *Kamio Aundi* baserriaren lehen aipamena 1615. urtean jaso dugu. *Kamio Txiki* baserriarena, ordea, askoz berriago izanik, lehenbizikoz 1813. urteko dokumentu batean azaldu zaigu. Informatzaile zenbaitek dioenez, desagertutako hori oso baserri handia zen eta garai batean bertan *ayuntamiento* zaharra egon zela esaten omen zen. Dirudienez, baserria erre egin zen eta gaur ez da honen arrastorik geratzen. *Kamio Txiki* baserriaren egoera, berriz, oso ona da.

Bi baserri hauek Erregebide edo *Camino Real*-en bazterrean zeuden eta, ziur aski, horregatik eman zitzaien *Kamio*, hots, *Cami(n)o* izena.

TOP.: IDIAZABAL TXIKI BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Izal Txiki* (4)
Ixal Txiki (3)
Idiazabal Txiki

DOKUMENT.:

- 1615 *Ydiaczabal Chipia*. I.E.A.
- 1813 *Yriazabalchiqui, Ydiazavalchiqui*. Lis.t. de A.
- 1818 *Ydiazabal Chiqui*. Est.p.i. 62H/70.
- 1857-64 *Idiazabal-chiqui*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Idiazabal Menor*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Idiazabal Chiqui*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Idiazabal Chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Idiazabal-txiki, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Idiazabal Txiki. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Gudarien etorbidean dago, Urnietarantz goazela Gure Babesa etxearen ondoan eta bidearen aurrez-aurre.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta orduetik azkeneko erroldara arte izenak ez du kasik aldaketarik jasan. Hitzegiterakoan, ordea, sinkopatzearen ondorioz toponimoa asko laburtzen da *Izal* edo *Ixal* esaten delarik.

Hormen zati handi bat jadanik erorita dagoen arren, laukia osatuz metro t'erdiko zatiak zutik dirau, lau hormen artekoa sastraka eta sasiz beteta dagoelarik. Errepide aldera dagoen horma zatian oraindik leihoa eta ate bat ikus daitezke.

TOP.: UDABERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Udaberri*

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Gudarien etorbidetik gertu.

OHAR.: Txalet gisako etxe berri dotorea da Larramendi Berri etxearen atzean dagoen hau.

TOP.: LARRAMENDI BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Larramendi Berri* (3)
Larramendiko Etxe Berriya
 5/1 *Casa Txoko*
 5/1 *Bekoetxe*
 5/1 *Larramendi Zar* (ez zegoen ziur)

DOKUMENT.:

1970 *Larramendi-berri; Larramendi Choquo*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Gudarien etorbidean dago, errepidearen aurrez-aurre.

OHAR.: Etxearen izena informatzaile gehienek esan duten bezala *Larramendi Berri* izan arren, bertako batek zenbait eskutitz *Casa Choco* izenaz iristen direla esan digu, aldiberean izen honekiko bere ezadostasuna adierazi digularik. 1970. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena eta, hemen ere, berezkoarekin batera aipatu beste izena ere azaltzen da. Etxea *Larramendi* izeneko baserrietatik gertu dago.

TOP.: UPATEGI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Upatei* (6)
Upategi

DOKUMENT.:

1813 *Upategui*. Lis.t. de A.
 1818 *Upategui*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Upategui-berri*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Upategui*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Upategui*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Upategui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Upategi-berri, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Upategi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Gudarien etorbidean dago, Urnietarantz goazela bidearen ezkerretara bi herrien arteko mugatik gertu.

OHAR.: Nomenklatorrean eta L. Eleizalde osatutako zerrendetan baserria *Upategi Berri* izenaz azaltzen den arren, ez dugu izen bereko beste baserririk izanaren berri, dokumentu guztietan eta bakoitzean bakarra aipatzen baita. Beraz, izen bereko bi izan badira ez dira garaikide izan edo, agian, gaurkoari zaharraren orubean eraikia izateagatik datorkio *berri* kalifikatzailea.

Baserriaren egoera ona da, nahiz ondoan harea egiten duen lantegia dagoenez bere hormak hautsez beteta izan.

TOP.: TXITXARRAIN BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Txitxarrañ* (2)
Txitxarrañ Zar (2)
Txitxarrain Baserriya
Txitxarrañ Baserriya
Txitxarrain Zar

DOKUMENT.:

1813 *Chigarrain*. Lis.t. de A.
 1818 *Chichiarrain*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Chicharrain*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Chicharrain-zar*. Est.e. 48H/4.

BIBLIO. "...*A propósito de ingleses, existe en Andoain la tradición de una terrible mortandad de ellos en acción guerrera desarrollada alguna vez en las cercanías de Txitxarrain...*". R. Arregui, *Andoain*, 37. orr.

KOKAP.: Gudarien Etorbidea, z/g.

OHAR.: Baserria eraberrituta eta egoera bikainean dago. Honen paretik igarotzen da Ziako erreka eta horren uretatik etor zekiokkeen *Txitxarrain* izena baserriari. Letra gorri handiz aurrekaldeko horman idatzita dago.

TOP.: ARIÑENEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Casa Arin* (2)
Ariñen Etxia
Arindarren Etxia
Ariñeko Etxia
Ariñenea
Ariñenen Etxiak
Ariñeneko Etxia

DOKUMENT.:

1945 *Casa Arin*. Pad.m.h. 27/2.
 1960 *Casa Arin, Andoain-Buruntza*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Casa Arin, Buruntza*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Gudarien Etorbidea, 1-2-3-4.

OHAR.: *Arin* deiturako familiak eraikia, berauen abizenaz ezagutzen da etxea. Etxeak lau eskaratza eta lau solairu ditu. 1945. urteko erroldan jaso dugu lehen aipamena.

TOP.: IDIAZABAL AUNDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Izal*

DOKUMENT.:

- 1615 *Ydiaczabal Andia*. I.E.A.
- 1813 *Yriazabal Maior, Ydiazavalmaior*. Lis.t. de A.
- 1818 *Ydiazabal*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Idiazabal-aundia*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Ydiazabal Mayor*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Idiazabal Aundi*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Idiazabal Aundi*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Idiazabal-aundi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Idiazabal Aundi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Gudarien Etorbidea, z/g.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute baserri honen izena, nahiz eta sinkopatu ondoren —hitzegiterakoan ez dira bokalarteko herskari ahostunak ahoskatzen— izena askoz laburrago geratu. 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta baserri zaharra den arren, bere egoera, itxuraz behintzat, nahiko ona da.

TOP.: ARANAZTEGI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Anaztei* (2)
Anastei (2)
Anaztegi

DOKUMENT.:

- 1615 *Aranaztegui*. I.E.A.
- 1813 *Aranaztegui*. Lis.t. de A.
- 1818 *Aranaztegui*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Aranaztegui*. Nomen., 81. orr.
- 1897 *Aranaztegui*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Aranáztegui*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Aranastegui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Aranaztegui, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Anastegi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Gudarien Etorbidea, z/g.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta ordutik 1937. urteko erroldararte dokumentu guztietan izena -z- txistukariaz azaltzen da. Mitxelenak *Ap.v.* liburuan zera dio: "...-a(t)z, -a(t)s terminación frecuente..." (62. orr.), aipatu bukaerak bariante gisa jasoz.

Baserri bikain hau trenbidearen ondoan dago. Zaharra izanagatik, kanpotik behintzat eraberrituta dago, itxura ezin hobea duelarik. Bere ondoan daude Munttegi baserriaren aurriak.

TOP.: MUNTTEGI BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Munttei*

DOKUMENT.:

- 1813 *Munthequi*. Lis.t. de A.
- 1818 *Muntegui*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Muntegui*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Muntegui*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Muntegui*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Mintegui*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1950 *Muntegui*; *Muntegui (caseta)*. Cen. y p. 44/1.
- 1945 "...*Munteguialdea*; *bajo y matorral*; (...) *Paraje: Soravilla...*".
Amil., jabea: P.A.G.
- "...*Munteguizarra*; *pradera con maizal*; (...) *Paraje: Goiburu...*". Amil.,
jabea: R.O.S.

KOKAP.: Aranaztegi baserriaren ondoan dago.

OHAR.: Baserri honen izena galdeketa parte hartu duten informatzaileetarik batek soilik aipatu duen arren, ziur gaude ez dela ezagutzen duen bakarra, 1950. urteko erroldan jaso baitugu baserriaren azken aipamena. Azken honetan aipatzen da ere *Muntegui (caseta)* delakoa eta ziur aski honek ondoan dagoen trenbidearekin zerikusia zuen. Gaur baserriaren horma bakar bat geratzen da zutik eta hau huntzez eta laharrez kasik estalita dago. Amilara-menduetatik jasotako izenak ez dute, ziurrenera, baserri honekin zerikusirik, baina Andoainen *munttegi* eta ez *mindegi* esaten zenaren frogatza jaso ditugu.

TOP.: ZIAKO ERREKA

- AHOZKO ERAB.: 6/5 *Ciako Erreka* (5)
Regata Ciako
- 6/3 *Errekabeltza* (2)
Errekabeltz (2)
- 6/2 *Kamiyo Txikiko Erreka*
- 6/1 *Olamiako Erreka*
- 6/1 *Kaletxikiko Erreka*

DOKUMENT.:

- 1922 "...*liquidación de las obras de cubierta de la regata Ciako...*".
Pro.t.a. 21H/1.

BIBLIO. "...*de los arroyos, el llamado Ziako es el más conocido...*". R. Arregui, *Andoain*, 12.orr.

"...*Torre de Berrospe. (...) En sitio llano, pero junto al regato de Ziako, hoy subterráneo...*" M. Lecuona, *Berrospe*, 7.orr.

"...*ZIRAKO, lurtsaila, (...) 1859 urtea...*" L. M^a Mujika, *ETM VI*, 340. orri.

KOKAP.: Gudarien etorbidean dauden lantegi eta etxeen artetik doa.

OHAR.: Errekabeltz eta Penadiko errekaen elkarketaz sortzen da beste hau Gudarien etorbidearen ondoan. Etxe eta lantegi ugariaren artetik igarotzen da, 1922. urtetik Txixarrain Berri etxearen ondotik aurrerako zatia estalita dagoelarik. Erreka honek menditik jaisten diren errekatxo garbien ura hartzen du, baina bere bazterrean horrenbeste lantegi izateak erreka zeharo kutsatzea ekarri du.

Informatzaile batek baino gehiagok esan digu erabiltzen den *Ziako Erreka* izen berria dela, baina inork ez digu izen zaharraren berri eman, eta ez dokumentazioan ez eta bibliografian ez dugu horren frogarik aurkitu. Erabiltzen den izen horretaz gain informatzaileek errekaen bazterrean dauden base-ri, lantegi eta kalearen izenean oinarrituriko beste hainbat izen ere aipatu digute.

Esan behar da ere, Luis M^a Mujikak *Zirako* izeneko lur saila jaso duela eta baliteke errekaen izenak ere jatorriz bokalartean dardarkaria izatea, baina datu gutxi ditugu hori ziurtatzeko.

TOP.: AMA KANDIDA ETORBIDEA

- AHOZKO ERAB.:**
- 8/8 *Avenida Madre Cándida* (6)
 - Madre Cándida* (2)
 - Ama Kandida Etorbidea* (2)
 - Ama Kandida*
 - Avenida de Madre Cándida*
 - Ama Kandidaren Etorbidea*
 - 8/5 *Bazkardo* (2)
 - Carretera de Bazkardo*
 - Bazkardo Ausoa*
 - Carretera Bazkardo*
 - Polígono Bazkardo*
 - 8/2 *Buruntzaspi Ausoa*
 - Barrio Buruntxa*
 - 8/2 *Calle San Pedro*
 - Kaletxiki*

DOKUMENT.:

1950 *Carretera a Bazkardo*. Cen. y p. 44/1.

1960 *Andoain-Buruntza*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Buruntzaspi; Avenida de la Madre Cándida*. Cen. y p. 45/1.

OHAR.: Egun erabiltzen dena izen ofiziala izan arren, informatzaileek orain dela urte batzuk erabiltzen zituzten beste zenbait ere aipatu dituzte. Izen horiek zentsu eta errolda zaharretan agertzen direnak dira.

Ama Kandida 1845-ean jaio zen Berrozpe dorretxean. Hamazazpi urterekin azaldu zuen bizi erlijiosorako bokazioa. Jesusen Alaben kongregazioaren sortzaile izan zen, ondoko urteetan Espainian eta Amerikan barrena ere hedatuko zena. 1912-an hil zen.

TOP.: MARIA LUISA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Villa María Luisa*
5/4 *Villa Pepita*

DOKUMENT.:

1937 *Villa Pepita*. Pad.m.h. 65H/1.
1945 *Villa Pepita*. Pad.m.h. 27/2.
1950 *Villa Pepita, Carretera Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.
1970 *Villa María Luisa*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 1.

OHAR.: Etxearen horman *Villa María Luisa* dago idatzita, eta hau da informatzaileek erabiltzen duten izena, nahiz gehienek etxeak lehen zuen izena ere gogoan eduki (ikus BORDATXO ETXEA, oharrak).

TOP.: LANDES ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Villa Landes*

DOKUMENT.:

1945 *Villa Landes*. Pad.m.h. 27/2.
1950 *Villa Landes, Carretera a Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.
1970 *Villa Landes*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 3.

OHAR.: 1942. urtean eraikia, etxearen horman ipinitako *Villa Landes* da informatzaile guztiek erabiltzen dutena ere (ikus BORDATXO ETXEA, oharrak).

TOP.: GURE BABESA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/3 *Mendikute*
Xanti Mendikute
Mendikuten Etxia
7/2 *Gure Babesa*
Gurebabesa
7/2 (Izena ezagutzen ez)

DOKUMENT.:

1970 *Villa Gure Babesa*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 5.

OHAR.: Etxearen ondoko horman *GURE BABESA. 1951 Carren urtean egiñak-dira* idatzita egon arren (ikus EGUZKIALDE ETXEA, oharrak), etxearen izena ez da ezaguna. Agian, kale honetako besteena ez bezala, honen izena leku agerian ipinita ez dagoelako izan liteke, etxea bera ere espaliatik 40-ren bat metro barrura dagoelarik. Zenbait informatzailek etxea aurreko jabearen deituraz ezagutzen du. Txalet gisako etxe dotorea da eta aurrekaldean lorategia du (ikus BORDATXO ETXEA, oharrak).

TOP.: EGUZKIALDE ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/3 *Eguzkialde*
5/3 *Arregi*
Pedro Arregi
Pedro Arregiñ Etxia

DOKUMENT.:

1970 *Villa Eguzki-alde*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 7.

OHAR.: Galdeketaren arabera, *Eguzkialde* bezain erabilia da jabearen izen-abizena. Honen eta ondoko etxearen artean ipinitako errotuluan azaltzen denez (ikus Ama Kandida etorbideko *GURE BABESA ETXEA*, oharrak), 1951. urtean eraikita dago. Txalet gisako etxe dotorea da eta lorategia du aurrekaldean.

TOP.: Orbelan Etxea

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Orbelan (3)*
Orbelanen Etxia
Orbelan Etxia

DOKUMENT.:

1970 *Orbelan*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 13.

OHAR.: *Orbelan* enpresaren etxea, informatzaileek izen horrekin ezagutzen dute.

TOP.: ERREKALDE ETXEA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Errekalde*

DOKUMENT.:

1950 *Errekalde, Carretera a Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.

1970 *Errekalde*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 15.

OHAR.: Mende honen erdialdera eraikia, informatzaile guztiek ezagutzen dute etxe honen izena.

TOP.: IKUTZA ZARRA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Ikutza Zar* (4)
 Ikutza Zarra (3)
 6/1 *Ikutza Txapel*

DOKUMENT.:

1615 *Ycuça; Ycuça de Suso*. I.E.A.
 1813 *Ycuza Chapelenea*. Lis.t. de A.
 1818 *Icutzazarra*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Icutza-zar*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Icuza-Zarra*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Icutza-zarra*. Cen.p. 70H/2.
 1950 *Icutza-zarra, Buruntza*. Cen. y p. 44/1.
 1960 *Icutza-zar, Andoain-Buruntza*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Ikutza-zarra*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Ama Kandida etorbideko Errekalde etxearen atzean.

OHAR.: Etxearen eskrituretan, 1813. urteko dokumentuan bezala, *Ikutza Zarra* edo *Ikutza Txapel* azaltzen dela esan digu jabeak, baina bigarren hori ez du inork ezagutzen. Egun, lantegiz inguratutako hiru solairuko etxea da, baina baserria zen garaietako izena gorde du.

TOP.: † IKUTZAKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 4/3 *Ikutzako Iturriya*
 4/1 *Errekaldeko Iturriya*

KOKAP.: Ama Kandida kaleko Errekalde etxearen ondoan zegoen.

OHAR.: Gaur estalita egon arren, lau informatzailek aipatu dute iturri honen izena. Hauek esan digute ere zein zen honen kokapena.

TOP.: LAUBIDE ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Laubide*

DOKUMENT.:

1950 *Lau-Bide, Carretera a Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 17.

OHAR.: Mende honen erdialdera eraikia, informatzaile guztiek eza-
 gutzen dute etxe honen izena. Errotuluan *Lau-bide* dago idatzita.

TOP.: AGIRIALAI ETXEA / MUÑAGORRINEA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Muñagorri* (2)
 Muñagorria (2)
 5/2 *Agirialai*

DOKUMENT.:

1945 *Aguiri-alay*. Pad.m.h. 27/2.

1960 *Aguiri-alay, Andoain-Buruntza*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Aguiri-alay, Buruntza*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Irigoien Azpikoa jauregiaren atzean.

OHAR.: Etxearen horman *Agiri-alay* idatzita dagoen arren, informatzaile gehienek *Muñagorria* izenaz ezagutzen dute etxea. Hiru solairu ditu eta alboan *Agirialaiondo* etxea dauka.

TOP.: AGIRIALAIONDO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Agirialaiondo*

2/1 *Katalanania*

DOKUMENT.:

1970 *Aguiri-alay-ondo, Buruntza*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Irigoien Azpikoa jauregiaren atzean.

OHAR.: Galdeketaren emaitzetan ageri denez, ez da izen ezaguna, etxearen izena aipatu duen informatzaile bakarrak ezagutu arren, ez duela erabiltzen aitortu digularik. Izenak adierazten duen bezala, *Agirialai* etxearen ondoan dago. Lau solairuko etxea da.

TOP.: OGIOLABERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Panaderiya* (3)

Kaletxikiko Panaderiya (2)

Panadería de Kaletxiki

Kaletxiki Panaderiya

Kaletxikiko Panaiya

7/3 *Ogi Olaberri*

Ogiolaberri

Ogiolaberri

7/2 *Arabaolazan Etxia*

Arabaolaza

DOKUMENT.:

1950 *Nueva Panadería, Carretera a Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 27.

OHAR.: Egindako galdeketa agerian geratzen da etxe hau *Kaletxikiko Panaderiya* izenaz ezagutzen dela. Arabaolazatarrek eraikia, jabez aldatzean, eta izenik ez zuenez, *Ogiolaberri* eman zioten. Horman *Ogiola-berri* dago idatzita.

TOP.: ZUBIETXE

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Zubietxe* (4)
Zubiondo
 5/1 *Intes*

DOKUMENT.:

1950 *Zubi-eche, Carretera a Urnieta*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Casa Zubi-Eche*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 18-20-22-24.

OHAR.: Informatzaile gehienek erabiltzen dute etxearen horman jarrita dagoen izena, nahiz eta hauetako batek *Intex* enpresa hartu erreferentziatzat eta beste batek, ziurtasun handirik gabe, *Zubi Ondo* erantzun.

TOP.: Moledanea

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Moleda* (2)
Moledania (2)
Antigua Casa de Persianas Moleda
 5/1 *Ventermi*

DOKUMENT.:

1950 *Moleda, Carretera a Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Fábrica Moleda*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 12.

OHAR.: *Moleda* enpresaren jabetzakoa zen eta egun horren izenaz ezagutzen da etxea. Tren geltokiaren atzekaldean daude lantegiaren aurriak, zenbaitek lekua *sitio de los gitanos* izenaz ezagutzen duelarik. Egun, etxe honetan *Went-Thermik* izeneko enpresa dago eta hor oinarriturik nonbait informatzaile batek aipatutako *Ventermi* izena.

TOP.: AGIRIOTENAIZ ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Agiriotenaiz* (4)
Agiri Otenaiz
 5/1 *Patxi Exkerran Etxia, Argiña*

DOKUMENT.:

1937 *Aguiri Alnaiz*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Aguiri-alnaiz, Carretera a Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 10.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute etxe honen izen bixia. Kokapena kontutuan izanik, badirudi errolda zaharretan aipatzen den *Aguiri Alnaiz* etxe hau bera dela.

TOP.: BENTABERRI

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Bentaberri* (5)
Bentaberri (2)

DOKUMENT.:

1950 *Venta-berri, Carretera a Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 4.

OHAR.: 1942-an eraikia, informatzaile guztiek ezagutzen dute etxe honen izena. Horman *VENTA BERRI* dago idatzita.

TOP.: JOAN BATAIATZAILE DEUNA ZAHARREN EGOITZA

AHOZKO ERAB.: 8/5 *Residentziya* (2)
Zarren Residentziya
La Residencia
Residencia de Ancianos
 8/5 *Ospitala* (4)
El Hospital de los Ancianos
 8/1 *San Juan Bautista*
 8/1 *Egoitza*

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea, 23.

OHAR.: Zaharren egoitzarik besterik ez dagoenez, informatzaile gehienek generikoa soilik erabiltzen dute, *Residentziya* edo *Ospitala*.

TOP.: IRIGOIEN AZPIKOA JAUREGIA - OSPITALEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Ospitala* (2)
El Hospital
El Hospital Viejo
Lengo Ospitala
Ospitalzarra
 5/1 *La Otra Casa, La Casa Vieja*
 5/1 *La Vieja Residencia*

DOKUMENT.:

1615 *Yrigoyen de Yuso*. I.E.A.
 1813 *Yrigoiien Garaicoa; Yrigoiien(e)a P(er)une*. Lis.t. de A.
 1818 *Seminario*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Seminário (El)*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Beneficencia*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Beneficencia, Sección de Bazcardo*. Cen.p. 70H/2.
Irigóyen Azpicoa, Sección de Bazcardo. ”
 1937 *Irwain Azpicoa*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Beneficencia, Carretera a Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. "...*Palacios dieciochescos de ese tipo abundan en gran número por todos los pueblos guipuzcoanos (sin ir más lejos, Azeláin y Bazcardo y el Hospital de Andoain)*..." M. Lecuona, *Berrospe*, 15. orr.

"...*Andoain: Ermitas: (...) Hospital (1586)*..." L. Murugarren, *Relación*, 62. orr.

Irurain Bekoa. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Ama Kandida Etorbidea 25.

OHAR.: Udaleko artxibariak *Ospitala* edo *Ospital Zarra* izenaz eza gutzen den etxe honi buruz egindako ikerketaren ondorioz, honen izena *Irigoién* dela jakin zuen. Gure lan honetan, berriz, *Irigoién* izeneko bi etxe izanik, hau *Yrigoyén de Yuso*, hots, *Azpikoa* dela zehaztu ahal izan dugu (ikus IRIGOIEN GARAIKOA ETXEA, oharrak). Etxea izen honekin soilik 1615 eta 1813. urteetako dokumentuetan azaltzearen arrazoia, etxeak izan dituen erabilpen ezberdinetan datza: *Seminario*, *Beneficencia* eta *Hospital* azkenik.

Etxe dotorea da oso, nahiz eta bere egoera hain kaxkarra izanik gaur edertasun hori itzalita dagoen. Aurrekaldeko horman dauden balkoiak etxeari itsatsita daude eta jauregia bera baino askoz berriagoak dira.

TOP.: RIKARDO ARREGI KALEA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Rikardo Arregi* (6)
Rikardo Arregi Kalia
 7/7 *Polígono Bazkardo* (4)
Bazkardo Poligonua
Bazkardo Ballara
Bazkardoko Barriyua
 7/2 *Avenida Agustin de Leiza*
Agustin de Leiza

OHAR.: Informatzaile guztiek erabiltzen dute ofiziala den izena, baina aipatu dituzte ere kalea eratu aurretik erabili izan diren beste zenbait izen.

1942-an jaio zen euskal kulturagintzan erabat murgildurik ibilitako Rikardo Arregi andoaindarra, gure kulturagintzaren berritzailearik bikainenetako bat izan genuelarik. Euskal literaturara nola eskuhar euskal kulturara plan-teamendu arnasberritzaileak ekarri zituen bere artikulu eta idazlanen bidez. Euskararen zabalkundea kezkarik bizienetakoa izan zuen eta berau izan genuen Euskaltzaindiari euskaldunen alfabetatzeari buruzko lehen proposamena egin ziona. Kazetari eta idazle gisa ere bide oparoa jorratu zuen *Zeruko Argia* aldizkarian astero astero idatziz, 1965-ean *Lauaxeta* saria jaso zuelarik artikulua bilduma bategatik. 1969-an hil zen eta 1989. urtean Andoaingo Udalak Andoaingo 'Seme Kuttun' izendatu zuen. Hor dugu ere, Andoaingo Udalak bere omenez urtero antolatzen duen *Rikardo Arregi Kazetaritza Saria*.

TOP.: MIMENDIONDO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Mimendiondo*

DOKUMENT.:

1970 *Mimendi ondo*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Rikardo Arregi Kalea, 7.

OHAR.: Informatzaile guztiak ezagutzen dute etxe honen izena. Lau solairuko etxea da eta horman *Mimendi-ondo* dago idatzita (ikus MIMENDI KALEA, oharrak).

TOP.: MIMENDIALDE ETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Mimendialde*

DOKUMENT.:

1970 *Mimendi alde*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Rikardo Arregi Kalea, 9.

OHAR.: Informatzaile guztiak ezagutzen dute honen izena. Lau solairuko etxea da eta horman *Mimendi-alde* dago idatzita (ikus MIMENDI KALEA, oharrak).

TOP.: TOKIONA ETXEA

† ERREZILLENEA - OLAZABALENEA

AHOZKO ERAB.: 7/6 *Tokiona*7/5 *Diputauania**Diputauban Etxia**Diputaubania**Diputauana**Diputadun Baserriya**Diputaubana**Kondiana*7/4 *Errexil Enea**Errexillania**Errexill**Errexillenia*7/2 *Floritana**Floritan Etxia*7/1 *Frantxesanekua*

DOKUMENT.:

1857-64 *Olazabalenéa*. Nomen., 83. orr.1862 *Bazcarventa ú Olazabalena ó Recillanea (casa)*. I.c.h., H-532.1897 *Olazabalenea*. Est.e. 48H/4.1907 (*septiembre*) *Errechillenea; Olazabalenea*. Corr.c. y r. 54H/10.1937 *Erresillenea*. Pad.m.h. 65H/1.1945 *Erresillenea*. Pad.m.h. 27/2.1970 *Toki-ona*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Rikardo Arregi Kalea, 17.

OHAR.: Etxeak horman idatzita duen izena erabiliena izanik, oso ezaguna da ere goitizenean oinarrituriko *Diputauania* izena. Informatzaile gehienek gogoratzen dute, bestalde, etxe honetan bizi den familiaren aurreko etxearen izena, hots, *Errexillenia*. Azken hau errepide nazionalaren eraiketagatik desagertu zen. 1862. urteko dokumentuan, bestalde, desagertutako etxeak izandako beste bi izen ere aipatzen dira.

TOP.: SARMENDI DORRETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Sarmendi* (3)
Sagarmendi (3)
Casa Sagarmendi
Xarmendiya

DOKUMENT.:

- 1615 *Sarmendi*; *Sarmendi chipi*. I.E.A.
- 1813 *Sarmendi*. Lis.t. de A.
- 1818 *Sarmendia*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Sarmendi*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Sarmendi*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Sagarmendi*. Cen.p. 70H/2.
- 1916 "...un cementerio situado en el término de este pueblo y paraje llamado *Sarmendi* o *Sagarmendi*...". Inv.p.d. 13H/9.
- 1937 *Sagarmendi*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1950 *Sagarmendi*, *Carretera Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.
- 1970 *Sagarmendi*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Rikardo Arregi Kalea, z/g.

OHAR.: Dokumentazioan azaltzen dena bat dator bertakoek esandakoarekin, hots, paper zaharretan baserriaren izena *Sarmendi* eta ez *Sagarmendi* dagoela idatzita. Egia da dokumentu zaharrean forma sinkopatua eta berriagoan jatorrizkoa azaltzea gerta daitekeela, baina asko harritzen gaitu 1615-etik 1897-ra bitarteko dokumentu eta eskribau guztiek forma sinkopatua idaztea eta, aldiz, mende honetako dokumentu eta eskribau guztiek jatorrizkoa. Oikonimo hau *mendi* eta *sagar* ez den beste zerbaitetaz egon daiteke osatuta eta horregatik, zalantza hauen aurrean idatzi zaharretan azaltzen den *Sarmendi*-ren aldera jo dugu.

Dorretxe izandako hau egun goitik behera eraberrituta dago, baina eraberritze lanetan eraikinaren ezaugarri historikoak gorde dira: ateko arkua, etxea eusten duten egurrezko zutabeak..., e.a. Hona etorri zen bizitzera Aita Larramendiren anaia eta ordutik hemen gorde da *Garagorri* abizena. Egun etxez inguratuta dago, baina, baratzak eta ondoan gorde duen lur saila dela-eta, bere inguruak ez du berezko edertasunik galdu.

1615. urteko dokumentuan azaltzen denez, *Sarmendi Chipi* izeneko etxea ere izan da.

TOP.: Osasun Zentrua

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Ambulatoyua* (2)
Ambulatoyo Berriya
Ambulatoriyua
Ambulatorio

KOKAP.: Rikardo Arregi Kalea, z/g.

OHAR.: Egindako galdeketa ez du inork errotuluan ipinita dagoen *Osasun Zentrua* edo *Centro de Salud* aipatu. Eraikin berria da.

TOP.: (hilerria)

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Kanposantuzarra* (5)
Lengo Kanposantu zarra
Kanposantuba

DOKUMENT.:

1881 "...*Cementerio Antiguo. Está al contacto de la Iglesia Parroquial por la parte norte no haciéndose uso de él. Ocupa 5 áreas y 20 centiareas...*". Inv.b. 44H/7.

1881 "...*Cementerio Nuevo (...) confina por Norte con camino carretil público, por Mediodía con terrenos de la casa Ondarreta, por Oriente con camino carretil público y por Poniente con terrenos de la casería germada de Mimendi...*". Inv.b. 44H/7.

KOKAP.: Rikardo Arregi kalean dago.

OHAR.: Sarmendi dorretxean bizi zen Aita Larramendiren anaiak eman zituen hilerrirako lurak, garai haietan hilerri berria —zaharra elizaren ondoan— eta egun *kanposantu zarra* den honentzat.

TOP.: (frontoia)

AHOZKO ERAB.: 4/2 (Izenik erabiltzen ez)
 4/1 *Beko Frontoia*
 4/1 *Bazkardoko Frontoia*

KOKAP.: Rikardo Arregi kalean dago.

OHAR.: Duela gutxi eraiki dute eta ez dirudi honentzat izen berezirik erabiltzen denik.

TOP.: MIMENDI KALEA
 † MIMENDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Mimendi* (3)
Calle Mimendi (2)
Mimendi Kalea
 5/3 *Polígono Bazkardo*

DOKUMENT.:

1615 *Mimendi*. I.E.A.1813 *Mimendi*. Lis.t. de A.1818 *Mimendi*; *Mimendico Echeberri*. Est.p.i. 62H/7.1881 *casería germada de Mimendi*. Inv.b. 44H/7.BIBLIO. *Mimendi*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

OHAR.: Izen ofiziala da informatzaile guztiek erabiltzen dutena, baina kalea eratu aurretik erabiltzen zena ere aipatu du zenbaitek.

Kalearen izenak inguru honetan zegoen *Mimendi* baserriaren izena du jatorri. Baserri hau izan zen liberalek Andoainen erre zutenetarikoa bat. 1818. urteko dokumentuan, bestalde, besteetan azaltzen ez den *Mimendico Echeberri* izeneko aipatzen da, baina ez dugu horrek izandako kokapena ezagutzen.

TOP.: TORREKU(A) ETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Torrekua* (6)
Casa Torrekua

DOKUMENT.:

1970 *Torrekua*. Cen. y p. 45/1.KOKAP.: *Mimendi* Kalea, 3.

OHAR.: Etxearen horman idatzitakoa da informatzaileek erabiltzen duten izena.

TOP.: TORREONDO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Torreondo* (6)
Casa Torreondo

DOKUMENT.:

1970 *Torre-ondo*. Cen. y p. 45/1.KOKAP.: *Mimendi* Kalea, 1.

OHAR.: Informatzaileek etxearen horman ipinitako izena erabiltzen dute.

TOP.: † BAZKARDO DORRETXEAK

AHOZKO ERAB.: 10/10 *Bazkardo* (5)
Caserío Bazkardo (2)
Andoain Bazkardo (2)
Andoaingo Bazkardo

DOKUMENT.:

- 1615 *Bazcardo*. I.E.A.
 1813 *Bazcardo*. Lis.t. de A.
 1818 *Bazcardo*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Bazcardo*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Bazcardo*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Bazcardo*. Cen.p. 70H/2.
 1911 "...*pedra suministrada desde el kilómetro 9 hasta el cruce de Bazcardo en arreglo firme de la carretera...*". Sol.c.c. 71H/10.
 1950 *Bazcardo*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Bazcardo*. Cen. y p. 45/1.

BIBLIO. *Bazcardo*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

"...*Bazcardo* (...) *aspecto de antiguo palacio rural sin características de torre* (...) *Palacios dieciochescos de ese tipo abundan en gran número por todos los pueblos guipuzcoanos* (...) *Bazcardo...*". M. Lecuona, *Berrospe*, 7-15. orr.

KOKAP.: Errepide nazionalaren alboan zegoen, Ama kandida etorbidearen parean.

OHAR.: Etxe honen ondotik zetorren Andoainen barrena Madrid-Irun Errepide Nazionala, eta etxe honek eman zion izena bertan zegoen bidegurutze arriskutsuari. Eta 'zetorren' diogu, duela hilabete gutxi, aipatu *Bazcardo*-ko bidegurutze arriskutsua ezabatzeko jasotako zubi eta zeharbi-deek *Bazcardo Dorretxea* suntsitu beharra ekarri dutelako. Herriko gainerako gehienek bezala dorretxe itxura aspaldi galduta zuen arren, gezileiho bat eta armarriko San Andres gurutzeak ziren dorretxea Erdi Aroan eraikia izanaren aztarna bakarrak. Azken urteotan hutsik eta egoera kaskarrean ikus zitekeen, baina, esan bezala, dagoeneko galduta da betirako.

Informatzaile guztiak ezagutzen dute honen izena, baina *Sorabillako Bazcardo* baserritik bereizteko honi *Andoain Bazcardo* ere esaten zitzaion.

TOP.: † BAZKARDOKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Bazkardoko Itturriya* (2)
Bazkardoko Aska

KOKAP.: Orain dela gutxi botatako Bazcardo dorretxearen ondoan zegoen.

OHAR.: Dorretxea bota baino lehenago estali zen hiru informatzaile hauek aipaturiko *Bazkardoko Itturriya*. Hauetako batek esan digunez, putzu baten antzekoa zen eta berak horregatik *Bazkardoko Aska* esaten omen zion.

TOP.: UBILLUTS AUZUNEA

OHAR.: Auzune honetan lantegia besterik ez dago eta hemen izan zen *Ubilluts* baserrian oinarrিতuta eman zaio izena duela gutxi. Berritasun honi auzunean etxebizitzarik ez egotea lotzen badiogu ulergarria da jendeak izen honen berririk ez izatea (ikus SORABILLA AUZOA, sarrera eta UBILLUTS BASERRIA, oharrak).

LEIZOTZ AUZOA: TOPONIMOAK

Herrigunearen hego-ekialdera dago, 17 kilometro karratu ingurukoa, lau auzuneetatik handiena delarik. Mugatzat ifar-mendebaldetik Urnietako bidea dauka, hego-mendebaldetik Leitzarar ibaiaren hegoaldeko Berastegi eta Elduaingo muga eta ekialdetik Urnietakoa. Auzo honetako mendirik nagusiena, nahiz eta garaiena ez izan, Aizkorri da. Hego-ekialdean dago eta 674 metro ditu. Hidronimoen artean bi dira aipatu beharrekoak: Leitzarar ibaiaren eta Ubarar erreka. Lehenengoa Andoainara iritsi ahal da Leizotz auzoaren eta Billabonararen arteko muga da eta udalerriaren barrena sartu ondoren Goiburua eta Leizotz auzoaren arteko. Ezin ukatu hau dela aipatu bi erreken artean nagusiena, besteak beste luzera eta ur etorriari bagagozkio, baina Ubarar erreka, askoz txikiagoa izanik, erreka garrantzitsua izan da, bere bazterretan izan diren errota eta burniola ugariak hala aitortzen baitute. Honek Leizotz auzoaren ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du azkenik bere urak Leitzarar ibaira isurtzeko. Bi hauek hidronimo nagusiak izan arren, auzo honetan errekatxo eta iturriak ugari direla esan behar dugu.

Leizotzen jabetza pribatuko basoak lurraldearen zatirik handiena hartzen dute, hauetan koniferak nagusi direlarik. Ifarrean, ordea, gehienak laborantzarako erabiltzen dira —belaze eta soro atlantikoak—. Auzo honetan erreserba natural eta babestu beharreko zonaldeak ere badira.

Leizotzen baserriak sakabanatuta daude, hau da, ez dago elkargunea eragingo lukeen ermita edo elizarik eta, beraz, ez da inongo festa edo jairik ospatzen. Ifarrean, baserriak hiru bide nagusien alboetan daude, besteak Leitzarar ibaiaren eta Ubarar errekararen bazterretan eraikiak direlarik. Auzoaren hego-ekialdean, herrigunetik urrutien egoteagatik edo, ez dago baserririk. Guztira 57ren bat dira auzo honetan dauden baserri —zutik daudenak— eta etxeak —gehienak berriak eta txalet gisakoak— (ikus BURUNTZA AUZOA, oharra).

DOKUMENT.:

1761 *Varrío de Leizoz*. Lib.c.f., 131. orr.atz.

1762 *Varrío de Leyzoz*. Lib.c.f., 192. orr.atz.

1897 “...Sección nº 11 de Leizoz de los edificios diseminados...”.
Cen.p. 48H/3.

BIBLIO. “...El pueblo se compone de dos calles y una plaza, donde esta la casa concejil; y tiene los barrios denominados Burunza, Leizoz...”.
P. Gorosabel, *Diccionario*, 34. orr.

TOP.: LEITZARAN IBAIA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Leizaran* (5)
Leizaran
Leizarango Erreka
Leitzañ

BIBLIO. “...Araxes y Leizaran son de aguas muy cristalinas...”. M. Larra-
mendi, *Corografía*, 33. orr.

“...Andoain (...) Tiene su asiento á orillas del rio Oria en su con-
fluencia con el Leizarán y crucero de la antigua carretera (...) En jurisdiccion de esta villa hay una ferrería establecida sobre el rio Leizarán y dos molinos harineros...”. P. Gorosabel, *Dic-
cionario*, 34. eta 36. orr.

“...la villa de Andoain (...) en la confluencia de los ríos Oria y Leiza-
rán, al pie del monte Buruntza...”. R. Arregui, *Andoain*, 11.
orr.

KOKAP.: Nafarroan jaiotzen da. Ibaia Leizotz auzoaren hegoaldera iritsi eta zati luze batez Andoain eta Billabonaren arteko muga da, Belabi mendia-
ren parean Andoainen sartzeraino. Hortik aurrera Goiburu eta Leizotz auzoen artean igarotzen da, Santa Krutz ermitaren aurrean bere ura Oria ibaiara isurtzen duen arte.

OHAR.: Dokumentazioan ez eta liburuetan aurkitu ditugu ibai honi buruzko aipamen bakarrak. Galdeketa-
ren atalean ikus daitekeenez gehiago dira ibaiaren izena frikari-
az esaten dutenak, baina azpimarratu behar da bost informatzaile horiek kaletarrak direla (ikus LEITZARAN KALEA). Beste hirurak, ordea, Leizotz auzoko baserri-
tarrak. Zentzu honetan aipagarria da ere bi idazle andoaindarren arteko ezberdintasuna, Larramendik *Leizaran* idaz-
ten duen bitartean, Arregik *Buruntza* bai, baina *Leizarán* idatzi baitu. Gaur, inguru honetan ditxosozko autobidea dela-eta, horrenbeste entzuten den *Valle (del) Leizaran*-ari dagokionez, esan behar da, Andoainen auzo hau guztia, ibai-
aren aldera dagoen eremua barne, *Lei(t)zaran* ez, baizik eta *Leizotz* izenaz ezagut-
zen dela.

Ur biziko ibai-
a da eta bere bazterretan, zentral hidroelektriko bat baino gehiago izateaz gain, bere uraren indarrez baliatu diren errota eta bur-
niola ugari izan da. Andoaingo lurretan, adibidez, Garaikoerrota, Leizaurkola,
Olazarra eta Olaberria.

KOKAP.: Pagamendiren mendebaldean zegoen, Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: 1615. urteko dokumentuan *Balçuzqueta* eta *Abalçuzqueta* ere topatu ditugu eta, agian, bigarren hau izan zen baserriaren jatorrizko izena. Dena dela, badirudi hasierako bokalaren galera 1615. urterako jadanik nahiko hedatuta zegoela, dokumentu horretan bi eratara idatzita azaltzen baita. Eskriturretan baserriaren izena -s- txistukariaz dago idatzita (ikus BALTZUSKETA TXIKI BASERRIA, oharrak).

Baserri honen jabe den familiarenak dira ere *Baltzusketa Erdikoa* baserria eta *Baltzusketa Berri* etxea. *Nausiyania* esan digun informatzailea, berriz, *Baltzusketa Erdikoa*-ko maizterra da (ikus azken honen ahozko erab.).

Duela gutxi bota duten baserri honen egoera ez zen batere ona eta bertan ez zen jadanik inor bizi. Bere orubean etxe berria eraikitzen ari dira (ikus BALTZUSKETA BERRI ETXEA).

TOP.: BALTZUSKETA ERDIKOA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Baltzusketa Erdikoa* (2)
Baltzusketa
 3/1 *Maixtarrania*
 3/1 *Erbiyana*

DOKUMENT.:

1897 *Balzuqueta-erdikoa*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Balzusqueta Berri*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Balzuqueta Berri*. Pad.m.h. 65H/1.

KOKAP.: Pagamendiren mendebaldean dago, Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: *Baltzusketa Aundi* baserria eta *Baltzusketa Berri* etxearen jabeena da ere ondoan dagoen beste hau, eta horregatik aipatu dute honentzat *Maixtarrania* izena (ikus BALTZUSKETA AUNDI BASERRIA). *Erbiyana*, berriz, goitizenean oinarritutakoa dugu. Mende honetako zentsu eta errolda zaharretan ikus daitekeenez, baserri hau *Baltzusketa Berri* izenarekin azaltzen da, baina izen hau ez erabilia izateaz gain, egun, ondoan eraiki den etxe berriari eman zaio (ikus BALTZUSKETA TXIKI BASERRIA, oharrak).

TOP.: GARRO BERRI BASERRIA † GARRO (ZARRA) BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Garro* (3)
Garro Berri

DOKUMENT.:

1615 *Garro*. I.E.A.
 1813 *Garro*. Lis.t. de A.
 1818 *Garro*. Est.p.i. 62H/7.

- 1860 *Garro*. Est.e. y h. 48H/1.
 1857-64 *Garró; Garró-berri*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Garro Berri; Garro Zarra*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Garro-berri; Garro-zarra*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Garro*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*Garro Aldia; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*". Amil,
 jabea: C.M.B.

BIBLIO. *Gafo (Garro) y -berri, caseríos de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Garro. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Pagamendiren hegoaldeko maldan dago, Atxular mendira doan bi-
 dearen bazterrean.

OHAR.: Baserri honen ondoan zegoen, egun Argiargi etxea dagoen
 orubean, *Garro (Zarra)* baserria eta azken hau erre zenetik berriari soilik *Garro*
 esaten zaio. Era guztietara, nahiz eta egun bereizketa egitea beharrezkoa ez
 izan, egoki deritzogu *berri* kalifikatzailea mantentzeari, hau baino zaharrago
 bat ere izan zela jakitearren.

Baserri txikia da eta egoera, itxuraz behintzat, ez da batere bikaina.

TOP.: **ETXABE (BERA) BASERRIA**
 † **ETXABE BUNOA BASERRIA**

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Etxabe*

DOKUMENT.:

- 1615 *Echabe Bera; Echabe Bunoa (Esabe Munoa)*. I.E.A.
 1813 *Echabe*. Lis.t. de A.
 1818 *Echabe*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Echave*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Echave*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Echave*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Echave*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Echave*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Etxabe, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Etxabe. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Pagamendiren hego-ekialdeko maldan dago, Atxular mendira doan
 bidearen bazterrean.

OHAR.: 1615. urteko dokumentuan aipatzen diren bi horietatik
 egun dirauena *Echabe Bera* denaren susmoa dugu. Mitxelena *Ap.v.* liburuan
 dioenez *buno* eta *muno muño(a)*-ren barianteak dira. Pentsatzekoa da, beraz,
Etxabe izeneko bi baserrien arteko erlazioa edo ezberdintasuna bat goian,
 muñoan, eta bestea behean egotea zitekeela. Gaur zutik dagoen hau baino
 metro batzuk gorago dago, hain zuzen, *Etxamuno* izeneko baserria eta honen
 inguruan egon zitekeen desagertutako *Echabe Bunoa* baserria ere.

TOP.: MUÑAGORRI BASERRIA
 † IPURKAITZ BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Muñagorri*
 5/3 *Ipurkaitz*

DOKUMENT.:

1897 *Ypurcaiz*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Ipurcaiz*. Cen.p. 70H/2.
 1940 *Ipurcaiz*. Pad.m.h. 18/3.
 1945 *Muñagorri*. Pad.m.h. 27/2.
 1960 *Muñagorri*. Cen. y p. 28/1.

BIBLIO. *Muñagorri (Ipurkaitz)*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifar-mendebaldeko maldan dago, Etxebesteko eta Igurutz erreken arteko gainean eta Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: 1956. urtean *Ipurkaitz* baserria erre egin zen eta ondoren eraikitako honi, aurrekaldeko horman idatzia duen legez, *Muñagorri* izena eman zitzaion. Zenbait informatzilek, hala ere, baserri zaharraren izenaz eza-gutzen du. Baserri batena baino etxe dotore baten itxura du.

TOP.: ETXAMUNO BERRI BASERRIA
 † ETXAMUNO BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Etxamuno Bekua*
Etxemuno
Etxamuno

DOKUMENT.:

1813 *Echamunoa, Echamonua*. Lis.t. de A.
 1818 *Echamunoa*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Echamunóa; Echamuno-azpicóa*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Echamunoa; Echamuno Azpia; Echemuno Berri*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Echemonu-berri; Echemonua*. Cen.p. 70H/2.
 1950 *Echamuno-berri; Echamuno*. Cen. y p. 44/1.
 1960 *Echemuno-berri*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Echamuno*. Cen. y p. 45/1.
 1945 "...Aranzabaleta *Echamunoco; cereal, bajo y matorral; (...)* *Paraje: Leizós...*". Amil., jabea: M^a D.A.E.

BIBLIO. *Etxamunoa y -azpikoa, caseríos de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifar-mendebaldeko maldan dago, Etxebesteko eta Igurutz erreken arteko gainean eta Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: Dokumentazioan aurkituriko aipamenen arabera, badirudi *Etxamuno* izeneko hiru baserri izan direla. Egun bakar bat dago zutik eta

beste baten horma zatitxo bat geratzen da, informatzaileek, jadanik beharrezkoa ez denez, hauen arteko bereizketarik egiten ez dutelarik. Informatzaile batek *Etxamuno Goikoa* eta *Etxamuno Azpikoa* esanez bereizi dituen arren, dokumentuetan aurkitutakoaren arabera, ez dugu uste bereizketa hori zuzena denik, edo ez da, behintzat, garai batean egiten zena. 1897. urtetik aurrerako dokumentuetan urtez-urte zer gertatzen den ikusi besterik ez dago. Datu horietan oinarrituta, zutik dagoen baserria *Etxamuno Berri* eta bestearena *Etxamuno* litzateke. Horrela, bada, izandako hirugarrena, *Etxamuno Azpikoa*, alegia, aspaldi desagertuta legoke (ikus GARRO BERRI BASERRIA, oharrak).

Etxamuno, *Etxamuno Berri* baserriaren ondoan zegoen eta honen ondoko pinudian ikus daiteke azken zantzu bat, zutik dirauen horma zatitxoa. Aipagarri da honen inguruan dauden lizarrek osatzen duten zirkulua, horma puska horren erdi-erdian geratzen delarik.

TOP.: ETXEBESTE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Etxebeste*

DOKUMENT.:

- 1615 *Echebeste (Esebeste)*. I.E.A.
- 1757 *Echevestte*. Lib.c.f., 127. orr.
- 1813 *Echeveste*. Lis.t. de A.
- 1818 *Echebeste*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Echeveste*. Nomen., 82. orr.
- 1897 *Echeveste*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Echeveste*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Echeveste*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Echeveste*. L. Isasti, *Compendio*. 102. orr.
Etxebeste, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Etxebeste. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifar-mendebaldeko maldan dago, Etxebesteko eta Igurutz erreken arteko gainean eta Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: Baserri honen izenak ez du urteetan zehar aldaketarik jasan eta informatzaile guztiak ezagutzen dute. Garagorri baserriaren ondoan dago, Atxular mendirako bidea bien artean doalarik.

TOP.: GARAGORRI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Garagorri*

DOKUMENT.:

- 1615 *Garagorri*. I.E.A.
- 1813 *Garagorri*. Lis.t. de A.
- 1818 *Garagorri*. Est.p.i. 62H/7.

- 1857-64 *Garagorri*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Garagorri*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Garagorri*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Garagorri*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 *Camino público Garagorri*. Amil., jabea: A.B.S.

- BIBLIO. *Garagorri*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Garagoti, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Garagorri. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifar-mendebaldeko maldan dago, Etxebesteko eta Igurutz erreken arteko gainean eta Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute Aita Larramendiren jaiotetxe izandako baserriaren izena. Baserri bikaina da, armarria duena. Bere ondoan dago, Atxular mendira doan bidearen bestaldean, Etxebeste baserria.

TOP.: † BORDAGARAI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Bordai*

DOKUMENT.:

- 1813 *Bordagarai*. Lis.t. de A.
 1818 *Bordagarai*. Est.p.i. 62H/7.
 1848 (*septiembre*) "...por el norte con los montasgos de la caseria de Echave, Echamunoa, Amesti, Bordagarai...". Bie.c. y p. 44H/5.
 1857-64 *Borda-garay*. Nomen., 82. orr.
 1909 "...el camino vecinal desde caserío Garagorri al túnel de terrenos de Bordagaray se ve deteriorado e incaminable...". Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: (5) Atxular mendiaren ifar-mendebaldeko maldan zegoen, Garagorri eta Mizpiradi baserrien artean.

OHAR.: Informatzaile batek eman digu desagertutako baserri honen berri eta berak aipatutako kokapena dokumentu ezberdinetan azaltzen diren datuekin bat dator. Ez gara bertara hurbildu eta baliteke honen aztarnaren bat geratzea. Dena dela, mende honen hasieran jaso dugu baserri honen azken aipamena eta, beraz, urte asko dira *Bordagarai* baserria desagertu zela.

TOP.: MIZPIRADI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Mizpirei*

DOKUMENT.:

- 1753 *parage nombrado Mizpiradiazpia*. Lib.c.f., 182. orr.atz.
 1769 *casa de Mizpiradi*. Lib.c.f., 143. orr.atz.

- 1813 *Mizpiradi*. Lis.t. de A.
 1818 *Mizpiradi*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Mizpiradi*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Mizpiradi*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Mispiradi*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Mispiradi*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*Mispiradi Aldea; pradera; (...)* Paraje: *Leizos...*". Amil., jabea: A.B.S.
 "...*Mispiregui Azpia; bajo y matorral; (...)* Paraje: *Leizos...*". Amil., jabea: J.B. E.O.

BIBLIO.: *Mizpiradi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Mizpiradi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifarraldeko maldan dago, Idiazabal Aundi base-
 rritik eta La Salle etorbidetik abiatuz Atxular mendira doazen bideak
 elkartzen diren tokian.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute baserri honen izena.
 Baserria zahartuta dago eta bere egoera, itxuraz behintzat, ez da batere ona.
 Bere ondoan eraiki berria den etxe bat eta Benezia Etxeberri daude.

TOP.: BENEZIA ETXEBERRI / LEUNDANEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Leunda* (4)
Leundania
 4/1 *Benezi Etxeberri*

DOKUMENT.:

- 1813 *Benecia la Nueva*. Lis.t. de A.
 1818 *Beneciberria*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Beneci-berri; Veneciaco-echeberri*. Nomen., 82- 83. orr.
 1897 *Beneci-echeverri*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Venecico Echeberri; Veneci Echeberri*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Veneci Echeverri*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO.: *Benezi-beñi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Benezi Etxeberri. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifarraldeko maldan dago, Idiazabal Aundi base-
 rritik eta La Salle etorbidetik abiatuz Atxular mendira doazen bideak
 elkartzen diren tokian.

OHAR.: Nomenklatorrean eta 1910. urteko erroldan ageriengatik an-
 tzeke izenak izan arren, badirudi bi baserri ezberdin izan direla *Benezia*
(Etxe)Berri eta *Beneziako Etxeberri*. Oraingo honen izena *Benezia Etxeberri*
 den arren inork gutxi ezagutzen du hori, baserria *Leunda* izenaz ezaguna
 baita eta badirudi aspaldidanik gertatzen dela horrela. Bertako maizterrak
 kondatu zigun nola orain dela urte mordoxka bat Ameriketatik baserriaren
 jatorrizko izenarekin eskutitza iritsi zen eta ez karteroak ez eta udaletxean ez

omen zekiten zein baserri zen hori. Eskutitzak buelta ugari eman omen zuen izenarena argitu zen arte (ikus BENEZIA BASERRIA, oharrak).

Baserri txiki honetan ez da inor bizi, nahiz maizterrak bertan abere zenbait izan, eta honen egoera guztiz tamalgarria da. Ondoan Mizpiradi baserria eta eraiki berria den etxe bat duade.

TOP.: ARIZMENDI ETXEBERRI

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Aizmendi Etxeberri*

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Arizmendi-echeberri*. Nomen., 81. orr.
- 1897 *Arizmendi-echeberri*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Arizmendi Eche Berri*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Arizmendi Echeverri*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Arizmendi, y -txiki, y Etxeberri, caseríos de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

Eizmendi Etxeberri. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifarraldean dago, Penadiko eta Etxebesteko erreken artean eta Idiazabal Aundi baserriaren ondoan hasita Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: 1857. urtean aurkitu dugu baserriaren lehen aipamena eta, izenak adierazten duen bezala, *Arizmendi* izeneko baserrien artean hau da hiruetan berriena. Izena aurrekaldeko horman letra handiz dago idatzita. Ondoan Belategi baserria du.

TOP.: ASU BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Asu*

DOKUMENT.:

- 1615 *Asu*. I.E.A.
- 1754 *Casa de Asu*. Lib.c.f., 125. orr.
- 1757 *Vinero de Asuazpia*. Lib.c.f., 185. orr.atz.
- 1813 *Asu*. Lis.t. de A.
- 1818 *Asu*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Asú*. Nomen., 82. orr.
- 1897 *Asu*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Asu*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Asu*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1922 *Meseta de Asu*. Pro.t.a. 21H/1.
- 1945 "...*Asu Aldia; pradera; (...)* Paraje: *Leizos...*". Amil., jabea: I.E.U.
- "...*Aurrecoasu; bajo y matorral; (...)* Paraje: *Leizos...*". Amil., jabea: A.C.A.
- Paraje Asu-aldea*. Amil., jabea: J.E.M.

BIBLIO. *Asu, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Asu. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Mokorollo gaina eta Atxular mendiaren arteko lautadan dago.

OHAR.: Zelai eder baten erdian dago eta egun bere inguruan ez dago beste baserririk (ikus IZOZTEGI BASERRIA). Baserri zaharra den arren egoera onean dago. Dokumentazioan azaltzen diren zenbait daturen arabera, badirudi baserriaren ingurua *Meseta de Asu* edo *Asu-aldea* izenaz ezagun izan dela.

Mitxelena toponimo honen etimologiari buruz zera dio: "...(*H*)ar-*tsu* «lugar pedregoso», vizc. «zarzal», a.-nav. *arsu* «roca» (...) Cabe preguntar si *Asua*, *Asube*, *Azua* no serán var. de *Arsua*, etc...." (*Ap.v.*, 58. orr.)

TOP.: BELATEGI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Belatei* (4)
Belategi

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Belétegui*. Nomen., 82. orr.
- 1897 *Beletegui*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Belategui*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Belategui*. Pad.m.h. 18/3.

BIBLIO. *Beletegi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Belategi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifarraldean dago, Penadiko eta Etxebesteko erreken artean eta Idiazabal Aundi baserriaren ondoan hasita Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: Dokumentu gehienetan *Beletegi* idatzita azaldu arren, informatzaile guztiek *Belategi* esan dute. Mitxelena honen etimologiari buruz honako hau dio: "...*bele*, *bela* «cuervo» (...) En los siguientes, probablemente sea preferible pensar ante todo en *bel(h)ar*, *berar* «hierba» (v. 149 y 151): *Belamendia*, *Belandia* (*Belaundia*), *Belate*, *Beletegui*..." (*Ap.v.*, 69-70. orr.)

Bere ondoan garai berean eraikia izan den Arizmendi Etxeberri dago.

TOP.: ARIZMENDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Aizmendi*
5/2 *Diputadu Etxia*

DOKUMENT.:

- 1615 *Ar(e)yzmendi*. I.E.A.
- 1813 *Arizmendi*. Lis.t. de A.
- 1818 *Arizmendi*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Arizmendi*. Nomen., 81. orr.

- 1897 *Arizmendi*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Arizmendi*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Arizmendi*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*Arizmendi Alde; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*".
 Amil., jabea: A.B.S.
 "...*Arizmendi Aldia; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*".
 Amil., jabea: M.U.A.

BIBLIO. *Arizmendi*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Eizmendi Aundi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Pagamendiren ifar-ekialdean dago, Igurutz eta Etxebesteko errekek elkartzen diren tokiaren gainkaldera.

OHAR.: 1615. urtean aurkitu dugu baserri honen lehen aipamena. Baserri bikaina da, baina, tamalez, bere egoera ez da oso ona, zenbait hormetan pitzadura larriak azaldu direlarik.

TOP.: ARIZMENDI TXIKI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Aizmendi Txiki*

DOKUMENT.:

- 1813 *Arizmendi Chiqui*. Lis.t. de A.
 1818 *Arizmendi Chiqui*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Arizmendi-chiqui*. Nomen., 81. orr.
 1862 *Berridi ó Arizmendi-chiqui*. I.c.h., H-532.
 1897 *Arizmendi Chiqui*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Arizmendi-chiqui*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Arizmendi Chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Arizmendi-txiki, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Eizmendi Txiki. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Pagamendiren ifar-ekialdean dago, Idiazabal Aundi baserriaren ondoan hasita Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: 1813-an jaso dugu baserri honen lehen aipamena. 1862. urteko dokumentuan *Arizmendi-chiqui* izenaz gain baserriak zuen beste bat ere aipatzen da.

Atxular mendira doan bide berean baina goraxeago daude *Arizmendi* izeneko beste bi baserriak, *Arizmendi (Aundia)* eta *Arizmendi Etxeberri*, alegia. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: ARITZAGA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Aitza* (5)
Aritzaga

DOKUMENT.:

- 1615 *Areyçaga*. I.E.A.
- 1813 *Areizaga*. Lis.t. de A.
- 1818 *Arizaga*. Est.p.i. 62H/7.
- 1848 *casería de Arizaga*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1857-64 *Arizaga*. Nomen., 81. orr.
- 1897 *Arizaga*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Arizaga*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Arizaga*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1945 *Arizaga Azpicoa, pradera*. Amil., jabea: A.I.B.

- BIBLIO. *Arizaga*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Aritzaga, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Aritzaga. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Pagamendiren ifar-ekialdean dago, Idiazabal Aundi baserriaren ondoan hasita Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute dokumentazioan 1615. urtetik aurrera aipatzen den baserri honen izena, nahiz eta hitzegiterakoan izena sinkopatuta esan behar da, hots, *A(r)itza(g)a*. Oso baserri zaharra izan arren bere egoera ona da.

TOP.: PENADI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Penai* (2)
Penadi

DOKUMENT.:

- 1813 *Penadi*. Lis.t. de A.
- 1818 *Penadi*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Penadi*. Nomen., 83. orr.
- 1862 *Penadi, llamada antes Echerotegui*. I.c.h., H-532.
- 1897 *Penadi*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Penadi*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Penadi*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1945 "...*Peñari Aldia; bajo y matorral...*". Amil., jabea: A.I.B.

- BIBLIO.: *Penadi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Penadi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Pardaki bizkarraren ifar-mendebaldean dago, Errekabeltz eta Penadiko erreken artean, *Antzizu Gaina* izenez ezagutzen den tokian.

OHAR.: 1813. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta, 1862. urteko dokumentuan baserriaren izen zaharra *Echerotegui* zela esaten den arren, ez dugu beste aipamenik aurkitu. Egun, Aranaztegi baserrian hasten den bideko azken baserria da (ikus LEKUNATEGI BASERRIA). Egoera onean dago.

TOP.: AGIRREBORDA BASERRIAAHOZKO ERAB.: 3/3 *Agerreborda***DOKUMENT.:**

- 1813 *Aguerreborda, Aguirreborda*. Lis.t. de A.
- 1818 *Aguirreborda*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Aguirre-borda*. Nomen., 81. orr.
- 1897 *Aguirre Borda*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Aguerre Borda*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Aguerre-borda*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1945 *Aguirre Borda*. Pad.m.h. 27/2.
- 1970 *Aguerre-borda*. Cen. y p. 45/1.

BIBLIO. *Agire-borda, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Agerre Borda. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Errekabeltz Penadiko errekarakin elkartzen den tokiaren gainkaldean dago, Aranaztegi baserritik gertu.

OHAR.: Eraberritutako baserrria da eta itxura bikainekoa. Hala ere, bidea ez dago bertaraino asfaltatuta. Esan bezala, Aranaztegi baserritik gertu dago, baina ondoan ez du beste etxe edo baserririk (ikus AGIRRE BASERRIA, oharrak).

TOP.: URKIONDO ETXEA

KOKAP.: Auzoaren ifarreko muturrean dago, Andoain eta Urnietaren arteko mugatik gertu.

OHAR.: Baserri itxura duen etxe berri dotorea da eta bertara joateko Urnietan Besabi/Marizulora doan bidea hartu behar da. Izena etxearen sarrerako atean dago idatzita.

TOP.: UBARANZELAI BERRI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Ubaun* (4)
Ubarane

DOKUMENT.:

- 1848 *falda de Ubarana*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1857-64 *Ubaran*. Nomen., 83. orr.
- 1862 *Ubaran, Ugaran, ó Ubarancelay verri*. I.c.h., H-532.
- 1897 *Ubaran*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Ubaran*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Ubarán*. Pad.m.h. 18/3.
- 1945 "...*Ubaran Aldeco Garomena; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: J.A. eta F. A.M.

BIBLIO. *Ubaran, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Ubane. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren hego-mendebaldean dago, Ubaran erreka-
bazterrean.

OHAR.: Nahiz eta erabilitako dokumentu gehienetan baserria *Uba-
ran* izenaz azaldu, *Ubarancelai-berri* izenaz eskrituratuta dago, 1862. urteko
dokumentuan bi izenak batera topatzen ditugularik.

TOP.: ARTOLABORDA BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Artolaborda*

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Artola-borda; Artola-echeberri*. Nomen., 81. orr.
- 1897 *Artola Borda*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Artola Borda*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Artola Borda*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Artola-borda y -etxeberri, caseríos de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Artola Borda. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Atxular mendiaren hego-ekialdean dago, Ubaran erreka-
bazterrean.

OHAR.: Erdi erorita egon arren informatzaile guztiek ezagutzen
dute baserri honen izena. Toki ilun eta bakarti batean dago zuhaitz eta sastra-
kaz inguratuta eta bere inguruan gaur ez dago beste baserriarik (ikus MAXA-
RRANEA). L. Eleizalde egindako zerrendan nola nomenklatorrean *Artola-
borda Etxeberri* izenekoa ere azaltzen da, baina, nahiz eta Leizotz auzoan
zegoela jakin, ez dugu horren kokapenari buruzko daturik.

TOP.: URRILLONDO BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Urrillondo* (5)
Urbillondo

DOKUMENT.:

- 1615 *Herrería de Urriolondo (Olaesea)*. I.E.A.
- 1763 "...casería (...) la nombrada de Urriolondo (...) la qual es fabri-
cada segun consta de esc.ras autenticas, mucho antes que el
año de mil seiscientos y setentta...". Lib.c.f., 29. orr.atz.
- 1818 *Urrillondo*. Est.p.i. 62H/7.
- 1848 *Casería Urbillondo*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1857-64 *Urriolondo*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Urrillondo*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Urrillondo*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Urrillondo*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1960 *Urbillondo*. Cen. y p. 28/1.

BIBLIO. *Uñiolondo, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Uñillondo. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Pardaki bizkarraren hegoaldean dago, Ubaran errekararen bazterrean eta Urnietako mugatik gertu.

OHAR.: Baserri honen izenaren bilakaera, dokumentazioan jasotako aipamenak kronologikoki ipiniz, *Uñiolondo* > *Uñillondo* litzateke, bigarren hori jadanik 1818. urteko dokumentuan azaltzen delarik. *Uñillondo* da ere informatzaileen artean hedatuen dagoen izena.

Egun, hau da inguru honetan bizitoki diren bi baserrietako bat, baina garai batean bestelakoa zen hemengo egoera, gutxienez beste hiru baserri gehiago baitzeuden (egun aurriak). Baserrira egoera onean dago eta ondoan karobi baten aztarnak daude. Bertara joateko ez dago bide asfaltaturik, baina Urnietatik etorrita bidea laburrago eta hobea da.

TOP.: BENEZIA BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Benezi*

DOKUMENT.:

- 1615 *Benecia*. I.E.A.
- 1760 *Casa de Benecia*. Lib.c.f., 189. orr.
- 1813 *Benecia viejo*. Lis.t. de A.
- 1818 *Venecia*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Venécia*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Venecia*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Veneci*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Veneci*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Benezi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Pardaki bizkarraren hego-ekialdean dago, Urnietako mugatik gertu.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute erdi erorita dagoen baserri honen izena, nahiz eta guztiek dokumentu gehienetan azaltzen den *Benecia*-ren ordeztu *Benezi* esan. *Benezia Etxeberri*-ren kasuan, ordeztu, dokumentazioan ere, nagusi dira bukaerako bokalik gabeko aipamenak.

Baserriaren azken aipamena 1950. urteko erroldan jaso dugu eta gaur hormak besterik ez da geratzen zutik. Uñillondo baserrietik Urnieta alde-
ra jotzen badugu, aurrez-aurre ikusiko ditugu bide gainean aurri hauek.

TOP.: ANTZIZU BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Antzizu*

DOKUMENT.:

- 1615 *A(y)nçıu*. I.E.A.
- 1813 *Anzizu*. Lis.t. de A.

- 1818 *Anzizu*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Ancizu*. Nomen., 81. orr.
 1897 *Ancizu*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Ancizu*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Ancisu*. Pad.m.h. 65H/1.
 1970 *Antzisu*. Cen. y p. 45/1.
 1945 "...*Ancisu Aldea; (...)* *Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: M. eta E. I.A.L.

BIBLIO. *Anchichu*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Antzitsu, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Antzizu. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Trentxikiko bidearen ondoan dago, *Krafft* lantegi berriaren atzekaldean.

OHAR.: Baserri zaharra izanik egoera onean dago. Bere ondoan *Antzizu Berri* etxea eta *Antzizuborda* baserria daude.

TOP.: ANTZIZU BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Antzizu Berri*

DOKUMENT.:

- 1970 *Antzizu-berri*. Cen. y p. 45/1.

BIBLIO. *Antzizu Berri*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Trentxikiko bidearen aldamenean dago, *Krafft* lantegi berriaren atzekaldean.

OHAR.: Oro har etxe berrien izenak ez dira ezagunak eta oraingo honetan ere informatzaile bakar batek esan digu honena. 1970. urteko erroldan jaso dugu lehen aipamena. Hiru solairu ditu eta izena ondoan duen *Antzizu* baserri zaharrari hartu dio.

TOP.: ANTZIZUBORDA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Antzizuborda*

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Ancizu-borda*. Nomen., 81. orr.
 1897 *Ancizu Borda*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Ancizu Borda*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Ancisu Borda*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Ancizu-borda*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Antzizu-borda*. Cen. y p. 45/1.

BIBLIO. *Antzitsu-borda, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Antzizu Borda. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Penadiko errekaen bazterrean dago, Antzizu baserria eta Antzizu Berri etxearen atzekaldean.

OHAR.: Gipuzkoako nomenklatorrean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Baserria belazetxo batean dago eta bere ondotik igarotzen da Penadiko erreka txikia. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: MANTXONEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Zentrala* (3)
 Urnietako Zentrala (2)
 5/3 *Mantxonía*

DOKUMENT.:

1897 *Mansonea*. Est.e. 48H/4.
 1937 *Manchonea*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Manchonea*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Manchonea*. Cen. y p. 45/1.
 1945 *Central Urnieta*. Amil., jabea: A.B.S.

BIBLIO. *Mantxonía*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

“...MANTXONE-ERROTA. (...) *En otro tiempo fué también ferrería (...) SITUACION. A unos 2 kms. aguas abajo del Errotazar, junto a los restos de la ferrería de Presazabal...*”. A. Aguirre Sorondo, *Molinología*, 301. orr.

KOKAP.: Ubaran errekaen bazterrean dago, Eltzamendi-pean.

OHAR.: A. Aguirre Sorondok errota eta burniola izandako honentzat emandako kokapena ez dator bat gure honek duenarekin, hau Errotazarretik ehunen bat metrotara baitago. Ez dirudi, beraz, nahiz eta izena bera izan, eraikin beretaz ari garenik.

Ondoan Urnietako herriarena den, edo zen, zentrala dago eta garai batean *Mantxonía*-n bizi ziren zentralaz arduratzen zirenak. Hau izango litzateke etxeari *Zentrala* edo *Urnietako Zentrala* deitzearen arrazoia. Urnietan *Makinetxe* ere esan ohi zaio. Egun, etxea zaharberrituta dago. Zentralak, ordea, geldirik eta egoera kaxkarrean dirau.

Izenei dagokienez esan beharrean gaude, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1944. urtean argitaratutako *Andoingo-Mendia* mapan *Central Eltzamendi* izenaz agertzen dela. Izan ere, zentrala eta etxea *Eltzamendi*-pean aurkitzen dira. Etxearen izenari buruz, berriz, zenbait zalantza dugu. Argi dago *Mantxonía* izengoiti batean oinarrituriko izena dela eta honek etxearen jatorrizko izena besteren bat ez ote den pentsarazten digu. Zein bada?

TOP.: LEKUNATEGI BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Lekunatei*

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Lecunátegui*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Lecunategui*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Lecunategui*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Lecunategui*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Lecunategui*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Lekunategi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Lekunategi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Pardaki bizkarraren ifar mendebaldean dago, Mizpiradiko iturria eta Lekunategiko errearen artean.

OHAR.: 1950. urteko erroldan azaltzen da azkenekoz eta, erdi erria egon arren, informatzaile guztiak ezagutzen dute beronen izena. Bertara joateko Penadi baseritik gora doan bidea jarraitu behar da eizategi zenbait dagoen belaze zabal bateraino. Honen albo batean daude (bidearen eskubitan) baserriaren aurriak, jadanik huntzak eta sastrakak erdi estaltzen dituztelarik. Horma pare batek dirau zutik.

TOP.: ETXARRI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Etxarri*

DOKUMENT.:

- 1813 *Echarri*. Lis.t. de A.
 1818 *Echerri*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Echerre*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Echerri*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Echerri*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Echarri*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Etxere, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Etxarri. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Ubaran errearen bazterrean dago, Ubaran errekek bere ura Leitza-ran ibaira isurtzen duen tokian.

OHAR.: Galdeketa *Etxarri* soilik jaso dugun arren, dokumentazioan *Echarri*, *Echerri* eta *Echerre* ere aurkitu ditugu. Egun, baserria hutsik dago eta teilatua hondatuta dauka. Bere ondoan daude, besteak beste, Olazarra eta *Etxarri Berri* etxea. Egun ez da *Etxarri*-ren ondoan zegoen harrizko zubi ederraren aztarnarik geratzen.

TOP.: ANTZIZAR BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Antzizar* (5)
Anzizar

DOKUMENT.:

- 1818 *Ancizar*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Ancizar*. Nomen., 81. orr.
 1897 *Ancizar*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Ancizar*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Ancisar*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Antzitzar, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Antzizar. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Mokorollo gainaren mendebaldean dago, Trentxikiko bidearen bazterrean.

OHAR.: 1818. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta honen izena bere horretan gorde da ordutik hona. Baserriaren egoera ona da eta berari itsatsita etxe berri bat eraiki dute.

TOP.: OLAZARRA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Olazar*

DOKUMENT.:

- 1615 *Olaçarrandia; Olaçarra Chipia; Olaçar Barrena*. I.E.A.
 1750 *Casa de Olazarra*. Lib.c.f., 51. orr.
 1794 *Caseria de Olazarra*. ”, 161-62. orr.
 1813 *Olazarra; Olazarreco Borda*. Lis.t. de A.
 1818 *Olazarra*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Olazarra*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Olazarra*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Olazarra*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Olazar*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 *Terrenos de Olazarra*. Amil., jabea: G. de A. y M.
 “...*Olazarreco Gastañadiya; bajo y matorral; (...)* Paraje: *Goi-buru...*”. Amil., jabea: F.L.L.

BIBLIO. *Olazaña, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Olazar. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. urt.

KOKAP.: Leitzaran ibaia eta Ubaran errearen artean dago, bigarrenak lehenengora ura isurtzen duen tokian.

OHAR.: Dirudienez, 1615-ean *Olazarra* izeneko baserriak hiru zi-
 ren eta 1813-rako, berriz, hauetako bat besterik ez zen geratzen, baina ez
 dakigu egungoa 1615-eko *Andia, Chipia* edo *Barrena* den. Izenak noizbait
 burniola izan zela adierazten digun arren, ez dugu honen aipamen esplizitorik
 topatu eta 1750. urtean jadanik etxe edo baserri gisa azaltzen da. Honen ondo-
 ko belazean *Olazar Parkea* dago Leitzaran ibaiaren bazterrean kokatuta.

TOP.: † MAXARRANEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Maxarranea* (2)
Maxarrania (2)

DOKUMENT.:

- 1905 "...desea componer el camino becinial desde Auzocalte asta Maxarranea...". Cam.v. 34H/3.
1907 (septiembre) "...Lista de los individuos para "arrapazca" de helecho por Masarranea...". Corr.c. y r. 54H/10.
1922 *Masarranea*. Pro.t.a. 21H/1.
1945 "...Masarranea; pradera; (...) Paraje: Leizos...". Amil., jabea: J.E.J.
"...Mazarraneco Soroa; bajo y matorral; (...) Paraje: Goiburru...". Amil., jabea: M.J. A.C.
Mazarranea. Amil., jabea: F.A.U.

KOKAP.: Ubaran errekaen bazterrean zegoen, Artolaborda baserriaren ondoan.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute desagertutako baserri honen izena. Bertara joan eta, agian estali samarra dagoelako, ez dugu ezer aurkitu, baina litekeena da honen aztarnaren bat geratzea. Mende honen hasieran topatu dugu baserri honen lehen aipamena, baina izena goitzen batean oinarrituta dagoenez, honek etxearen jatorrizko izena beste bat zitekeela pentsarazten digu. Zoritzarrez, hala bada, ez dugu izen hori ezagutzen.

TOP.: ARANAZTEGIBORDA BASERRIA / MAXARTEGI
BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Matxartei* (3)
Maxartei

DOKUMENT.:

- 1755 "...cercania de la borda de la casa de Aranaztegui, rancados del propio viñero que tiene en jurisdiccion de la casa de Urrillondo...". Lib.c.f., 125. orr.atz.
1848 "...casería de Camio Chiqui, Aranastegui Borda...". Bie.c. y p. 44H/5.
1857-64 *Aranaztegui-borda*. Nomen., 81. orr.
1897 *Aranaztegui Borda*. Est.e. 48H/4.
1897 "...por el este con términos de Urnieta, con los pertenecidos de la casería Camio-chiqui, Aranaztegui Borda y Urrillondo...". Bie.c. y p. 44H/5.
1889 "...sigue la línea entre el particular de Masartegui...". Des. y a. 71H/4.

BIBLIO. *Aranaztegi-borda, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KARTOG.: 1944 *Mashartegui* (A.-M.)
1953 *Anastiborda* (SA.S.)

KOKAP.: Pardaki bizkarraren hego-ekialdeko maldan dago, Urrillondo eta Benezia baserrien artean, baina 300-en bat metro gorago.

OHAR.: *Matxartei* izenaz ezagutzen da eta hala agertzen da dokumentu zenbaitetan, baina izen hau ere goitizen batean oinarriturikoa da eta, susmatu bezala, beste bat da jatorrizkoa. Olaberrietako Inaxio Etxeberriak esan bezala, SA.S. mapan ere, baserri hau *Anastiborda* izenaz azaltzen da. Izen hau da, bestalde, dokumentu zaharretan azaltzen den bakarra (ikus ARANAZTEGI BASERRIA, oharrak).

Baserri honen aurriak pinudi baten erdian daude, huntzez eta laharrez beteta. Horma bakar bat dago zutik eta bertara joateko Urrillondotik gora doan bidea edo Urnietako Marizulo baserriaren ondokoa jarrai daiteke. Lehenengoa ez dakigu zein egoeratan dagoen, baina apatu bigarrena otez nahiko itxita dago.

TOP.: MEAKA BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Mieka*

DOKUMENT.:

1777 *parage llamado de Meaca Azpia*. Lib.c.f., 153. orr.

1848 *pertenecidos de Meaca-berri*. Bie.c. y p. 44H/5.

1857-64 *Miaca; Miaca-erdicóa; Miaca-echeberri*. Nomen., 83. orr.

1897 *Miaca; Miaca Erdicoa; Miaca-echeberri*. Est.e. 48H/4.

1910 *Meaca; Meaca Erdicoa; Meaca Echeberri*. Cen.p. 70H/2.

1916 *pertenecidos de Meaca-berri*. Inv.p.d. 13H/9.

1945 *Meaca*. Amil., jabea: F.B.I.

Miaca. Amil., jabea: JM. A.I.

"...*Miaca Aldia; pradera; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: A.B.S.

"...*Miaca Azpicoa; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea F.L.A.

"...*Miacaco Chocoa; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: A.B.S.

"...*Miacaco Zabalazpico Gara Lecuba; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: M.L.E.

BIBLIO. *Miaka, -etxebati y -erdikoa, caseríos de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Basajaundegi haitzaren hego-ekialdean dago, Ubaran errekatik ehu-
nen bat metro gorago, Presazabal txabolaren parean.

OHAR.: Dokumentazioan ageri diren datuen arabera hiru izan ziren *Meaka* izeneko baserriak: *Meaka*, *Meaka Erdikoa* eta *Meaka Etxeberri* (= *Meaka Berri*?). Guk hauetako bakar baten aurriak aurkitu ditugu. Bi hormen zatiak eta harri pila ugari dira baserri honetaz geratzen den guztia. Pinuz inguratuta, aurrien ondoan lizarra, intxaurra eta gereziondo pare bat dago. Bertara joateko biderik ez dago, baina Urrillondo baserritik Azaritokitara

doan bidea hartu eta Urrillondoko iturria igaro ondoren ubidetik jarraituz aurkituko ditugu aurriak (ubidetik metro batzuk gorago daude). Garroko baserritarrak kondatu digunez, bera umea zela erre zen baserria, bertan zegoen artzaina eta bere artaldea ere sutean erre zirelarik (ikus MEAKA)

Izenaren bilakaera dokumentaziotik jasotako datuak eta gaurko erabilera kontutan izanik *Meaka* > *Miaka* > *Mieka* izan da.

TOP.: AIZETSU ETXEA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Aizetxu*

KOKAP.: Pagamendiren mendebaldean dago, Atxular mendira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: Etxe berri gehienetan gertatzen den antzera, honen izena ere ez da batere ezaguna. Txalet gisako etxea da eta inguratzen duen lorategian palmondoak ere badira. Baltzusketa Txiki baserriaren ondoan dago.

TOP.: BALTZUSKETA BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Baltzusketa Berri*

KOKAP.: Pagamendiren mendebaldean dago, Atxular mendira doan bidearen aldamenean.

OHAR.: Etxe berria izanik informatzaile bakar batek esan digu honen izena. Bi solairuko etxe hau *Baltzusketa Erdikoa* eta *Baltzusketa Aundi* baserrien ondoan dago, bi hauen jabea berri honetan bizi delarik (ikus BALTZUSKETA ERDIKOA, AUNDI eta TXIKI)

TOP.: BION ETXEA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Biyon Etxe*

DOKUMENT.:

1960 *Biyon-echea*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Biyon-echea*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Pagamendiren mendebaldean dago, La Salle etorbidearen amaieran.

OHAR.: Etxe berria da eta horman idatzitako izena *BIYON ETXEA* da, baina, normalizazio linguistikoaren atalean azaldu dugunez, fonetismoak baztertu egin behar dira. Hiru solairuko etxe ederra da eta honetatik gertu dago, besteak beste, Baltzusketa Txiki baserria.

TOP.: ARGIARGI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Argiargi*

4/2 *Garro Zar*

Garro Zarra

DOKUMENT.:

1960 *Argui-argui*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Argui-argui*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Pagamendiren hegoaldeko maldan dago, Atxular mendira doan bi-dearen bazterrean.

OHAR.: 1960. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena. Garro Berri baserriaren ondoan dago eta etxe honen orubean zegoen Garro Zarra baserria. Informatzaile guztiek ezagutzen dute bi solairuko etxe honen izena.

TOP.: ARANTZAZUENEA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Joxe Palaziyokua*

Kontratistania

2/1 *Aranzazu*

DOKUMENT.:

1960 *Aránzazu-enea*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Aranzazu-enea*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Trentxikiko bidean Idiazabal Aundi baserriaren parean dagoen tunelaren gainean dago.

KOKAP.: 1960. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena. Txalet gisako etxe dotorea da.

TOP.: ANALUR ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Analur*

DOKUMENT.:

1970 *Ana-lur*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Lizarkola pasealekuan dago, Mokorollo gainaren mendebaldean.

OHAR.: Bi informatzaileen esanetan, etxearen izena bertako bi alaben izenetan oinarrituta dago, hots, *Ana* eta *Lurdes*. Etxe bikaina da eta ondoan, besteak beste, Antzizar baserria eta Etxarri Berri etxea ditu.

TOP.: ETXARRI BERRI ETXEA

KOKAP.: Mokorollo gainaren mendebaldean dago, Etxarri baserriaren parean.

OHAR.: Azken hogeitau urteotan eraikitako etxea dugu *Etxarri Berri* eta izena parean duen baserriarenean oinarrituta dago.

TOP.: BIDEONDO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *La Casa de Inés, Ines bizian tokiya*
La casa de la Inés
 2/1 *Bideondo*

DOKUMENT.:

1960 *Bide-ondo*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Bide-ondo*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Lizarkola pasealekuan dago, Ubaran erreka Leitzaran ibaiari elkar-tzen zaion tokian.

OHAR.: Etxearen izena *Bideondo* izan arren, informatzaile hauek bertan bizi denaren izenaz ezagutzen dute. Etxetxo zuri hau Etxarri baserria eta Olazarraren ondoan dago.

TOP.: PAGADIGAÑA HILERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Pamendiko Kanposantua* (2)
Pagomendiko Kanposantua
Paamendiko Kanposantua

KOKAP.: Pagamendiren gailurrean dago.

OHAR.: Galdeketan parte hartu duten informatzaileek mendiaren izenaz ezagutzen dute bertan kokatuta dagoen hilerria, baina goian idatzitakoa da honen izen ofiziala. Andoaingo hilerri berria da.

TOP.: (ur-biltegia)

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Depositua* (2)
Ur depositua

KOKAP.: Pagamendiren mendebaldeko maldan dago.

OHAR.: Hemen egiten da menditik jasotako uren klorazioa.

TOP.: MOKOROLLO GAINA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Mokollo*

DOKUMENT.:

1777 *paraje llamada Mocóbollo*. Lib.c.f., 179. orr.

1780 *Mocorollo*. Lib.c.f., 218. orr.atz.

1783 *partido llamado Mocorollo*. Lib.c.f., 161. orr.

1897 "...Moco-ollo, se halla situada en la falda que mira al oriente en el monte del mismo nombre (...) es terreno de mucha pendiente...". Bie.c. y p. 44H/5.

1945 “...*Moco-ollo; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*”. Amil., jabea: P.B.A.

“...*Mocollo; pradera con maizal; (...) Paraje: Goiburru...*”. Amil., jabea: D.E.C.

KOKAP.: Atxular mendiaren hego-mendebaldean dago, Etxabeko eta Ubaran errekek eta Leitzarain ibaiak inguratzen dutelarik.

OHAR.: Egun *Mokollo* esaten den arren, dokumentazioan jasotako datuen arabera, badirudi hitz honetan kontsonante baten galera gertatu dela. Gure ustez kontsonante hori dardarkaria izan daiteke, baina zenbait zalantza ditugu horren jatorria eta izenaren etimologiari dagokionez. Azkuek, adibidez, bere hiztegiaren *mokoilo* (-r-ik gabe) aipatzen du eta, beste esanahi batzuren artean, Markinan joku bati ematen zaion izena dela azaltzen du. Plácido Mujikak jokua adiera ere jasotzen du, baina honekin batera Gipuzkoan suziria eta mozkorra harrapatzeari esaten zaiola adierazten du.

Gain honek 189 metro ditu eta ifarraldeko maldan pinudia eta hegoaldekoan zuhaitz autoktonoak dauden bitartean, besteetan ez dago zuhaitzik, malda hauetan arditarako laharreak nagusi direlarik.

**TOP.: ZAPATARIZELAIETA
ZAPATARIZELAIETAKO HAITZA - ERROTABERRIKO
HAITZA**

DOKUMENT.:

1736 “...*de conformidad dijeron que se llamaba Errotaverria, (...) y a la mano izquierda mirando entre el oriente y mediodía se hallan los montes llamados Zapatarizelaia (...) fuimos caminando a orilla de dho arroyo y arrimado a la isleta de dho molino hasta llegar a dar vuelta mirando entre el oriente y septentrión y al fin de dha silueta todo lo que coge a mano izquierda se hallan una peña y argomales y algunos castaños que tienen el nombre de Zapatarizelaiaatacoai-za...*”. Urr.d., C. 2625-1.

1783 “...*planttios de roble, que fueron trasplantados en el partido de Zapataricelayeta...*”. Lib.c.f., 160. orr.atz.

1848 (febrero) “...*En la misma jurisdiccion y valle titulado de Leizoz y en el termino denominado Errotaberrico-aiza...*”. Bie.c. y p. 44H/5.

1897 (septiembre) “...*2. Errota-berrico-aitza, se halla situado en la falda que mira al mediodia y monte denominado Moco-ollo...*”. Bie.c. y p. 44H/5.

1916 “...*Montes comunales exceptuados de la desamortización (...) Errota-verrico-aitza. Se halla situado en la falda que mira al mediodia y monte denominado Moco-ollo...*”. Inv.p.d. 13H/9.

KOKAP.: Mokorollo gainaren hegoaldeko maldan dago.

OHAR.: Toponimo hauen aipamen bakarra dokumentazioan aurkitu dugu eta, beraz, kokapena ere bertan aipatzen diren datuetan oinarritutakoa da. Iturri idatzietan jasotako datuen arabera ere, badirudi *Errotaberriko Haitza* eta *Zapatarizelaietako Haitza*, toki edo haitz beraren izenak direla, baina hau horrela balitz bigarrena litzateke zaharrago. XVIII. mendeko dokumentuetan, bestalde, haitz honen ingurua “...*montes llamados Zapatarizelaia...*” (1736) edo “...*partido de Zapataricelayeta...*” (1783) izenarekin azaltzen da. Egun toponimo hauek ez dira ez erabiliak ez eta ezagunak.

Mokorollo gainaren hegoaldeko malda Ubaran erreka aldera dagoena da, eta erreka honen bazterrean dago, hain zuzen ere, *Errotaberri* (ikus ERROTABERRI). Alde honetako maldan zuhaitz autoktonoak pinuak baino ugariago dira eta, hauek erdi estaltzen duten arren, goikaldean eremu harkaitzua atzeman liteke, hots, *Zapatarizelaietako Haitza*.

TOP.: AZARITOKIETA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Azaritokieta* (2)
Azaitokieta (2)
Aizetokieta
 5/1 *Azailepoa*, *Aizelepo*, *Azailepo*

DOKUMENT.:

- 1900-3-19 “...*de Echamunoa 30 carros. Azaritoquieta Achular, un carro de leña...*”. Corr.c. y r. 54H/10.
 1917 “...*Se desea componer el camino vecinal desde Urrillondo hasta Azaitoquieta...*”. Cam.v. 34H/3.
 1922 “...*no dispone la villa más que de tres fuentes que provienen de los manantiales de Sorategui, Azeritoquieta y Echeonecoa, que surten al barrio de Zumea el primero y a la parte del pueblo, de Leizaran a la calle de San Pedro, los otros dos...*”. Pro.t.a. 21H/1.
 1945 “...*Azaritoquieta; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*”. Amil., jabea: D.M.O.

KOKAP.: Atxular mendiaren hego-mendebaldeko maldan dago.

OHAR.: *Azaritokieta* izeneko ingurunea, esan bezala, Atxular mendiaren hego-mendebaldeko maldan dago, eta Benezia Etxeberriko baserriarrak izena soilik baserrietik gertu dagoen pinudiko bidegurutzeari atxekitu badio ere, beste zenbait informatzailek bidegurutze horren inguruko lur eremuari eta lepoari atxikitu diote. Aipatu bidegurutzean Benezia Etxeberri, Asu eta Urrillondo baserrietatik eta Meaka izeneko tokitik datozen bideek bat egiten dute. Bide hauek ez dira erabiliak eta oraindik ibiltzeko modukoak izan arren zenbait puntutan ez daude behar bezain garbi. Dokumentazioan, berriz, *Azaritokieta* izenarekin iturri bat eta lursailak azaldu dira. Hori guztiagatik, esan daiteke *Azaritokieta* izenaz aipatutako bidegurutzea eta bere ingurunea ezagutzen direla.

TOP.: AIERBEKO BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Ayerbeko Borda* (4)
Ayeren Borda

KOKAP.: Atxular mendiaren hegoaldean dago, Artolaborda baserrira iritsi baino 50-en bat metro lehenago Ubaran errekaaren bestaldean.

OHAR.: Lau informatzailek esan digute borda honen izena. Sastrakak erdi estalitako horma zati batzuk besterik ez da geratzen honetaz. Bere ondotik erreka koskor bat jaisten da.

TOP.: AMEZTI BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Amezti* (3)
Amiztei

DOKUMENT.:

1813 *Amezti*. Lis.t. de A.

1818 *Amezti*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Amezti*. Nomen., 81. orr.

1897 *Amezti*. Est.e. 48H/4.

1945 "...*Amezti Chulo; alto de frondosas; Paraje; Leizos...*". Amil., jabea: D.M.O.

BIBLIO. *Amezti, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Atxular mendiaren mendebaldeko maldan dago, Benezia Etxeberri-tik Azaritokietara doan bidearen bazterrean.

OHAR.: 1813. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta ordutik hona izenak ez du aldaerarik jasan. Baserriaren teiltatua eta barrukaldea erorita dauden arren, hormek kasik osorik diraute zutik. Hori bai, huntza eta laharrez erdi estalita.

TOP.: ATXULAR MENDIA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Atxular* (6)
Axular

DOKUMENT.:

1848 (*febrero*) "...*En la misma jurisdiccion y valle titulada de Leizos en el termino titulado Ausollar, Ausollar Aspia y falda de Ubarana que mira al mediodía...*". Bie.c. y p. 44H/5.

1897 (*septiembre*) "...18. *Auzolar-azpia. Se halla situado en la falda que mira al Norte en el monte conocido con el nombre de Achular...*". Bie.c. y p. 44H/5.

1916 "...*Ausolar-azpia. Se halla situado en la falda que mira al sur en el monte conocido con el nombre de Achular...*". Inv.p.d. 13H/9.

BIBLIO. "...*Andoain en la época pastoril. Algunos nombres de lugar datan de aquella época como por ejemplo "Axular". "Larre" = "pasto" (...) mucha profusión en la toponimia...*". R. Arregui, *Andoain*, 12. orr.

KOKAP.: Pardaki bizkarra eta Mokorollo gainaren artean dago, Ubaran erre-karen gainkaldetik.

OHAR.: Zenbait dokumentutan aipatzen denez, *Auzolarrazpia* mendi honen ifar eta ekialdeko maldetan dauden lursail batzuren izena da. Horren arabera, eta kontutan izanik gainera aipatu lursailak *montes comunales* zirela, badirudi mendiaren izenaren jatorria **Auzolarr(e)* izan daitekeela.

328 metrotako mendi honek tontor harkaitsua du eta bere maldetan pinu ugari dago. Inaxio Etxeberriaren esanetan, mendi honetan Carlos V.-aren garaiko gaztelua izan bide zen eta bertako jenerala Sarako *Axular* izeneko apaiz bat izan omen zen.

TOP.: MEAKA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Mieka*

KOKAP.: Atxular mendia eta Pardaki bizkarraren artean dago.

OHAR.: 291 metrotara dago aipatu mendi eta bizkarraren arteko lautadatxo hau. Honen erditik igarotzen da Pardaki eta Urnietaldera doan bidea eta bidearen ezker-eskubi hesia dago, bertan aziendak laharrean ibiltzen direlarik. Kontutan izanik *Meaka* izeneko hiru baserri izan direla, pentsatzekoa da hauetako bat behintzat inguru honetan egon zitekeela eta, ondorioz, lekuaren izenean geratu dela desagertutako baserriaren aztarna (ikus MEAKA BASERRIA).

TOP.: LIZARRAITZ ETXEA

KOKAP.: Pagamendiren ekialdean dago, Muñagorri baserriaren ondoan.

OHAR.: Baserri itxura duen etxe handi eta dotorea da. Etxe berrien izenekin sarritan gertatzen den bezala, oraingo honen izena ere ez da ezagunegia. Muñagorri baserrikoak azaldu digu zein den honena.

TOP.: PARDAKI BIZKARRA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Pardaki*

DOKUMENT.:

1844 "...*que en la cantera denominada Pardaqui hay piedra caliza buena para dicho objeto...*". Sol.c.c. 71H/10.

1889 "...*existe el mojón número catorce en el alto de Pardaqui...*". Des. y a. 71H/4.

- 1897 (*septiembre*) “...19. *Pardaqui se halla situado en la falda que mira al mediodia en el monte del mismo nombre...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1945 “...*Pardaqui Mendia; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*” (Amil., jabea: J.R. E.N.
 “...*Pardaqui Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*”. Amil., jabea: V.A.I.
 “...*Pardaqui Atzia; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*”. Amil., jabea: M.M. M.O.
 “...*Pardaqui Azpia; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*”. Amil., jabea: F. I.E.

KOKAP.: Atxular mendiaren ifar-ekialdean dago, Andoain eta Urnietaren arteko muga bertan kokatuta egonik.

OHAR.: 356 metro ditu maldak pinuz jantzita dauzkan bizkar honek. Gailurra, ordea, harkaitsua da eta bertan elorriak eta bestelako zuhaixka ugari dago. 1844. urteko dokumentuan aipatzen denez, badirudi bizkar honetan harrobiren bat izan dela inoiz. Bere maldetan baserri bat baino gehiago izan da, baina egun gehienak desagertuta edo erdi erorita daude. *Pardaki* bizkarraren hegoaldeetik igarotzen da Ubaran erreka.

TOP.: **TXERMINGO TONTORRA**
TXERMIN KOBAZULOA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Txermingo Tontorra*
Txermineko Tontorra

DOKUMENT.:

- 1917 “...*Entreteneamiento de caminos vecinales. Trozo de Chermin a ausualte...*”. Cam.v. 34H/3.
- 1945 “...*Chermin; Pinar; (...) Paraje: Leizos...*”. Amil., jabea: C.M.B.

KOKAP.: Atxular mendiaren hego-mendebaldean dago, Asu baserritik datorren bidea Olaberrietatik datorrenarekin elkartzen den tokian.

OHAR.: *Ubaran* izeneko erreka eta baserriaren gainaldean dago eta *Ubarango Tontorra* izenaz ere ezaguna da. 142 metro inguru ditu eta gailur harkaitsua da. Inguru guzti hau bezala tontorra ere pinuz estalita dago. Izen beretaz ezagutzen da honen hegoaldeko maldan dagoen kobazuloa. Bidearen pean dago, hesiaren bestaldean, eta bertara joan edo ikus ahal izateko errekarren bazterretik inguratu behar da.

TOP.: † **IZOZTEGI BASERRIA**
IZOZTEGIKO BELAZEA
IZOZTEGIKO ZULOA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Izuztei Bizkarra*

DOKUMENT.:

- 1813 *Yzoztegui*; *Yzoztegui*. Lis.t. de A.
 1818 *Yzoztegui*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Yzoztegui*. Nomen., 83. orr.
 1945 "...*Izostegui*; *pradera*, *bajo y matorral*; (...) *Paraje: Leizos...*".
 Amil., jabea: C.M.B.
 "...*Izostegui Aldea y otros*; *bajo y matorral*, *pradera*, *pradera con maizal*, *cereal*; (...) *Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: M. eta E. I.-A.L.

BIBLIO. "...*Izoztegui*, *caserío de Ernani (Gip.) situado en paraje abierto y frío // (...) // Caserío de Andoain (Gip.)...*". L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Mokorollo gainaren ifar-ekialdean zegoen, Asu baserriaren ondoan.

OHAR.: Harri gutxi batzuk dira baserri honetaz geratzen den gutzia. Aurri hauek Mokorollo gainaren ifar-ekialdeko pinudian daude, zulo edo sakan txiki baten ertzean eta belaze lau baten alboan. Horregatik, Asu baserrikoek belazea eta zuloa desagertutako baserriaren izenaz ezagutzen dituzte. Esan behar da ere, zenbaitek inguruko toki izen horiek ezagutu arren, ez dakiela horien jatorria den *Izoztegi Baserria* izan denik.

TOP.: PAGAMENDI

- AHOZKO ERAB.: 5/5 *Paamendi* (3)
Pagomendi (2)
Pamendi (2)
Paomendi
 5/1 *Gazteluko Ttonttorra*

DOKUMENT.:

- 1794 *parage nombrado Pagamendi*. Lib.c.f., 161-62. orr.
 1915 "...*que arrancando del camino de la estación se dirige hacia Erroiz y Pagamendi...*". Cam.v. 34H/3.
 1945 "...*Pagamendi*; *pradera con manzanal*; (...) *Paraje: Leizos...*".
 Amil., jabea: M.D. A.E.
 "...*Pagamendi Aldea*; *pradera*; (...) *Paraje: Leizos...*" (Amil., jabea: J.E.J.
 "...*Pagamendico Belasia*; *pradera*; (...) *Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: M.A.A.

BIBLIO. "...*en las faldas del Pagamendi...*". R. Arregui, *Andoain*, 37. orr.

KOKAP.: Hiri-erdigunearen ekialdean dago, kale zenbait mendiaren mende-baldeko maldan daudelarik.

OHAR.: Informatzaile batek mendi honen gailurretako bat *Gazteluko Ttonttorra* izenaz ezagutu arren, beste guztiek mendi honetan ez dela sekula gaztelurik izan esan digute. M.A. mapan (ikus kartografia) mendi hau *Pagadigaña* izenaz agertzen da eta hori da, hain zuzen, mendi honen gailurrean dagoen hilerriaren izen ofiziala.

Mendiak 179 eta 198 metrotako bi gailur ditu, baina hauek oso leunak dira eta bien artean belaze zabal bat dago. Izenak adierazten digun bezala, bere maldetan pago ugari izan da inoiz, baina egun pinuak dira nagusi. Mendia errekez inguratuta dago: ifarraldetik Ziako erreka, ekialdetik Igurutz erreka eta hego-mendebaldetik Erroizkoa.

TOP.: ELTZAMENDI

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Eltzemendi*

DOKUMENT.:

- 1759 “...se allan en el mismo paraxe de Elzamendi, que es Benecia aurrea...”. Lib.c.f., 188. orr.
- 1897 (septiembre) “...17. Elzamendi se halla situado en la falda norte del monte del mismo nombre (...) confines son al este con la regata Lizarra-chopeco-erreca con los pertenecidos de esta villa y Urnieta (...) Es de mucha pendiente...”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1897 (septiembre) “...bienes de aprovechamiento comun del vecindario de Andoain los terrenos llamados (...) Elzamedia...”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1929-2-16 “...se han señalado en el punto Eltzemendi-azpia 10 lotes de jaro de roble y castaño...”. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1945 “...Eltzemendi; alto con frondosas; (...) Paraje: Leizos...”. Amil., jabea: A.B.S.

KOKAP.: Andoain eta Urnietaren arteko mugaren ondoan dago, Ubaran erre-karen hegoaldera.

OHAR.: Informatzaile guztiek galdeketan *Eltzemendi* esan duten arren, XVIII eta XIX. mendeko dokumentuetan azaltzen den eran normalizatu dugu toponimoa, hots, *Eltzamendi*. Toponimo honen lehen osagaia *eltze* izan daiteke, Azkuek bere hiztegian azaltzen duenez, gipuzkeraz *terreno baldío* esanahia duena.

Mendi honek 326 metro ditu eta hiru errekek inguratzen dute: Eltzamendiko erreka, Ubaran erreka eta Alliriazpikoak. Bere maldak pinuz josita daude eta aipatu erreken bazterretan soilik aurkitzen dira jatorrizko zuhaitzak.

TOP.: LEKUNATEGI GAINA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Lekunatei Aldea*
Lekunatei Gaña

KOKAP.: Pardaki bizkarraren ifar-mendebaldeko maldan dago.

OHAR.: Erdi eroria dagoen Lekunategi baserriaren ingurua ezagutzen da izen honetaz. Pinuz inguratutako belazea dago, bertan ehizatoki zenbait aurki daitekeelarik. 226 metro ditu.

1862 *Basaundegui (casa)*. I.c.h., H-532.

1894 "...*cantera denominada Basandegui propiedad de la villa...*". Sol.c.c. 71H/10.

1945 "...*Bazandegui; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizós...*". Amil., jabea: M^a D. A.E.

KOKAP.: Atxular mendia eta Meakaren artean dago, Ubaran erreka aldera.

OHAR.: Dokumentazioan eta bibliografian jasotako aipamenak kronologikoki ipinita —*Basajaundegui* (1736) > *Basaundegui* (1847) > *Basandegui* (1894)— izen honen bilakaera posiblea izango genuke eta egun erabiltzen den *Basondei* litzateke bilakaera honen azken pausua.

Izen mitologiko hau Ubaran erreka baino metro batzuk lehenago pinu arteko belazetxoan dagoen langaz bestaldeko bidea jarraitu behar da. Haitz honetatik bista ederra dago. Ikusterik izan ez dugun arren, Inaxio Etxeberria jaunak haitz honetan zulo bat dagoela esan digu.

1862. urteko dokumentuan, bestalde, *Basaundegui* etxe izentzat jaso da, baina ez dakigu etxe horrek haitzarekin zerikusirik ote zuen. Beste dokumentuetan ez dugu izen hori edukitako etxeren aipamenik aurkitu.

TOP.: SAGASTIZAR SAGASTIGOINA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Sagastizar*
Sagastigoina

DOKUMENT.:

1945 "...*Sagasti Gaztia; pradera; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: J.A. eta F. A.M.

"...*Sagasti Goyena; pradera; (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: P.B.A.

"...*Sagastizar; pradera; (...) Paraje: Carrica...*". Amil., jabea: J.A. SS.Z.

"...*Sagastizarra; baldío, pradera con maizal; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: J.A. eta F. A.M.

"...*Sagastizarra; cereal; (...) Paraje: Carrica...*". Amil., jabea: A.Z.G.

"...*Sagasti Zarra; pradera; (...) Paraje: Goiburu...*". Amil., jabea: M.E.E.

"...*Sagastia; cereal, pradera; (...) Paraje: Carrica...*". Amil., jabea: R.O.S.

"...*Sagastibarrena*". Amil., jabea: J.E.M.

"...*Sagastichocoa; pradera, pradera con maizal; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: J.M. L.Z.

"...*Basochogoina (...)* *Sagastichua; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: T.I.Z.

“...*Sagastitavelaz; pradera con maizal; (...) Paraje: Soravilla...*”.
Amil., jabea: V.O.I.

“...*Sahastibia y Ondarreta Aldia; cereal, pradera...*”. Amil., jabea: J.A. eta F. A.M.

KOKAP.: Pagamendin daude, Pagadigaña hilerrira iritsi baino 300-en bat metro lehenago, bidearen gainaldean.

OHAR.: Baltzusketa Txiki baserrikoak aipatu dizkigu bere baserriaren aurrean dauden bi lursail hauen izenak. Egun ere bertan sagarrondo batzuk aurki ditzakegu, baina ez garai bateko ugaritasunez. Amilaramenduetan, bestalde, jaso ditugu auzo edo bailara gehienetan inoiz sagastiak izanik ezaugarri hori izenean gorde duten lursailen izenak. Azpimarragarria da lursail hauek belar edo artotarako erabiltzea, jadanik 1945. urterako bertan sagarrondorik ez zegoelarik.

Aipagarria da ere informatzaile honek aipatu duen *Sagasti Goina*, azken honen sudurkaria palatalizatu gabe. Ez dakigu zenbatetaraino dagoen hedatuta erabilera hau, ez eta zein egoerak bultzatzen duen ez palatalizatzea, baina ezaugarri bera aurkitu dugu beste informatzaile batengan ere, eta honek adierazi digunez, berak *goina* eta *barrena* betidanik erabili ditu soro edo lursail baten bi muturrak adierazteko. Hor dugu ere amilaramenduetan aipatzen den *Basochogoina*.

TOP.: BENTURAITURRIKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Bentiiturriko Erreka*

BIBLIO. “...*BENTURAITURRI lurtsaila, Trans. 4 lib. (OGPAR) XIX mendea...*”. L. M^a Mujika, *ETM VI*, 368. orr.

KOKAP.: Urnietako Marizulo baseritik gertu jaiotzen da, baina Andoaingo lurretan sartzen da, ondoren Benezia eta Aranaztegi bidea baserrien artean igaroz Ubaran errekararen isuri arte.

OHAR.: Urnietan aldean ere izen honetaz ezagutzen da errekatxo hau. Ahozko erabileratik jasotzeaz gain L. M^a Mujikaren liburuan aurkitu dugu toponimo honen aipamen idatzi bakarra, nahiz eta Urnietako lursail baten izenaren bidez izan. Errekatxo laburra da, sorlekutik 300-en bat metro aurrerago Ubaran errekararen elkartzeko baitzaio Andoaingo lurretan.

TOP.: Laborderen ur-biltegia

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Labordek (h)artu zun depositua*
Laborde Depositua

KOKAP.: Igurutz erreka Etxebestearen errekararekin elkartu baino bosten bat metro gorago dago.

OHAR.: Urbiltegi txiki hau *Laborde* izeneko enpresarena da.

TOP.: ETXABEKO ZULOA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Etxabeko Zuloa*

KOKAP.: Pagamendi eta Atxular mendien artean dago, Etxabe baserritik Etxamunora eta azken honetatik Asu baserrira doazen bideen artean.

OHAR.: Goian aipatu bideek inguratu eta Etxamuno errekek zehar-katzen du sakan hau. *Zulo* honen gainaldean, beste batzuren artean, *Etxabe* baserria dago. Zuhaitzez beteta dago eta pinuak ere badiren arren, ugariago dira bertako zuhaitzak.

TOP.: ERREKABELTZ

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Errekabeltz* (2)
Errekabeltza (2)

DOKUMENT.:

1773 "...partido de Recavélz concexil de esta villa...". Lib.c.f., 149. orr.

1778 "...tiene huecos de buen terreno para diez mil plantíos (...) en Errecavelz...". Lib.c.f., 3. orr.

1889 "...se colocó un mojon nuevo por haber desaparecido el anterior señalado con el numero diez y ocho (...) habiendo introducido en sus excavaciones pedazos de teja, sobre la fuente de Erreca-belz...". Des. y a. 71H/4.

1945 "...Errecabeltz; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...". Amil., jabea: M.J. Ch.G.

"...Errecalde o Errecabeltz; pinar; (...) Paraje: Buruntza...". Amil., jabea: M.L.E.

"...Errecabeltz; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...". Amil., jabea: E.Z.O.

"...Errecabeltza; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos". Amil., jabea: J.A. eta F. A.M.

"...Errecabeltza; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza". Amil., jabea: M.A.U.

KOKAP.: Leizotz auzoaren ifarrean dago, Urkiondo etxea eta Agirreborda baserriaren ondoko arrotik igarotzen delarik.

OHAR.: Urnietako Txosokako erreka eta Andoaingo Lekunategiko erreka elkartu ondoren sortzen denari —Andoain eta Urnietaren arteko mugan— deitzen zaio *Errekabeltz*. Ondoren honek Penadiko errekaekin bat egiten du, azken honi *Ziako Erreka* deitzen zaiolarik. Amilaramendu eta bes-telako dokumentuetan ageri denez, erreka honen inguruko lursail ugarik du erreka izena.

TOP.: LEKUNATEGIKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Lekunateiko Erreka* (2)
Lekunatei Erreka

KOKAP.: Leizotz auzoaren ifarrean dago, Lekunategi baserria eta Andoain eta Urnietaren arteko mugaren artean jaiotzen delarik.

OHAR.: Esan bezala, *Lekunategi* baserriaren ekialdeko arroan jaiotzen da. Bidean errekatxo eta iturri zenbaiten ura hartzen du, Urnietatik datorren Txosokako errekarekin bat eginaz azkenik (ikus ERREKABELTZ). Erreka arro estu eta sarri batetik igarotzen da.

TOP.: PENADIKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Penaiko Erreka*
Penadiko Erreka
Penadi Erreka

KOKAP.: Pardaki bizkarra eta Atxular mendiaren artean jaiotzen da.

OHAR.: Ura lau iturburu ezberdinetan sortzen da eta hauek isuri berera etortzearen ondorio da *Penadiko Erreka*. Bidean beste zenbait iturriren artean Zillarriturriren urak hartzen ditu eta Trentxikiko bidearen ondoan, azkenik, Errekabeltzekin elkartzen da (ikus ERREKABELTZ). Errekaren aldamean, baina metro batzuk gorago, *Penadi* baserria dago.

Egun baserriaren izenaz ezagutzen da erreka, baina Penadiko baserriarrak esan digunez, bere lursail batzuren eskrituretan erreka *Txingurri* izenaz azaltzen da. Hau da izen honetaz dugun berri bakarra, baserriarrak berak ere izen hori aipatu eskriturak begiratu arte ez zuela ezagutzen aitortu digularik.

TOP.: MIZPIRADIKO ITURRIA - EGUZKITZAKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Mizpireiko Itturriya* (3)
Mizpirei Itturriya
4/3 *Euskitzako Itturriya* (2)
Euskitza Itturriya

KOKAP.: Meakaren ifarraldean dago, Lekunategi eta Mizpiradi baserrien arteko arrotik jaisten delarik.

OHAR.: Galdetuak izan diren lau informatzaileetatik hiruk erabiltzen duten izena *Mizpiradiko Iturria* izanik, honen berezko izena *Eguzkitzako Iturria* dela esan digute. Iturriaren ura ur-biltegitxo batean jasotzen da eta gainezka egiten duen ura da Penadiko errekaaren isuria.

TOP.: ZILLARRITURRI

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Zillarriturri* (4)
Txillarriturri

DOKUMENT.:

1945 "...*Cillar Iturri; pradera, pradera con maizal, bajo y matorral;*
(...) *Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: A.B.S.
"...*Sillar Iturri; bajo y matorral;* (...) *Paraje: Leizos...*". Amil.,
jabea: J.J. I.A.

KOKAP.: Arizmendi Etxeberriren ifarrean dago, Penadiko erreken bazterrean.

OHAR.: Informatzaile baten esanetan, iturri honetan, ohi ez den bezala, ez dago zomorrorik eta horregatik deitzen omen zaio *Zillarriturri*. Harkaitz zulo batean sortzen da putzutxo bat osatuz eta kanila baten bidez lurrera isuri eta Penadiko errekarat jotzen du.

TOP.: ETXEBESTEKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 5/2 *Etxebesteko Erreka*
5/2 *Etxebesteko Iturriya*
Etxebeste Iturriya
5/1 *Garagorri Erreka*

KOKAP.: Garagorri eta Mizpiradi baserrien arteko arroan jaiotzen da, Atxular mendiaren ifar-mendebaldeko maldan.

OHAR.: Ura sortzen den tokian *Etxebesteko Iturria* eta ondoren *Etxebesteko Erreka* esaten diote galdeturiko informatzaileetako bik. Erreka hau Arizmendi baserriaren parean Igurutz errekararekin elkartzen da eta hortik aurrera *Idiazabalgo Erreka* esaten zaio.

TOP.: IDIAZABALGO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Izal Erreka*
Idiazabal Erreka
Izalko Erreka

DOKUMENT.:

1945 *Regata Idiazabal*. Amil., jabea: L.A.Z. eta V.A.B.
Regata Arizaga. Amil., jabea: M.L.W.

KOKAP.: Pagamendiren ifar-ekialdetik jaisten da, Arizmendi baserriaren ondotik Idiazabal Aundi baserriraino.

OHAR.: Igurutz eta Etxebesteko errekek bat egin ondoren sortzen den honi esaten zaio *Idiazabalgo Erreka*. Erreka *Idiazabal Aundi* baserriaren ondotik igarota Ziako errekarat elkartzen zaio *Idiazabal Txiki* baserriaren in-

TOP.: MAKALDIZULO
MAKALDIKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 3/2 *Baltzuketan Itturriya*
Baltzuketa Txikiko Erreka
3/1 *Makaldiko Itturriya*
Makaldiko Erreka

KOKAP.: Pagamendiren mendebaldeko maldan dago, herriko ur-biltegiaren behelaldean.

OHAR.: Baltzusketa Txiki baserriaren ondoan dago eta gertutasunagatik edo, agian, baserrikoek ura bertatik hartzen dutelako, baserriaren izenaz ezagutzen dute hiru informatzaileetako bik. Hala ere, Baltzusketa Txiki baserrikoak honen berezko izena *Makaldiko Iturria* dela eta *Makaldizulo* iturriaren inguruarena azaldu digu.

Iturria zoko batean jaio eta landare eta sastraka artean 150-en bat metro egin ondoren Erroizko errekarari elkartzen zaio.

TOP.: ERROIZKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 4/2 *Pamendi Erreka*
Pamendiko Erreka
4/1 *Erroizko Erreka*
4/1 *Parisko Itturriya*
4/1 *Xapataneke Erreka*

DOKUMENT.:

1862 *Erroiz (terreno cerca del puente de)*. I.c.h., H-532.

1915 "...el camino carretil de servicio particular para uso de los mismos que arrancado del camino de la estación se dirige hacia Erroiz y Pagamendi...". Cam.v. 34H/3.

1945 "...Errobotz; cereal; (...) Paraje: Leizos...". Amil., jabea: F.Z.G.

"...Erroiz; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...". Amil., jabea: P.B.A.

"...Irruitz; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...". Amil., jabea: F.Z.G.

KOKAP.: Pagamendiren mendebaldeko maldan jaio eta herrirantz abiatzen da.

OHAR.: Pagamendin jaiotzen denez jende ugari erreka mendiaren izenaz ezagutzen du. Gure informatzaileetariko batek, ordea, desagertutako iturriaren izenaz ezagutzen du erreka, erreka honetakoa baitzen garai batean Kaletxikiren inguruan zegoen Parisko iturriari zerion ura. Beste batek aipatutako izena, berriz, errekararen aldamenean dagoen etxearena da (ikus MANTEROLANEA), baina inguruko baserriaren baten esanetan *Erroizko Erreka* da honen berezko izena. Azkuek bere hiztegian dioenez *erroitz* Andoainen *amil-degi(a)* adierazteko erabiltzen den izena da eta esanahia bat dator, hain zuzen, inguruaren ezaugarri geografikoekin. XIX. mendeko dokumentu batean eta

XX.-eko beste zenbaitetan, bestalde, Pagamendiko leku eta lursail batzuk izen honekin azaltzen dira.

Erreka laburra da eta azken zatia, herrian barrena doana, alegia, lurrazpira estalita dago.

TOP.: LEPASORO ERREKA - ETXABEKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Etxabeko Erreka*

DOKUMENT.:

1736 "...fuimos río de Leizaran arriba hasta un molino barinero (...) Y por dho río arriba llevándole a la derecha, fuimos hasta encontrar una herrería (...) propia del dho Dn. Agustín José de Leizaur (...) fuimos subiendo por la orilla de dho río Leizaran arriba llevándole a la derecha y mirando hacia el mediodía y a poca distancia se encontró con un arroyo llamado Lepasoro que viene de hacia el oriente y se incorpora con dho río Leizaran...". Urr.d., C. 2625-1.

1778 "...plantios; (...); en Leparreca y Otieta paradiéz y seis mil...". Lib.c.f., 3. orr.

KOKAP.: Etxabe baserriaren parean hasita, Pagamendi eta Mokorollo gainaren artetik doa, azkenik, Trentxikiko bidearen azpitik igaro ondoren, Leizaran ibaiak honen ura hartzen duelarik.

OHAR.: Atxular mendiaren mendebaldeko maldan jaiotzen da eta lehen zatia, *Etxabe* baserriaren parera iritsi aurretik, *Etxamuno Erreka* izenez da ezagun. Egun erreka aipatu baserriaren izenez ezagutzen den arren, 1736. urteko dokumentuaren arabera, garai haietan *Lepasoro Erreka* esaten zitzaion, baina gure informatzaileek ez dute aintzinako izen hau ezagutzen. Aipatu behar dugu ere XVIII. mendeko beste dokumentuetan azaltzen den *Leparreca* toponimoak honekin zerikusirik edukitzearen frogarik ez dugula, baina aipagarria da *Lepasoro*, erreka izena izanik, *soro* bati egiten diola erreferentzia eta, aldiz, *Leparreca*, soro edo lursail baten izentzat jaso dena, badirudi *erreka* bati lotuta dagoela.

TOP.: ETXAMUNO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Etxamuno Erreka*
Etxamuno Iturriya

DOKUMENT.:

1915 "...solicitando se le autorize para tomar agua del robinete de la fuente pública de Echamunoa...". Apr.d.a. 20H/12.

KOKAP.: Atxular mendiaren mendebaldeko maldan du iturburua.

OHAR.: *Etxamuno* baserrikoek erreka honetatik hartzen omen dute ura eta horregatik baserriaren izenez ezagutzen da erreka. Etxabe baserrietik aurrera, ordea, bigarren honen izena da erabiltzen dena. *Etxamuno Erreka*

izenaz ezagutzen dena zati laburra da eta *Etxabeko Zuloa* deituriko zokoa zeharkatzen du (ikus ETXABEKO ERREKA, oharrak).

TOP.: AINGERUITURRI

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Angiturri*
Aiñiturri

DOKUMENT.:

- 1752-5-11 "...en el parage nombrado Aingueru Yturri, se arruino un pedazo de camino (...) precisa su composicion por ser carretil para la ferreria de Olaberria...". Lib.c.f., 80. orr.
- 1858 "...el murallon seco construido frente á Leizaurcola en el camino que conduce al barrio de Yraola por Ainguire-iturri, el peligro que corren el murallon y el camino...". Aut.e.c. 61H/1.
- 1902 "...el camino vecinal desde la caseria de Asu a Ainguiriturri se ve muy deteriorado y cuasi intransitable...". Cam.v. 34H/3.
- 1903 "...empezo á explotar una cantera frente al caserío Lizarcola y sobre el camino que de esta villa se dirige á Anguiturri...". Aut.e.c. 61H/1.
- 1912 "...Ya conocíamos detalladamente las circunstancias del camino en la zona comprendida entre Anguiiturri y Olaberria con grandes precipicios sin defensa alguna...". Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Lizarkola pasealekuan dago.

OHAR.: Juanjo Larrea jaunak emandako informazioari esker aurkitu dugu azken unean 1752-ko aipamen hori Udalaren hitzarmen-liburuan eta kokapenari buruz jasotako datuek *Aingueru Yturri* (1752) eta *Ainguire-iturri* (1858) iturri bera direla pentsarazten digute. Aipatu horiek biak izan daitezke iturriaren jatorrizko izenak, lehena *aingeru* eta bigarrena *aingire*-n oinarrituta. Informatzaileek esandakoak, berriz, ez digu jatorriari buruzko argibiderik ematen eta, horregatik, dokumentu zaharrenean topatutako izenaren alde jo dugu.

Iturri garrantzitsua izan da, dokumentu ezberdinetan azaltzen denez, bidearen erreferentzia gisa erabili baita. Egun ere, zenbaitek iturriaren ondoan dagoen biraguneari ere *Angiturriko Errebuelta* esaten dio.

TOP.: UBARAN ERREKA UBARANGO ZUBIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Uban Erreka*

DOKUMENT.:

- 1736 "...Echarri, (...) y a muy poco trecho que se anduvo se encontró con un arroyo que unos y otros nombrados dijeron llamarse Ugarana...". Urr.d., C.2625-1.

- 1736 "...hallarse como se halla al presente en el arroyo Ugarana y Urriolondoerreca...". Urr.d., C.2625-1.
- 1763 "...trasplantados por el mismo Mendizaua, en los paraxes de Huarana, y Olaberrietta...". Lib.c.f., 194. orr.
- 1765 "...partido de (...) y los quatrocientos, y cincuenta restantes en el de Huarana, en la cercania de Balzun...". Lib.c.f., 198. orr.
- 1773 *partido de Ubarana*. Lib.c.f., 81-82 orr.
- 1848 (*febrero*) *regata de Ubarana*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1881 *regata llamada Ubaranea*. Inv.b. 44H/7.
- 1894 *regata Ubaran*. Cam.v. 34H/3.
- 1897 *regata de Ubaran*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1907 "...el trozo de camino vecinal comprendido entre el puente de Ubaran y Arri-urdin, se encuentra en muy mal estado...". Cam.v. 34H/3.
- 1945 "...Ubaran Aldeco Garomena; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...". Amil., jabea: J.A. eta F. A.M.

KOKAP.: Urnietako lurretan jaio eta Andoaingo Leizotz auzoa ekialdetik mendebalera zeharkatu ondoren Leitzaran ibaira isurtzen ditu bere urak.

OHAR.: Izen honen etimologiaren arabera: *u(r) + (h)aran(a)*, izenak errekeri baino bere inguruko bailara edo haranari egiten dio erreferentzia, haranaren ezaugarrietako bat azpimarratuz, hots, uraren ugaritasuna, iturri eta errekatxoak han-hemenka sortzen baitira, guztiak *Ubaran* errekeri jotzen dutelarik (ikus ELTZAMENDIKO ERREKA). 1736. urteko dokumentuan jasotako aipamen batean erreka bi izenekin agertzen da: "...el arroyo Ugarana y Urriolondoerreca...", erreka bigarren horretaz ere ezaguna izan denaren frogak.

Ur biziko erreka honen bazterretan errota eta ola ugari izan da. Ur garbiak eta gardenak ditu oraindik eta zeharkatzen duen bailara, pinudiak ugaritzen joan arren, ederra da oso.

1907. urteko dokumentuan erreka honetan dagoen harrizko zubitxoak ere *Ubaran* izenarekin azaltzen da, eta dokumentu berean aipatzen den *Arri-urdin*-i dagokionez esan behar da, Inaxio Etxeberriaren esanetan, Artola-borda eta Baltzun baserrien artean dagoen harkaitz baten izena dela.

TOP.: ASUKO ITURRIA BASAMOTZ

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Asuko Itturriya*
2/1 *Itxutu Itturriya*

DOKUMENT.:

- 1894 "...El contratista empezará abriendo las zanjas desde el contacto de la arqueta actual de la toma de agua situada en Asuco-itchurri, en el punto denominado Baso-motz...". Cons.a. 68H/14.
- 1894 "...para la conducción de aguas desde el manantial conocido con el nombre de Asuco-itchurri situado en el punto llamado Basamotz...". Cons.a. 68H/14.

- 1945 *Basagoyen*. Amil., jabea: P.S.G.
Baso Aundi. Amil., jabea: A. S.C. A.
Baso Choco. Amil., jabea: T.I.Z.
Baso Choco Barrena. Amil., jabea: M.P.E.
Baso Illun. Amil., jabea: J.A.N.
Basochogoina. Amil., jabea: T.I.Z.

KOKAP.: Mokorollo gainaren ekialdean eta Asu baserriaren hegoaldean dago.

OHAR.: 1894. urteko dokumentuan aurkitu dugu iturri honen aipamen idatzi bakarra eta, galdeketa ere informatzaile bakar baten erantzuna jaso den arren, geroztik egindako irteeretan iturria ezagutzen duenak *Asuko Iturria* esaten dionaz konturatu gara. *Asu* baserrikoek, ordea, *Itxutu Itturriya* deitzen diote. Iturria otez inguratuta dago eta bertatik sortzen den ura, bidea zeharkatuz, Olaberrietaren parean Ubaran erre kara isurtzen da.

1894. urteko dokumentuan, bestalde, iturriaren ingurua *Basamotz* izenarekin azaltzen da eta, amilaramenduetan *baso* hitzaz osatutako toponimo ugari aipatzen diren arren, ez dugu beste honen aztarnarik aurkitu. 1894. urtekoa da, beraz, toponimo honen aipamen bakarra.

TOP.: ALLIRIAZPIKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Alleiazpiko Erreka*

DOKUMENT.:

- 1945 *Regata Allegui*. Amil., jabea: J.E.J.
 1914-12-31 "...*Reparto de leña para fogueras por el sistema de suertes verificado el día de hoy, del punto denominado Arboilleta...*". Corr.c. y r. 54H/10.
 1914 "...*Reparto de leña para fogueras del punto de Arboilleta...*". Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Aizkorriren ekialdean jaio eta mendien arteko bailara estu eta sakona zeharkatu ondoren Errotazarren aurrien ondoan Ubaran erre kari elkartzen zaio.

OHAR.: Erreka, beste leku askoren artean, *Alliriazpi* izeneko tokia- ren ondotik igarotzen da eta zeharkatzen duen bailara, nahiz eta pinuz eta bestelako konifera exotikoz josita egon, *Alliri* haitzaren gaintik begiratuta, adibidez, ikusgarria da (ikus ALLIRI HAITZA, ahozko erab.). Erreka hirigunetik urrun egon eta inguruan baserri gutxi izateagatik ez da ezagunegia eta informatzaileek izen bat baino gehiagoz ezagutzen dute: *Talaiko Erreka* —Talaiaiko maldaren ondotik igarotzen da—, *Erreka Xixtorra*, *Txoixetako Erreka*, e.a. Alde honetan, gainera, errekatxoak han-hemenka sortzen dira.

Inaxio Etxeberriaren esanetan *Arbollota* da erre karen sorlekuari ematen zaion izena, baina, dirudienez, berak bakarrik ezagutzen du 1914. urteko dokumentuan azaltzen den toponimo hau, informatzaile ugariri galdetu arren, hauetako inork ez baitu izena entzun ere egin. Inaxiok berak, bestalde,

izenaren etimologia tokiaren deskribapena eginez azaldu digu, hots, leku honetan harri zuri eta borobil ugari dagoela esanaz: (h)arr(i) + bo(r)o(b)il + eta. Zoritxarrez, inguru honetan bideak estali dituzten konifera baso sarriak daude eta bertatik ibili ere ibiltzerik ez dago. Horregatik, ezinezkoa gertatu zaigu bertara hurbiltzea kokapena frogatu eta zehaztu ahal izateko.

TOP.: URRILLONDOKO ITURRIA URRILLONDOKO HAITZA

DOKUMENT.:

- 1910 "...para derivar y aprovechar las aguas de varias regatas, entre ellas, la de Urbillondo, (...) desagua en Ubaran...". Exp.d.a. 68H/16.
- 1922 "...se conoce bajo el nombre de Urbillondo, brota al sur y pié de la peña del mismo nombre en la altitud de 201, 20 metros...". Pro.t.a. 21H/1.
- 1922 "...manantial "Urbillondo" y cuatro litros por segundo del manantial "Churu" ambos radicantes en los montes Pardaki y Aitzgorri...". Pro.t.a. 21H/1.

KOKAP.: Pardaki bizkarraren hegoaldean dago, Meaka baserriaren aurrian eta Urrillondo baserriaren artean.

OHAR.: Mende honetako dokumentu zenbaitetan jaso dugu iturri honen lehen aipamena, eta hauen bidez ere jakin ahal izan dugu iturriaren gaineko haitzak izen bera duela. Informatzaile batek iturriari *Meakako Iturria* ere esan ohi zaiola azaldu digu. Beste batek, ordea, dokumentuetan azaltzen den izen beraz ezagutzen du.

Iturria *Urrillondo* baserrira iritsi baino 150-en bat metro lehenago dago —Andoaindik joanda—. Pinuz inguratutako haitz zuri baten pean sortzen da eta metro gutxi batzuren ondoren iristen da Ubaran errekarara (ikus URRILLONDO BASERRIA).

TOP.: LIZARRATXOPEKO ERREKA / ELTZAMENDIKO ERREKA

- AHOZKO ERAB.: 6/3 *Urrillondoko Erreka (2)*
Urbillondo
6/2 *Eltzemendiko Erreka*
6/2 *Larrezuritakoa*
6/1 *Zentral Erreka*

DOKUMENT.:

- 1848 (febrero) "...en la espresada jurisdicion y villa y, varrio hemos ballado y medido en el termino titulado Elzamendi (...) confinante por el oriente con la regata titulada Lizarra Chope-erreka que confina con los pertenecidos de esta villa y de Urnieta...". Bie.c. y p. 44H/5.

- 1889 “...en igual dirección hasta el encuentro de dos regatillas en ochenta metros: desde este punto sigue de línea divisoria en la regata denominada Elcemendico-erreca...”. Des. y a. 71H/4.
- 1897 (septiembre) “...17. Elzamendi. Se halla situado en la falda norte del monte del mismo nombre (...) confines son al este con la regata Lizarra-chopeco-erreca con los pertenecidos de esta villa y Urnieta...”. Bie.c.p. 44H/5.
- 1916 “...Alliri-azpia y Negusarobe. Se halla situado en la falda que mira al oriente de los montes de los mismos nombres (...) confinan al este con la regata Lizarrachopeco-erreca...”. Inv.p.d. 13H/9.

KOKAP.: Urnietako Adarramendi eta Andoaingo Onddo mendiaren arteko zokoan sortzen diren iturriek osatzen dute iturburuetatik aurrerago erreka hau.

OHAR.: Erreka hau Andoain eta Urnietaren arteko muga da. Bere izena ez da erabiliegia eta informatzaileek izen bat baino gehiagoz ezagutzen dute, izen finkorik erabili gabe, erreka izendatzeko bakoitza inguruko erreferentzia geografiko ezberdinetan oinarritzen delarik: Eltzamendiko zentrala, Eltzamendi, Larrezurieta (Urnietan kokatuta), Urrillondo baserria, errekaren amaieran dagoen urjauzia (ikus URSALTO)..., e.a. Begiratutako dokumentuetan, ordea, egoera askozaz ere finko eta argi goa da, kasik gehienetan *Lizarratxopeco Erreka* izenarekin agertzen baita eta, dokumentu hauetan, gainera, kokapenari dagokionez ez dago zalantzarik. Zoritxarrez, toponimo eder hori ez du jadanik inork ez erabili ez eta ezagutzen. Horregatik, izen bat aukeratu edo proposatzeko orduan bi informatzailek esandakoa eta Urnieta aldean gehien erabiltzen den izena hartu dugu oinarritzat (ikus ELTZAMENDI, oharrak).

Eltzamendiko Erreka-k, Andoaingo lurretan sartu aurretik, bere bidetako azken zatian Urnietatik datorren erreka baten ura hartzen du. Andoaina sartzen den gunetik aurrera, berriz, *Ubaran* izenaz ezagutzen da.

TOP.: URSALTO

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Ursalto* (2)
 Urxalto
 3/1 *Akerzulo*

DOKUMENT.:

- 1768 “...procedera esta Villa de aqui á dos, ó tres años, á hacer la entresaca (...) en Sanctipago, y Ursaltoa...”. Lib.c.f., 3. orr.atz.
- 1862 “...Ursalto (molino en el punto denominado) (...) 1855, permiso para construir una presa en este punto...”. I.c.h., H-532.
- 1889 “...desde este punto sigue la línea divisoria en la regata denominada Elcemendico-erreca, con varios rodeos, hasta veinte y cinco metros antes de llegar a un camino carretil que le atrabiesa, más abajo del punto Ursalto...”. Des. y a. 71H/4.

1906-12-17 “...cargas de leña para los hogares del vecindario (...) 100 en el punto llamado Allegazpi, 30 en Aquerzulo...”. Corr.c. y r. 54H/10.

1945 “...Orsalto Ondo; alto con frondosas; (...) regata Ursalto; Paraje: Leizos...”. Amil., jabea: J.J. I.A.

KOKAP.: Eltzamendiren ifar-ekialdean dago, Eltzamendiko erreka azken zatian.

OHAR.: Informatzaile zenbaitek izen honetaz ezagutzen du Eltzamendiko erreka, baina izena, berez, erreka honetan dagoen *ursalto* edo *urjauzi* bati dagokio. Inaxio Etxeberriak toki honen izen zaharra *Akerzulo* dela azpimarratu digun arren, lan honetarako erabili den dokumentazioan behintzat, bigarren honen aipamen bakarra 1906. urteko dokumentu batean azaltzen da eta, beraz, berriagoa dela esango genuke. Oñatiko artxiboan, bestalde, toki honetan izandako errota eta presa aipatzen dira, baina A. Aguirre Sorondok errotei buruzko liburuan *Ursalto* deituriko tokian *Berridi* izenekoa zegoela azaltzen du.

Urjauzia ez da handiegia, baina euria egiten duenean, behinik behin, ikusgarria gertatzen da, goitik beherako apar zuriaren jarioa urrutitik ikus baitaiteke.

TOP.: ITURRIEDER

DOKUMENT.:

1881 “...Dentro del perímetro del monte llamado Andoaingo mendia hay unos setenta terrenos de particulares (...) Barrio de Leizoz. Un terreno robledal llamado Yturri-eder de ciento sesenta y ocho áreas de superficie...”. Inv.b. 44H/7.

1918-1-20 “...Año 1918. Suertes de leñas vendidas en Yturrieder...”. Corr.c. y r. 54H/10.

1945 “...Iturrieder; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...”. Amil., jabea: F.A.U.

OHAR.: *Iturrieder* Urnietako lurretan dagoen iturri baten izena da, Eltzamendiko erreka eroreran dagoenatariko bat, hain zuzen. Hala ere, aipatu dokumentuetan ematen diren datuen arabera, Andoaingo lurretan dauden baso —hariztia— edota lursail pare baten izena ere bada. Hauetako bat Leizotz auzoan eta bestea Buruntzan daudela aipatzen den arren, ez dugu horien kokapen zehatza ezagutu.

TOP.: SANTIPAGO

SANTIPAGOKO ERREKA - ITURRIGORRI

DOKUMENT.:

1736 “...y los nombrados de Martin Uribe dijeron no llamarse dho arroyo de Unsalasoro sino es de Santipago (...) y llamarse el alto de la cuesta por donde baja Santipago...”. Urr.d., C. 2625-1.

1751 “...en el parage nombrado Santipago trescientos pies tambien de robles...”. Lib.c.f., 122. orr.

1778 "...procedera esta Villa de aqui á dos, ó tres años, á hacer la entresaca de su quarta parte; (...) en Sanctipago...". Lib.c.f., 3. orr.atz.

1926 "...leña para hogares de los montes Elurzulo y Santipago...". Corr.c. y r. -54H/10.

KOKAP.: Alliri haitzaren ifarraldeko maldan dago (ikus sarrerako 23 orrialdea).

OHAR.: Iritzi ezberdinak jaso ditugu toponimo honen kokapenari dagokionez, eta zaila da, bertara joan arren, tokia zehazki identifikatzea, egun inguru guztia pinuz josita baitago. Horregatik, Alliri haitzaren ifarraldeko maldan dagoela jakin arren, ez dugu kokapen zehatza ezagutu. Erantzun ezberdinak jaso ditugu ere bertako deskribapenari dagokionez: batek belarra eta zikina dagoen lursaila dela eta beste biak altzak eta pagoak daudela esan baitigute. Ez dakigu, gainera, egungo edo garai bateko egoerari buruz ari ziren, esan bezala, inguru guztia pinuz beteta baitago.

Badago ere izen bereko errekatxoa aipatu maldan jaiio eta Ubaran errekan amaitzen dena. Honen ezaugarria, zenbait informatzailek emandako bigarren izenean adierazten den bezala —*Itturigorri, Urgorri, Martingorri*—, uraren kolore gorria da, ur burniduna baita.

TOP.: ERROTAZAR (aurriak)

BIBLIO. "...ERROTA-ZAR. Se encuentra en el Leizotz-erreka, a su izquierda, en el barrio de Leizotz. Los vecinos del caserío Urbillondo nunca lo conocieron en marcha. Se encuentra en ruinas. SITUACION. Unos 100 metros aguas abajo del anterior, junto al caserío Urbillondo...". A. Aguirre Sorondo, *Molinología*, 301. orr.

KOKAP.: Alliriazpiko erreka Ubaran errekeri elkartzen zaion tokian dago, Andoaín eta Urnietaren arteko mugatik gertu.

OHAR.: A. Aguirre Sorondoren liburuan jaso dugu errota honen aipamen idatzi bakarra eta, izenak adierazten duen bezala, errota zaharra izanik harritzekoa da dokumentazioan ez agertzea. Horregatik, dokumentu zaharretan beste izen batekin azalduko dela pentsatzen dugu. Inaxio Etxeberriak ere *Errotaxar* izenaz ezagutzen du.

Teilatua erorita eduki arren, hormaren zati handiek zutik diraute oraindik, hori bai, huntzak eta laharrak erdi janak. Ondo kontserbatzen da, adibidez, uraren jauzbidea zitekeenaren harrizko arkuak.

TOP.: PRESAZABAL (aurriak) PRESAZABAL TXABOLA

AHOZKO ERAB.: *Presatzabal, Txurikain Txabola (I.A.)*

DOKUMENT.:

1911 "...lo que combiene de Presa-zabal a Auzocalte...". Cam.v. 34H/3.

BIBLIO. “...*junto a los restos de la ferrería de Presazabal...*”. A. Aguirre Sorondo, *Molinología*, 301. orr.

KOKAP.: Ubaran errekan dago, Artolaborda eta Urrillondo baserrien arteko erdibidean, gutxi gorabehera.

OHAR.: 50-en bat metro izango da txabola eta presaren artean dagoena —txabola presa baino lehenago Andoaindik joanda—. Presa erdi erorita dago eta Ubaran erreka ura jadanik ez da honen gainera isurtzen. Eraikitze-ko eragatik Juanjo Larrea jaunak nahiko zaharra dela uste du, baina *Presazabal*-i buruz jasotako bi aipamenak nahiko berriak dira. A. Aguirre Sorondok, Inaxio Etxeberriak bezala, burniola batekin erlazionatzen du presa, nahiz eta batek honen izena *Presazabal* eta besteak *Sorgintxulo* zela esan. Aztarnegatik atzematen da presa handia zela. Egun bere inguruan lahar eta huntza ugari dago, presaren horma bera kasik estaltzeraino.

TOP.: **TXURRU TONTORRA**
TXURRUKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Txurroko Itturriya*
Txurroko Erreka

DOKUMENT.:

1762 “...*plantios de roble plantados por Manuel de Echaue vecino de esta villa en el paraxe nombrado Churrua...*”. Lib.c.f., 133. orr.

1906 “...*la fuente del monte Churr(u) que se halla en el terreno del pueblo acia Ubaran...*”. Exp.f.p. 20H/13.

1922 “...*manantial “Urbillondo” y cuatro litros por segundo del manantial “Churru” ambos radicantes en los montes Parda-ki y Aitzgorri...*”. Pro.t.a. 21H/1.

KOKAP.: Tontorra Aizkorriren mendebaldeko maldan dago eta erreka aipatu maldan jaio eta Ubaran errekan amaitzen da (ikus sarrerako 23. orrialdea).

OHAR.: Dokumentazioan jaso ditugun hiru aipamenetan, nahiz eta urte alde handia egon zaharretik beste bietara, *Churru(a)* topatzen dugu hiruetan. Egun, ordea, *Txurru* esaten da. Galdeketaren atalean informatzaile bakar baten erantzuna jaso den arren, nahiko ezagunak dira, zaharren artean behintzat, bi toponimo hauek.

Ifar-mendebaldeko maldan dago *Txurru* izenaz ezagutzen den tontortxo, baina egun zaila da malda honetan tontorra edo beste ezer bereiztea bertan dagoen pinu kopuru izugarria dela-eta. Tontorrak 275 metro ditu eta bidetik begiratuta harkaitsua dirudi. Behetik igarotzen da Aizkorri barrera doan basabidea eta bere albotik, berriz, *Txurruko Erreka* jaisten da.

TOP.: **SORGINZULO ERREKA**

DOKUMENT.:

1862 *Sorguinzuloco eguia*. I.c.h., H-532.

1907-12-19 “...*Reparto de leña del punto Sorguin-zulo...*”. Corr.c. y r. 54H/10.

1924-11-8 "...*lotes de leña marcados en "(El)urzulo-azpi", tasadas en 180 pesetas y cuarenta lotes en Sorguin-zulo, tasadas en 80 pesetas...*". Corr.c. y r. 54H/10.

1945 "...*Sorguinzulo; bajo y matorral; (...) Regata Sorguinzulo (...); Paraje: Goiburu...*". Amil., jabea: M.J. A.C.

KOKAP.: Aizkorriren ifar-mendebaldeko maldan jaio eta Ubaran errekan amaitzen da (ikus sarrerako 24. orrialdea).

OHAR.: Presazabal txabolatik gertu elkartzen zaio Ubaran errekarari. Joan zen mendearen bukaerako eta honen hasierako bi dokumentutan aurkitu ditugu toponimo honen aipamen bakarrak. Bigarren goan baso edo leku baten izentzat dago jasota eta lehenengoan oronimo bati egiten dio erreferentzia. Argi dago, beraz, errekaen ubidea *Sorginzulo* izeneko hegiaren ondotik igarotzen dela. Informatzaile batek *Eginagusiko Erreka* izenaz ere ezagun du eta honek *Eginagusi* eta *Sorginzuloko Egia* entitate beraren izenak direla pentsarazten digu (ikus EGINAGUSI, oharrak). Esan behar da ere amilaramenduetan aipatzen den *Sorguinzulo* eta *Regata Sorguinzulo* Goiburu auzoan kokatuta azaltzen direla eta, beraz, ez dutela zerikusirik oraingo honekin. Dena den, Goiburu auzoko informatzaileek ez digute bi toponimo horien berririk eman eta ez dugu kokapena ezagutzen.

Galdeketa ren atala hutsik dagoen arren, zaharren artean behintzat, ezaguna da errekatxo honen izena.

TOP.: EGINAGUSI

DOKUMENT.:

1767 "...*partido de Eguinagusi, concexil de esta villa...*". Lib.c.f., 140. orr.atz.

1768 *partido de Eguinagusi*. Lib.c.f., 203. orr.atz.

1945 "...*Eguinagusico Azpico; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: J.A. M.U.

KOKAP.: Aizkorriren ifarraldeko maldan dago.

OHAR.: XVIII. mendeko *Libro de Conservación y Fomento* liburuan eta 1945. urteko amilaramenduetan aurkitu ditugu toponimo honen aipamen bakarrak. Informatzaileen artean ere ez da ezagunegia, baina hauetako bik emandako datuez baliatu gara kokatu ahal izateko. Dena den, eta hauekin bertara inguratzerik izan ez dugunez, nahiz eta Aizkorriren ifarraldean dagoela ziur jakin, gerta daiteke mapan azaldutako kokapena erabat zehatza ez izatea. Beste zenbaitetan esan dugunez, alde guzti honetako maldak pinuz josita daude eta zaila da bertan tontorrak, hegiak edo bestelakorik bereiztea. Dirudienez, hegiaren ezker-eskubi bi errekatxo jaisten dira eta hauek gehienbat *Trikuetako Erreka* eta *Sorginzulo Erreka* izenez ezagutzen diren arren, bada bat edo beste *Eginagusiko Erreka* izenaz ezagutzen denik ere (ikus SORGINZULO ERREKA eta TRIKUETAKO ERREKA, oharrak eta kokap.).

TOP: BALTZUNGO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Baltzungo Iturriya*

KOKAP.: Aizkorriren mendebaldeko maldan jaio eta Baltzun baserritik gertu igarotzen da Ubaran errekarako bidean.

OHAR.: Inguruko baserritarrek aipatu izenaz ezagutzen dute errekatxo hau. *Baltzun* baserrikoek, ordea, honentzat ez dute inongo izenik erabiltzen.

TOP.: ITURRALDE BASOA

DOKUMENT.:

1945 "...*Iturralde Aldea; cereal, bajo y matorral; (...)* Paraje: *Buruntza...*". Amil., jabea: E.M.E.

"...*Borda Aldia o Iturri Aldea; bajo y matorral, cereal; (...)* Paraje: *Soravilla...*". Amil., jabea: D.S.A.

"...*Iturrialde y Soro Aundi; cereal, pradera; (...)* Paraje: *Goiburu...*". Amil., jabea: J.B.A.I.

"...*Iturrialdea; cereal, ribazos; (...)* Paraje: *Leizos...*". Amil., jabea: F.Z.G.

KOKAP.: Baltzun baserritik ehunen bat metro aurrerago dago, Aizkorriara doan basabidearen ezkerretan eta Baltzungo iturriaren inguruan.

OHAR.: Baltzun baserrikoena da basoa eta beraiek esan digute honen izena. Ingurua pinuz beteta egon arren, honetan *akeziak* (*Robinia pseudoacacia*) daude.

Amilaramenduetan jasotako aipamenetan ikus daitekeenez, auzo guztietan dago *Iturralde* edo *Iturrialde* izeneko lursailen bat.

TOP.: MEAKAKO BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Miakako Borda* (I.A.)

KOKAP.: Basajaundegi haitzaren ondoan dago.

OHAR.: Ikus MEAKA, oharrak.

TOP.: ETXABEKO BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Etxabeko Borda* (I.A.)

KOKAP.: Azaritokietatik 150-en bat metro aurrerago dago, Asu baserrira doan bidearen eskuinetara.

TOP.: ERDIKOBORDAKO BORDA - FLORENTINAREN BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Florentinan Borda* (I.A.)

KOKAP.: Ubaran errekaen bazterrean dago, Ubaranzelai Berri baserritik 150-en bat metro aurrerago, Ubarango zubiaren ondoko belazean.

OHAR.: Iñaki Agirrek eta guk izen ezberdinak jaso ditugun arren, -hasieran bi borda zirela pentsatu genuen- Juanjo Larrea jaunari esker jakin dugu bi izenak borda berari dagozkiola.

TOP.: ARAMANEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Amane* (4)
Amanea

DOKUMENT.:

1857-64 *Aramanéa*. Nomen., 81. orr.

1862 *Aramania y Buztaneta ó Larrabide* (casas). I.c.h., H-532.

1897 *Aramanea*. Est.e. 48H/4.

1897 (septiembre) "...en el monte Chingurri (...) al oeste con el camino carretil que se dirige de la casería Buztaneta a Olaverria...". Bie.c. y p. 44H/5.

1910 *Aramanea*. Cen.p. 70H/2.

1916 "...Bustaneta-azpia. Se halla situado en la falda y parte inferior que mira al poniente en el monte Chingurri (...) linda al este con camino carretil público que se dirige desde Buztaneta a Olaverria...". Inv.p.d. 13H/9.

1937 *Aramanea*. Pad.m.h. 65H/1.

1945 "...Aramaneco Soroa; cereal; (...) Paraje: Goiburu...". Amil., jabea: M.E.M.

BIBLIO. *Aramanea*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Lizarkola pasealekuan dago, Txingurri haitzaren mendebaldean.

OHAR.: Dokumentu zenbaitetan ematen diren datuei esker izan dugu *Buztaneta* izeneko baserriaren berri, eta Inaxio Etxeberriak baserri hori egun *Aramanea* izenaz ezagutzen den bera dela esan digun arren, horrekin ez dator bat azken unean aurkitutako datua. 1862. urteko dokumentuan azaltzen denaren arabera, badirudi *Buztaneta* aipatu baserriari ez, baizik eta Larrabide baserriari dagokion izena dela. Dena den, *Buztaneta* toponimoa gaur ez da ezaguna eta bi baserri hauek hainbat dokumentutan gaur ezagutzen diren izen beraiez agertzen dira.

TOP.: † POKOPANDEGI BASERRIA

DOKUMENT.:

1813 *La casa de Poco, Añosenea*. Lis.t. de A.

1818 *Pocopandegui*. Est.p.i. 62H/7.

1862 *Pobre-basoa* (terreno llamado); *Artapoco* (tierra nombrada). I.c.h., H-532.

BIBLIO. "...POKOPANDEGI etxea, 1831 urtea...". L. M^a Mujika, *ETM VI*, 329. orr.

KOKAP.: Bordatxiki eta Larrabide baserrien artean zegoen.

OHAR.: Auzoko gutxiak dute desagertutako *Pokopandegi* baserriaren berri. Izen bitxia baserri honek zuena eta bere adieragatik badirudi bertakoak makina bat gose pasatakoak zirela. 1862. urteko dokumentuan urritasun edo pobretasun adiera horrekin beste bi toponimo topatu ditugu, horien bitxitasunagatik goiko atalean jaso ditugunak. Aipatu behar dugu, orobat ere, 1813. urteko dokumentuaren lehen orrietan *La casa de Poco* izenez azaltzen dena segidan *Añosenea*-z agertzen dela.

Larrabide baserrikoak azaldu digunez, duela urte batzuk erosi zuen errepedearen ondoko belazea -baserria hor norbait zegoen-, eta saila *Pokopandegi* izenarekin eskrituratuta dagoela esan digu.

TOP.: AUZOKALTE ETXEA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Auzokalte* (3)
Auzo Kalte
Azukalte
Axukalte
Atxukalte
 7/3 *Bordazulo* (2)
Bordatxulo

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Auzocalte*. Nomen., 82. orr.
- 1897 *Auzo-calte*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Auzocalte*. Cen.p. 70H/2.
- 1950 *Auzocalte*. Cen. y p. 44/1.
- 1960 *Borda-zulo*. Cen. y p. 28/1.
- 1970 *Borda-tzulo*. Cen. y p. 45/1.
- 1945 "...*Bordazulo; cereal, pradera con maizal; (...) Paraje: Etxaburua y Sagastibarrena...*". Amil., jabea: J.E.M.

BIBLIO. *Borda zulo*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Ubaran errekaen bazterrean dago, Mokorollo gaina eta Txingurri haitzaren artean.

OHAR.: Erabiltzen den izena *Auzokalte* den arren, zenbait informatzailek honen berezko izena *Bordazulo* dela esan digu, baina bigarren hau 1960. urteko erroldan jaso dugu lehen aldiz eta, beraz, berriago dela pentsarazi digu horrek.

Baserria izan zen hau erabat eraberrituta dago eta ez du jadanik baserri itxurarik.

TOP.: BALTZUN AUNDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Baltzun* (7)
Baltzun Aundi (2)

DOKUMENT.:

- 1764 “...en el partido de (...) Huarana en la cercanía de Balzun...”
Lib.c.f., 136. orr.
1857-64 *Balzun Mayor*. Nomen., 82. orr.
1848 (febrero) “...un camino carretil publico que se dirige desde la
caseria de Balzun á Yoyaga...” Bie.c. y p. 44H/5.
1897 *Balzun Mayor*. Est.e. 48H/4.
1910 *Balzun Mayor*. Cen.p. 70H/2.
1916 *casería Balzun*. Inv.p.d. 13H/9.
1937 *Baltzún Mayor*. Pad.m.h. 65H/1.
1950 *Baltzún Mayor*. Cen. y p. 44/1.
1960 *Baltzun*. Cen. y p. 28/1.

BIBLIO. *Baltzun Mayor*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Txingurri haitzaren atzean -ekialdean- dagoen lautadaxoan dago.

OHAR.: Bere ondoan dago *Baltzun Txiki* izeneko baserria (hutsik) eta bi hauek dira inguru honetan dauden baserri bakarrak. 1764. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta izenak ordutik hona ez du inongo aldaketarik jasan.

TOP.: BALTZUN TXIKI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Baltzun Txiki*

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Balzun Menor*. Nomen., 82. orr.
1897 *Balzun Menor*. Est.e. 48H/4.
1910 *Balzun Menor*. Cen.p. 70H/2.
1950 *Baltzún Menor*. Cen. y p. 44/1.
1970 *Baltzún Menor*. Cen. y p. 45/1.

BIBLIO. *Baltzun Txiki*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Baltzun Aundi baserriaren ondoan dago.

OHAR.: Egun *Baltzun Aundi* baserrian bizi direnek erosi zuten, baina bertan ez da inor bizi eta baserriaren egoera ez da oso ona (ikus **BALTZUN AUNDI BASERRIA**, oharrak).

TOP.: BISTAEDER BASERRIA / SASIAIN BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Xaxin*
5/2 *Bixtaeder*

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Vistaeder*. Nomen., 83. orr.
1897 *Vista Eder*. Est.e. 48H/4.
1900-3-19 *Antonio Gozategui de Vistaeder*. Corr.c. y r. 54H/10.
1910 *Vista-eder*. Cen.p. 70H/2.

BIBLIO. *Vistaeder, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Bista Eder (Sasiain). I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Idoiaga gainaren ifar-mendebaldean dago, Trentxikiko bidearen bazterrean.

OHAR.: *Xaxin* izenaz ezagutzen den baserri honen berezko izena *Bistaeder* da. Hala azaltzen da dokumentu ezberdinetan eta izen hori da ere baserriaren horman idatzitakoa. *Xaxin* bertakoen abizenean oinarrituriko izena da, hots, *Sasiain*. Nomenklatorrean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta, beraz, 150 urte inguru ditu. Baserriaren egoera oso ona da.

TOP.: PRESABURU BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Presaburu* (5)
Prexaburu

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Presaburu*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Presaburu*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Presaburu*. Cen.p. 70H/2.
- 1945 "...*Presaburuba; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*".
Amil., jabea: D.A.E.

BIBLIO. *Presaburu, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Presaburu. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Trentxikiko bidearen bazterrean dago, Idoiaga gainaren ifar-mendebaldean.

OHAR.: Zenbait informatzailek baserriaren jatorrizko izena beste bat dela esan arren, inork ez digu honen berri eman eta dokumentazioan ere ez dugu honen frogarik aurkitu, 1857. urtetik aurrera baserria aipatu izenaz azaltzen delarik. Izenak berak adierazten digun bezala, baserria Leitzaran ibaian dagoen presa baten *buruan* edo gainean dago, eta bere parean Olaberria (ikus OLABERRIA, dokument.).

TOP.: OLABERRIA
OLAETXEA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Olaberri*

DOKUMENT.:

- 1615 *Herrería de Yervia -casa del concejo-*; *Olaberria*. I.E.A.
- 1736 "...*río Leizaran arriba dejándolo siempre a mano derecha llegamos hasta una herrería que unos y otros nombrados dijeron de conformidad se llamaba Olaverria Igueribia, y todo el territorio que hay a mano izquierda mirando hacia el oriente eran términos concejiles de la villa de Andoain y tenían el nombre Iguerabide Zauala...*". Urr.d., C. 2625-1.

- 1752 *paraje nombrado Olaberriburua*. Lib.c.f., 182. orr.
 1779 “...en la cercanía de la Presa de la Ferrería de Olaverria propia de esta villa...”. Lib.c.f., 155. orr.atz.
 1781 *paraje llamado Olarriburua*. Lib.c.f., 158. orr.
 1813 *La Casa de Olaberria*. Lis.t. de A.
 1818 *Olaberria*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Olaverria, Fábrica de ferrería*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Olaberria (antigua ferrería) hoy molino*. Est.e. 48H/4.
 1900 “...Entreteneimiento de caminos vecinales. Trozo de caserío Olaverria al monte de Alza-iturri...”. Cam.v. 34H/3.
 1904 “...la propiedad del molino de Olaverria, situado en pertenecidos de esta villa y necesitando construir una nueva presa por el mal estado en que se halla la antigua...”. Sol.c.c. 71H/10.
 1910 *Olaverria*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Olaverri*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. “...producción de energía eléctrica para los tranvías de San Sebastián en Olaberri...”. S. Múgica, *Geografía*, 88.orr.
Olabeña, Ferrería de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Olaberri. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Leitzaran ibaiaren bazterrean aurkitzen da, Idoiaga gainaren men-debaldean

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu burniola eta errota izandako honen lehen aipamena. Egun, arrain-haztegi baten erdian dago, ondoan duen *Olaetxea* bezala. Eraikina zaharra bezain ederra da, bere harrizko hormak egurrezko bilbaduraz eginda daudelarik. Dokumentuetan ez dugu *Olaetxea*-ren aipamenik aurkitu, baina auzokoek izen hortaz ezagutzen dute burniolaren ondo-ko eraikina. Azken hau hutsik dago eta bere egoera ez da ona.

1736. urteko dokumentuaren arabera burniolak *Olaberria Igueribia* izena du eta *Iguerabide Zauala* honen ekialdean dauden lurak. 1615. urteko dokumentuan, ordea, *Olaberria*-rekin batera *Yeribia* azaltzen da (ikus Mitxelenaren *Ap.v.* liburuan 100. orr.), baina biak eraikin berari dagozkion aipatu gabe (ikus OTEGIETA, oharrak). Dokumentazioaren atalean, bestalde, ziu-raski burniola honen inguruan kokaturiko bi tokiren izenak ere jaso ditugu.

TOP.: ORMAZU ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Ormazu*
 2/1 *Villa de Presaburu*

KOKAP.: Presaburu baserriaren ondoan dago.

OHAR.: Txalet gisako etxe berria da. Presaburu baserrikoek eraiki dute eta honen izena, errotulu batean idatzita egon arren, bertakoek ezagutzen dute soilik.

TOP.: OTEGIETA ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA
OTITA PARKEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Otita*

DOKUMENT.:

- 1777 "...*paraje llamado (...) y los quatrocientos restantes en el llamado Otietá ambos Concegiles de estta Villa...*". Lib.c.f., 153. orr.
- 1897 *Molino y Central de Otita*. Est.e. 48H/4.
- 1915 "...*canteras comunales tituladas 'Amasola' y 'Oteita'...*". Ext.c.c. 72H/6.
- 1917 "...*Entretenimiento de caminos vecinales. Trozo de Oteita á Usabelartzá...*". Cam.v. 34H/3.
- 1937 *Central Otita*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1960 *Central Oteita*. Cen. y p. 28/1.
- 1945 "...*Otegieta en el barrio Iraola Erreca; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: J.A. eta F. A.M.
"...*Malo en el barrio de Iraola Erreca; bajo y matorral; (...) Este: Regata Malo (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: J.A. eta F. A. M.
- 1736 "...*Zapatarizelaiatacoaiza y sus vertientes caen a dho arroyo de Ugarana y de otro lado hacia el oriente los castañales de Iguerola...*". Urr.d., C. 2625-1.
- 1762 *partido de Yerola*. Lib.c.f., 133. orr.atz.
- 1770 "...*castaños trasplantados, por esta misma Villa en los paraxes nombrados Yerola y Aspillagaazpia...*". Lib.c.f., 144. orr.atz.
- 1772 "...*plantíos de castaños trasplantados en los partidos de Asp(jilagaazpia e Yarola...*". Lib.c.f., 210. orr.
- 1813 *Echeverri de Yarola, Echeverri de Yraola*. Lis.t. de A.
- 1894 "...*Todo el valle de Goiburu menos Merdillegui, todos de la valle de Yola(}rreca y los de Valtzun...*". Cam.v. 34H/3.
- 1906 "...*Todo el varrio de Goiburu. El varrio de Yaola, el de Jauregui...*". Cam.v. 34H/3.
- 1909 "...*los caminos vecinales de la misma, Yaola-Herreca, Talay malda, y de Ydiazabal Arriba se ven muy malos e cuasi intransitables...*". Cam.v. 34H/3.

BIBLIO. "...*IGAROLA etxea, 1769 urtea (...) IRAOLA lurtsaila, (...) 1826 urtea...*". L.M^a Mujika, *E.T.M VI*, 308, 310. orr.

KOKAP.: Leitzaran ibaiaren bazterrean dago, Malo erreka azken honi elkar-tzen zaion tokian, Idoiaga gainaren ifar-mendebaldean.

OHAR.: 1897. urteko dokumentuan zentrala eta errota izan zela aipatzen da, baina egun zentrala geldirik dago eta eraikina arrain-haztegi-koek erabiltzen dute, bertan amurrain gazteak hazten direlarik. Informatzaileek esan bezala, *Otita* izenaz ezagutzen da, baina jatorrizko izena, amilaramen-

duetan azaltzen denez, *Otegieta* litzateke. Hala ere, Udalak honen inguruan egin duen parkearen izen ofiziala *Otita Parkea* da. Dokumentazioan jasotako datuen arabera izen beraz ezagutu dira inguru honetan dauden edo izan diren harrobia (ikus IJITOTEGI), bidea, erreka (ikus MALOKO ERREKA), e.a. Bi informatzailek lekua bera ere *Otitako Zulua* izenez ezagutzen dutelarik.

Amilaramenduetan *Otegieta* eta *Malo* toponimoak *Iraola Erreca*-n kokatuta daudela aipatzen da, baina egindako galdeketa inork ez digu azken toponimo hori aipatu. Dokumentu zaharragoetan *Iguerola*, *Yerola*, *Yarola*, *Yaola*, *Yola*(*rr*)*reca*, eta *Yaola-Herreca* topatu ditugu, guztiak toponimo beraren barianteak diruditenak, baina hauen jatorrizko forma, Mitxelenak *Ap.v.* liburuan dioenez (ikus *I(h)ara*, *igara*, 100. orr.), amilaramenduetan aipatzen den *Iraola* ez, baizik eta 1736. urteko dokumentuan azaltzen den *Iguerola* da. Dena den, ezin dugu ahaztu 1813. urteko dokumentuan *Echeverri de Yarola* eta *Echeverria de Yraola* azaltzen dela —izen beraren bariante gisa— eta horren ondorioz jatorrizkoa *Iraola* izango litzateke.

Jatorria alde batera utzita, zalantza asko dugu toponimo honi edo hauei buruz eta galdera ugari dira airean geratzen direnak: zein da *Yaola-Herreca*? Non dago, edo zegoen, *Igerola*? *varrio de Yaola* eta *barrio Iraola Erreca* auzo bera al da? *Igerola* honek Olaberriarekin zerikusirik ba al du? Zein zen eta non zegoen *Echeverri de Yarola*? (ikus OLABERRIA, dokument.), e.a.

TOP.: LARRABIDE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Larrabide*

DOKUMENT.:

1763 "...*Olazarra (...) prosiguiendo por la orilla de dho río Leizaran ariba se encontro otra casa que (...) dijeron llamarse Larrauide...*". Urr.d., C. 2625-1.

1783 *partido de Larrauideazpia*. Lib.c.f., 162. orr.

1783 "...*en jurisdiccion de la casa de Ysturizaga lamaior desta villa que se han trasplantedo bajo la casa de Larravide de ella...*". Lib.c.f., 162. orr.atz.

1813 *Larrabide*. Lis.t. de A.

1818 *Larrabide*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Larrabide*. Nomen., 83. orr.

1897 *Larrabide*. Est.e. 48H/4.

1910 *Larrabide*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Larravide*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Latabide, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Txingurri haitzaren ekialdean dago, Leizaran ibaiaren gainaldean.

OHAR.: 1763. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Litzarkola pasealekuan dago eta gertu ditu Ganborena etxea eta Aramanea base-
rria. Baserri ederra da eta goera onekoa (ikus ARAMANEA, oharrak).

TOP.: GANBOREN(A) ETXEA

KOKAP.: Lizarkola pasealekuan dago, Aramanea baserriaren parean.

OHAR.: Txalet gisako etxe berria da eta sarreran *Villa Ganborena* ipintzen du.

TOP.: BORDATXIKI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Bordatxiki*

DOKUMENT.:

- 1818 *Bordachiqui*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Borda-chiqui*. Nomen., 82. orr.
- 1897 *Borda Chiqui*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Borda-chiqui*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Borda Chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1950 *Borda-chiqui*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Bordatxiki, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Borda Txiki. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Lizarkola pasealekua eta Leitzaran ibaiaren artean dago, Mokorollo gainaren hego-mendebaldean.

OHAR.: Baserria Olazarra eta Ganborena etxearen artean dago eta pasealeku aldera kubi baratz ikusgarria du. Bere goera ona da.

TOP.: SARAMUÑO BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Samuño* (3)
Sagamuño (2)

DOKUMENT.:

- 1736 "...del otro lado de dho arroyo Ugarana se halla una casa con sus heredades llamadas Samuño, (...) propia de Asensio Rementeritegui...". Urr.d., C. 2625-1.
- 1813 *Samuño*. Lis.t. de A.
- 1818 *Samuño*. Est.p.i. 62H/7.
- 1848 (*febrero*) *Sagamuño*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1857-64 *Samuño*. Nomen., 83. orr.
- 1881 *Sagamuño*. Inv.b. 44H/7.
- 1897 *Samuño*. Est.e. 48H/4.
- 1897 (*septiembre*) *Sagamuño*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1910 *Sagamuño*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Sagarmuño*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1950 *Sagarmuño*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Samuño, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Sagarmuño. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Mokorollo gainaren hegoaldean dago, Lizarkola pasealekuaren ezkerretara —Andoaindik joanaz—.

OHAR.: 1736-etik 1818-ra bitarteko dokumentuetan baserria *Saramuño* izenez azaltzen da, 1848-tik 1897-ra aipatutakoarekin batera zenbait dokumentutan *Sagamuño* eta *Sagaramuño* agertzen direlarik. 1910-eko erroldan *Sagaramuño* eta 1937-tik aurrera, azkenik, egun jatorrizkotzat hartzen den *Sagamuño* topatzen dugu. Honetan oinarrituta baserriaren jatorrizko izena *Saramuño* dela pentsatzen dugu. Horrela, izenaren lehen osagaia 'sagar' ez, baizik eta *sara* (*txara*, 'jaral') izango litzateke.

Baserri ederra da eta bere inguruan, besteak beste, Erdikoborda baserria eta Errotaberri daude.

TOP.: ERDIKOBORDA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Erdikoborda*

DOKUMENT.:

- 1813 *Erdicoborda*. Lis.t. de A.
- 1818 *Erdicoborda*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Erdico-borda*. Nomen., 82. orr.
- 1897 *Erdico Borda*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Erdico-borda*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Erdico-borda*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Erdiko-borda, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Mokorollo gainaren hegoaldean dago, Ubaran errekaaren bazterrean eta Saramuño baserritik gertu.

OHAR.: 1813. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Bere hormak zuritu gabe eta huntzez hornituta daude. Baserriaren egoera ez dirudi batere ona denik.

TOP.: ERROTABERRI / GOIKOERROTA - SASIERROTA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Xaxierrota*
2/1 *Goikoerrota*

DOKUMENT.:

- 1763 "...fuimos caminando arrimados a dicho arroyo hasta dar con un molino que (...) unos y otros nombrados de conformidad dijeron se llamaba Errotaverria y ser propio de dha villa de Andoain, y a la mano izquierda mirando entre el oriente y mediodía se hallan los montes llamados Zapatarizelaia...". Urr.d., C. 2625-1)
- 1773 "...Y el molino que llaman de Ugarana, ó nuevo (...) fue fabricado posteriormente al dho año de mil seiscientos y setenta segun parece de los papeles,é instrumentos que hai en su razon...". Lib.c.f., 42. orr.atz.

- 1813 *Errotaberria*. Lis.t. de A.
 1818 *Errotaberri*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Errota-berri*. Nomen., 82. orr.
 1862 *Molino nuevo de Ubarana (casa) o Errotaberria*. I.c.h., H.-532.
 1897 *Errota Berri*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Errota-berri*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Goico Errota*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Goicoerrota*. Cen. y p. 44/1.
 1945 "...*Linderos* (...) Oeste: *Aricenea, Erdico-borda y Errota-berri...*". Amil., jabea: J.E.M.

BIBLIO. *Erotaberri, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista Sasiaerrota (Goiko Errota)*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Mokorollo gainaren hegoaldean dago, Ubaran erreka baxterrean.

OHAR.: Informatzaileek *Sasierrota* izenaz ezagutzen dute eta jatorrizko izenaz galdetzerakoan gehienek *Goicoerrota* dela esan digute, baina bigarren izen honen lehen aipamena ez da 1937. urteko errolda arte agertzen. Inaxio Etxeberria jaunak azaldu zigan azkenik errota honen jatorrizko izena *Errotaberri* zela. Azken hau bai, 1763. urtetik azaltzen da dokumentu ezberdinetan eta kokapenari buruz ematen diren datuak bat datoz gaurko honek duenarekin (ikus ERROTABERRIKO HAITZA).

Egun bertan ez da errota lanik egiten eta eraikina goitik behera eraberrituta dago, etxe errustiko baten itxura duelarik.

TOP.: OLABERRIETA / KASKABELTZANEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Kaxkabeltza*
 5/2 *Olaberrieta*

DOKUMENT.:

- 1751 "...*viveros* (...) otro en el parage nombrado *Olaberrieta Bu-rua...*". Lib.c.f., 80. orr.atz.
 1751 *partido de Olaberrieta*. Lib.c.f., 122. orr.
 1857-64 *Olaverrieta*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Olaberrieta*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Olaberrieta*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Olaverrieta*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Olaverrieta*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Kaskabeltza*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Txingurri haitzaren ifarraldean dago, Ubaran erreka baxterrean.

OHAR.: Izenak eraikin hau noizbait burniola izan zela adierazten digun arren —kokapena ere horren alde dago—, ez dugu beste daturik hori hala izan denik frogatzeko. Egun, eraberrituta dago eta baserri ederra da. Zenbait informatzailek aipatu digunez, jatorrizko izena *Olaberrieta* da, baina

baserria ezagunagoa da aurreko jabearen goitzenagatik, hots, *Kaxkabeltza*, lan honetan behin eta berriz aipatua dugun Inaxio Etxeberria bera dena.

TOP.: ARITZENEA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Aitzene*
Aitzenia

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Aritzzenéa*. Nomen., 81. orr.
1945 *Caserío Aritzanea*. Amil., jabea: I.I.Z.
Aricenea. Amil., jabea: J.E.M.

KOKAP.: Mokorollo gainaren hegoaldean dago, Erdikoborda baserria eta Auzokalte etxearen artean.

OHAR.: Horma zati batzuk dira baserri honetaz geratzen den guttia. Bidearen alboan dago, huntzak erdi estalita. Dokumentuetan baserri honetaz hain datu gutxi aurkitzeak beste izenen bat izango zuela susmarazten digu.

TOP.: OLALDE / ERROTATXIKI (?)

DOKUMENT.:

- 1615 *Olalde*. I.E.A.
1736 "...era preciso subir arrimado a dho arroyo Ugarana y con efecto fuimos todos juntos subiendo por la orilla de él mirando entre el oriente y mediodía habiendo pasado un puentecito pequeño que tiene dho arroyo hasta encontrar a poca distancia una casa que dijeron llamarse Olalde...". Urr.d., C. 2625-1.
1813 *Olaalde*. Lis.t. de A.
1818 *Olalde*. Est.p.i. 62H/7.
1848 (febrero) "...montasgo de la caseria de Olalde...". Bie.c. y p. 44H/5.
1857-64 *Olalde, Casa de labor*. Nomen., 83. orr.
1897 (septiembre) "...montazgos de las caserías Olalde y Echave...". Bie.c. y p. 44H/5.
1945 "...Tierras Olalde; (...) Linderos: Norte, Olalde bestia; Este, Errota berri; Sur, Regata Ubaran; Oeste, Id. y Olalde...". Amil., jabea: C.M.B.
"...Olaldeco Echeburua; cereal, baldío: Linderos (...) Sur, Olalde; Oeste, Regata...". Amil., jabea: J.O.B.
"...Olalde; bajo y matorral; Linderos: Norte, Olalde de ruido; Este, Olalde...". Amil., jabea: C.M.B.

BIBLIO. "...ERROTATXIKI. Inaxio Etxeberria nos puso sobre la pista de algo que podría haber sido un molino, aguas abajo del Goikorrota. No poseemos más datos que la constancia del edificio de lo que fue un molino, pequeño pero de una gran antigüedad. Estaba alimentado por el Ubaran-erreka, localizándose a su derecha. Sólo existen unas ruinas de difícil acceso...". A. Aguirre Sorondo, *Molinología*, 302. orr.

KOKAP.: Ubaran errekaaren bazterrean dago, Mokorollo gainaren hego-mendebaldean.

OHAR.: Inaxio Etxeberriarekin batera Erdikobordako baserritarrak ere aipatu digu *Errotatxiki*, baina hain zaharra izanik, harrigarria da dokumentazioan honen aipamenik ez azaltzea. Garbi dago, beraz, beste izenen bat izango zuela, baina ez dakigu zein. Kokapenari buruz ematen diren datuetan oinarrituz, *Olalde* izeneko etxea egun *Errotatxiki*-ren aurriak dauden inguruan egon behar zenaz ohartu gara eta, agian, *Olalde* eta *Errotatxiki* etxe berari dagozkion izenak dira. Baina ez dugu hori baieztatzeko frogazehatzik. Gainera, *Olalde* izenaren aipamena dokumentu ugaritan jaso dugun arren, guztietan etxe edo baserri gisa azaltzen da eta ez dugu errota izan zeneko aipamenik aurkitu.

Aurri hauek dauden tokira inguratu gara, baina errekaaren bazter horretan zuhaitzak, laharra, huntza eta sasiak hain dira ugari zaila gertatzen dela bertaraino iristea.

TOP: † IDOIAGA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Iyuya*

DOKUMENT.:

1772 *partido nombrado Ydoiaga*. Lib.c.f., 106. orr.

1782 *paraxe llamado Ydoyaga*. Lib.c.f., 222. orr.

1848 (febrero) “...en el termino titulado Yyoyaga aspia por la parte inferior del camino carretil publico que se dirige de Balzun á Yyoyaga...”. Bie.c. y p. 44H/5.

1857-64 *Yoyaga*. Nomen., 83. orr.

1897 *Yoyaga*. Est.e. 48H/4.

1900 *Caserío Yyuyaga*. Sol.a.e. 41H/6.

1910 *Yyoyaga*. Cen.p. 70H/2.

1950 *Yyoyaga*. Cen. y p. 44/1.

1945 “...*Idoyaga; alto de frondosas; (...)* Paraje: *Leizos...*”. Amil., jabea: A.B.S.

“...*Iyoyaga; bajo y matorral; (...)* Paraje: *Goiburu...*”. Amil., jabea: J.I.A.

BIBLIO. *Yozaga, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista..*

KOKAP.: Idoiagazabalen zegoen, Muntto eta Idoiaga gainaren arteko lautadan.

OHAR.: Dokumentu ezberdinetan jasotako datuak kronologikoki ipinita segidakoa izango litzateke izen honen bilakaera: *Ydoiaga, Yyoyaga, Yyuyaga, Iyuya*.

Informatzaile ugari oraindik gogoan du inguruko mendi batean hasirik baserria harrapatu zuen sutea. Agustín Zinkunegi, adibidez, ardiekin zegoen sua segundu batzuetan mendi batetik bestera zabaltzen ikusi zuenean. Bera ere sutetik ihes egiteko larri ibili omen zen. Egundakoa ez da baserriaren arrastorik geratzen, orubean borda edo etxetxo baten antzeko eraikina dagoelarik.

TOP.: AUZOKALTEKO ZUBIA

AHOZKO ERAB.: 3/2 *Auzokalteko Zubiya*
 3/1 *Trenzubiya*
 3/1 *Burnizubiya*

KOKAP.: Auzokalte etxearen gainkaldera dago, Mokorollo gaina eta Txingurri haitza Ubaran errekararen gainetik elkartuz.

OHAR.: Garai batean *Trentxiki* edo *Plazaola* deiturikoa igarotzen zen zubi honetan barrena. Zubi garai hau harrizkoa da eta urrutitik ikus daiteke.

TOP.: Truchas "Erreka" S.A. Arrain-haztegia

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Pizifaktoriya*

KOKAP.: Leitzaran ibaiaren bazterrean dago, Idoiaga gainaren ifar-mendebaldean.

OHAR.: Honen instalazioen barruan geratu dira Olaberria eta Olaetxea, zentral hidroelektrikoa izandako Otegieta bera ere arrain-haztegi-koek erabiltzen dutelarik.

TOP.: OTEGIETAKO TUNELA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Otitako Tunela*
Otitako Tunelboka

DOKUMENT.:

1902 "...*pedra de mampostería para revestir el tunel de Ote(i)tieta...*". Sol.c.c. 71H/10.

1902-12-17 "...*revestimiento del tunel de Otita...*". Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Ifarretik hegora Baltzunbizkar zeharkatzen du.

OHAR.: Auzokalteko zubiaren parean hasi eta *Otegieta*-n amaitzen da. Horregatik, bada ere tunela lehen izenaz ezagutzen duenik. Garai batean hemendik igarotzen zen *Trentxiki* edo *Plazaola* deiturikoa. Tunelak 300 metro inguru ditu eta honen irteeran —*Otegieta*-n— trenak Rosendo Rekondo jaunna, Andoaingo erretore zena, harrapatu zuen. Zenbaitek zoritxarreko egun hartan Ollokira zihoala katekesia ematera eta beste zenbaitek lurra bedekintzen ibili omen zela esan digu. Bere omenez tunelaren sarreran —*Otegieta*-tik— oroitarrria dago ipinita.

TOP.: MATXINBARRENAKO TUNELA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Mugetako Tunela*
 2/1 *Matxinbarrenako Tunela*

DOKUMENT.:

1914 *Tunel de Machimbarrena*. Ext.c.c. 72H/6.

KOKAP.: Argañaren hegoaldeko maldan dago, Leitzarar ibaiaren gainkaldean eta Andoain, Billabona eta Berastegiren arteko mugatik gertu.

OHAR.: Galdeketan jasotako bi izenak erabiltzen dira tunel honentzat eta bata zein bestea esanez ulertzen da zein tunelaz ari garen, *Matxinbarrenako Tunela*-ren ondoko basoa eta *Mugeta* parean duen mendiko maldaren izena baitira. Bi izenak egokiak eta erabiliak izanik, dokumentazioan aurkitu dugun aipamen bakarrean oinarritu gara mapan izena ipintzeko.

TOP.: UNANIBIKO ZUBIA

AHOZKO ERAB.: 3/2 *Unanoiko Zubiya*
Unanai
 3/1 *Puente de las Brujas*

DOKUMENT.:

1736 "...Larrauide (...) a la mano izquierda mirando de oriente y monte llamado Bustaneta y de la otra parte de dho río Leizaran a la derecha mirando hacia el poniente con montes y términos de la dha villa de Andoain llamados Unanibia y Choloporco aguas vertientes por uno y otro lado a dho río Leizaran...". Urr.d., C. 2625-1.

1770 *partido de Unaniuia*. Lib.c.f., 207. orr.

1772 "...castaños trasplantados por esta misma villa en el paraxe nombrado Unanibia...". Lib.c.f., 147. orr.

1896 "...malísimo estado en que se halla el camino vecinal que se dirige del puente de Unanibia á Goiburu...". Cam.v. 34H/3.

1896 "...entre la presa que ha construido y el (p)uente de Unanueña...". Cam.v. 34H/3.

1898 "...el objeto de hacer reparaciones del camino vecinal que se dirige desde el puente de "Unanuay" hasta la hermita de San Esteban que se encuentra en muy mal estado...". Cam.v. 34H/3.

1916 "...parte inferior que mira al poniente en el monte Chingurri (...) al sur con (...) y puente de Unanuvia...". Inv.p.d. 13H/9.

1945 "...Unanovia; pradera, alto de frondosas; (...) Paraje: Goiburu...". Amil., jabea: J. eta B. A.C.

KOKAP.: Otegietan dago, Leizotz eta Goiburu auzoak Leitzarar ibaiaren gainetik elkartzuz.

OHAR.: Informatzaile batek esan bezala, kaletarrek *Puente de las Brujas* izenaz ezagutzen dute zubia. Baserritarrek eta zaharrek, ordea, nahiz

eta aipatu izena guztiek ezagutu, zubiari *Unanai* edo *Unanoiko Zubiya* esaten diote. Azken hau da, hain zuzen, zubi izentzat XIX. mendearen bukaeratik eta leku edo lursail izen gisa 1736. urtetik aurrera, dokumentazioan aurkitu dugun bakarra eta, zalantzarik gabe, jatorrizkoa dena. Ez dakigu nondik nora edo zergatik hasi zitzazion zubiari *Puente de las brujas* esaten, baina kaletarren artean oso zabalduta dago, zenbait idatzitan, izen hori itxuratu nahiean edo, *Sorginzubi* ere azaltzen delarik (ikus AZELAINGO ZUBIA).

TOP.: Iberdrola Zentral Hidroelektrikoa

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Goiko Zentrala*
Hidroeléctrica Ibérica
 2/1 *La de las mil escaleras*

KOKAP.: Idoiaga gainaren hego-mendebaldean dago, Leitzaran ibaiaren bazterrean.

OHAR.: Zentral honen atzean, Billabonako mendian dagoen ubidea igotzeko eskailetratxo pila bat dago —mila omen dira— eta ezaugarri horregatik ezagutzen dute askok zentrala. Egun *Iberdrola* enpresak erabiltzen du.

TOP.: Bertxingo Zentral Hidroelektrikoa

AHOZKO ERAB.: 4/2 *Elosegin Zentrala*
 4/2 *Bertxin Txiki*
Bertxingo Zentrala
 4/1 *Zentral Txikiya*
 4/1 *Herriko Zentrala*

DOKUMENT.:

1914-8-12 “...Pongo el gusto de participar a V. que me he establecido en esta central de Elosegui y deseo si me consiguen un poco de terreno...”. Corr.c. y r. 54H/10.

1935-11-27 “...acacias para postes marcadas en Amasola y Burunza y ser colocadas en la línea eléctrica de Berchin, propiedad del municipio...”. Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Leitzaran ibaiaren bazterrean dago, Iberdueroren zentralaren parean, baina Billabonako lurretan.

OHAR.: Berastegiko lurretan zegoen garai batean Andoaingo herriarena zen zentrala eta, A.M. mapan ageri denez, hura zen, berez, *Bertxin* izenekoa, Berastegiko lurretan dagoelarik ere izen bereko harkaitza. Dirudienez, *Elosegiren Zentrala* izandako honi, Andoaingo herriak erosi zuenean hasi zitzaion *Bertxingo Zentrala* deitzen —Berastegin zegoena ere herrikoa zen—. Hala ere, galdeketa jaso ditugun erantzunen arabera badirudi informatzaileek garai batean herrikoa zena eta gaur denaren arteko ezberdintasuna egiten dutela.

TOP.: Laborde Zentral Hidroelektrikoa eta presa

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Laborde Presa*
Labordeko Zentrala
 2/1 *Olaberriko Zentrala*

DOKUMENT.:

- 1755 "...juntto a la Presa de Olaberria propia suia...". Lib.c.f., 184. orr.
 1779 "...en la cercania de la Presa de la Ferreria de Olaverria propia desta villa...". Lib.c.f., 155. orr.atz.
 1877 "...en la apertura del camino carretil desde el punto de la presa de Olaberria a Amasola...". Cam.v. 34H/3.
 1904 "...en terrenos del comun de esta villa cerca del estribo derecho de la antigua presa de Olaverria...". Sol.c.c. 71H/10.
 1912 *central de Olaberria*. Cam.v. 34H/3.

BIBLIO. "...producción de energía eléctrica para los tranvías de San Sebastian en Olaberri...". S. Múgica, *Geografía*, 88. orr.

KOKAP.: Leitzarar ibaiaren bazterrean dago, Idoiaga gainaren mendebalean.

OHAR.: Informatzaileek esan digutenez, hau zen Olaberriko zentrala eta presa garai batean, ondoren *Laborde* enpresakoek hartu zutelarik. Hala ere, ez dugu uste XVIII. mendeko dokumentuetan aipatzen den burniolaren presa denik. Ez dirudi zentrala gaur martxan dagoenik.

TOP.: MALOKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Maloko Erreka* (4)
Malo Erreka

DOKUMENT.:

- 1760 "...ducientos y setenta y siete plantios de Roble plantados, desde el arroyo de Otieta...". Lib.c.f., 130. orr.atz.
 1848 (febrero) *regata de Malo*. Bie.c.y p. 44H/5.
 1848 (febrero) "...regata de Maloa que baja a Otita...". Bie.c. y p. 44H/5.
 1848 (febrero) "...Catebideta en la parte inferior de Yyoyaga en la falda que mira al poniente y norte (...) y regata titulada de Otita...". Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (septiembre) *regata Malo*. Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (septiembre) "...en el monte Chingurri (...) al sur con la regata de Otita...". Bie.c. y p. 44H/5.
 1916 *regata de Otita*. Inv.p.d. 13H/9.
 1945 *Oteita Erreca*. Amil.,jabea: J.M.G.

KOKAP.: Aizkorriren mendebaleko maldan jaiotzen da eta, Malo izeneko tokia zeharkatuz, Otegietako zentralaren ondoan Leitzarar ibaiari elkartzen zaio.

OHAR.: Egun erreka izen bakar batez ezagutzen den arren, dokumentu ezberdinetan jaso ditugun datuen arabera badirudi, azken zatiari behintzat, *regata de Otita* (Otegieta) ere esan zaiola inoiz (ikus MALO).

TOP.: OSIÑAUNDIKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Osiñaundiko Erreka*

KOKAP.: Astabizkar eta Usabelartzaren artean jaiotzen da eta bidean erreka-txo eta iturri ugairen ura hartu ondoren, Mugeta izeneko tokian elkar-tzen zaio Leitzaran ibaiari.

OHAR.: Izenak adierazten duen bezala erreka honetan osin handi bat zegoen, baina bertan eroritako lur eta harriengatik egun estalita dago. Osina Bertxingo bordatik Munttora doan bideak erreka zeharkatzen duen tokian zegoen eta, Agustin Zinkunegi jaunak esan digunez, bertan urak leporaino estaltzen zuen. Erreka honetan bertan, baina beherago, urjauzi txiki bat dago eta Bistaeder baserrikoak *Ursalto* izenez ezagutzen du. Errekak mendi arteko arro sakona zeharkatzen du.

TOP.: ALTZAITURRI

AHOZKO ERAB.: *Altzaitturri*

DOKUMENT.:

1900 "...*Entreteneamiento de caminos. Trozo de caserío Olaverria al monte de Alza-iturri...*". Cam.v. 34H/3.

1914-8-12 "...*me he establecido en esta central de Elosegui y deseo sime consiguen un poco terreno para huerta donde Alzaiturri debajo de la bia...*". Corr.c. y r. 54H/10.

1916-10-18 "...*cargas de leña en Iurrieta, 120 en Arcelay y 50 en Alza Iturri...*". Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Trentxikiko bidearen bazterrean dago, Bertxingo zentralaren parean eta Idoiaga gainaren hegoaldean.

OHAR.: Trentxikiko bidearen ezkerretan —Andoaindik abiatuta— dagoen horma batean aurkitzen da iturriaren kanila, baina egun itsututa dago eta ura honetatik ez, baizik eta bidearen bestaldean ipinitako beste kanila batetik irtetzen da. Honen ura Leitzaran ibaira isurtzen da. Dokumentazioan jasotako aipamenetan azaltzen denez, izena iturriaren inguruko lurrentzat ere erabili ohi da.

TOP.: ZAPATAITURRI

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Xapataiturri*
Xapataniturri
Xapataneke Itturriya

KOKAP.: Egizorrotzen sortu eta metro batzuk aurrerago Osiñaundiko erre-kak hartzen du honen ura.

OHAR.: Bertaraino ez gara joan, baina informatzaileek iturri fina eta agortzen ez dena dela esan digute.

TOP.: AMILLAMALDA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Amillamalda*

KOKAP.: Baltzunbizkarren hegoaldean dago, Maloko erreka aldera.

OHAR.: Dokumentazioan ez dugu toponimo honen aipamenik aurkitu, baina informatzaile ugarik eman digute honen berri. Malda Otegiaren ezkerretan —ifarraldean— dago eta pinuz josita dago. Toki harkaitsua dirudi.

TOPO.: TXINGURRI HAITZA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Txingurri* (6)
Txingurri Mendiya
 7/1 *Txingurriko Gaña*,
Txingurriko (H)arkaitza

DOKUMENT.:

- 1736 *monte llamado Chingurriaiza*. Urr.d., C. 2625-1.
- 1848 (*febrero*) *término titulado Chingurri-gaña*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1848 (*febrero*) *peñas altas tituladas de Chingurri*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1848 (*febrero*) *término titulado Chingurri Aspia*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1897 (*septiembre*) “...*Chingurri-azpia, se halla situado en la falda que mira al norte, en el monte denominado Chingurri...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1900 *terreno Bistarre*. Sol.a.e. 41H/6.
- 1916 “...*pertenecidos de la villa en Chingurri-gaña...*”. Inv.p.d. 13H/9.
- 1916 “...*Montes comunales exceptuados de la desamortización. Chingurri-azpia. Se halla situado en la falda que mira al norte, del monte denominado Chingurri (...) al sur con las peñas altas de Chingurri (...) y al norte con los montazgos de (...), regata de Ubaran,...*”. Inv.p.d. 13H/9.
- 1945 “...*Chingurri; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*”. Amil., jabea: P. SC.G.

KARTOG.: *Leizotz* (M.A.)

KOKAP.: Ubaran eta Maloko erreken artean dago, Idoiaga gainaren ifarrean.

OHAR.: Ifarraldeko malda eta gailurra pinuz estalita egonik, ezin da, bertara joan gabe, gain harkaitsua ikusi. Dena den, hori hala dela jakinik —informatzaileek esanda eta dokumentazioan azaltzen diren datuengatik— 1736. urteko dokumentuan oinarritu gara generikoa azaltzerakoan. Aipatu behar da ere, M.A. mapan, beste inon ez bezala, haitza *Leizotz* izenez azaltzen dela. Dokumentu ugaritan aipatzen diren *Chingurri-gaña* eta *Chingurri-azpia*,

berriz, maldan dauden lursail batzuen izenak dira. Lau informatzailek, bestalde, inguru honetako harkaitz batek *Bixtarri* izena duela aipatu digute, eta, honen kokapena zehazterik izan ez dugun arren, badakigu Baltzunbizkar eta *Txingurri haitza*-ren artean dagoela. Ez dakigu, bestalde, 1900. urteko dokumentuan aipatzen den *Bistarre* izeneko sailak informatzaileek esandako horrekin zerikusirik ba ote duen.

TOP.: GAZTELUTXO GAINA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Gaztelutxo*

DOKUMENT.:

1736 “...*Zapatarizelaiatacoaiza y sus vertientes caen a dho arroyo de Ugarana y de otro lado hacia el oriente los castaños de Iguerola y montes llamados Bustanetagaña, Balzumbiscarra y Gasteluandia...*”. Urr.d., C. 2625-1.

KOKAP.: Txingurri haitzaren ifar-ekialdean dago, Ubaran errekaaren gainaldean.

OHAR.: Aipatu duguna galdeketa parte hartu duten informatzaileek emandako kokapena den arren, 1736. urteko dokumentuan ematen diren datuen arabera, *Gasteluandia* Txingurri haitza bera dela dirudi. Ez da ziurra behintzat hori gaurko *Gaztelutxo* bera denik.

Izenak adierazi bezala, zenbait informatzailek gain honetan gaztelua izan zela esan digute, baina ez dugu bertaraino joaterik izan gaztelurik izan bazen honen aztarnarik geratzen ote den ikus ahal izateko. Baltzun baserritik ikusita gain harkaitsua dirudi eta Txingurri haitza pinuz estalita egonik, beste honetan haritzak daude. 211 metro ditu eta Txingurri haitza baino 50-en bat metro beherago dago.

**TOP.: BALTZUNBIZKAR
BUZTANETA GAINA**

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Baltzunbizkar*

DOKUMENT.:

1736 “...*montes llamados Bustanetagaña, Balzumbiscarra y Gasteluandia, y sus aguas caen al dho arroyo Ugarana...*”. Urr.d., C. 2625-1.

1848 (febrero) “...*en el termino titulado Bustanetaco-gaña y falda de Balzun que mira al mediodía...*”. Bie.c. y p. 44H/5.

1897 (septiembre) “...*Buztaneta Gaña. Se halla situado en la falda que mira al mediodia en el monte Chingurri (...) Es terreno de mucha pendiente...*”. Bie.c. y p. 44H/5.

1897 (septiembre) “...*bienes de aprovechamiento común del vecindario de Andoain los terrenos llamados (...) Buztaneta-azpia, Buztaneta-gana...*”. Bie.c. y p. 44H/5.

1900-3-19 “...*Juan Bautista Lizaribar de Sagamuño 12 carros Balzun Bizcar...*”. Corr.c. y r. 54H/10.

1916 “...*Bustaneta-azpia. Se halla situado en la falda y parte inferior que mira al poniente en el monte Chingurri (...) linda al este con camino carretil público que se dirige desde Buztaneta a Olaverria...*”. Inv.p.d. 13H/9.

1945 “...*Baltzun Biscar; pinar...*”. Amil., jabea: I.M. I.

KOKAP.: Txingurri haitzaren hego-mendebaldean dago, Ubaran eta Maloko erreken artean.

OHAR.: 1736. urteko dokumentuan aipatzen denaren arabera, bi toponimo ezberdin dira *Bustanetaña* eta *Balzunbiscarra* (generikoez ere bi entitate ezberdin adierazten dituzte: bizkarra eta gaina), baina egun aipatu lehena ez da erabiltzen eta herritar gutxi dira ezagutzen dutenak. Dokumentazioan jasotako datuen arabera (ikus ARAMANEA BASERRIA), badirudi *Buztaneta Gaina Baltzunbizkar* baino mendebalderago dagoela. Horrela, *Buztaneta Gaina* Aramanea baserriaren gainkaldean dagoena litzateke eta segidan Txingurri haitzeraino *Baltzunbizkar* deiturikoa. Egun, aipatu gainean pinuz inguratutako belaze zabala dago. Bizkarra, ordea, pinuz josita dago.

TOP.: IDIAZABAL
IDIAZABALGO HARKAITZA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Ixal*
3/3 *Ixalko (H)arkaitza*

DOKUMENT.:

1897 “...*para abrir un camino en el punto denominado “Ydiazabal” más conocido con el nombre de “Malo” cerca de Yyuyuga...*”. Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Maloko erreken bazterrean dago, Idoiaga gainaren ifarrean.

OHAR.: Galdeketa parte hartu duten informatzaile guztiek *Malo* eta *Idiazabal* deiturikoak bi leku ezberdintzat dauzkaten arren, 1897. urteko dokumentu horretan leku berari dagozkion izenak direla aipatzen da.

Izenak adierazten duen bezala, *Idiazabal* Maloko erreken bazterrean dagoen zabala edo lautadaxoa da. Bertan garoa hazten da eta horregatik informatzaileek *ga(r)alekuba* dela esan digute. Zabal honen gainean, Idoiaga gainaren ifarraldeko maldan, alegia, harkaitz handi bat dago eta honi *Idiazabalgo Harkaitza* deitzen zaio (ikus MALO, oharrak).

TOP.: MALO
MALOKO HARKIDIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Malo* (5)
Malo Aldia
5/2 *Maloko (H)arkidiya* (2)
(H)arkidi

DOKUMENT.:

- 1848 (febrero) "...pertenecidos de esta villa con el término de Maloa...". Bie.c. y p. 44H/5.
- 1848 (febrero) "...valle titulada de Leizos y en el termino titulado Malo...". Bie.c. y p. 44H/5.
- 1862 *Malocoarquiarenfalda y peñas de Maloa*. I.c.h., H-532.
- 1897 (septiembre) *término de Malo*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1900-3-19 "...Francisco Iztueta Echeveste 20 carros Malo Ubaran Burua...". Corr.c. y r. 54H/10.
- 1907-9-30 "...180 cargas en los puntos denominados (T)ricutaco y (...) y 120 cargas en el sitio llamado Malu...". Corr.c. y r. 54H/10.
- 1916 "...Montes comunales exceptuados de la desamortización (...) Malo. Se halla situado en la falda del monte Yyoyaga y parte que mira al norte (...) por mediodía con las peñas (...) de Malo; por oeste (...) con la regata de Malo que baja a Otita...". Inv.p.d. 13H/9.

KOKAP.: Idoiaga gainaren ifar-ekialdeko zokoan dago, Baltzun baserriaren hegoaldean.

OHAR.: Lehenago aipatu bezala (ikus IDIAZABAL, oharrak) badirudi garai batean *Idiazabal* eta *Malo* leku beraren bi izenak zirela. Egun, *Malo* Maloko erreka zeharkatzen duen arroari eta *Maloko Harkidia*, berriz, bertan dauden harkaitz esaten zaie. Aipatu ere, 1862 eta 1916. urteko dokumentuan azaltzen denaren antzera, informatzaile zenbaitek *Maloko Harkidia* eta *Maloko Harkaitza* ezberdintzen dituela, lehenengoa zokoan eta bigarrena maldan kokatuz.

Errekaren arrora jaitea ez da lan erreza, lahar eta zuhaitz ugarikoa eta malda oso bizikoa baita. Bistaederreko baserritarrak *harkidia* menditik erori diren harri solteek osatzen dutela esan digu eta, dirudenez, oso leku txarra eta arriskutsua da, bertan minazulo ugari dagoelarik. Agustín Zinkunegiren esanetan, garai batean bertatik igarotzean ardi ugari hiltzen omen zen eta, entzuna duenez, baita jendea ere. Datu hauetaz gain Inaxio Etxeberriak toponimo honen jatorriari buruz emandako historiortxo jaso digu ere: Napoleón eta bere soldaduak zaldigainean leku honetara iristean, harkaitz hauek begiratu eta lekuaren gaiztasuna ikusirik, "Malo!!" esan eta gelditu egin omen ziren, eta horren ondorioz lekuari esklamazio hori atxikitu omen zitzaion.

TOP.: IJITOTEGI

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Ijito (H)arkaitza*
Ijitotei

DOKUMENT.:

- 1915 "...deseando esta Sociedad proceder a la extracción de piedra de las canteras comunales tituladas 'Amasola' y 'Óteita'...". Ext.c.c. 72H/6.

KOKAP.: Amillamaldaren hego-mendebaldean dago, Uztondo harkaitzaren parean.

OHAR.: Erdikoborda baserriko Andres Etxeberriak esan digunez, garai batean *losa (h)arrobiya* zen eta harrobia ixtean ijitoek gordeleku gisa erabili omen zuten, geroztik toki honi *Ijitotegi* deitzen zaiolarik. Toki hau Otegietaren parean dago eta litekena da 1915. urteko dokumentuan aipatzen den *cantera comunal de Oteita* hau bera izatea. Gaur, toki hau pinuz beteta dago eta Lizarkola pasealekutik harkaitzak ikusten diren arren ez da harrobia-
ren aztarnarik atzematzen. Zenbait informatzailek pasealekuak toki honetan egiten duen biraguneari *Ijitateiko errebuelta* esaten dio.

TOP.: IDOIAGA GAINA
IDOIAGAZABAL

AHOZKO ERAB.:	10/8	<i>Iyuya</i> (8)
		<i>Iyuya Mendiya</i>
	10/2	<i>Iyuya Gaña</i>
		<i>Iyuyako Gaña</i>
	10/1	<i>Iyuya Azpiya</i>

DOKUMENT.:

- 1760 "...plantios de Roble plantados, desde el arroyo de Otieta, hasta el partido de Ydoisauel...". Lib.c.f., 130. orr.atz.
- 1773 *Ydoiaga Zaua*l. Lib.c.f., 81-82. orr.
- 1779 *partido llamado Ydoyaga*. Lib.c.f., 156. orr.
- 1780 *Ydoyazaua*l. Lib.c.f., 219.orr.
- 1782 *paraxe llamado Ydoyaga*. Lib.c.f., 222. orr.
- 1897 (*septiembre*) "...Yyo(ga) Azpia (...) se halla situado en la falda del monte del mismo nombre parte que mira al poniente y norte (...) confina por el este con la regata de Malo (...). Es terreno de mucha pendiente...". Bie.c. y p. 44H/5.
- 1897 (*septiembre*) "...bienes de aprovechamiento comun del vecindario de Andoain los terrenos llamados (...) Yoyagen-azpia...". Bie.c. y p. 44H/5.
- 1907-12-19 "...Reparto de leña verificado en la Casa Consistorial el 19 de diciembre de 1907, del punto llamado Yyoya-aldea...". Corr.c. y r. 54H/10.
- 1911 *Yyuyaga*. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1945 "...*Idoyaga Zabala*; bajo y matorral; (...) *Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: J.I. B.I.

KOKAP.: Maloko erreka eta Leitzaran ibaiaren artean dago, Aizkorriren mendebaldean.

OHAR.: *Idoiaga* baserria gain horretan zegoen, eta baserria desgertu arren izena horren kokapenean gorde da (ikus IDOIAGA BASERRIA, oharrak). 368 metro ditu eta bere maldetan pinu ugari eta harkaitz handiak daudelarik, gailurrean, lautada ederra dago, dokumentu ezberdinetan *Idoiagazabal* izenarekin azaltzen dena, alegia. Lautada honetan bi borda berri eraiki dira eta behorrak eta zalditxoak ibiltzen dira laharrean.

Informatzaile batek esan duen bezala zenbait dokumentutan ere aipatzen da *Idoiagazpia* izeneko lur saila.

TOP.: KATABIDETA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Katabideta* (4)
Katebideta

DOKUMENT.:

1794 “...del citado bibero de Ydoiaga, y trasplantados en el parage nombrado Cateavideta...”. Lib.c.f., 161-62 orr.

1848 (febrero) “...En la misma jurisdiccion y valle titulada de Leizoz y en el termino titulado Catebideta en la parte inferior de Yyoyaga en la falda que mira al poniente y norte...”. Bie.c. y p. 44H/5.

1897 (septiembre) “...14. Catevideta (...) se halla situado en la falda del monte Yyoyaga y parte que mira al norte...”. Bie.c. y p. 44H/5.

1900-3-19 *Catevideta*. Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Idoiaga gainaren ifar-mendebaldeko maldan dago.

OHAR.: Inaxio Etxeberria jaunaren esanetan, garai batean egurra kateen bidez toki honetatik arrastaka jaisten zelako deitzen omen zaio tokiari *Katabideta*. Ez dakigu izenaren arrazoia hori ote denetz, baina orografia alde-tik maldak puntu honetan behera egiten du, hau da, errekatxo baten ubidea den arro txiki bat dago. Bertara joanda ez dugu gauza handirik ikusterik izan, sasiak, laharrak eta bestelako zuhaixkak oso ugari eta sarri baitira.

TOP.: OLABERRIKO HARKAITZA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Olaberriko (H)arkaitza* (4)
Olarriko (H)arkaitza
5/3 *Presaburuko (H)arkaitza*

DOKUMENT.:

1764 *parttidos de Olarri*. Lib.c.f., 136. orr.

KOKAP.: Idoiaga gainaren mendebaldeko maldan dago, Trentxikiko bidea eta Leitzarain ibaiaren gainkaldera.

OHAR.: Zenbait informatzailek harkaitz honi *Presaburuko Harkaitza* ere deitzen zaiola aipatu digu. Beste zenbaitek, ordea, bi harkaitz ezberdin direla eta *Presaburuko Harkaitza* Presaburuko iturriaren gainekoari esaten dio.

Harkaitza Olaberriko zentrala izan zenaren parean dago (ikus La-borderen zentrala), gutxi gorabehera, Presaburu baserritik gertu. Malda pinuz beteta egonik ezinezkoa da harkaitza Trentxikiren bidetik ikustea, horretarako Goiburu auzoko Belabi mendira edo Billabonako Loatzura igo behar delarik. Harkaitz handia eta luzea da.

Informatzaile batek esan bezala, 1764. urteko dokumentuan ere *Olarri* azaltzen da.

TOP.: TORTOTX HARKAITZA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Tortotx* (2)
Tortotxo

KOKAP.: Idoiaga gainaren hego-mendebaldean dago, Trentxikiko bidea eta Leitzaran ibaiaren gailkaldera.

OHAR.: Dokumentazioan ez dugu honen aipamenik aurkitu, baina hiru informatzailek eman digute honen berri. Harkaitza Altzaiturri baino metro batzuk aurrerago dago eta Trentxikiren bideraino iristen da, bidea bere ondotik igarotzen delarik. Oso harkaitz handia da.

TOP.: MUNTTO

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Muntto* (4)
Mutto
5/1 *Munttoko Aldapa*

DOKUMENT.:

1848 (*febrero*) "...*En la misma jurisdiccion y valle y en el termino titulado Muntoa...*". Bie.c. y p. 44H/5.

1897 (*septiembre*) "...*en las faldas que mira al mediodia y poniente en el monte llamado Munto...*". Bie.c. y p. 44H/5.

1916 "...*cuyos confines son por este, con los montazgos de esta villa denominados Muntoa...*". Inv.p.d. 13H/9.

KOKAP.: Aizkorri eta Argañaren artean dago, lehenengoaren hego-mendebaldean.

OHAR.: Zenbait hiztegitan aipatzen denez (Larramendi, Aizkibel eta Retana) *munto(a)* hitzak *muno* edo *muñoaren* esanahi bera du eta honekin bat datoz, hain zuzen, tokiaren ezaugarri orografikoak, *Muntto* izenekoa Aizkorriren maldan dagoen tontor edo munoa baita. Malda erreferentzia gisa hartuta 15 metro besterik ez du; behekaldetik, ordea, *Muntto* 490 metrotara dago. Inguruan garoa, gehienbat, eta otea dago, baina tontortxoan eta hortik behera pinua besterik ez dugu aurkitu. Aizkorrira doan basabidea *Muntto*-ren aldamenetik igarotzen da.

**TOP.: ETXOLABERRI
ETXOLABERRIKO ITURRIA**

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Etxolaberrri* (2)
Etxolarri
3/1 *Etxolaberrriko (H)arkaitzak*
3/1 *Etxolarriko Itturriya*

KOKAP.: Munttoren hego-mendebaldeko maldan dago.

OHAR.: Dokumentazioan ez dugu honen aipamenik aurkitu baina, informatzaileek esanik, toki honetan *Etxolaberrri* izeneko borda izan zela jakin

dugu eta honen aztarnarik ez geratu arren lekuaren izenean gelditu da bere arrastoa. Ingurua pinuz jantzita dago eta adierazgarria da bertan dagoen har-kaitz laua. Bi informatzailek esan digutenez, horren azpikaldean iturri bat sortzen da, hauetako batek *Etxolarriko Iturriya* izenaz ezagutzen duena. Idoiazabalen hasita Munttoren maldan barrena doan bidea *Étxolaberri*-tik igarotzen da.

TOP.: ZELTZURRITZ LEPOA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Zelturriz* (2)
Zinzurriz (2)
Zenturriz
Zintzurraitz

DOKUMENT.:

- 1773 “...*Antonio de Camio, vecino asi bien de esta dha villa, de oficio carbonero ha guiado en el partido de Celzurritz...*”. Lib.c.f., 149. orr.
 1783 “...*plantios de Roble, para trasmochos, en los partidos nombrados Yturrioz, y Celzurritz hambos concejiles de esta dha villa...*”. Lib.c.f., 161. orr.atz.
 1894 “...*se desea azer camino por Celtzurritz por heguichorros á Lindota...*”. Cam.v. 34H/3.
 1945 “...*Celzuniz; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*”. Amil., jabea: M^a D. A.E.
 “...*Celzurri; alto con frondosas; (...) Paraje: Leizos...*”. Amil., jabea: J.I. B.I.

KOKAP.: Muntto eta Argañaren artean dago.

OHAR.: Galdeketaren emaitzetan ageri denez informatzaileek emandako erantzunen artean ez dago inolako batasunik; horregatik toponimoa normalizatzeko orduan dokumentu ezberdinetan aipatzen den *Celzurritz* hartu dugu eredutzat. Inguratzen duten mendietan pinua egon arren lepo honetan zuhaitz gutxi dago eta gehienak pagoak dira.

TOP.: ARGANÑA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Argaña* (3)
Argañe (2)
Argañ (2)

DOKUMENT.:

- 1900 “... ‘*Aitzcurri*’ y al sur de ello ‘*Argain*’...”. Sol.a.e. 41H/6.
 1901-6-18 “...*desea autorización para cortar ó extraer una carretada de leña, en el sitio denominado Ar-gain...*”. Corr.c. y r. 54H/10.
 1918 “...*Relación de las suertes de leña para Sortakaris en Argañen...*”. Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Idoiaga gaina eta Munttoren hegoaldean dago, Leitzaran ibaiak hegoalde eta mendebaldetik inguratzen duelarik.

OHAR.: Izenak adierazten duen bezala, gain harkaitsua da, bere maldetan ere harkaitz handiak daudelarik. 368 metro ditu eta bertan pinua da nagusi. Bere mendebalde eta hegoaldeko maldetatik Trentxikiko bidea igarotzen da.

TOP.: MATXINBARRENA BASOA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Matxinbarre*
Matxinbarrena

DOKUMENT.:

1945 "...*Machimbarrena basoa enclavada en Osiñ-aundi o Mugueta; pinar; (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: E.B.Z.

KARTOG.: 1953 *Machimbarrenan-basoa* (S.A.S.)
1972 *Machimbarrena-basoa* (I.G.N.)

KOKAP.: Argaña eta Munttoren hegoaldean dago.

OHAR.: *Matxinbarrenako tunela*-ren parean hasi eta Osiñaundi bitartean dago *Matxinbarrena Basoa*. Amilaramenduetan jadanik pinuditzat jasota dago eta gaur, pinuak eta *norteko haritzak* (*Quercus rubra*) ere badiren arren, eremu zabal batean pinuak atera egin dira eta horietan ez dago zuhaitzik.

TOP.: LINDOETA
LINDOETAKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Lindota*

DOKUMENT.:

1894 "...*se desea azer camino por Celtzurritz por Heguichorros á Lindota...*". Cam.v. 34H/3.

1901-6-18 "...*desea autorización para corta ó extraer una carretada de leña, en el sitio denominado Ar-gain o Lindoeta...*".
Corr.c. y r. 54H/10.

1934-5-6 "...*constituídos en el monte denominado Lindota...*".
Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Egizorrotz eta Mugetaren artean dago, Andoain eta Berastegiren arteko mugaren ondoan.

OHAR.: Argañatik begiratuta Egizorrotzen eskuinaldeko errekarroan dago *Lindoeta* izeneko tokia, inguruko pinuen artean nabarmenak direlarik bertan dauden altzak. Bi informatzailereren esanetan, *lindoak*, *lindos*, izeneko zuhaitzak izateagatik deitzen omen zaio lekuari *Lindoeta*. Zuhaitz hauek oso handiak direla esan digute, baina, izen horrekin behintzat, ez dugu zuhaitz horien berririk inon aurkitu. Altzak berak ote?, Zergatik orduan *lindoak* deitu? Andoain eta Berastegiren arteko muga edo *linde*-aren ondoan egoteak zerikusirik ba ote du?...

Bertatik igarotzen den errekatxoari *Lindoetako Erreka* esaten zaio. Astabizkarren mendebaldeko maldan jaio eta honen behekaldean Osñaundiko errekarari elkartzen zaio.

TOP.: EGIZORROTZ

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Egitxorrotz* (2)
Egizorrotz

DOKUMENT.:

1894 "*...se desea azer camino por Celtzurritz por heguichorros a Lindota...*". Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Argaña eta Astabizkarren artean dago, azken honen hego-mendebaldeko maldan.

OHAR.: Osñaundiko eta Lindoetako errekek hiru aldetatik inguratzen dute eta, izenak adierazten duen bezala, hegi luze eta zorrotza da. Punturik altuenean 400 metro inguru ditu eta gailurrean pinua dagoen bitartean, hegiaren behekaldean ez dago zuhaitzik. Inguratzen duten erreka bazterretan, ordea, zuhaitz autoktonoak dira nagusi.

TOP.: ASTABIZKAR

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Astabizkar* (3)
Astabizkar (3)

DOKUMENT.:

1757 *paraxe de Astabizcar*. Lib.c.f., 82. orr.atz.

1760 *partido de Astabizcar*. Lib.c.f., 130. orr.atz.

1848 (*febrero*) *termino de Astabiscar*. Bie.c. y p. 44H/5.

1889 "*...Numero del mojón: 9 - Nombre del sitio en que esta situado: Azta-bizkargaña...*". Des. y a. 71H/4.

1889 "*...señalamiento de mojones comunes á los Ayuntamientos de Andoain y de Berastegui (...) Se reunieron las comisiones en el sitio denominado Asta-bizcar...*". Des. y a. 71H/4.

1906 "*...desde el punto llamado Usabelarza con otro punto llamado Zuaizti ó Astabizcar asta Oteita...*". Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Andoain eta Elduainen arteko muga dago, Aizkorriren hegoaldean.

OHAR.: Punturik garaienak 584 metro ditu, baina bizkarraren gailurrean ez dago altura ezberdintasun handirik. Astabizkarren ifar-ekialdean mendebaldetik inguratzen duen Osñaundiko erreka jaiotzen da, erreka aldeko maldari *Osñaundiko Egutera* deitzen zaiolarik (ikus OSÑAUNDIKO EGUTERA). Malda honen erdialdetik behera gure ustez alertzeak diren koniferak daude eta beste guztia, gailurra barne, pinuz josita dago.

TOP.: BEGIRALEKUETA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Beialeku*
Beiralekuta, Beirelakota
Begiralekuta

DOKUMENT.:

- 1848 (febrero) "...Confinante por el oriente con los montazgos de esta villa y los terminos titulados Muntoa Arzelai ó Astabiscar..." Bie.c. y p. 44H/5.
 1916-10-18 "...130 cargas de leña en Iurrieta, 120 en Arcelay...". Corr.c. y r. 54H/10.
 1916 "...cuyos confines son por este, con los montazgos de esta villa denominados Muntoa, Arcelaiz o Astabiscar...". Inv.p.d. 13H/9.

BIBLIO. "...ARZELAITA (ARZELAIETA), otadi eta iradia, (...) ARZELAITABURUA iradia...". L.M^a Mujika, E.T.M. VI, 284. orr.

KOKAP.: Astabizkarren hegoaldeko muturrean dago.

OHAR.: Astabizkarren gaina amaitu eta amildegia hasten den tokian dago *Begiralekueta* izenaz ezagutzen den lekua. Laugunetxo harritsu honetatik ikusmira zoragarria da eta, ziurrenik, horretan datza tokiaren izena. Dena den, dokumentazioan ez dugu izen honen aipamenik aurkitu eta horregatik nahiko berritatz jo dezakegu. Mende honetako M.A. mapan, berriz, leku hau *Arcelay* izenaz azaltzen da eta toponimo hori bai agertzen dela dokumentu ezberdinetan. Hala ere, informatzaile ugari azpimarratu digu *Artzelai* Andoingo mugatik kanpo dagoen tokia dela, nahiz eta, guk, dokumentazioan aipatzen diren datuetan oinarrituz, Andoainen bertan dagoela uste.

**TOP.: OSIÑAUNDIKO EGUTERA
 OSIÑAUNDIKO OSPELA**

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Osiñaundi*
 6/3 *Osiñaundiko Ospela*
 6/2 *Osiñaundiko Eutera*

DOKUMENT.:

- 1848 (febrero) "...En la misma jurisdicción y barrio titulado de Leizos y en el termino denominado (...) Osiñaundi...". Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (septiembre) "...los terrenos radicantes en el término de (...) Osinamendi...". Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (septiembre) *Osiña Aundi*. Bie.c. y p. 44H/5.
 1906-12-17 "...cargas de leña para los hogares del vecindario (...) 170 en Osina(n)di...". Corr.c. y r. 54H/10.
 1912-3-20 "...constituidos en el monte denominado Osin-aundi...". Corr.c. y r. 54H/10.

1916 "...Camino vecinal trozo de Ozin Aundi...". Cam.v. 34H/3.

1945 "...Machimbarrena Basoa, enclavada en Osiñ-aundi o Mugeta...". Amil., jabea: E.B.Z.

KOKAP.: Aizkorriren hegoaldeko eta Astabizkarren ifar-mendebaldeko maldak dira, Osiñaundiko erreka ezker-eskubi daudelarik.

OHAR.: *Osiñaundiko erreka* Aizkorri eta Astabizkarren artean jaisten da eta lehenengoaren maldan eguzkiak jotzen duen bitartean, bigarrena laiotza da. Ezaugarri honetan oinarrituta Aizkorriren maldari *Osiñaundiko Egutera* eta Astabizkarrekoari *Osiñaundiko Ospela* esaten zaie.

TOP.: ZUAIZTI
ZUAIZTIKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Lapurtxulo*
6/2 *Zuaiztei*
Zuaizti

DOKUMENT.:

1906 "...desde el punto llamado Zuaizti o Astabizcar hasta Oteita...". Cam.v. 34H/3.

KARTOG.: 1944 *Lapurchulo* (borda) (A.M.)

KOKAP.: Astabizkarren ifar-ekialdean dago, Lapurtxulo bordaren inguruan.

OHAR.: Galdeketa parte hartu duten bi informatzailereren esanetan *Lapurtxulo* izen berria da eta aitortu digute ezagutu arren ez dutela erabiltzen. Beste biek, ordea, aurkakoa azaldu digute. Dokumentazioan oso datu gutxi aurkitu dugu eta ez da nahikoa jakiteko zein den izen berria eta zein zaharra. Horregatik, datu urri horietan oinarriturik erabaki salomonikoa hartu dugu, borda *Lapurtxulo* eta bere ingurua *Zuaizti* izenez jaso (ikus LAPURTXULOKO ATSEDEN EREMUA, oharrak).

Zuaizti-tik Aizkorri eta Usabelartzara doan basabidea igarotzen da. Bertan, ingurua pinuz beteta egon arren, pagadi ederra dago, zenbait informatzailek *Lapurtxuloko Pagadia* izenez ezagutzen duena. Bordaren ondoan iturri bat sortzen da. Iturria harrizko hormatxo batez inguratuta dago eta honentzat ere *Zuaiztiko Itturriya* eta *Lapurtxuloko Itturriya* izenak jaso ditugu. Pagaditik barrena Osiñaundiko erreka igarotzen da.

TOP.: LAPURTXULO BORDA
LAPURTXULOKO ATSEDEN EREMUA

KARTOG.: 1944 *Lapurchulo* (borda) (A.M.)

KOKAP.: Astabizkarren ifar-ekialdean dago, Zuaizti izeneko tokian.

OHAR.: Borda Zuaiztin dago eta inguru hau duela gutxi *Lapurtxuloko Atsedeen Eremua* izendatu du Diputazioak. Hau dela eta, borda eraberritu egin dute, baina, bertara inguratzen diren utzikieratik edo, zabor ugari dago hala honen barruan noia inguruan. Foru Diputazioa atsedeen eremuari izena ematerakoan bordaren izenean oinarritu da (ikus ZUAIZTI, oharrak).

**TOP.: UZTARKAITZ
UZTARKAIZKO ITURRIA**

AHOZKO ERAB.: 3/2 *Uztarkaitz*
3/2 *Ustarrizko (H)arkaitza*
Ustarkaizko (H)arkaitza

KOKAP.: Onddotxiki gainaren hego-mendebaldean dago, Usabelartzara doan basabidearen eskuinean (Lapurtxulo bordatik metro batzuk aurrerago).

OHAR.: Harkaitzaren aurrean -mendebaldean- ez dago zuhaitzik, baina atzean inguru honetan hain ugari eta sarri diren konifera exotikoak aurki ditzakegu. Harkaitzaren ondoan *Uztarkaizko Iturriya* edo *Onddoko Iturriya* izenaz ere ezagun den iturria sortzen da. Iturri baino ur putzutxo da eta Agustín Zinkunegik esan digunez, adreiluz inguratu eta kanila ipini zitzaion arren, egun, inguruan laharrean ibiltzen diren abereek hondatuta dago. Iturri honek isurtzen duen ura udan ere hotza omen da oso.

TOP.: ONDDOTXIKI GAINA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Onyottiki*
3/1 *Onyoko Aldapa*

DOKUMENT.: (ikus ONDDO MENDIA)

KOKAP.: Onddo mendiaren ifar-mendebaldean dago, Usabelartzaren gainkaldean.

OHAR.: 745 metro ditu eta *Onddo* mendiaren gailurra baino 40 metro beherago dago. Gain honen erdian suteak mozteko zuhaitzik gabeko tarte bat dago (subitarte) eta honen ezker-eskubi pinu ez diren konifera-baso sarriak. Inguru honetan txillarra han hemenka sortzen da tontortxoak osatuz.

TOP.: ONDDO MENDIA

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Onyo* (6)
Onyoaundi

DOKUMENT.:

- 1761 “...en el partido de junto a la dha villa, y parte en el de Oindave Jurisdiccion Concexil de ella...”. Lib.c.f., 132. orr.
- 1862 *Oniarte* (terreno en el punto de); *Onyabe* (tierra en el término de); *Oniabe-gaña*. I.c.h., H-532.
- 1889 “...en la cumbre del indicado monte de Ondo y por la falda que mira al este principio de la linea divisoria de ambos términos se encontró un mojón (...) con las iniciales de U (*Urnietta*) A (*Andoain*) y E (*Élduayen*)...”. Des. y a. 71H/4.
- 1889 “...en el punto denominado *Ondave-gaña* (...) Se encontró un mojón de piedra (...) a la vista del pueblo Arano de Navarra (...) siguiendo la línea en dirección al mediodía y a distancia

de ciento veinte y cinco metros se encuentra otro mojón (...) en el punto denominado Ondave-azpia junto a un sendero... ". Des. y a. 71H/4.

1901 "*...solicitud de registro, presentada por D^a Casilda Zala, de la mina de hierro titulada Ondo número 2.964 sita en ese término...* ". Ofi.j.G. 41H/7.

1916 "*...Ondave se halla situado en la falda que mira al oriente en el monte Belavi (...) confinan por el este con (...) camino carreril público...* ". Inv.p.d. 13H/9.

KOKAP.: Urnietako Adarra mendiaren hegoaldean dago eta bertan aurkitzen da Urnieta, Elduain eta Andoainen arteko muga.

OHAR.: Dokumentu zenbaitetan mendia *Ondave-gaña* izenaz azaltzen da eta honekin batera *Ondave-azpia* izeneko tokia aipatzen da. Arretaz begirata, izen hauetan dagoen kontraesanaz edo, hobe esanik, erredundantzia ohartuko gara. Lehenengo toponimoak tokia *Ondo* mendiaren behekaldearen gainean eta bigarrenak *Ondo* mendiaren behekaldearen azpian dagoela adierazten baitu. Honekin batera 1897. urteko dokumentuan Goiburu auzoan ere *Onddabe* izeneko lursail edo tokia dagoela topatu dugu, baina ez dakigu Leizotz auzokoarekin erlaziorik gordetzen ote duen, aipatu bi tokiak bata bestetik urruti samar baitaude.

Dena den, gaur mendia, dokumentu ugaritan azaltzen den antzera *Onddo* izenaz da ezagun. 786 metro ditu eta gailurra eta ifar-mendebaldeko malda Andoangoak badira ere, beste aldekoak Urnieta eta Elduaingo mugapetan daude. Ifar-mendebaldeko maldan ezker-eskubi pinu ez diren konifera-baso sarriak daude eta erdian suteak mozteko zuhaitzik gabeko tartea (subitartea). Tarte horretan txilar tontortxo ugari dago.

TOP.: ELURZULO

FELIPEREN BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Elurzulo* (2)
Elurzulua

DOKUMENT.:

1848 (febrero) "*...en el termino titulado Usabelarza Zelaya hemos medido un terreno (...) se habierte que en la area de este trozo se halla enagenada por la villa una extension denominada Elurzulo que en cuyo local se halla una casuca para depositar la nieve...* ". Bie.c. y p. 44H/5.

1926-1-27 "*...40 cargas de leña de Elurzulo-azpia...* ". Corr.c. y r. 54H/10.

1926-1-28 "*...cien cargas de leña para hogares de los montes Elurzulo y...* ". Corr.c. y r. 54H/10.

KARTOG.: 1953 *Elur-Zuluaqui* (SA.S.)

KOKAP.: Onddotxiki gainaren ifarraldean dago, basabidearen aldamenean.

OCHAR.: Agustin Zinkunegik elurzulo honek gainerik lauren bat metrota arkuak zuela azaldu digu. Gaur ez da horren arrastorik geratzen eta elurzuloa goroldioz estalitako harriz beteta dago, nahiz eta zenbait tokitan zuloaren harrizko hormak ikus daitezkeen. Tokia ezagutu gabe zaila da elurzuloa aurkitzea, bertaraino doan bidea inguru guzti honetan dauden koniferabaso sarrietan barrena baitoa. A. Zinkunegik *Elurzulo*-ren ondoan, eta honen harriak erabiliz, garai batean *Feliperen Borda* izenez ezagun zena eraiki zela ere esan digu. Egun zaila da bata bestetik bereiztea, bi hauetatik geratzen den guztia harri pila bat besterik ez baita.

TOP.: USABELARTZA
USABELARTZA GAINA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Usalartza* (7)
Usolartza
8/1 *Usolartzako Zingirak*
Usolartzako Zabala

DOKUMENT.:

- 1764 “...*Roble, ttrasplantados por Manuel de Olaciregui, (...) los demás en el parttido de Usauerarza...*”. Lib.c.f., 136. orr.
- 1848 (febrero) “...*por mediodia con los pertenecidos de la villa y termino de Usabelarza...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1897 (septiembre) “...*bienes de aprovechamiento comun del vecindario de Andoain los terrenos llamados (...) Osabelarza Celaya...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1897 (septiembre) “...10. *Usabelarsa-celaya se halla situada en la falda que mira parte al mediodia y parte al poniente en el monte Aitzgorri (...) y confina al este con los pertenecidos de la villa de Urnieta y regata denominada Lizarraga-chopeco-errecal al sur con los pertenecidos de la villa de Berastegui (...) en parte de poca pendiente y en otra de mucha...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1909-5-11 “...*desea arreglar la borda de Usabelarza llamada ‘Aritzagako Chavola’ para albergarse la gente cuando hace mal tiempo...*”. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1916 “...*Montes comunales exceptuados de la desamortización (...) Usabelarza-celaya...*”. Inv.p.d. 13H/9.

KOKAP.: Aizkorri eta Onddo mendiaren artean dago, Astabizkarren ifarrean.

OCHAR.: Aizkorri eta Onddo mendiaren arteko lepoan dagoen *belartza* edo zelaiari esaten zaio *Usabelartza*, zenbait dokumentutan *Usabelarza-celaya* gisa aipatzen delarik. 620 metro tara dago eta bertan ura nonahi sortzen da, euri asko egiten duenean ur putzu edo zingirak osatzen direlarik. Inguru guzti honetan bezala hemen ere, altzifreak edo antzeko koniferak ugari dira. Zelai honetan abere asko ibiltzen da laharrean eta txilarrak osatzen dituen tontortxoak nabarmenak dira han hemenka. *Usabelartza*-n borda asko izan den

arren ez dugu 1909. urteko dokumentuan aipatzen den *Aritzagako Chavola*-ren aztarnarik aurkitu. Aipatu ere, *Usabelartz*a-ren erdialdean, gutxi gorabehera, *Usabelartzako Zutarria* izenaz ezagun den monumentu megalitikoa dagoela.

Inaxio Etxeberriak dioenez, zelaiaren ifar-ekialdeko muturrean dagoen gailurtxoaren izena *Usabelartz*a *Gaina* da. Gain horrek *Usabelartz*a-k baino 30-en bat metro gehiago du eta koniferaz josita dago, horren segidan mendiak bortizki behera egiten duelarik. Datu honekin batera Inaxiok *Usabelartz*a-ri buruzko historiotoxa kondatu digu: garai batean, 300 bat urte inguru, *Usabelartz*a-n pelotalekua omen zen. Miguel Domingo Zatarain, fraile-ikaslea, pelotari ona izanik Frantzia aldera joan omen zen pelota partidua jokatzera eta usoa bidali omen zuen leku honetara irabazi zuela jakinarazteko, hau omen delarik lekuari *Usabelartz*a deitzearen arrazoia.

TOP.: ORMAZARRETA
IDOIAGAKO BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Ormaxarreta*

KOKAP.: Usabelartzaren hegoaldean dago, Ormazarretako eta Osinaundiko erreken artean.

OHAR.: Usabelartzara doan basabidearen gainean dago, baina zaila da bidetik ikustea. Harkaitz handia da eta honen gaineko laugunetxoan borda baten aurriak daude. Agustin Zinkunegik honen izena *Iyuyako Borda* zela esan digun arren (ikus IDOIAGA BASERRIA, oharrak), Iñaki Agirrek honentzat *Xaxingo Borda* eta *Ormaxarretako Borda* izenak jaso ditu. Kontutan izanik Bistaederreko baserritarra (ikus BISTAEDER BASERRIA) *Idoiaga* baserrian jaioa dela eta borda *Ormazarreta*-ren gainean dagoela, ez da harritzekoa borda hiru izen hauetaz ezagutzea.

TOP.: ORMAZARRETAKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Ormaxarretako Erreka*

KOKAP.: Aizkorriren hegoaldeko maldan sortzen da, Xamoaren goiko bordaren behelaldean, eta 500-en bat metro beherago Osinaundiko errekeri elkartzen zaio.

OHAR.: Errekatxo hau urrun samar egoteaz gain laburra eta isuri gutxikoa da, euririk egiten ez duenean agortu egiten omen delarik. Agian horregatik informatzaile bakar batek aipatu du honen izena. Errekatxoa *Ormazarreta*-ren ondotik jaisten da eta honetan dago oinarrituta informatzaile horrek erabilitako izena.

TOP.: AIZKORRI

AHOZKO ERAB.: 9/9 *Aizkorri* (7)
Aizkorriko (2)

DOKUMENT.:

- 1897 (*septiembre*) “...*al sur con las peñas altas de Aitz-gorri...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (*septiembre*) *monte Aitzgorri*. Bie.c. y p. 44H/5.
 1900 “...*Sierra ó monte ‘Eldurain’ segun lo llaman la gente en Yyuyaga; también lo dan el nombre ‘Aitzcurri’...*”. Sol.a.e. 41H/6.
 1900 “...*las minas denominadas ‘San José’ ‘San Miguel’ ‘Vasco’ ‘Glorioso’ (...)* ocupan el terreno denominado *Eldurain* y inmediaciones del caserío *Yyuyaga...*”. Sol.a.e. 41H/6.
 1912 *monte comunal denominado Aitzgorri-azpi*. Corr.c. y r. 54H/10.
 1916 *peñas de Aitzgorri*. Inv.p.d. 13H/9.
 1945 “...*Aizgorri Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*”. Amil., jabea: C.M.B.

KOKAP.: Leizotz auzoaren hego-ekialdean dago, Idoiaga gaina eta Onddo mendiaren artean.

OHAR.: 1900. urteko dokumentu horretan aipatzen denez, badirudi egun *Aizkorri* izenaz ezagun dena inoiz *Eldurain* izenaz ere ezagutu izan zela, baina galdeketan parte hartu duten informatzaileetarik inork ez digu beste izen horren berririk aipatu. *Aizkorri*-k 674 metro ditu eta izenak berak adierazten duen bezala, gailur harkaitsua du. Bere maldetan, egun pinuz beteta, ura nonahi sortzen da, iturri eta errekatxo ugarira isuriz.

TOP.: ALLIRI HAITZA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Alle* (3)
Allegi (2)

DOKUMENT.:

- 1848 (*febrero*) “...*por el norte con los pertenecidos de esta villa peñas altas de Alleri...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
 1848 (*febrero*) “...*en el termino titulado Alliri Aspia y Negu(s)arobe hemos hallado y medido un terreno (...) confinante (...) por el poniente con las peñas altas de Alliri...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (*septiembre*) “...16. (...) *el monte del mismo nombre Alliri...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (*septiembre*) “...*en la declaracion pericial se hallan comprendidos en una sola area con los nombres de Alliri Gaña, Alliri Azpia y Negusarobe...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (*septiembre*) “...*bienes de aprovechamiento comun del vecindario de Andoain los terrenos llamados (...) Allirrigana...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
 1905 “...*trozo de camino vecinal comprendido entre Aramanea y Allegui...*”. Cam.v. 34H/3.

- 1916 *peñas altas de Alliri*. Inv.p.d. 13H/9.
 1916 *monte llamado Alliri*. Inv.p.d. 13H/9.
 1916 *camino vecinal a Allegui*. Cam.v. 34H/3.
 1917 "...camino vecinal trozo a Allegui-gaña..."². Cam.v. 34H/3.
 1945 "...Allegui o Allirigaña; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos..."².
 Amil., jabea: J.A.O.
 "...Paraje Allegui Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos..."².
 Amil., jabea: M^a J. U.Z.

KOKAP.: Aizkorriren ifarrean dago, Ubaran eta Alliriazpiko erreken artean.

OHAR.: Galdeketa parte hartu duten informatzaile guztiek *Alle(g)i* esaten duten arren, sarriago eta dokumentu zaharragotan aipatzen da *Alliri*.

Haitz honek 544 metro ditu eta Aizkorri baino 130 metro beherago dago, hau ere pinuz josita. Ubaran erreka aldetik begiratzen badugu, gailurrak leguna dirudi eta ez dugu harkaitzik ikusiko. Urnietako Adarra menditik, ordea, zeharo ezberdina da, Alliriazpiko erreka arro sakonaren gaineko horma harkaitsua ia bertikala baita.

TOP.: ALLIRIAZPI

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Allegiazpi* (3)
Alleiazpi

DOKUMENT.:

- 1848 (*febrero*) *Alliri Aspia*. Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (*septiembre*) "...Alliri Azpia se halla situado en la falda que mira al norte y el monte del mismo nombre Alliri..."². Bie.c. y p. 44H/5.
 1906-12-17 "...leña para los hogares del vecindario las que han sido marcadas; 100 en el punto llamado Allegazpi..."². Corr.c. y r. 54H/10.
 1908-12-24 *Monte Alleguiazpi*. Corr.c. y r. 54H/10.
 1912-10-21 "...Allegui-azpia (...) del monte comunal de Andoain..."². Corr.c. y r. 54H/10.
 1916 "...Alliri-azpia. Se halla situado en la falda que mira al norte del monte llamado Alliri..."². Inv.p.d. 13H/9.
 1932-1-22 "...cargas de leña marcadas en los puntos de Allaizpi..."². Corr.c. y r. 54H/10.
 1934-5-6 *Allaiaspi*. Corr.c. y r. 54H/10.
 1935-12-20 *Allaizpi*. Corr.c. y r. 54H/10.
 1945 "...Allegui Azpia; bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos..."². Amil., jabea: J.E.J.

KARTOG.: 1944 *Azconabieta* (A.M.)

KOKAP.: Alliri haitzaren pean dago, Alliriazpiko erreka aldera dagoen maldan.

errekarantz doazen errekatxo eta iturri ugari. Hauetako bat da, hain zuzen, zenbait informatzailek *Trikuetako Erreka* izenaz ezagutzen duena. Beste zenbaitek, ordea, *Eginagusiko Erreka* esaten dio (ikus EGINAGUSI, oharra eta sarrerako 24. orrialdea). Erreka honek Artolaborda baserriaren aurrien ondoan isurtzen du ura Ubaran errekarara.

TOP.: NEGUSAROBÉ

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Neusagi* (2)
Neusage
Neusabe

DOKUMENT.:

- 1764 “...en la cercania del sel, de Ymbierno de la casa de Aranaztegui; y los demas en el parttido de Usauerarza...” Lib.c.f., 136.orr.
 1848 (febrero) “...por el norte con los pertenecidos de esta villa peñas altas de Alleri, Alliri Azpia y Negusarobe...” Bie.c. y p. 44H/5.
 1897 (septiembre) “...15. Alliri-azpia y Negusarobe. Se halla situado en la falda que mira al oriente de los montes de los mismos nombres (...) es terreno de mucha pendiente...” Bie.c. y p. 44H/5.
 1913-12-20 “...en el monte denominado Negusarove perteneciente al Ayuntamiento de Andoain...” Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Usabelartza gainaren ifarrean dago, Alliriazpiko erreka eta Urnietarekin muga egiten duen Eltzamendiko errekaen artean.

OHAR.: 1764. urteko dokumentuan aipatzen den *sel de Ymbierno* da, hain zuzen, *Negusarobe* toponimoaren itzulpena. Garai batean pagadia zen hau egun pinuz beteta dago. Malda biziko tokia da.

TOP.: AGERREKO ZABALA

AHOZKO ERAB.: 3/1 *Aerreko Zabala*
 3/1 *Eteneta*
 3/1 *Onyo Aundiko Zabala*

DOKUMENT.:

- 1889 “...Ondo (...) Bajando por dicho monte en dirección norte y a distancia de cuatrocientos noventa metros se encontró el mojón numero uno en el punto de Ondavezabala, de piedra sillar...” Des. y a. 71H/4.

KARTOG.: 1953 *Agarreco-Zabala* (S.A.S.)

KOKAP.: Urnietako Adarra –Agerre ere esaten zaio– eta Andoaingo Onddo mendien arteko lepoa da, baina zatirik nagusia Urnietako mugapean dago.

OHAR.: Zabal honetan *Eteneta* izeneko mairubaratzak daude eta zenbaitek izen bera erabiltzen du zabala izendatzeko. Informatzaileek aipaturako beste bi izenak dokumentu bitan jasotakoekin bat datoz eta hauek zabalaren bi muturretan dauden mendien izenekin loturik daude. Dena den, *Adarra* edo *Agerre* deiturikoa da bi mendien artean ezagun eta garaiena eta, esan bezala, zabalaren zatirik nagusiena Urnietako mugapean dago. Oraingo honetan galdeketaren emaitza ez da erabakiorra suertatu izen erabilienean zein den jakiteko eta horregatik kokapena hartu dugu oinarritzat.

698 metrotara dago eta alboetan pinuak eta bestelako konifera batzuk izan arren, tartean, muntegi pare bat salbu, ez dago zuhaitzik, txilarra nonahi sortzen delarik.

TOP.: *Lixtorrari*
Arbittarte

KOKAP.: —Idoiaga gainetik Zeltzurritzera joanaz iritsi aurretik dagoen lehen harkaitza da (bigarrena Argaña).

—Argañaren behekaldean dago, txokoan.

OHAR.: Azken unean jaso ditugu Bistaederreko baserritarrak esandako bi toponimo hauek eta, horregatik, ez dakigu zenbatetaraino diren ezagunak ez eta nola erabiltzen dituzten beste informatzaileek —beste norbaitek ezagutzen baldin baditu—. Dokumentazioan, bestalde, ez dugu hauen aipamenik aurkitu. Etimologiak berak adierazten digun bezala, biak harkaitzen izenak dira eta kokapenari buruz aipatu ditugun datuak, bertara joan ez garez, Bistaederrekoak esandako berak dira. Beraz, ez dakigu zenbatetaraino diren zehatzak.

TOP.: MUGETA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Mugeta*

DOKUMENT.:

1848 (*septiembre*) “...En la misma jurisdicción y barrio titulado de *Leizos* y en el termino denominado (...) *Mugueta*...”. Bie.c. y p. 44H/5.

1889 “...todos los señores comisionados en el sitio denominado *Muguetaco Erreca*. Hay un sello que dice *Alcaldía de la villa de Berastegui - La comisión de Andoain*...”. Des. y a. 71H/4.

1889 “...Número del mojón: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7. Nombre del sitio en que está situado: *Mugueta*...”. Des. y a.: Andoain/Berastegui 71H/4.

1897 (*septiembre*) *Mugueta*. Bie.c. y p. 44H/5.

1889-90 “...refacciones facilitadas para el arreglo del camino vecinal denominado *Mugueta*...”. Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Astabizkarren hego-mendebaldeko maldan dago.

OHAR.: Astabizkarretik Leitzaran ibaira bitarteko maldari, zeinetan Andoain eta Berastegiren arteko muga dagoen, esaten zaio *Mugeta*. Bi herrien arteko mugari buruzko dokumentazioa irakurri ezkerro, izena bien arteko lerro imaginarioari (muga) dagokionaz konturatzen gara. Beste hainbat tokitan bezala, hemen ere pinua da zuhaitzik ugariena. Goiko aldean harkaitz handiak daude (ikus ARRATAKA, oharrak).

Dokumentu zenbaitetan aipatzen dira ere *Muguetaco Erreca* eta *camino vecinal de Muguetas*, baina hauei buruzko datu gehiago ez dugu. Dena den, kontutan izanik 1889. urteko dokumentuan esaten dena, aipatu lehena Leitzaran ibaia bera izan daiteke, bi herrien artean besterik ez baitago.

TOP.: ARRATAKA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Arrataka*

KOKAP.: Astabizkarren hego-mendebaldeko maldan dago, Andoain eta Berastegiren arteko mugan.

OHAR.: Izenaren etimologiak berak azaltzen digu zein entitateri dagokion izena, *Arrataka* harri arteko ateka edo pasabide estua baita. Harkaitz handia da Astabizkarren maldan dagoen hau eta bertaraino joan ez garen arren, informatzaile batek esan bezala, Foru Aldundiko mapetan harkaitzaren arteko bidezidorra azaltzen da. Harkaitza zeharkatzeak Andoaindik Berastegira —edo alderantziz— igarotzea dakar, bertan baitago bi herrien arteko muga. Beste informatzaileak harkaitzari berari esaten dio *Arrataka*.

TOP.: AMASOLAKO HARKAITZA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Amasolako (H)arkaitza*

DOKUMENT.:

- 1877 “...en la apertura del camino carretil desde el punto de la presa de Olaverria a Amasola...”. Cam.v. 34H/3.
- 1908-12-24 “...en el monte denominado (...) y Amasola...”. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1911-12-21 *punto denominado Amasola-gaña*. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1912-10-21 “...24 cargas en 12 lotes en ‘Amasola’ del monte comunal de Andoain...”. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1913-12-21 “...Reparto de leña para fogueras por el sistema de suertes llamado de Sortakaris del punto denominado Amasola...”. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1915 “...proposicion que hace referente a la explotación de las canteras comunales Amasola y Oteita y opinan que es completamente inaceptable...”. Ext.c.c. 72H/6.
- 1919 “...intransitables los caminos vecinales de Amasola...”. Cam.v. 34H/3.
- 1929-2-16 “...Andoain, aprovechamientos de su monte comunal (...) 18 lotes de leña de jaro de aliso, sauce y otros, en el punto de Amasola...”. Corr.c. y r. 54H/10.

TOP.: BALTZUSKETAKO BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Baltzuketako Borda*

KOKAP.: Aizkorriren mendebaldeko maldan dago, Malo izeneko tokiaren gainkaldeko lautada baten erdian.

OHAR.: Hormen puska batzuk eta teilatua eusten zuten egurrezko habe zenbait dira honetaz geratzen den guztia (ikus BALTZUSKETA TXIKI BASERRIA, oharrak).

TOP.: ITSASOKO BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Itxasoko Borda*

KOKAP.: Idoiaga gainean dago, pinuz inguraturiko belaze batean.

OHAR.: Ikus ITSASO BASERRIA, oharrak.

TOP.: PRESABURUREN BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Presaburun Borda* (I.A.)
Presaburun Txabola

KOKAP.: Idoiaga gainaren hego-mendebaldeko pinuen artean daude borda honen aurriak, Itsasoko bordaren aurrietatik 150-en bat metro beherago.

TOP.: AIENDIREN BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Ayendin Borda* (I.A.)
Ayerdin Borda (I.A.)

KARTOG.: 1944 *Ayendico-borda* (A. M.)

KOKAP.: Zeltzurritz lepoan dago, Talaiako bordaren ondoan.

OHAR.: Iñaki Agirrek goian aipatu bi eratara jaso du borda honen izena. Izen bereko baserririk ez egon arren, kalean izan da *Aiendi* izeneko etxea. Era berean, idatziz aurkitu dugun aipamen bakarrean ere, *Ayendico-borda* izenez azaltzen da. Bi arrazoi hauengatik normalizatu dugu I. Agirrek jasotako lehenengoa.

TOP.: TALAIAKO BORDA

AHOZKO ERAB.: *Talaiako Borda* (I.A.)

KOKAP.: Zeltzurritz lepoan dago, Aiendiren bordaren ondoan.

OHAR.: Bordaren alde bat erorita dagoen arren, besteak zutik dirau eta teilatua konpondu berria dauka. Bordaren inguruan zuhaitz autoktonoak daude: haritzak, lizarrak, urkiak,...e.a. (ikus TALAIJA BASERRIA, oharrak).

TOP.: BERTXINGO BORDA

AHOZKO ERAB.: *Bertxingo Borda*

KOKAP.: Andoain eta Berastegiren arteko mugan dago, *Mugeta* izeneko to-
kian, alegia.

OHAR.: Bordaren egoera ona da. *Pareta le(h)orrak* ditu, hau da, horma osatzen duten harriak porlanik gabe daude bata bestearen gainean ipinita eta teilatua, berriz, egurrezko habek eutsiriko arbelez osatuta dago. Bordaren ondoan lizar eta haritzen batzuk izan arren, inguru guztia pinuz beteta dago.

TOP.: ARRANTZUKO TXABOLA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Arrantzuko Txabola*
Arrantzun Txabola (I.A.)

KOKAP.: Usabelartza gainaren inguruan dago.

OHAR.: Ikus ETXABEKO (PRONTXIOREN) TXABOLA, oha-
rrak.

TOP.: AMAXAREN BORDA - KASKASOLLAREN BORDA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Amaxan Borda*
Amaxan Txabola

KARTOG.: 1944 *Borda de Cascasolla* (A.M.)

KOKAP.: Usabelartzaren hegoaldean dago, Lapurtxulo borda baino metro
batzuk aurrerago (basabidetik joanda).

OHAR.: Galdeketan izen bat eta aipatu mapan beste bat jaso dugun
arren, Agustin Zinkunegik biak borda berari dagozkiola eta izenak bi artzai-
nen ezizenetan oinarrituta daudela azaldu digu. Dena den, borda *Amaxa* dei-
turikoak eraiki omen zuen eta, beraz, bidezkoa deritzogu honen izena eusteari.
Borda eraberrituta dago eta mendizale eta eskursionistek babesleku gisa era-
biltzen dute.

TOP.: XAMOAREN ERDIKO BORDA (aurriak)

XAMOAREN GOIKO BORDA (")

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Xamuan Borda* (3)
Xamu Borda (2)
Xamoan Borda (I.A.)
Josekrutzen borda eta txabola (I.A.)

KOKAP.: Lehenengo Munttotik Bertxina doan basabidearen bazterrean da-
go eta bigarrena, berriz, Usabelartzan.

OHAR.: Inaxio Etxeberría jaunaren esanetan, *Xamoa* deituriko ar-
tzainak hiru borda izan zituen: goikoa, erdikoa eta behekoa, alegia. Informa-

tzaileek aipatutako izena hirurena izanik, beraiek goiko bordari atxekiz eman dute. Iñaki Agirrek, berriz, beste izen bat jaso du erdikoarentzat.

Xamoaren Goiko Borda Aizkorriren gailurretik gertu dago eta teilatua eta hormen zati bat erorita daude. *Xamoaren Erdiko Borda* bi eraikinez osatuta zegoen, bat artzainaren babesleku zena eta bestea abereena. Lehenak oraindik zutik dirau eta egoera onean dago egurrezko habe eta arbelez eginiko teilatua. *Xamoak* izandako hirugarren bordari dagokionez, berriz, ez dugu bere kokapenaren berririk.

TOP.: PAGOBAKARRA

KOKAP.: Aizkorriren hegoaldeko maldan dago, Itsasoren txabola baino 300-en bat metro gorago.

OHAR.: Bi informatzailek eman digute toponimo honen berri. Bertara joateko, Itsasoren txabolaren ezkerretara dauden alertzeetan barrena gora egin behar da —bidea utzita— pinuak ateratzeko egin den bideska aurkitu arte. Bideska honen bazterrean dauden pinuen artean dago inguru honetako pago bakarra. Bakarrik egoteak zuhaitza goraka baino zabalera haztea ekarri du eta bakardade horri zuhaitzaren zahartasuna eta edertasuna eransten badizkiogu ulertzekoa da pago hau bereziki ‘ezaguna’ izatea.

TOP.: ELIASEN TXABOLA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: *Eliassen Txabola*

KOKAP.: Aizkorriren hegoaldeko maldan dago, Pagobakarraren ondoan.

OHAR.: Informatzaile batek borda honetan aspalditxo gertatutakoa kondatu zigun. Dirudenez, garai batean elkarren artean oso gaizki moldatzen ziren Andoaingo bi familietako baten semea, Elias delakoak, alegia, borda hau erabiltzen omen zuen eta gau batean beste familiako bi seme, aizkora batez armaturik, bere bila azaldu omen ziren. Eliasek, ordea, ohartu eta bordatik garaiz ihes egitea lortu omen zuen, egun desagertutako Idoiaga baserrian babestuz.

TOP.: ARRILIMURIERREKA ARRILIMURIKO TUNELA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Arlemei*
2/1 *Arrilluneko Erreka*

DOKUMENT.:

1753 “...y los otros quatrocientos, y diez en el nombrado Arrilimuri jurisdiccion concegil de esta Villa...”. Lib.c.f., 124. orr.atz.

1848 (febrero) “...En la misma jurisdicción y barrio titulado de Leizos y en el termino denominado Arrilimuri (...) en la falda de Yyoyaga que mira al poniente...”. Bie.c. y p. 44H/5.

- 1897 (*septiembre*) “...*al mediodia y poniente en el monte llamado Munto (...)* al oeste con pertenecidos de esta villa y trozo de Arriturri...”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1912 “...*de la cantera titulada “Arrilimoy” sita en el kilómetro 5, del ferrocarril de Andoain a Plazaola...*”. Ext.c.c. 72H/6.
- 1916 “...*en la falda que mira al mediodia y poniente en el monte llamado Muntoa (...)* al oeste con pertenecidos de esta villa y trozo anterior titulado de Arrilimoy...”. Inv.p.d. 13H/9.
- 1945 *Regata Arrilimoy*. Amil., jabea: J.J. I.A.
 “...*Arrillimurri; bajo y matorral, pradera con maizal; (...)*
Paraje: Leizos...”. Amil., jabea: A.B.S.

KOKAP.: Argaña eta Idoiaga gainaren artean jaiotzen da eta Trentxikiko bide-a azpitik igaro ondoren Leitzarari ibaian isurtzen du ura.

OHAR.: Dokumentu ezberdinetan egiten diren aipamenen arabera, eta hauen data kontutan izanik, badirudi izenak jasandako bilakaera *Arrilimu(r)i > Arrilimoi* izan dela, azkenik informatzaile batek esandako *Arlemei* genuekelarik. Dena den, ez dakigu bigarren informatzaileak esandakoa izen ezberdin bat edo beste honen ‘bariantea’ den (nahaste baten ondorioz sortua agian). Aipatu ere, Leitzarari ibaiari buruz egindako memorian ere (ez dakigu zein izan diren horretarako erabili diren iturriak) erreka *Arrilimoi* izenez azaltzen dela.

Arazo bera daukagu erreka segidan dagoen tunelaren izenarekin —Trentxikiren bidean—: *Arlemeiko Tunela*, *Arrilluneko Tunela* eta hirugarren informatzaile batek esandako *Arrillumeko Tunela* jaso baititugu, hiru kasuetan erreka eta tunelarentzat izen edo ‘bariante’ bera erabili dutelarik. Egoera honen aurrean dokumentatuta dagoen izen zaharrenaren alde egin dugu.

TOP.: TALAIAMALDA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Talaimalda*

DOKUMENT.:

- 1751 “...*robles de bastante disposición para hacerse brabos: a saver los duscientos deellos en el parage nombrado de Talaiamalda...*”. Lib.c.f., 120. orr.
- 1901-8-19 “...*desea autorización para extraer un carro de palos del monte Talai-malda para secar yerba...*”. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1909 “...*los caminos vecinales de la misma, Yaola herreca, Talay Malda y de Ydiazabal Arriba se ven muy malos e cuasi intransitables...*”. Cam.v. 34H/3.
- 1914-12-24 “...*leña, para los hogares del vecindario y que se hallan marcadas, 60 m. Talay-malda...*”. Corr.c. y r. 54H/10.

KOKAP.: Eltzamendiren hegoaldean dago, Alliriazpiko erreka eta Eltzemendiko erreka artean.

OHAR.: Malda bizia da eta bertaraino joan ez garen arren pentsatzekoa da, hemen, inguru guzti honetan bezala, pinuak izango direla nagusi. (ikus TALAIA BASERRIA, oharrak).

TOP.: ARMAZELAI (?)

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Armazelai*

KOKAP.: (5) Alliri haitzaren ifarralde edota ifar-mendebaldean.

OHAR.: Dokumentazioan honen aipamenik aurkitu ez dugun arren, hiru informatzailek eman digute toponimo honen berri, nahiz eta hauek kokapenari buruz emandako datuak nahiko ez izan toponimoa kokatu ahal izateko. Datu gutxi ditugun arren, informatzaileek aipatutako horren etimologia **(h)arr(i) + me(h)e + zelai* izan daitekeela uste dugu. Aipatu ere, toponimoak zelai bati erreferentzia egiten dion arren, informatzaile batek esan digula, adibidez, *Trikuetako malda*-ri ematen zaion beste izen bat dela.

GOIBURU AUZOA: TOPONIMOAK

Herriaren hegoaldera aurkitzen da eta 2 kilometro karratu inguru ditu, Andoaingo auzoen artean txikiena delarik. Oria eta Leitzaran ibaien artean dago eta hegoaldean, Billabonarekin muga eginaz, Ubillusko errekek eta Katalansoro errekek inguratzen dute. Bi horiek ez dira, ordea, Goiburu auzoan dauden erreka bakarrak, Goiburu iturri eta erreka koskor ugariaren sorlekua baita. Goiburu auzoko mendi nagusia eta bakarra auzoaren hego-ekialdean dago. *Belabi* du izena (ikus beherago azalpena) eta 261 metro ditu, bere maldetan pinua nagusi delarik. Mendi honen hego-ekialdean dago auzoko baso nagusia. Lur gehiena laborantzarako erabiltzen da —belaze eta soro atlantikoak— eta soilik auzoaren mugen inguruan aurki daitezke han-hemenka zuhaitz multzo txikiak. Ubillusko erreka inguruko eremu txiki batean aurkitzen da auzo honetan interes naturalistikoa duen zonalde bakarra.

21 dira auzo honetako baserriak —zutik daudenak— eta 18 bertan azken urteotan eraikitako etxeak —txalet gisakoak—, gehienak auzoaren ifarraldean aurkitzen direlarik, Andoaindik San Esteban ermitara doan bidearen bazterretan, hain zuzen. Belabi mendiaren ekialde eta hegoaldean, berriz, gaur ez dago baserririk. Auzoaren erdigunea aipatu ermitaren inguruan dago eta bertako jaiak abuztuaren hiruan ospatzen dira, San Esteban egunean, alegia. Auzoaren jatorrizko izena badirudi *Goiburu* dela, baina sarritan gertatzen den bezala, hagonimoak indar handia du, auzoari *San Esteban* ere esaten zaiolarik.

AHOZKO ERAB.: 7/6 *Goiburu* (5)
 Barrio Goiburu (2)
 7/5 *Sanesteban* (2)
 Barrio Sanesteban
 San Esteban
 Xanesteban

DOKUMENT.:

1848 (*septiembre*) *varrio titulado Goiburu Ballea*. Bie.c. y p. 44H/5.

1894 el valle de Goiburu. Cam.v. 34H/3.

1897 "...Sección nº 10 San Esteban de los edificios diseminados...".
Cen.p. 48H/3.

1915 "...el barrio de San Esteban de este termino municipal...".
Cam.v. 34H/3.

- BIBLIO. "...*El pueblo se compone de dos calles y una plaza, donde esta la casa concejil; y tiene los barrios denominados Burunza, Leizoz, Goiburu y Zumea...*". P. Gorosabel, *Diccionario*, 34. orr.
"...*La ermita de San Esteban protomártir se halla en el alto llamado Goiburu...*". F. Etxeberria, *Anuario*, 73. orr.
"...*dos buenas ermitas, (...) y la de San Esteban en las lomas de Goiburu...*". R. Arregui, *Andoain*, 27. orr.

TOP.: TXERTUETA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Txertuta*
Txertueta

DOKUMENT.:

1857-1864 *Chertueta*. Nomen., 82. orr.

1897 *Chertueta*. Est.e. 48H/4.

1910 *Chertueta*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Chertueta*. Pad.m.h. 65H/1.

1945 "...*Chertueta Buru; pradera, bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: J.G. C.V.

- BIBLIO. *Txertueta, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista..*
Txertueta. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Belabi mendiaren ifar-mendebaldeko magalean dago.

OHAR.: Goiburu auzoaren hegoaldean dago eta haruntzago —hegoalderago— ez dago beste baserririk. Honen lehen aipamena nomenklatorrean aurkitu dugu eta bere egoera gaur bikaina da.

TOP.: BULANO BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Bulano Aundi* (3)
Bulano (2)

DOKUMENT.:

1615 *Bunano(a) (Munanoa)*. I.E.A.

1761 *paraxe de Bunano Azpia*. Lib.c.f., 191. orr.

1813 *Bulano*. Lis.t. de A.

1818 *Bulano*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Bulano*. Nomen., 82. orr.

1897 *Bulano*. Est.e. 48H/4.

1910 *Bulano*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Bulano*. Pad.m.h. 65H/1.

TOP.: SAN ESTEBAN BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *San Esteban*
Sanesteban
Sanesteban Erretegia
Xanesteban Asadoria
 4/2 *Taberna*

DOKUMENT.:

1818 *San Esteban*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *San Estéban-eche*. Nomen., 83. orr.
 1897 *San Esteban*. Est.e. 48H/4.
 1910 *San Esteban*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *San Esteban*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*San Esteban Aldea; cereal; (...) Paraje; Goiburu...*". Amil.,
 jabea: T.O.G.

BIBLIO. *San Esteban*. F. Etxeberria, *Anuario*, 75. orr.
San Esteban. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Goiburu auzoaren erdigunean dago, San Esteban ermitaren ondoan.

OHAR.: Galdeketan parte hartu duten informatzaile guztiek eza-
 gutzen dute baserri honen izena, nahiz eta zenbaitek bertan dagoen erretegi eta
 tabernarekin identifikatzen duen. Baserri honek ondoan duen ermitaren izena
 du eta nomenklatorrean, bien arteko bereizketa egitearren, hau *San Estéban-*
eche bezala jaso da. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: ITSASO BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Itxaso* (3)
Itxaso Goikoa, Itxaso Bekoa
Itsaso Goi, Itsaso Bei edo
Itsaso Goiko, Itsaso Beko

DOKUMENT.:

1615 *Ychaso*. I.E.A.
 1813 *Ychaso*. Lis.t. de A.
 1818 *Ytsaso*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Ichaso*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Ichaso*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Ychaso*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Ychaso*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*Ichaso Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Carrica...*". Amil.,
 jabea: J.J.U.

BIBLIO. *Itxaso, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Ichaso de San Esteban. R. Arregui, *Andoain*, 36. orr.
Itxaso. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: San Esteban ermitara iritsi baino 100-en bat metro lehenago dago bidearen ezkerretara.

OHAR.: Oso baserri handia da eta ezker-eskubi bi etxebizitzetan banatuta dago, zenbaitek izen ezberdinen bidez hauen arteko bereizketa egiten duelarik. 1615. urteko dokumentuan jaso dugu baserriaren lehen aipamena, baina hirurehun urtetik gora izan arren bere egoera bikaina da.

TOP.: OSTAPE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Ostape*

DOKUMENT.:

1910 *Ostape*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Ostape*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Ostape*. F. Etxeberria, *Anuario*, 75. orr.

Oztape. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Iturritxulo eta Pagoetako errekaen jaiotzaren arteko gainean dago.

OHAR.: Mende hasierako dokumentuetan jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Baserria eraberrituta dago eta bere egoera bikaina da. Ondoan Sorleku etxea eta Merdilladi baserria ditu.

TOP.: MERDILLADI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Merdillegi* (2)

Merdillei (2)

Merdilledi

Berdillei

DOKUMENT.:

1615 *Berdelladi* (*Merdelladi*). I.E.A.

1753 *casa de Berdelladi*. Lib.c.f., 81. orr.

1767 *casa nombrada Berdelladi*. Lib.c.f., 140. orr.

1813 *Berdeilladi*, *Berdilladi*. Lis.t. de A.

1818 *Merdilladi*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Merdilladi*; *Merdilladi Berri*. Nomen., 83. orr.

1862 *Berdilladi inscrito con el nombre de Merdilladi*. I.c.h., H-532.

1881 *Berdilledi*. Inv.b. 44H/7.

1897 *Merdilladi*; *Merdilladi Berri*. Est.e. 48H/4.

1910 *Merdilladi*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Merdilladi*. Pad.m.h. 65H/1.

1945 "...*Merdillegui Aldea; cereal...*". Amil., jabea: J.J.U.

BIBLIO. *Merdiladi y -berri, caseríos de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

Berdillegi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Pagoetako erreka eta Iturritxuloren jaiotzaren arteko gainean dago.

OHAR.: XVII eta XVIII. mendeko dokumentuetan baserria *Berdelladi* izenaz azaltzen da eta, beraz, hori litzateke izenaren forma zaharra. Baserriaren aurrealdean jarritako errotuluan, berriz, *Merdilledi* idatzi dute. Dena den, toponimoa normalizatzerakoan kontutan izan dugu 1615. urtean *Merdelldadi* ere azaltzen dela eta 1818. urterako, berriz, *B-* > *M-* bilakaera dokumentu gehienetara hedatu zela. Ezin dugu ahaztu, bestalde, 1862. urteko dokumentuan esaten dena. Esan behar da ere, goian aipatutako zenbait dokumentutan izen honekin bi baserri agertzen direla, hau da, *Merdilladi* eta *Merdilladi Berri*. Egun, baserri bakarra izanik bi etxebizitzetan banatuta dago eta, beraz, agian aipatu izenak hauen bereizketa egiteko ziren.

Baserriaren egoera ona da. Inguruan Sorleku etxea eta Ostape baserria ditu.

TOP.: TXURIKADI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Txurikai* (2)
Txurikadi

DOKUMENT.:

1615 *Çuricadi* (*Çubicari*) *Arça la Mayor*; *Çuricadi Arça Chipi*.
I.E.A.

1813 *Churicari*. Lis.t. de A.

1818 *Churicadi*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Churicadi*. Nomen., 82. orr.

1897 *Churicadi*. Est.e. 48H/4.

1910 *Churicadi*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Churicadi*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Churicai*. F. Etxeberria, *Anuario*, 76. orr.
Txurikadi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen ezkerretara dago, Pagoetako iturrira iritsi baino metro batzuk lehenago.

OHAR.: 1615. urteko dokumentuan *çuricadi Arça* izeneko bi baserri aipatzen diren arren, 1813. urtetik aurrera bakarra azaltzen da dokumentu guztietan. Hauetan, gainera, izena laburrago azaltzen da, delako *Arça* hori gehiago aipatzen ez delarik. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: ZINKOBORDA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Zinkoborda*

DOKUMENT.:

1813 *Zinco*; *La borda del mismo*. Lis.t. de A.

1818 *Cinco*; *Borda de Cinco*. Est.p.i. 62H/7.

- 1857-64 *Cinco-borda*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Cinco Borda*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Cinco Borda*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Cinco-borda*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Caserío Cinco-borda*. F. Etxeberria, *Anuario*, 75. orr.
Zinko Borda. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidea Irualdeta etxearen parean utzi eta honen eskuinetara dagoen beste bidearen bukaeran dago.

OHAR.: 1813 eta 1818. urteko dokumentuetan azaltzen denez, badirudi egun baserri den hau garai haietan *Zinko* deituriko baten borda zela, nomenklatorrean jadanik baserritzat jasotzen delarik. Egun, inguruan ez du beste baserririk (ikus ZOZPERRI BASERRIA) eta bertaraino joateko bidearen azken zatia zolatu gabe dago. Bere egoera ona da.

TOP.: † ZOZPERRI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Zozperri*

DOKUMENT.:

- 1813 “...*Señor Marques de Sn. Milian (... otro terreno del mismo Marques que cultiba Zozperri...*”. Lis.t. de A.
 1945 “...*Sosperrri Aldea; bajo y matorral; (... Paraje: Carrica...*”. Amil., jabea: J.J.U.

KOKAP.: Zinkoborda baserriaren parean zegoen.

OHAR.: Hiru informatzailek eman digute desagertutako baserri honen berri, baina hauek esandako izenaz soilik 1813. urteko dokumentu batean topatzea harrigarria iruditzen zaigu, kontutan izanik, gainera, zenbait informatzailek baserria zutik ezagutu dutela. Amilaramenduetan, berriz, Karrika auzoan kokatuta, Goiburu auzoko zenbait baserriren izenetan oinarritutako toponimoak azaltzen dira: *Ichaso aldea* (Amil., jabea: J.J.U.), *Merdillegui aldea* (Amil., jabea: J.J.U.) eta *Orceica aldea* (Amil., jabea: J.J.U.) eta, beraz, pentsatzekoa da *Sosperrri Aldea* ere *Sosperrri* —*Zozperri*— izenekoan oinarriturik dagoela.

Egun, ez da baserriaren aztarnarik geratzen eta informatzaileek emandako datuak dira honi buruz dugun informazio bakarra. Esan digutenez, *Zozperri* izeneko baserri txikiaren jabea *amerikanoa* zen.

TOP.: GARABURU BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Garaburu Berri*
 2/2 *Artola Ttikiya*

DOKUMENT.:

- 1960 *Garaburu-berri*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Garaburu-berri*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Karrika auzoaren parean dago, trenbidearen bestaldean.

OHAR.: Ankoras kalean izan zen *Garaburu* baserrikoek eraiki zuten *Garaburu Berri* izeneko etxe hau. Izena aurrekaldeko horman ipinitako errotuluan azaltzen da eta informatzaileek badute honen berri. Hala ere, badi-rudi etxea ezagunago dela bertakoen deituraz. Etxearen lehen aipamena 1960. urteko erroldan aurkitu dugu.

TOP.: ORTZERIAGOKA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Ortzaika*

DOKUMENT.:

1615 *Ugarte*. I.E.A.

1813 *Orzorica, Orceriagoca*. Lis.t. de A.

1818 *Orceriagoca*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Orceriagoca*. Nomen., 83. orr.

1862 *Orceriagoca ó Ugarte* (casa). I.c.h., H-532.

1881 *Orzarioca*. Inv.b. 44H/7.

1897 *Orcerioca*. Est.e. 48H/4.

1910 *Orcerioca*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Orceica*. Pad.m.h. 65H/1.

1960 *Ortzaika*. Cen. y p. 28/1.

1945 "...*Orceica Aldea; cereal; (...) Paraje: Carrica...*". Amil., jabea: S. eta M. E.E.

"...*Orceica Burnua; pradera con maizal; (...) Paraje: Carrica...*". Amil., jabea: S. eta M. E.E.

Orceica regata. Amil., jabea: A.I.B.

BIBLIO. *Ortzeriagoka, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

Ortzaika. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Ubilluts auzunearen parean dago, trenbidearen bestaldera.

OHAR.: Oñatiko artxiboko dokumentuan, *Ugarte*, baserriaren bigarren izentzat jaso da eta hori denez 1615. urteko dokumentuan bi izenetatik aipatzen den bakarra, bera litzateke bietan zaharrena. Dena den, gaur erabiltzen den izena da 1813. urtetik aurrerako dokumentu guztietan aipatzen den bakarra, nahiz eta aipamenak kronologikoki ipinita jatorrizkoa dirudien *Orceriagoca*-tik gaur erabiltzen den *Ortzaika*-ra alde handia egon. Bien artean 1881, 1897 eta 1910. urteko dokumentuetan jasotako *Orzarioca* eta *Orcerioca* egongo lirateke, jadanik bokalarteko herskari ahostuna galduta, baina dardarkaria kontserbatuz oraindik. Alfontso Irigoien jaunaren ustez izen honen jatorria (*H*)*or zer jagoka?* galdera izan daiteke.

Amilaramenduetan aipatzen den *Regata Orceica*-ri buruz ez dugu datu gehiagorik eta ez dakigu zehazki zein erreka izan daitekeen.

TOP.: ETXETXIKI

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Etxetxiki*

DOKUMENT.:

- 1615 *Echechipi*. I.E.A.
 1813 *Echechiqui*. Lis.t. de A.
 1818 *Echechiqui*. Est.p.i. 62H/7.
 1848 (*febrero*) “...en el termino titulado *Ondabe* (...) *confinante por oriente* (...) *con los de la caseria de Elchechiqui ó Borda de Tolero, y con el río de Leizaran...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
 1857-64 *Eche-chiqui*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Eche Chiqui*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Eche Chiqui*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Eche Chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Eche-chiqui*. F. Etxeberria, *Anuario*, 76. orr.
Etxe Txiki. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen eskuinetara dago, Txurikadi baserrira iritsi baino 200-en bat metro lehenago.

OHAR.: 1615. urteko dokumentuan jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta, espero bezala, hauetan *txiki*-ren orde zeharago den *txipi* azaltzen da. Baserri zaharra da beraz, baina egoera onean dago.

1848. urteko dokumentuan, bestalde, *Elchechiqui* azaltzen da idatzita, ziuraski hutsegite bat izango dena, baina hemen testu horretan aipatzen den beste izenagatik jaso dugu, hots, *Borda de Tolero*. Idatzita dagoen eran badirudi bigarren hori ere baserriari dagokion izena dela. Dena den, ez dugu horri buruzko beste daturik.

TOP.: KONTRARREJISTRO BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Kontrabisto* (4)
Kontrarregistro (2)

DOKUMENT.:

- 1897 *Contra-registro*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Contraregistro*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Contra Registro*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 *Contra Registro*. Amil., jabea: A.I.B.
Contra Visto. Amil., jabea: J.E.T.

BIBLIO. *Contra-registro*. F. Etxeberria, *Anuario*, 78. orr.
Kontrarregistro. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Aita Larramendi kalearen parean dago, trenbidearen bestaldean.

OHAR.: Galdeketa atalean ikus daitekeenez, jadanik 1945. urteko amilaramenduetan aipatzen den *Contra Visto* da egun gehien erabiltzen

dena. Baserria joan zen mendearen bukaeran eraiki zen eta aipagarria da sarre-rako atearen kokapena: baserriaren albo batean dago, baserrira joateko bidea gibelera utziz eta malda bati aurre eginez, ez ohizkoa den eta espero ez zitekeen tokian.

TOP.: JOANLEITZANEA BERRI / KOKOTXENEA

- AHOZKO ERAB.: 6/4 *Kokotxenea* (4)
Kokotx (2)
 6/3 *Amantegi* (2)
Amanteginea
 6/2 *Juan de Leizanea Berri*

DOKUMENT.:

- 1615 *Joandeleizaurrena*. I.E.A.
 1813 *Juandelizanea, Juandalizaurrena*. Lis.t. de A.
 1818 *Juandeleizaurrena*. Est.p.i. 62H/7.
 1897 *Juan de Leizaurrena*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Juandeleizaurrena*. Cen.p. 70H/2.
 1911-9-19/20 *Jandalizána*. Corr.c. y r. 54H/10.
 1937 *Juandaleizanea Berri*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 *Juanleizaneaberri*. Amil., jabea: M.T.A.
 1950 *Juandaleizaneaberri*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Juandaleizanea*. Cen. y p. 45/1.

- BIBLIO. *Juandeleizaurrena*. F. Etxeberria, *Anuario*, 76. orr.
Juanleizanea. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen hasieran dago, trenbidearen azpitik igaro eta 150-en bat metro aurrerago ezkerretara.

OHAR.: Egun, baserria izendatzeko goitizena, *Kokotxenea*, edo abizena, *Amanteginea*, erabiltzen den arren, bestelakoa da baserriaren jatorrizko izena. Dokumentazioaren atalean jasotako aipamenak bi baserri ezberdini dagozkiela iruditu arren, hots, *Juandeleizaurrena* eta *Juandaleizanea/Juandelizanea*, hauek urteetan zehar tartekatuta azaltzen dira eta horrek baserri bera denaren susmoa sortarazi digu. Gaur baserriko errotuluan idatzitako izenaz 1937. urteko erroldan azaltzen da lehenbizikoz. Errotuluan mende honetako zenbait dokumentutan azaltzen den errata bera dago, hots, jatorrizko *Juandeleiza*-ren ordez *Juandaleiza* idatzi baitute (ikus AGUSTIN LEITZA KALEA).

TOP.: BEKAIZTI BASERRIA

- AHOZKO ERAB.: 3/3 *Bekaxtei* (3)
Bekaiztegi

DOKUMENT.:

- 1813 *Becaizti*. Lis.t. de A.
- 1818 *Becaisti*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Becaizti*. Nomen., 82. orr.
- 1862 *Barcaiztegui ó Becaizti*. I.c.h., H-532.
- 1897 *Becaisti*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Becaizti*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Becaisti*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1970 *Becaistegui*. Cen. y p. 45/1.

- BIBLIO. *Bekaizti, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Bekaizti. F. Etxeberria, *Anuario*, 75. orr.
Bekaiztegi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Elorrietaren ifarrean dago, Donatxele baserritik gertu.

OHAR.: Informatzaileek *Beka(i)zte(g)i* esan eta jatorrizkoa *Bekaiztegi* dela iruditu arren, azken hau soilik dokumentu eta liburu berrienetan —1970, 1974— agertzen da. 1813. urteko lehen aipamenetik 1960. urteko erroldara arte, ordea, guztietan *Bekaizti* topatzen dugu. 1862-ko dokumentuan, berriz, azken horrekin batera *Barcaiztegui* ere aipatzen da.

Baserriaren egoera ona da, baina bertan ez da inor bizi, asteburueta-ko etxe gisa erabiltzen delarik.

TOP.: DONATXELE (AUNDI) BASERRIA

- AHOZKO ERAB.: 8/8 *Dontxola* (3)
Dorrontxola (2)
Dontzola
Dontxola Aundi
Doontxola

DOKUMENT.:

- 1615 *Donachele Maystrearena; Donachele Saldiasena; Donachele Urtoarena*. I.E.A.
- 1813 *Donachele; Donachele Borda*. Lis.t. de A.
- 1818 *Donachele Urtoa; Donachele Maisuarena; Donachele Borda*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Donachele de Urtóa; Donachele-maisuarena; Donachele-borda*. Nomen., 82. orr.
- 1862 *Donaleche Mayor*. I.c.h., H-532.
- 1897 *Donachele Mayor*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Donachele Aundi*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Donachele Aundi*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1950 *Dorronchale-aundi*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Donachele urtoa; Donachele maisuarena*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

Donatxele-borda, -maisuarena y -Urteaga, caseríos de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

Daronchale-aundi. F. Etxeberria, *Anuario*, 75. orr.

Dorontxola. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Elorrietan dago.

OHAR.: Galdeketa erabiltzen ikus daitekeenez baserri honen izenaren gainean erabilera ugari eta ezberdinak jaso ditugu. Bestelakoa da, ordea, dokumentazioan topatzen dugun egoera, 1615. urtetik 1950. urteko erroldara arte dokumentu guztietan baserria *Donatxele* izenarekin azaltzen baita. Izen honen etimologiari buruz esan behar da, gure ustez jatorrizkoa 1862. urteko dokumentuan aipatzen den *Donaletxe* dela, metatesi baten ondorioz *Donatxele* bihurtua. Mitxelenak aipatu lehenengo horri buruz zera dio: "...*Dornalsetche* (...), el primer elemento es *Darnal* (...) Aunque no parece estar atestiguado, nada impide que **dornari* fuera el nombre de un oficio (...) lo que, al menos en mis tiempos, se llamaba en Madrid «solador»..." (*Ap.v.*, 54-55. orr.). Informatzaile baten ustetan, berriz, *Don Lorentzo Ola* da baserri honen izenaren jatorria.

Hiru izan dira izen honetako baserriak eta hauen arteko bereizketa, dokumentu ezberdinetatik jasotako aipamenetan ikus daitekeenez, urteetan zehar aldatzen joan da. 1897. urtetik aurrera, berriz, *Aundi*, *Txiki* eta *Bordaren* bidez egiten da (ikus DONATXELE TXIKI BASERRIA, oharrak). Baserri zaharra da eta bere egoera, itxuraz behintzat, ez da oso ona.

TOP.: DONATXELEBORDA BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Dontxolaborda*
Dorrontxolaborda
Doontxolaborda

DOKUMENT.:

1615 *Donachele Saldiasena* (?). I.E.A.
 1813 *Donanchele Borda*. Lis.t. de A.
 1818 *Donachele Borda*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Donachele-borda*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Donachele Borda*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Donachele Borda*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Donachele Borda*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Dorronchale-borda*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Donatxele-borda, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Elorrietan dago.

OHAR.: Baserri izandako hau egun borda gisa erabiltzen da (ikus DONATXELE AUNDI BASERRIA, oharrak).

TOP.: DONATXELE TXIKI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Dontxola Txiki* (3)
Dorrontxola Txiki (2)

DOKUMENT.:

- 1897 *Donachele Menor*. Est.e. 48H/4.
1910 *Donachele Chiqui*. Cen.p. 70H/2.
1937 *Donachele*. Pad.m.h. 65H/1.
1950 *Dorronchale-chiqui*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Elorrietan dago.

OHAR.: Egun baserria hutsik dago, baina honen egoera, itxuraz behintzat, ez da txarra. Izen bereko hiru baserri izan dira eta urteetan zehar hauen arteko bereizketa era ezberdinetara egin da. 1615. urtetik 1897. bitarteko dokumentuetan gaur ez bezala egiten denez, ez dakigu orduko zein osagai bereizgarri dagokion gaurko honi (ikus DONATXELE AUNDI BASERRIA, dokument. eta oharrak).

TOP.: URRIZTI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Urrexti* (3)
Urruxti
Urroxti

DOKUMENT.:

- 1813 *Urrizti*. Lis.t. de A.
1818 *Urrizti*. Est.p.i. 62H/7.
1848 (*febrero*) *Urristi, Urrusti*. Bie.c. y p. 44H/5.
1857-64 *Urrizti*. Nomen., 83. orr.
1897 *Urrizti*. Est.e. 48H/4.
1897 (*septiembre*) *Urruzti*. Bie.c. y p. 44H/5.
1910 *Urrizti*. Cen.p. 70H/2.
1937 *Urresti*. Pad.m.h. 65H/1.
1945 "...*Urresti Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Carrica...*".
Amil., jabea: J.A. SS.Z.
"...*Urresti Azpi; bajo y matorral; (...) Paraje: Goiburu...*".
Amil., jabea: J.I.A.
"...*Arroyo Urresti; (...) Paraje: Goiburu...*". Amil., jabea: P.S.G.

BIBLIO. *Urizti, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Urrizti. F. Etxeberria, *Anuario*, 75. orr.
Urresti. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Zokozar eta Gaztaindegiren artean dago, Leitزارan ibaiaren aldeko maldan.

OHAR.: 1813. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta 1937. urteko errolda arte dokumentu guztietan azaltzen dena *Urrizti* da. Aipa-

tu erroldatik aurrera, ordea, *Urresti* nagusitzen da, egungo erabileran ere hala gertatzen delarik. Gaur baserria granja bihurtu da eta bere ondoan hiru solairuko etxe berria eraiki dute.

Ziuraski, amilaramenduetan aipatzen den errekatxoa baserriaren ondotik igarotzen dena izango da, baina informatzaileek ez diote inongo izenik ematen.

TOP.: ZORROZTEGI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Zorroztei*
3/1 *Jalonena*

DOKUMENT.:

- 1813 *Zorroztegui*. Lis.t. de A.
- 1818 *Zorroztegui*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Zorroztegui*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Zorroztegui*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Zorroztegui*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Zorroztegui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Zofoztegui, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Goiburu auzoaren ifarraldera dago, Lizarkolako zubia igaro eta 300-en bat metro gorago.

OHAR.: 1813. urtean jaso dugu baserriaren lehen aipamena eta izena ordutik bere horretan mantendu den arren, informatzaileek, espero bezala, ez dute bokalarteko herskaria ahoskatzen. Hauetako batek bertakoen deitura ere aipatu du. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: TALAIA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Talai* (2)
Talai Zarra
Talai Aundi
3/1 *Félix*

DOKUMENT.:

- 1615 *Talaya*. I.E.A.
- 1813 *Talaia*. Lis.t. de A.
- 1818 *Talaya*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Talayakúa*. Nomen., 83. orr.
- 1862 *Atalaya (casa)*. I.c.h., H-532.
- 1897 *Talaya*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Talaya*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Talaya*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Talaya*. F. Etxeberri, *Anuario*, 75. orr.
Talai. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Goiburu auzoaren ifarrean dago, Lizarkolako zubia igaro eta 100-en bat metro gorago.

OHAR.: 1615. urteko dokumentuetan jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Dokumentazioaren atalean ikus daitekeenez, gaurko hitzunek ez dute azken bokala ahoskatzen, 1937. urtetik aurrera galera iturri idatzietan ere isladatzen delarik. Zaharra izan arren, baserriaren egoera ona da.

TOP.: AZPILLAGA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Aspilla* (2)
Aspilla

DOKUMENT.:

- 1771 "...castaños trasplantados por esta misma villa, en los parajes nombrados Yerola, y Aspillaga-azpia, concegiles de ella...".
Lib.c.f., 208. orr.atz.
- 1813 *Aspillaga, Aspillaga*. Lis.t. de A.
- 1857-64 *Aspillaga*. Nomen., 82. orr.
- 1897 *Aspillaga*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Aspillaga*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Aspillaga*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Azpilaga, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Elorrietaren ifar-ekialdean dago, *Aspillagako Malda* deiturikoaren ertzean.

OHAR.: Baserriaren lehen aipamena 1813. urteko dokumentuan aurkitu dugun arren, 1771. urtean *Aspillaga-azpia* izeneko lursaila aipatzen da eta, beraz, pentsatzekoa da ordurako *Aspillaga* baserria eraikia zela. Baserriaren egoera ona da eta bertan zenbait eraberritze lan egin diren arren, alboko horman dagoen idazpurua gorde da. Harri beltzean idatzita dago eta bertan *IESUS MARIA (I)OSEPH* (S)OI AZPILLAGA ME HIZO CATALINA DE AZPILLAGA irakur daiteke.

Aipatu ere, informatzaile zenbaitek toponimoa *-s*-ez esaten duten arren, beste batzuek *-s*- eta *-z*- txistukarien arteko soinua ahoskatzen dutela, baina etimologikoa den txistukaria idaztearen aldeko gara: (*h*)aitz + *-bil* + *-aga*, (*Ap.v.* 184. orr.).

TOP.: GURE LEGORPEA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/2 *Talai Txiki*
Talai Berriya
3/2 *Batista*
Batistana
3/1 *Gure Legorpea*

DOKUMENT.:

1960 *Gure Legorpea*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Gure legorpea*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Goiburu auzoaren ifarrean dago, Talaia baserriaren ondoan.

OHAR.: 1960. urteko erroldan jaso dugu etxearen lehen aipamena. Ingurukoek ez dute honen berezko izena ezagutzen, baina, jabea —*Batista* izenekoa— *Talaia* baserrian jaioa denez, etxe berria izendatzeko jaiotetxeari erreferentzia egiten dion izena erabiltzen dute.

TOP.: LIZARRA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Lizarra*

KOKAP.: Bulano baserritik gertu dago, honen mendebaldean.

OHAR.: Txalet gisako etxe berri dotorea da. Etxea azken hogei urte hauetan izan da eraikia.

TOP.: OROITZA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Oroitza*

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen ezkerretara dago, Pagoetako iturriaren gainkaldean.

OHAR.: Hiru solairuko etxe berria da. Azken hogeikadan eraikitakoa da.

TOP.: IRUALDETA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Iru Aldeta*
Irualdeta

DOKUMENT.:

1960 *Irualdeta*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Iru-aldeta*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen bazterrean dago, Itsaso baserria eta Oroitza etxera iritsi baino metro batzuk lehenago.

OHAR.: Txalet gisako etxe berri dotorea da. 1960. urteko erroldan jaso dugu lehen aipamena.

TOP.: LEKUEDER ETXEA

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen aldamenen dago, Etxetxikiren parean.

OHAR.: Etxetxikiko baserritarrak eman digu parean dagoen etxe berri honen izena. Auzo honetan bertan, 300-en bat metro gorago dago izen bereko beste etxe bat.

TOP.: SORLEKU ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Sorleku*

KOKAP.: Merdilladi eta Ostape baserrien artean dago.

OHAR.: 1970. urtearen ondoren eraikitako etxe berria da.

TOP.: OTEGINEA / GAZTAINTXULO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Gaztaintxulo* (2)
Gaztañeitxulo

3/3 *Otegienea* (2)
Casa Otegienea
Otegienea

DOKUMENT.:

1950 *Otegui-enea*. Cen. y p. 44/1.

1960 *Otegui-enea*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Otegui-enea*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Aita Larramendi kalearen parean dago, trenbidearen bestaldean.

OHAR.: 1950. urteko erroldan jaso dugu lehen aipamena. Etxe txikia da oso eta bertara joateko inguru horretan dauden baratzen arteko bideska jarraitu behar da. Etxearen jatorrizko izena, errolda zaharretan eta sarrerako atearen gainean ere azaltzen denez, *Otegienea* den arren, ezagunago da *Gaztaintxulo* izenez.

TOP.: ALDAKAITZ ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Aldakaitz*

DOKUMENT.:

1615 *Aldacayz*. I.E.A.

1813 *Aldacaiz*. Lis.t. de A.

1818 *Aldacaiz*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Aldacaitz*. Nomen., 81. orr.

1894 "...en el barrio del cuartel del sur llamado Goiburu la composición del camino de Zorroztegui a la caseta de Aldacaiz también a la parte de Ychaso por la cantera de Aldacaiz...".
Cam.v. 34H/3.

1897 *Aldacaiz*. Est.e. 48H/4.

1910 *Aldacaiz*. Cen.p. 70H/2.

1950 *Aldacaitz*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Aldakaitz, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

Aldacaiz. F. Etxeberria, *Anuario*, 76. orr.

Aldakaitz. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen hasieran dago, trenbidearen azpitik igaro eta ezkerretara dagoen lehen etxea delarik.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu lehen aipamena, baina, nahiz eta izena bere horretan gorde, garai haietako baserri zaharra gaur txalet gisako etxe bilakatu da. 1894. urteko dokumentuan izen bereko harrobia ere aipatzen da, baina ez dugu honen kokapena ezagutzen.

TOP.: SAGASTIBERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Sagastiberri*
Saastiberri

DOKUMENT.:

1960 *Sagasti-berri*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Sagasti Berri*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen hasieran dago, trenbidea azpitik igaro eta eskuinetara.

OHAR.: 1960. urteko erroldan jaso dugu lau solairuko etxe honen lehen aipamena. Izena horman ipinitako errotuluan dago idatzita.

TOP.: SAGASTIONDO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Sagasti Ondo*
Saastiondo

DOKUMENT.:

1960 *Sagasti Ondo*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Sagastiondo*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen hasieran dago, trenbidearen azpitik igaro eta eskuinetara.

OHAR.: 1960. urtean jaso dugu lau solairuko etxe honen lehen aipamena. Izena horman ipinitako errotuluan idatzita dago.

TOP.: GOIBURUPE ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Goiburupe* (2)
Goiburupe bat

DOKUMENT.:

1960 *Goiburupe*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Casa Goiburupe; Casa Goiburupe bat*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen hasieran dago, trenbidearen azpitik igaro eta eskuinetara.

OHAR.: 1960. urteko erroldan jaso dugu lau solairuko etxe honen lehen aipamena. Bere aurrean Sagastiberri eta Sagastiondo etxeak daude.

TOP.: TXULOKO(A) ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Txulokoa* (2)
Gure Txuloa

DOKUMENT.:

1945 "...*Chuloco Goicoa; pradera; (...) Paraje: Goiburu...*". Amil., jabea: R.O.S.

"...*Chuloco Balardia; (...) Paraje: Goiburu...*". Amil., jabea: R.O.S.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen ezkerretara dago, Joanleitzanea Berri baserriaren ondoan.

OHAR.: Ez dakigu etxeari aipatu izena ipintzerakoan zein erizpide jarraitu den, baina 1945. urteko amilaramenduetan Goiburu auzoan dauden izen bereko belardi eta zelaia aipatzen dira. Txalet gisako etxe berri dotorea da. Izena horman ipinitako errotuluan idatzita dago.

TOP.: GURE KABIA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Jimenez*

DOKUMENT.:

1960 *Gure Cabiya*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Gure Kabiya*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen hasieran dago, trenbidearen azpitik igaro eta ezkerretara dagoen bigarren etxea delarik.

OHAR.: Etxearen izena ez dago inon idatzita eta, agian horregatik, ingurukoek bertakoen deituraz ezagutzen dute. Jabeak etxearen izena *Gure Kabiya* dela azaldu digu eta era horretan agertzen da idatzita 1960 eta 1970. urteko erroldetan ere. Dena den, esan beharrik ez dago normalizazio prozesuan fonetismoak baztertu egin behar direla eta zuzena, kasu honetan, *Gure Kabia* litzateke. Txalet gisako etxea da.

TOP.: ERREKAONDO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Errekaondo*
Errekondo

DOKUMENT.:

1960 *Errecaondo*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Erreca-ondo*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Belabi mendiaren ekialdean dago, Olaberriaren parean.

OHAR.: 1960. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena. Izenak ondo adierazten duen bezala, etxea Leitzaran ibaiaren bazterrean dago.

TOP.: LEKUEDER ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Lekueder*

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidearen ezkerretara dago, Itsaso base-
rria eta Oroitza etxearen artean.

OHAR.: Txalet gisako etxe berria da eta izena horman ipinitako
errotuluan idatzita dago. Auzo berean 300-en bat metro beherago izen bereko
etxea dago.

TOP.: BASOGAIN ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Bekaxtei*

KOKAP.: San Esteban ermitara doan bidetik abiatuz Etxetxikira iritsi baino
100-en bat metro lehenago ezkerretara dagoen bidea hartu behar da.

OHAR.: Etxe berria izanik ingurukoek ez dute honen izena ezagu-
tzen, horren ordeztu jabearen jaiotetxearena erabiltzen dutelarik (ikus BEKAIZ-
TI BASERRIA, oharrak).

TOP.: OROIMENA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Oroipena, Villakua, Txaleta*
2/1 *Donostiko panaderuak inña*

KOKAP.: Goiburu auzoaren ifarrean dago, Lizarkolako zubia igaro eta 200-
en bat metro gorago.

OHAR.: Txalet gisako etxe berri dotorea da. Gure Legorpea etxea
eta Zorroztegi baserriaren artean dago eta hesituta dagoen lorategi eder batek
inguratzen du.

TOP.: San Estebango Bidea

AHOZKO ERAB.: 6/5 *Sanestebango Biria (2)*
Xanestebango Biria
Xanesteban Biria
Sanestebana datorren biria
6/2 *Barrioko Bidea*
Barriokoa
Auso Biria
6/1 *Kamiyua*
6/1 *Karretera*
6/1 *Goiburuko Biria*

KOKAP.: Belabi kalearen ondoan hasi —trenbidearen parean— eta Goiburu
auzoa zeharkatuz San Esteban ermitaraino iristen da.

OHAR.: Informatzaile gehienek *Sanestebango Biria* izenaz ezagutzen dute. Goiburu auzoko bide nagusia da eta kilometro bat pasatxo du luzeran. Bidea aldapa bizian dago, baina zolatuta eta egoera onean (ikus GOIBURU AUZOA, oharrak eta sarreran normalizazio linguistikoari dagokion atala).

**TOP.: PAGOETAKO ITURRIA
PAGOETAKO ERREKA**

AHOZKO ERAB.: 5/3 *Pagotako Erreka*
Paota
Paotako Erreka
5/2 *Merdilleiko Erreka*
Merdillei Aldeko Erreka
5/2 *Pagotako Itturriya* (2)

KOKAP.: Oroitza etxearen azpikaldean (ifarrean) sortzen da eta Etxeberrieta auzoaren parean Ori ibaiari elkartzen zaio.

OHAR.: Ura sortzen den tokian ur-biltegitxo bat dago —Merdilladi baserrira doan bidearen bazterrean ezkerretara— eta bertan *Pagoetako Iturria* izenaz ezagutzen dena. Gainezka egiten duen urak, berriz, *Pagoetako Erreka* osatzen du. Gehien erabiltzen den izena aipatu hori izan arren, bi baserriren izenetan oinarrituriko beste hainbat izen jaso ditugu, *Mianda Erreka* izena Etxeberrieta auzotik igarotzean esaten zitzaizolarik —egun estalita— (ikus MIRANDA ETXEA).

TOP.: LIÑAPUTZU

AHOZKO ERAB.: 4/2 *Linaputzu* (2)
Linaputzukua
4/1 *Liñoputzuba*
4/1 *Beko Itturriya*

DOKUMENT.:

- 1945 “...*Liñacutsuba; bajo y matorral; (...)* Paraje: *Goiburu...*”. Amil., jabea: J.M.G.
“...*Liña Putzuba; bajo y matorral; (...)* Paraje: *Goiburu...*”. Amil., jabea: F.C.O.
“...*Liño Putzuta; pradera; (...)* Paraje: *Goiburu...*”. Amil., jabea: J.A. G.I.

KOKAP.: Txertueta baserriaren ondoan sortzen da, 500-en bat metro beheerago Ubillusko errekarri elkartzeko.

OHAR.: Grabaketaren kalitatea behar bezain ona ez eta zaila gertatzen da zenbaitetan informatzaileek *Linaputzu* edo *Liñaputzu* esaten duten jakitea. Amilaramenduetan, ordea, aipamen guztiak -ñ- sabaikariaz idatzita azaltzen dira.

Errekatxo honen ura bada edatekoa eta sorreran, sagarrondo inguratuta, ur-biltegitxo bat dauka. Txertueta baserriaren ondoan jaio eta bertakoek *Beko Itturriya* ere esaten diote. 1945. urteko amilaramenduetan agerienez, inguru honetako lursail zenbaitek errekatxoaren izen bera du.

**TOP.: KATALANSORO ERREKA
KATALANSORO BIDEA**

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Katanosoro* (2)
Katanoso, Katalansoro
Katanixeko Erreka
4/1 *Katanoso Biria*

DOKUMENT.:

- 1773 *parttido de Catalan Soro*. Lib.c.f., 81-82 orr.
1778 "...en el paraje llamado Catalansoro concejil de esta villa...". Lib.c.f., 154. orr.atz.
1889 "...Amojonamiento de los términos municipales de Villabona y de la de Andoain (...) Mojón nº 1. En la misma regata de Catal(i)nsoro se ha encontrado un mojón cuadrado...". Des. y a. 71H/4.
1912 (febrero) "...El fuego segun indicios debió (principiar) en 'Catalan Soro'...". Corr.c. y r. 54H/10.
1945 "...Catalan Soro; bajo y matorral; (...) Paraje: Goiburu...". Amil., jabea: J.I.A.

KOKAP.: Billabonako lurretan jaio, baina berehala Andoaingo lurretara inguratzeko da, eta Leitzarari ibaiari elkartzen zaion arte aipatu bi herrien arteko muga da.

OHAR.: Galdeketa jasotako erantzunetan ikus daitekeenez, jatorrizko *Katalansoro* izenak aldaketa handiak jasan ditu, gaur, beste batzuren artean, *Katanoso* esaten delarik. Errekaren izena izateaz gain informatzaile batek errekararen ondoko maldatik doan bidearena ere badela azaldu digu. Bide honek Urrizti baserriaren ondoan hasi eta Belabi mendia inguratuz Billabonako lurretan jarraitzen du.

TOP.: GAZTAINDEGI

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Gaztendei*

KOKAP.: Belabi mendiaren ifar-ekialdeko maldan dago, Leitzarari ibaiaren aldekoan, alegia.

OHAR.: Dokumentu ugaritan topatu ditugu gaztainondoari loturiko lursailak: *Gaztaindaga* (Amil., jabea: M.L.E.), *Gaztañadi chiquia* (Amil., jabea: F.C.O.), *Gaztañadi Chocoa* (Amil., jabea: S. eta M. E.E.), *Gaztañaga* (Amil., jabea: M.P.E.), *Gastanadi Barrena* (Cam.v., 34H/3), *Gaztañadizuloa* (Lib.c.f., 122. orr.),...e.a., baina, ziuraski, horietan ere egun gaztainondo gutxi

edo batere ez da geratuko. Garai batean Belabi mendiaren alde honetako malda guztia gaztainondo zegoen. Gaur, ordea, *Gaztaindegi* deituriko leku honetan dauden gutxiak indiar gaztainondoak dira (*Aesculus hippocastanum*).

Hiru informatzaileek emandako erantzunetan oinarritu gara jatorrizko izena birreraitzeko.

TOP.: **UBILLUSKO ERREKA**
 † **UBILLUTS BASERRIA**

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Ubilluts, Ubillusko Erreka*
Ubilluts, Ubillusko Erreka
Ubilluts Erreka, Ubillos Erreka

DOKUMENT.:

- 1615 *Ubillos*. I.E.A.
- 1813 *Ubillos*. Lis.t. de A.
- 1818 *Ubillos*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Ubillós*. Nomen., 83. orr.
- 1862 *Sutegui de Ubillos*. I.c.h., H-532.
- 1881 *regata de Villabona*. Inv.b. 44H/7.
- 1889 "...*hacia el poniente y continua la linea en los montes de aprovechamiento comun de Villabona y de los particulares de Andoain hasta la regata llamada Ubillosco-erreca...*". Des. y a. 71H/4.
- 1897 *Ubillos*. Est.e. 48H/4.
- 1945 "...*Ubillos Echealdea; cereal-pradera...*". Amil., jabea: A.I.B.
- "...*Ubillos-en Chara; pradera con maizal, bajo y matorral...*". Amil., jabea: A.I.B.

BIBLIO. *Ubillots*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Ubillotz, en Andoain. J.C. Guerra, *Heráldica*, 180. orr.
Ubillos, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

KARTOG.: *Regata Goroldi* (M.A.)

KOKAP.: Andoain eta Billabonaren arteko mugariaren pean sortzen da eta aipatu bi herrien arteko muga da errepide nazionalaren inguruan Oria ibaiari elkartzen zaion arte.

OHAR.: Mitxelenak *Ap.v.* liburuan izen honen lehen osagaia *ur-bil* «vórtice» dela (155. orr.) eta bigarrenari buruz zera dio: "...(*h*)otz «frío» (...). En cuanto a los apellidos en -os, *Ubillos* aparece más de una vez escrito *Ubillus* en Zumaya, 1610..." (145. orr.). Lan honetarako erabilitako dokumentu guztietan *Ubillos* azaltzen da idatzita eta erabiltzen den *Ubilluts* neurri handiagoan legokioke Mitxelenak aipatzen duen Zumaiako dokumentuari. Liburuetan, berriz, *Ubillots*, *Ubillotz* eta *Ubillos* ere agertzen da. Zalantza hauek direla medio, eta datu erabakiorren zai, informatzaileek erabiltzen duten horretan oinarritu gara.

1615. urteko dokumentuan jaso dugu egun desagertutako *Ubilluts* baserriaren lehen aipamena. Baserriaren aztarna bere ondotik igarotzen zen erreka eta egun baserriaren kokagunean dagoen auzunearen izenean geratu da.

Zenbait informatzailek izen ezberdinak erabiltzen ditu erreka honentzat, sorreran *Muarriko Erreka* —mugarri baten pean sortzen da—, *Goaldeiko Erreka Goroldegi* izeneko tokiaren ondotik igarotzean eta *Ubillusko Erreka* azken zatian. Aipatu bigarren izen horri buruz, esan behar da, M.A. mapan erreka osoa azaltzen dela berorrek. 1881. urteko dokumentuan, berriaz, *regata de Villabona* izeneko bat aipatzen da eta, *Ubillusko Erreka*-k Billabonarekin muga egiten duenez, baliteke erreka bera izatea.

TOP.: GOROLDEGI

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Goaldei* (2)
Goaldei

DOKUMENT.:

1762 “...en el parttido llamado Goroldidi (Varrío de Leyzoz)...”.
Lib.c.f., 192. orr.atz.

1764 “...en el partido de Goroldidi, Barrio de Zumea...”. Lib.c.f., 156.
orr.

1768 “...tiene huecos de buen terreno (...) Goroldi para veinte y seis mil...”. Lib.c.f., 3. orr.

1862 *Goroldiegui* (terreno en el término de). I.c.h., H-532.

1892 *argomal llamado Goroldegui*. L.p.e. 44H/10.

1919 “...Cantidades percibidas después de repartidas las (suertes) (...) Fernando Arruti 5 Goroldegui...”. Corr.c. y r. 54H/10.

1945 “...*Goaldegui; pradera, bajo y matorral; (...)Paraje: Goiburu...*”. Amil., jabea: J.I.A.

“...*Godondegui; alto de frondosas; (...) Paraje: Goiburu...*”.
Amil., jabea: J.A.C.

“...*Gogoldi; bajo y matorral...*”. Amil., jabea: A.I.B.

KOKAP.: Goiburu auzoaren hegoaldera dago, Belabi mendiaren mendebaldeko maldan.

OHAR.: XVIII. mendeko dokumentuan *Goroldidi* azaltzen den arren, beste dokumentuetan jasotako aipamenak eta gaurko erabilera kontutan izanik jatorrizko izena **Gorold(io)egi* izan daitekeela iruditzen zaigu.

Liñaputzu eta Ubillusko errekaaren arteko hegiari esaten zaio *Goroldegi* (ikus UBILLUSKO ERREKA, oharrak). Izenak adierazten digun bezala, toki honetako lurra goroldio eta belar finez estalita dago, ibiltzerakoan goroldioaren goxotasuna nabarmena delarik.

TOP.: BELABI MENDIA
ONDDABE

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Belabi*

DOKUMENT.:

- 1736 “...lo que miraba hacia el oriente y mano izquierda ser la montaña de Bustaneta y del otro lado del río a la derecha montes llamados Ustondo y de la de Velabegui propios y concejiles...”. Urr.d., C. 2625-1.
- 1761 “...junto a la ferrería de Olaverria propia de esta dha villa, y parte en el de Oindave jurisdiccion concexil de ella...”. Lib.c.f., 132. orr.
- 1768 Oindabea. Lib.c.f., 3. orr.
- 1862 *Belabegui* (tierra en el término de); *Belalgui-azpia* (terreno en el término de). I.c.h., H-532.
- 1892 *Camino público de Belabide*. L.p.e. 44H/10.
- 1894-1-12 “...monte llamado *Belabi* hacia la parte de Amasa la falda o vertiente llamada *Onyave*...”. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1897 (septiembre) “...*Ondave* se halla situado en la falda que mira al oriente en el monte *Belabi*...”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1897 “...7.-*Ondave* (...) El precedente trozo en la declaracion pericial esta señalado con el nombre *Belabi* (...) cuyos confines son oriente y mediodia con el río *Leizaran*...”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1897 *Belabieta u Ondave*. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1926 *repoblados de Belebi-chiqui*. Corr.c. y r. 54H/10.
- 1945 “...*Ondave*; bajo y matorral; (...) *Paraje*: *Goiburu*...”. Amil., jabea: J.M^a O.G.
“...*Belabi-ondave*; pradera; (...) *Paraje*: *Goiburu*...”. Amil., jabea: A.J.L.
Regata Ondave, *Leizos*. Amil., jabea: J.C.A.
“...*Loseta*; bajo y matorral; (...) *Paraje*: *Goiburu*...”. Amil., jabea: A.Z.G.

BIBLIO. “...Los montes principales del término municipal son *Buruntza*, *Belkoain*, *Belabi* y *Ondo*...”. R. Arregui, *Andoain*, 11. orr.

KOKAP.: Auzoaren hego-ekialdean dago, Leizaran ibaiak ekialdetik ingurazten duelarik.

OHAR.: Dokumentu ezberdinetan jasotako aipamenak kronologikoki azalduta, mendi honen jatorrizko izena *Velabegui* (1736) litzateke, baina, era berean, 1892. urteko dokumentuan aipatzen den *Belabide* ere izan daiteke —“...-*bi* suf. que aparece en *ubi* «vado» (...) La equivalencia -*bi* = *bide* acaso pueda apoyarse en coincidencias como *Errobidartia* (...) *Errobi*...” (Mitxelena *Ap.v.*, 74. orr.)—. Dena den, gaur erabiltzen den izena sinkopatuta dagoela iruditu arren, honen jatorriaz ez gaude ziur eta toponimoa oraingoz bere horretan uztea erabaki dugu.

Mendiak punturik garaienean 260 metro ditu eta Leizotz auzotik begiratuta malda oso bizia daukan arren, Goiburu aldekoa nahiko leuna da. Mendi honetan pinudiak dira nagusi, gehienbat Leitzaran ibaiaren aldeko maldetan.

Informatzaile batek mendi honen gainetako bat amilaramenduetan ere aipatzen den *Loseta* izenaz ezagutzen du, baina galdeturiko beste informatzaileek ez dute horren berri eta, beraz, ez dirudi oso ezaguna denik. Dokumentazioan, bestalde, mendi honen ekialdean dagoen *Onddabe* izeneko lursaila aipatzen da (ikus ONDDO MENDIA). Azken toponimo hau ezezaguna da gaur, baina dokumentazioan ematen diren datu ugarietarako esker kokatu ahal izan dugu eta bide batez berreskuratu.

TOP.: ARTOLAREN PINUDIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Artolan piñudiya*

KOKAP.: Goiburu auzoaren ifar-mendebaldean dago, Iturritxulo eta Gaztañadiko errekaen arteko maldan.

OHAR.: Informatzaileek jabearen abizenaz ezagutzen dute pinudia.

TOP.: SAN ESTEBAN ERMITA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *San Estebango Ermita* (2)
San Estebango Eliza (2)
San Esteban

DOKUMENT.:

1615 *Serorechea San Esteban*. I.E.A.

BIBLIO. “...*La ermita de San Esteban protomártir se halla en el alto llamado Goiburu, en la parte sur del pueblo. Vulgarmente se le llama San Ixtoan (...)* En la espadaña de la ermita hay una campana, de la que me comentaron lo siguiente: Orko kanpana Aiendi-ko indianoak Habanatik ekaria omen da. Amairu aroa pixatzen omen zun uztaririk gabe. Geroztik berituba da bai, orain zazpi urte...”. F. Etxeberria, *Anuario*, 73., 76. orr.

“...*Posee dos altares, además del dedicado al Santo: el de Santa Leocadia (Santa Lokari) y el de Santa Lucía (Santa Lutzi).* (...) El coro es de estilo laburdino, es decir, sus altares avanzan hacia el ábside. Hay romería el 3 de Agosto. Se celebra misa diaconada con panegírico del Santo...”. D. Irigoyen, *Anuario*, 29. orr.

“...*Andoain (...)* Ermitas: (...) *San Esteban de Goiburu (1548)*...”. L. Murugarren, *Relación*, 62. orr.

“...*hermita Hermosa rededicada desde el año 1881 (...)* propuse el derribo de dicha hermita y levantar de nuevo; y á cuya proposición se aderieron todos los comisionados y tambien les ofrecí en aquel acto que traeria una Campana que poseiamos la sociedad Soroa y sobrinos en la isla de Cuba (...) teníamos dicha campana para llamar á los trabajadores (...) Y tenia una inscripcion en letras goticas.nuestra Señora la merced, de 1285 (...)

se arrajó y entonces se vio el ayuntamiento obligado mandar refundir (...) no rompió dió sospechar que no era metal que ellos acostumbraban fundir de bronce, que es lo que se sabe de dichas noticias y mas el periodico de Vitoria ó sea arabés publicó la dicha campana resultó ser de oro y plata...". J. Larrea, Campana, 348. orr.

KOKAP.: Goiburu auzoaren erdigunean dago, Belabi mendiaren ifar-mendebaldeko maldan.

OHAR.: Ermita honek ez du dorrerik eta txuriz margotuta dagoenez, baserriaren itxura hartzen zaio. Hala ere, teilatuko gurutzetxoak, ezkila eta leiho urritasuna nahiko adierazgarriak gertatzen dira. L. Murugarrenek 1548. urtean eraikia dela dio. Ermita honek izandako kanpaiari buruz esan behar da gaurkoa ez dela J. Larreak eta F. Etxeberriak aipatzen duten hori eta, J. Larreak bere artikuluan azaltzen duenez, ez dakigu kanpaia baliotsu harek zer fin jo zuen. 1615. urteko dokumentuan ermita honen ondoan izandako seroretxea aipatzen da, baina geroztik ez dugu horren aipamenik beste inon aurkitu.

TOP.: UZTONDO
UZTONDOKO HARKAITZA
UZTONDOKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Uztondo*
3/2 *Uztondoko Iturriya*

DOKUMENT.:

- 1736 "...del otro lado del río a la derecha montes llamados Ustondo...". Urr.d., C. 2625-1.
- 1767 "...Roble trasplantados, por Juan de Echaue para brauos, en los partidos de Uztondo...". Lib.c.f., 140.orr. atz.
- 1770 "...en el paraxe nombrado Uztondo, Barrio de Zumea...". Lib.c.f., 144. orr.atz.
- 1912 "...autorizacion necesaria para el arranque y explotacion hasta su agotamiento del sulfato de barita que se encuentra en terreno comunal sito en el paraje conocido por monte Busto-ondo, lindante con terrenos conocidos por Chulo Borda, Catalansoro y rio Leizaran...". Sol.c.c. 71H/10.
- 1945 "...Ustondo; pradera; (...) Paraje: Goiburu...". Amil., jabea: J.E.T.

KOKAP.: Belabi mendiaren ifar-ekialdeko maldan dago, Unanibiko zubiaren parean.

OHAR.: Belabi mendiaren maldan, Unanibiko zubiaren gainaldean, dagoen zokoari esaten zaio *Uztondo* eta izen bera ematen zaie ondoko harkaitza eta bertatik jaisten den iturriari.

1912. urteko dokumentuan, *Busto-ondo* izeneko tokia aipatzen da, baina, kokapenari buruz ematen diren datuengatik, toki bera delakoan gaude.

Uztondoko Harkaitza oso handia da, Katalansoro bidearen parean hasi eta Leizaran ibairaino iristen da.

TOP.: ZOKOZARAHOZKO ERAB.: 2/2 *Zokozar*

KOKAP.: Belabi mendia eta Elorrietaren artean dago, Elizondo baserriaren ekialdera.

OHAR.: Arro edo *zoko* hau Leitzaran ibaiaren aldeko maldan dago. Bertatik izenik gabeko errekatxoa jaisten da, baina informatzaileek behartu ezkeru *Zokozarko Erreka* izena aipatzen dute. *Zokozar*-en zuhaitz autoktonoak daude.**TOP.: AZPILLAGAKO MALDA**AHOZKO ERAB.: 3/3 *Aspilla Malkarra*
Aspillako Malda
Aspilla Malda

DOKUMENT.:

1894 "...*Donachele mayor y careciendo de piedra para ello y hallandose la cantera denominada Azpillagaco-malda, propiedad del Ayuntamiento a corta distancia de la indicada casa...*".
Sol.c.c. 71H/10.

KOKAP.: Elorrietaren ifar-ekialdeko malda da, Azpillaga baserriaren aldera dagoena, alegia.

OHAR.: 1894. urteko dokumentuan malda honetan Udalaren harrobia zegoela aipatzen da, baina bertara joan garenean ez dugu horren aztarnarik ikusi. Leitzaran ibaiaren aldera dago eta oso malda bizia da. Orain dela urte batzuk pinuak zeuden; gaur, berriz, garbi-garbia dago (ikus AZPILLAGA BASERRIA, oharrak).

TOP.: TXERTUETAKO BORDAAHOZKO ERAB.: 2/2 *Txertutako Borda*
Txertotako Borda (I.A.)

KOKAP.: Belabi mendiaren hego-ekialdera dago, Katalansoro bidearen azpikaldean.

OHAR.: Borda oso txukun eta egoera bikainean dago. Trentxikiko bidetik ikus daiteke —Bistaeder baserria igarota—, Belabi mendiaren hego-ekialdeko maldan dagoen belazean baitago (ikus TXERTUETA BASERRIA, dokument.)

TOP.: ELORRIETAAHOZKO ERAB.: 4/3 *Elorrita*
4/2 *Txoloporka*
Txolokorpu

DOKUMENT.:

1736 "...de la otra parte de dho río Leizaran a la derecha mirando hacia el poniente con montes y términos de la dha villa de Andoain llamados Unanibia y Choloporco...". Urr.d., C. 2625-1.

1862 *Choloporco (tierra en el partido de)*. I.c.h., H-532.

KOKAP.: Donatxele baserrien ondoan dago, Leitzaran ibaiaren gainkaldean.

OHAR.: 171 metrotako altueran dagoen belaze zabal bat da. Garai batean bertan elorri ugari izanagatik gaur ere *Elorrieta* deitzen zaio, baina izen honetaz gain informatzaileek beste izen bitxi bat ere aipatu digute. Donatxele baserrikoak esan digunez, *Txoloporka* toki honetan zegoen karobiaren izena da, baserritarrek bertara botatako zaborrekin estali omen zena. Izen honen berri eman diguten bi informatzaileek toponimoa era ezberdinetara esan dute, baina XVII eta XVIII. mendeko bi dokumentutan *Choloporco* azaltzen da idatzita. Datu honek, gainera, aipatu hori tokiaren jatorrizko izena dela frogatzen digu, ez baitugu *Elorrieta*-ren aipamenik aurkitu. Hala ere, izenaren bitxitasuna eta izen erabilia ez izateak beste izena normalizatzeraz bultzatu gaitu.

TOP.: TXURDOBORDA BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Txuloborda*

DOKUMENT.:

1857-64 *Churdo-borda, casa de labor*. Nomen., 82. orr.

1881 *la caseria de Churdo-borda*. Inv.b. 44H/7.

1894 "...en el barrio del cuartel del sur llamado Goiburu (...) tienen obligacion de azer camino desde Aldacaiz asta Churdo-borda...". Cam.v. 34H/3.

1897 *Churdo-borda*. Est.e. 48H/4.

1910 *Churdo-borda*. Cen.p. 70H/2.

1912 "...terrenos conocidos por Chulo Borda, Catalansoro y río Leizaran...". Sol.c.c. 71H/10.

BIBLIO. *Txurdoborda, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Belabi mendiaren ifar-ekialdeko maldan dago, Katalansoro bidearen aldamenean.

OHAR.: Egun izena ezagutzen dutenek *Txuloborda* esaten duten arren, dokumentu ezberdinetan jasotako aipamen guztietan, 1912. urtekoan salbu, baserria *Churdo-borda* izenaz azaltzen da eta iturri idatzietan aurkitutako batasun honek azken hau normalizatzeraz bultzatu gaitu. Horren jatorria *txurdo* ('zurdo') izengoitia izan liteke. Baserria ez da jadanik 1937. urteko erroldan azaltzen eta, beraz, ordurako erorita zegoela pentsatzen dugu —Donatxele baserrikoak orain dela 60-en bat urte erori zela esan digu—. Hala ere, inguruko gehienek honen izena oraindik gogoan dute. Egun, aurrien ingurua pinuz josita dago.

BURUNTZA AUZOA: TOPONIMOAK

Herriaren ifarraldera dago eta 4,5 kilometro inguru izanik, hirugarren auzoa da luze-zabalerari dagokionez. Bere muga hegoalde eta hego-ekialdetik Urnietara doan errepideak, mendebaldetik eta ifar-mendebaldetik Ori ibaiak eta ekialdetik eta ifar-ekialdetik Urnietako lurrek osatzen dute. *Buruntza Auzoa* izen bereko mendiaren maldetan dago eta, beraz, berau da bertako mendi bakarra. 444 metro ditu eta gailurra ikustoki ederra da. Hego eta hego-ekialdeko maldak laborantzarako erabiltzen dira —belazeak eta soro atlantikoak—, tarteka zuhaitz multzoak ere ageri direlarik. Gailur aldera iradiak dira nagusi eta mendiaren atzea, berriz, baso hustiaketarako zonaldea da. Buruntza mendi harritsua da eta, agian horregatik, auzo honetan iturri gutxi batzuk baino ez daude. Hala ere, duela gutxi bertako landalurrari buruz eginiko ikerketan, auzo guztian lurpeko ura egonik zonalde zabal bateko ‘akuiferoen zaurgarritasuna’ azpimarratzen da.

Auzo honetan 23 baserri —zutik daudenak— eta azken urteetan eraikitako 22 etxe —txalet gisakoak— daude, gehienak hegoaldean eta hego-ekialdean jasoak, hau da, Urnietara doan errepidea eta aintzinean bertan zegoen San Martin elizaren inguruan. Eliza desagertzean, ordea, auzoaren erdigunea zena ere desagertu egin zen. Dena dela, Buruntza mendiaren gailurretik gertu, bada San Rokeri otoietarako eraikitako ermita, eta honen omenez ospatzen da abuztuaren 16-an erromeria.

AHOZKO ERAB.: 7/6 *Barrio Buruntza* (5)
Buruntza Ballara
7/2 *Avenida del Gudari*

DOKUMENT.:

1780 *Barrio de Buruntza*. Lib.c.f., 117. orr.

1848 (febrero) “...el varrio titulado *Burunza Ballea* y en el termino titulado *Burunza mendia...*”. Bie.c. y p. 44H/5.

BIBLIO. "...*La primitiva parroquia estaba en el barrio de Burunza...*". P. Gorosabel, *Diccionario*, 35. orr.

"...*16 de agosto, y son las fiestas de la barriada de Buruntza...*". L.P. Peña Santiago, *Las ermitas*, 41. orr.

OHAR.: Herrigunearen zabalkuntzak zenbait baserri gaur kaletik gertu edo kale barruan egotea ekarri du, horregatik, eta auzoa eta kalearen arteko muga non dagoen jakitea erreza ez den arren, betidanik Buruntza auzoko baserri eta etxe izan direnetako zenbait Ama Kandida edo Gudarien etorbideen atalean sartu ditugu, hau da, praktikotasunagatik kaleko toponimoen artean azaldu ditugu, baina horrek ez du adierazi nahi Buruntza auzokoak ez direnik.

TOP.: ARRANTZUKO BENTA

AHOZKO ERAB.: 4/2 *Benta*
 4/2 *Marmoleya*
 4/1 *Benta de Arrantzuz*
 4/1 *Amondarañen da etxia,*
Joxe Guardan Etxia,
Fregaderan Etxia, Arraska Etxia

DOKUMENT.:

1857-64 *Arranzuzco, casa-posada*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Arranzuzco Venta; casa-venta Arranzuzco*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Arranzuzco-venta*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Arrantzuzco Venta*. Pad.m.h. 65H/1.
 1960 *Arrantzuzco-venta*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Venta de Arrantzuzco*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Oria ibaiaren ondoan eta errepede nazionalaren aurrez-aurre dago, Buruntza mendiaren hego-mendebaldean.

OHARRAK: Ubalategi Txiki baserrian jaiotako informatzaile batek (ikus TELLERIA BASERRIA) esan digunez, egun *marmoleya* dagoen tokian *benta* bat zegoen eta ondoan bere toleara, azken honen tokian eraiki omen zelarik gaur dagoen etxea. Nomenklatorean jaso dugu bentaren lehen aipamena eta 1970. urteko erroldan —ordurako etxea eraikita zegoen— ere azaltzen da. *Arrantzuzko Benta*-ren atzean izenik ez duen bi solairuko etxetxo bat dago eta bere jabeak etxearen orubean *Arrantzuzko Benta*-ren borda zegoela azaldu digu, hala azaltzen omen delarik eskritoretan. Borda bota ondoren gaurko etxea eraiki zuten (ikus ARRANTZU AZPIKOA ETXEA)

TOP.: UBALATEGI BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 8/7 *Ubalategi Txiki*
 8/1 *Ubalategi Berri*

KOKAP.: Oria ibaia eta errepede nazionalaren ondoan dago, Buruntza mendiaren hego-mendebaldean.

OHARRAK: Informatzaile gehienek desagertutako *Ubalategi Txiki* baserriaren izena erabiltzen duten arren, jabeak honen berezko izena *Ubalategi Berri* dela esan digu (ikus TELLERIA BASERRIA). Lau solairuko etxe zuria da eta ondoan, beste batzuren artean, Arrantzuko benta eta *Ubalategi* baserria ditu.

TOP.: IKUTZA BERRI BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Ikutza Berri*

DOKUMENT.:

- 1615 *Ycuça; Ycuça de Suso*. I.E.A.
- 1813 *Ycuza capitaneanea*. Lis.t. de A.
- 1818 *Icutzaberri*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Icutza-berri*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Icuza Berri*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Icutza-berri, Sección de Bazcardo*. Cen.p. 70H/2.
- 1950 *Icutza-berri, Buruntza*. Cen. y p. 44/1.
- 1970 *Icutza-berri, Buruntza*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, zaharren egoitzaren atzean.

OHARRAK: Egun baserriaren hormak bakarrik geratzen dira zutik, baina informatzaile guztiek ezagutzen dute erdi erorita dagoen baserri honen izena. Kontutan izanik *Ikutza Txapelenea* bestea dela (ikus IKUTZA ZARRA ETXEA), pentsatzekoa da 1813. urteko dokumentuan aipatzen den *Ikutza Kapitananea* beste hau litekeela. Aurriak ikusita, baserri txikia zela pentsatzera jo dugu.

**TOP.: GARAGARTZA BASERRIA
GARAGARTZA GOIKOA BASERRIA (aurriak)**

AHOZKO ERAB.: 9/9 *Gaartza* (8)
Garagartza (4)
Gaartza Goikua, Gaartza Bekua
Beko Garagartza

DOKUMENT.:

- 1615 *Garagarça*. I.E.A.
- 1783 "...la calera de la caseria de Garagarza...". Lib.c.f., 160. orr.
- 1813 *Garagarzabecoa*. Lis.t. de A.
- 1818 *Garagarza; Garagarzagoicoa*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Garagarza; Garagarza-chiqui*. Nomen., 82. orr.
- 1889 "...camino carretil que se dirige a Garagarza Garaicoa...". Des. y a. 71H/4.
- 1897 *Garagarza Mayor; Garagarza Chiqui*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Garagarza*. Cen.p. 70H/2.
- 1913 *cantera titulada Garagarza*. Ext.c.c. 72H/6.

BIBLIO. *Garagarza*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

Garagartza y -goikoa, caserios de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Andoain eta Urnietaren arteko mugaren ondoan eta Erausoko harrobiaren pean.

OHAR.: Bi izan dira *Garagartza* izeneko baserriak. Dokumentu ezberdinetan jasotako aipamenetan ikus daitekeenez, bi baserrien arteko bereizketa era ezberdinetara egin izan da, baina, kontutan izanik egun bakarra dagoela zutik, hau *Garagartza* eta bestea *Garagartza Goikoa* izenez azaldu ditugu. Azken horren aurriak *Garagartza Goia* izeneko tokian daude, bertan dagoen belazearen albo batean. Hormen zati handi samarrek diraute oraindik zutik, baina inguruko zuhaitz eta sasiak erdi estaltzen dute. Dokumentu zenbaitetan aipatzen denez, bi baserri hauetako batek karobia eta harrobia ere eduki zituen. *Garagartza* baserriaren egoera ona da.

TOP.: LEIZETA

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdeko maldan dago, Garagartza goia baino goraxeago.

OHAR.: Buruntza mendi harkaitsua da eta bere maldetan harkaitz zulo eta leize ugari dago. Ugaritasunak, agian, hauek izenik ez izatea ekarri du, baina Garagartza baserrikoek, euren baserritik oso urrun ez dagoen hau *Leizeta* izenaz ezagutzen dute. Sasi eta laharrez estalita dagoen arren, leize honek 40-en bat metrotako sakonera omen duela esan digute.

TOP.: LARRAMENDI TXIKI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Larramendi Txiki* (5)

Goiko Larramendi (ez zegoen ziur)

DOKUMENT.:

1857-64 *Larramendi-chiqui*. Nomen., 83. orr.

1897 *Larramendi Chiqui*. Est.e. 48H/4.

1910 *Larramendi Chiqui*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Larramendi Chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Larramendi-txiki, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

Larramendi Txiki. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Larramendi baserriaren ondoan.

OHAR.: Nomenklatorrean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Baserriaren egoera, itxuraz, ez da txarra, baina bertan ez dirudi inor bizi denik.

TOP.: LARRAMENDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Larramendi* (4)
Larramendi Aundi
Beko Larramendi

DOKUMENT.:

- 1615 *Larramendi*. I.E.A.
 1813 *Larramendi*. Lis.t. de A.
 1818 *Larramendi*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Larramendi*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Larramendi*. Est.e. 48H/4.
 1900 *mina de hierro titulada Larramendi*. Ofi.j.G 41H/7.
 1910 *Larramendi Aundi*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Larramendi Aundi*. Pad.m.h. 65H/1.
 1960 *Larramendi*. Cen. y p. 28/1.
 1945 "...*Larramendi Chara; pradera con maizal, bajo y matorral; (...)*
Paraje: Leizos...". Amil., jabea: M.F.I.
 "...*Larramendico Chara; pinar; (...)* Paraje: *Buruntza...*". Amil.,
 jabea: J.G.E.
 "...*Larramendi Zalla; bajo y matorral; (...)* Paraje: *Leizos...*".
 Amil., jabea: F.I.A.
 "...*Iturralde Larramendi Azpia; pradera con manzanal, cereal,*
pradera; (...) Paraje: *Buruntza...*". Amil., jabea: F.A.U.

BIBLIO. *Larramendi* A. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Lañamendi, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Andoain eta Urnietaren arteko mugatik gertu.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena, bezaz, ondoan duen *Larramendi Txiki* baserria baino, gutxienez, 250 urte zaharagoa bada. Hala ere, baserri handi honen egoera bikaina da, goitik behera eraberrituta baitago.

TOP.: LARRAMENDIKO BORDA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Larramendiko Borda*

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Derrepente baserrira doan bidearen ezkerretara.

OHAR.: *Larramendi* baserritik gertu dago eta erabilia dela dirudi, oso txukun eta egoera onean baitago. Informatzaile ugari esan digu honen izena.

TOP.: DERREPENTE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 10/10 *Derrepente*
10/1 *Euskitzetxeberri*

DOKUMENT.:

1857-64 *Derrepente*. Nomen., 82. orr.

1897 *Derrepente*. Est.e. 48H/4.

1910 *Derrepente*. Cen.p. 70H/2.

1917 *cantera denominada de Derrepente*. Sol.c.c. 71H/10.

1937 *Derrepente*. Pad.m.h. 65H/1.

1945 "...*Derrepente Aldea; alto de frondosas, pradera, cereal, pradera con maizal, bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*".
Amil., jabea: J.M^a L.G.

"...*Derrepenteco Aurrea; bajo y matorral; Paraje: Buruntza...*".
Amil., jabea: M.A.A.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdeko maldan dago, Garagartza goia izeneko tokiaren ondoan.

OHAR.: Nomenklatorrean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta honetan nola beste dokumentuetan azaltzen den izena bat dator informatzaile guztiek, baserrikoek barne, erabiltzen dutenarekin. Hala ere, bertakoaren esanetan *euskeaz Euskitzetxeberri leno omentzun* eta baserria erre ondoren oso azkar birreraiki omen zutelako hasi omen zitzaion *Derrepente* deitzen. Dirudienez, informatzaileak berak ezagutu ez dituen gertaerak aipatu dizkigu eta harrigarria da, baserriaren jatorrizko izena berak aipatu hori bada, inongo dokumentuetan ez azaltzea. Baserriaren egoera ona da eta bertara joateko bidea Urnietan hartu behar da.

TOP.: PATXIKUREN BORDA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Patxiku Borda* (3)
Patxikun Borda (2)
Patxikuexarri Borda
Patxiku Etxeberriko Borda
5/3 *Galtzaetxeberriko Borda*
Etxeberri Galtzako Borda
Etxegaltzakua

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldeko maldan dago, gailurretik ez oso urrun.

OHAR.: Galtzada Etxeberri baserriko Patxikuren borda da antza eta informatzaile ugari eman digu honen izena. Borda orain dela gutxi erori omen da eta horregatik horma gehienak oraindik zutik daude, nahiz eta haue-tan jadanik huntza ugari izan.

TOP.: LUHARBIL ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Luarbil*
Luarbill

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Gudarien etorbidetik gertu.

OHAR.: Txalet gisako etxe berria da eta goian aipatu dugun izena etxearen horman ipinitako errotuluan idatzitako bera da. Etxe berri ugariarekin gertatzen den antzera, kasu honetan ere esan behar inguruko gehienek ez dutela honen izena ezagutzen. Horrela, izena eman digunetako bat bertakoa da. Upategi baserria eta Larramendi Berri etxearen artean dago.

TOP.: GOIARGI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Goiargi*
2/1 (izenik ezagutzen ez)

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Gudarien etorbidetik gertu.

OHAR.: Txalet gisako etxe berria da eta kasu honetan ere informazioaile bakar batek esan digu honen izena (ikus LUHARBIL ETXEA, oharrak). Agirre baserria eta Luharbil etxea bere ezker-eskubi daude.

TOP.: AGIRRE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 11/11 *Agerre* (4)
Aarre (4)
Agarre (2)
Aerre

DOKUMENT.:

- 1615 *Aguerre*. I.E.A.
- 1778 "...borda de la casa de Aguirre de esta villa...". Lib.c.f., 154. orr.atz.
- 1813 *Aguirre*. Lis.t. de A.
- 1818 *Aguirre*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Aguirre*. Nomen., 81. orr.
- 1862 *Zorroztegui ó Aguirre puesta en Aguirre*. I.c.h., H-532.
- 1897 *Aguirre*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Aguerre*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Aguerre*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1970 *Aguirre*. Cen. y p. 45/1.
- 1945 "...*Aguirre Aldea; pradera, bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: J.M^a L.G.

BIBLIO. *Aguirre*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Agirre, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, bertara joateko Larramendi Berri etxearen ondoko bidetik gora jo behar delarik.

OHAR.: Mitxelenak *Ap.v.* liburuan *ager-* eta *agir-* erro beraren bariantzat jasotzen ditu. Baserri honen kasuan kontrajarriak daude dokumentu eta liburu gehienetan aurkitutakoak gaur erabiltzen denarekin, hau da, iturri idatzietan nagusiki *Agirre* agertzen den bitartean, informatzaileek *Agerre* esaten dute. Horregatik zalantza ugari izan dugu, baina azkenean, kontutan izanik baserriaren horman ere hala dagoela idatzita, *Agirre*-ren alde egin dugu. Aipatu behar da ere, 1862. urteko dokumentuaren arabera, baserriak *Zorroztegui* izena ere baduela.

Baserriaren hormak grisak eta leihoak berdez margotuta daude, baserriari itxura bitxia emanaz. Honen egoera ona da.

TOP.: ZALBIDE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 15/15 *Salbia* (11)
Salbide (9)
Salbire (4)
Saldibide
Salbira

DOKUMENT.:

1615 *Çalbide (Salbide)*. I.E.A.
 1813 *Salbide*. Lis.t. de A.
 1818 *Salvide*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Salvide*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Salvide*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Salvide*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Salbide*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*Salvide Aldea; cereal; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: A.C.G.

BIBLIO. *Zalbide, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Zalbide. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Agirre baserriaren ondokigatik igarotzen den bidearen amaieran —150-en bat metro aurrerago—.

OHAR.: Toponimo honen osagaiak *zaldi* eta *bide* izan arren, gaur, 1813. urtetik 1945. urtera arteko dokumentu guztietan azaltzen den bezala, etimologikoa ez den txistukaria ahoskatzen da, hots, jatorrizko *Zalbide*-ren ordeztzat *Salbi(d)e*. Horregatik, nahiz eta zalantza ugari izan erabilera bestelakoa delako, etimologikoa den txistukaria berreskuratu nahi izan dugu *Zalbide*-ren alde eginaz.

Baserria sakan txiki batean kokatuta dago eta bere egoera ona da.

TOP.: GALTZADA ETXEBERRI / LAKATXE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 11/11 *Lakatxe*
 11/2 *Galtzaetxeberri*
Galtzaetxeberri Goikua

DOKUMENT.:

- 1615 *Echeberria de la calçada*. I.E.A.
 1813 *Echeverrigalzada*. List.de A.
 1818 *Echeberrigalzada*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Echeberri-galzada*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Echeverri-galzada*. Est.e. 48H/4.
 1937 *Galzada Echeverri*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Etxeberri Galtzara*. Cen. y p. 44/1.
 1970 *Galtzara Etxeberri*. Cen. y p. 45/1.
 1945 "...*Galtzada Beco Soroa; pradera; (...) Paraje: Buruntza*".
 Amil., jabea: O.S.L.
 "...*Galzaga Zarra Camio Ondoco Soroa Sasoeta; cereal, bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: M.A.U.

BIBLIO. *Etxeberri-calzada (Lakatxe)*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Igerategi baserriaren atzean.

OHAR.: Baserriaren izena bertako baserriarrak esan digunez *Galtzaetxeberri Goikua* den arren, bere amona Sorabilla auzoko *Lakatxe* baserri-tik hona etorri eta ordutik, galdeketaren emaitzetan ikus daitekeenez, baserria ezagunago da aipatu izenaz. 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta urte horretatik 1937. eroldara arteko dokumentu guztietan *Etxeberri* osagaia *Galtzada*-ren aurretik agertzen da. Gure ustez, honen arrazoia 1615. urteko *Echeberria de la calçada* izan daiteke, hau da, gaztelerazko erabileran oinarrituta egoteagatik. Euskaraz, ordea, *Galtzada(ko) Etxeberri(a)* izango litzateke —ikus ahozko erabileraren atala— eta horregatik proposatu dugu *Galtzada Etxeberri* normalizatzea. Jabeak aipaturiko *Galtzaetxeberri Goikua*-ri dagokionez ikus IGERATEGI BASERRIA. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: ZALBIDE BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Salbiako Etxe Berriya* (3)
Salbia Berri

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Zalbide baserritik gertu.

OHAR.: Informatzaileek *Zalbide* baserrikoek eraikitako etxea *Salbiako Etxe Berriya* edo *Salbia Berri* izenaz ezagutzen dute (ikus ZALBIDE BASERRIA, oharrak). Etxeak hiru solairu ditu.

TOP.: IGERATEGI BASERRIA / GALTZADA ETXEBERRI

AHOZKO ERAB.: 10/9 *Galtzaetxeberri* (5)
Etxeberri Galtza (3)
Galtzaetxeberri Bekua
Etxeberri Altza
 10/5 *Igerategi* (3)
Igerateginia (2)

DOKUMENT.:

1768 *Juan Joseph de Yguerategui*. Lib.c.f., 69. orr.
 1773 *Juan Joseph de Ygarategui*. Lib.c.f., 81-82.orr.
 1857-64 *Iguerátegui*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Iguerategui*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Iguerategui*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Iguerategui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Igerategui, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Igarategi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Galtzada Etxeberri baserriaren pean.

OHAR.: Bertako baserritarrak esan digunez, baserriaren jatorrizko izena *Igerategi* den arren, bere berraitona *Galtzada Etxeberri* baserrikoa zelako edo, oraindik gaur azken horren izenaz ezagutzen da beste hau. Horregatik, jatorriz *Galtzada Etxeberri* den baserriaren jabeak egiten du bien arteko bereizketa, bereari *Goikua* eta honi *Bekua* esanaz. Baserria egoera onean dago.

TOP.: † TXUTXURRUTEGI BASERRIA

DOKUMENT.:

1857-64 *Chuchurrutegui*. Nomen., 82. orr.
 1862 *Chuchurrutegui ó Ventaberria*. I.c.h., H-532.
 1897 *Chuchurrutegui*. Est.e. 48H/4.
 1908-9-15/16 *Chuchurrutegui Aundi*. Corr.c. y r. 54H/10.
 1945 *Chuchurrutegui*. Amil., jabea: A.I.B.

BIBLIO. *Txutxurrutegi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Gaur *Olamia* lantegia dagoen tokian zegoen.

OHAR.: Dokumentuen bidez izan dugu baserri honen berri eta Baltzusketako baserritarrari esker jakin izan dugu zein zen desagertutako baserri honen kokapena. Nomenklatorrean jaso dugu *Txutxurrutegi* baserriaren lehen aipamena eta 1945. urtean azkena. 1862. urteko dokumentuan, berriz, baserriak izandako beste izen bat aipatzen da, bigarren hori bertan ostatua izan zenaren adierazgarri delarik. Izan ere, errege bidea *Txutxurrutegi*-ren ondotik igarotzen zen eta ez da harrizkoa horren inguruan ostatuak izatea.

TOP.: ATORRASAGASTI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Atorrasagasti*

DOKUMENT.:

- 1615 *Atorrasagasti Mayor; Atorrasagasti Chipia*: "...recogimiento del ganado y otras cosas de la casa de Atorrasagasti Mayor...". I.E.A.
- 1774 *Manuel de Atorrasagasti*. Lib.c.f., 33. orr.atz.
- 1813 *Atorrasagasti*. Lis.t. de A.
- 1818 *Atorrasagasti*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Atorrasagasti*. Nomen., 82. orr.
- 1897 *Atorrasagasti*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Atorrasagasti*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Atorrasagasti*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1945 "...*Atorrasagasti Odoa; pradera; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: R.Z.G.

BIBLIO. *Atorrasagasti*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Atorrasagasti, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Atorrasagasti. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Galtzada Etxeberri eta Arrieta etxearen artean.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta garai haietan, dokumentuan aipatzen denez, baserriak zuen bordari *Atorrasagasti Chipia* esaten zitzaion. Baserri zaharra izan arren oso egoera onean dago. Honen bereizgarrietako bat —ezkerreko eta eskuineko aldea bereiziz— bi kolore ezberdinetan margotuta egotea da.

TOP.: BION(A) ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Biona*

DOKUMENT.:

- 1970 *Biyona*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Kamio Txiki baserriaren atzeko gainean.

OHAR.: Galdeturiko informatzaile guztiek esan digute 1953. urtean eraikitako etxe honen izena. Bertara joateko Atorrasagasti baserriaren ondotik igaro behar da eta bidearen azken zatia (150-en bat metro) zolatu gabe dago. Etxe txikia da eta gain baten muturrean dago.

TOP.: ARRIETA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 9/9 *Arrita* (7)
Arrieta (2)

DOKUMENT.:

- 1615 *Arrieta*. I.E.A.
 1813 *Arrieta*. Lis.t. de A.
 1818 *Arrieta*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Arrieta*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Arrieta*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Arrieta*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Arrieta*. Pad.m.h. 65H/1.
 1950 *Arrieta*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Arrieta, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Arrieta. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen aldean.

OHAR.: Etxe hau bi aldiz birreraiki dute: gerra ondoren lehenbiziko eta orain dela bederatzti urte bigarren aldiz, eta jatorrizko baserriaren itxura galdu duen arren, ez, ordea, bere izena. Informatzaile gehienek etxeari *Arrieta*-ren ordez *Arrieta* esaten diote eta erabilera hori dokumentazioan ere isladatzen da.

Gaur hiru solairuko etxe berri dotorea da eta etxearen inguru guztia hesituta dago.

TOP.: GOROSTIDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 9/9 *Goosti* (9)
Gorostidi

DOKUMENT.:

- 1813 *Gorostidi*. Lis.t. de A.
 1818 *Gorostidi*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Gorostidi*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Gorostidi*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Gorostidi*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Gorostidi*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Gorostidi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Gorostidi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldeko maldan dago, harrobiaren ondoan.

OHAR.: Luberritzako bidearen muturrean dago. Baserriaren lehen aipamena 1813. urtean jaso dugu eta ordutik gaur arteko dokumentu guztietan izenak ez du inongo aldaketarik jasan. Baserri honen ondoan Sorotxiki etxea dago.

TOP.: SOROTXIKI ETXEA / BUENABISTA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Buenabixta* (6)
Buenabixta Berri
Buenabixtako Etxe Berriya
 8/3 *Sorotxiki* (2)
Soroluxe

DOKUMENT.:

- 1754 “...en el partido de Burunza y parage nombrado Sorachiqui...”.
 Lib.c.f., 125. orr.
 1857-64 *Soro-chiqui*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Soro-chiqui*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Soro Chiqui*. Cen.p. 70H/2.
 1913 “...de las canteras de los montes comunales de esta villa, de la
 cantera denominada de Soro Chiqui...”. Sol.c.c. 71H/10.
 1937 *Soro Chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Soro-txiki, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Sorotxiki (Buenavista). I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldeko maldan dago, harrobiaren ondoan.

OHAR.: XIX. mendeko dokumentuetan aipatzen den baserria harrobiaren zabalketaren ondorioz desagertu zen eta ondoren eraikitako etxea desagertutako Luberritza baserriaren lurretan egin zen. Gaurko etxe honen jatorrizko izena, baserri zaharrarena zena ere, *Sorotxiki* izan arren, jendeak *Buenabixta* izenaz ezagutzen du etxea. Gauza bera gertatzen omen zen desagertutako baserriarekin eta bertakoek, etsita, beraiek ere azken hau erabiltzera behartuta daudela aitortu digute. XVIII. mendeko dokumentuan baserriarena ez, baina izen bereko tokiaren aipamena azaltzen da, horretan, beste dokumentuetan ez bezala, *Sorachiqui* idatzita topatzen dugularik.

TOP.: EGUZKITZA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Euzkitza* (7)
Eguzkitza

DOKUMENT.:

- 1615 *Eguzquiça*. I.E.A.
 1813 *Eguzquiza*. Lis.t. de A.
 1818 *Eguzquiza*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Eguzquiza*. Nomen., 82. orr.
 1862 *Egusquiza ó Egusquiza Arrieta*. I.c.h., H-532.
 1897 *Eguzquiza*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Egusquiza*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Egusquiza*. Pad.m.h. 65H/1.

1945 "...*Eguzqui Soro; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*".
Amil., jabea: M^aD.A.E.

"...*Eguzquisoro Borda; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil.,
jabea: M^aD.A.E.

BIBLIO. *Eguzquiza*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

Eguzkitza, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

"...*las fuerzas carlistas apostadas por un lado en las estribaciones del
Buruntza (Elizalde, Eguzkitza, etc.)...*". R. Arregui, *Andoain*,
37. orr.

Eguzkitza. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, *Laborde* lantegiaren atzeko
gainean.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Oso
baserri handia da eta Gudarien etorbidearen aldetik begiratuta hamar leiho
ditu ezker-eskubi solairu bakoitzean —bi solairu ditu—. Baserri zahar honen
egoera ona da. 1862. urteko dokumentuan *Eguzquiza Arrieta* izena ere aipa-
tzen da.

TOP.: ELIZAGARATE AUNDI BASERRIA / JENERALANEA

AHOZKO ERAB.: 10/10 *Jeneralania* (6)

Jenealania (2)

Jenerala

Jenealana

10/6 *Elizagarate Aundi* (5)

Elizagarate

DOKUMENT.:

1615 *Eleyçagarate Mayor*. I.E.A.

1753 *Miguel de Elizagarate*. Lib.c.f., 81. orr.atz.

1813 *Elizagarate Maior*. Lis.t. de A.

1818 *Elizagarate Mayor*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Elizagárate Mayor*. Nomen., 82. orr.

1862 *Elizargarate; Arriarán (casa) agregado a Elizargarate*. I.c.h.,
H-532.

1897 *Elizagarate Mayor*. Est.e. 48H/4.

1910 *Elizagarate Mayor*. Cen.p. 70H/2.

1937 *Elizagarate Mayor*. Pad.m.h. 65H/1.

1945 "...*Elizagarateco Soro Aundia; pradera, bajo y matorral; (...) Paraje: Leizos...*". Amil., jabea: C.B.I.

1615 *Arriaran*. I.E.A.

1813 *Arriaran*. Lis.t. de A.

1818 *Arriaran*. Est.p.i. 62H/7.

BIBLIO. *Elizagarate*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Elizagarate, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Elizagarate Aundi (Jeneralanea). I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: Eraikin bakarra den arren, baserriaren alde bakoitzak bere izena du. Orain dela gutxi *Elizagarate Txiki* deiturikoan eraberritze lanetan hasi dira eta horren ondorioz erori egin da beste hau. Ez zirudien bertan inor bizi zenik, baina tamalgarria da honen sarrerako atearen erdi-puntuko arkuak betirako desagertu izana. Egun birreraikitze lanetan dihardute.

1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamen idatzia eta ordutik aurrerako dokumentu guztietan izenak aldaketarik jazo ez duen arren, jendeak jatorrizko izena baino *Jeneralania* erabiltzen du gehiago. Jatorrizkoak adierazten digun bezala, Buruntza auzoko San Martin elizaren ondoan —desagertuta— zegoen baserria.

1862. urteko dokumentuan esaten denez, 1615. urtetik 1818. urtera arteko dokumentazioan aipatzen den *Arriaran* izeneko baserria *Elizagarate*-ra bildu zen.

TOP.: ELIZAGARATE TXIKI BASERRIA / EZKURRAIN BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Exkurrañ* (4)
Ixkurrañ (4)
 8/5 *Elizagarate Txiki*

DOKUMENT.:

1615 *Eleyçagarate Menor*. I.E.A.
 1813 *Elizagarate Menor*. Lis.t. de A.
 1857-64 *Elizagárate Menor*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Elizagarate Menor*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Elizagarate Menor*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Elizagarate Menor*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Elizagarate Txiki*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 102. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: Baserriaren jatorrizko izena, 1615. urtetik aurrerako dokumentu guztietan ikus daitekeenez, *Elizagarate Txiki* izan arren, hori baino erabiliagoa da *Exkurrañ* izena. Bigarren hori garai batean bertan bizi zen familiaren deitura edo goitizenean oinarrituta omen dago. Baserriaren egoera ez zen oso ona eta egun eraberritze lanetan ari dira (ikus ELIZAGARATE AUNDI).

TOP.: LIZARRAGA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Lizarra*

DOKUMENT.:

- 1813 *Lizarraga*. Lis.t. de A.
- 1818 *Lizarraga*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Lizarraga*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Lizarraga*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Lizarraga*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Lizarraga*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Lizarraga, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: Garai bateko baserria desagertu eta bere orubean eraikitako etxea dugu oraingo hau. Hiru solairuko etxe 'berri' hau Elizalde Txiki eta Elizagarate baserrien artean dago eta baserri zaharraren izena gorde du.

TOP.: SERORATEGI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 10/10 *Xeotei* (8)
Seotei (2)
Serorategi (2)
Seroretegi

DOKUMENT.:

- 1615 *Serorechea San Martin*. I.E.A.
- 1818 *Serotegui Zarra; Serotegui Berria*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Serótegui-berri*. Nomen., 83. orr.
- 1897 *Seroretegui; Serotegui-berri*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Seroretegui*. Cen.p. 70H/2.
- 1937 *Seroretegui*. Pad.m.h. 65H/1.
- 1945 "...*Seroreteguico Baratza; huerta, cereal; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: S.E.E.

BIBLIO. *Serotegui-beñi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: Dokumentu ezberdinetan jasotako datuen arabera badirudi auzo honetan *Serorategi* izeneko bi baserri izan zirela. L. Eleizalde 1922. urtean osatutako zerrendan horietako berriena aipatzen du soilik eta honek gaurkoa berez ez ote den *Serorategi Berri* izango pentsarazi digu. 1615. urtean jaso dugu Buruntza auzoan desagertutako San Martin elizaren ondoko seroretxearen lehen aipamena, baina ordutik aurrerako dokumentu guztietan *-etxe* osagaiaren ordez *-tegi* nagusitzen da. Normalizatzeko unean baserrikoek harritzko errotuluan idatzitako *Serorategi* hartu dugu oinarritzat. Elizalde Txiki baserriaren ondoan dago eta bere egoera ona da.

TOP.: TOKIEDER ETXEAAHOZKO ERAB.: 3/3 *Tokieder*

DOKUMENT.:

1960 *Toki-eder*. Cen. y p. 28/1.1970 *Toki-eder*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: Txalet gisako etxe dotorea da eta lehen aipamena 1960. urteko erroldan aurkitu dugu. Izena etxearen horman ipinitako erroztulu batean dago idatzita eta, agian horregatik, hiru informatzaileek ezagutzen dute.

TOP.: PERIKOTEGI BASERRIAAHOZKO ERAB.: 9/9 *Perikotei* (7)
Perikottei (2)

DOKUMENT.:

1857-64 *Pericotegui*. Nomen., 83. orr.1897 *Pericotegui*. Est.e. 48H/4.1910 *Pericotegui*. Cen.p. 70H/2.1937 *Pericotegui*. Pad.m.h. 65H/1.BIBLIO. *Perikotegi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Perikotegi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Serorategi baserriaren ezkerretara dagoen bidezidorraren muturrean.

OHAR.: Nomenklatorean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta ordutik bere horretan mantendu da. Informatzaileek, espero bezala, ez dute bokalarteko herskari ahostuna ahoskatzen. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: ELIZALDE (AUNDI) BASERRIAAHOZKO ERAB.: 7/7 *Elizalde* (6)
Elizalde Aundi (2)

DOKUMENT.:

1615 *Eleyçalde*. I.E.A.1813 *Elizalde*. Lis.t. de A.1818 *Elizalde*. Est.p.i. 62H/7.1857-64 *Elizalde*. Nomen., 82. orr.1897 *Elizalde*. Est.e. 48H/4.1910 *Elizalde Zarra*. Cen.p. 70H/2.1950 *Elizalde*. Cen. y p. 44/1.1970 *Elizalde-aundi*. Cen. y p. 45/1.

BIBLIO. *Elizalde*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Elizalde, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
 “...las fuerzas carlistas apostadas por un lado en las estribaciones del
Buruntza (Elizalde, Eguzkitza, etc)...”. R. Arregui, *Andoain*,
 37. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Serorategi baserriaren ezkerretara dagoen bidearen muturrean.

OHAR.: 1615. urteko dokumentuan aurkitu dugu baserri honen lehen aipamena. Izenak adierazten digun bezala, Buruntza auzoan desagertutako San Martin elizatik gertu zegoen. Baserri zahar honek oso itxura ederra du.

**TOP.: ELIZALDE TXIKI BASERRIA
 KANPOSANTUZARRA**

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Elizalde Txiki*

DOKUMENT.:

1813 *Elizalde Chiqui*. Lis.t. de A.
 1857-64 *Elizalde-chiqui*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Elizalde Chiqui*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Elizalde-chiqui*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Elizalde-chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. “...este nombre de Kanpo Santu zarra le viene al solar de que, al escarbar el suelo de referencia, salen muy facilmente huesos y calaveras de personas, lo cual no quita absolutamente nada el hecho de que todo aquel fuese recinto de la iglesia; porque es de tener en cuenta para estos juicios el hecho de que en lo antiguo, nuestros abuelos se enterraban dentro de la iglesia...”. J.M^a. Urrutia, *Historia de.*, 5. orr.

Elizalde Txiki. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: *Elizalde Txiki* izeneko baserri zaharra erre egin zen eta gaurkoa ondoren eraikitako berria da. Baserria desagertutako San Martin elizaren ondoan zegoen, bere izenak eta ondoko orubearenak ere adierazten diguten bezala, hots, *Kanposantuzarra*. Horrela, birreraikitze lanetan aritu zirenean hezur ugari azaldu omen ziren honen inguruan. Egun orube horretan —Elizalde Txiki baserria eta Lizarraga etxearen artekoa— untxi-haztegia dago, baina ingurukoek, oraindik gaur, *Kanposantuzarra* izenaz ezagutzen dute tokia.

TOP.: BURUNTZA ETXEBERRI

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Buruntzaetxeberrri* (5)
Etxeberriburuntza (2)
Itxuburruntza
Etxeburruntza

DOKUMENT.:

- 1615 *Echeberria Burunça (Burunça)*. I.E.A.
 1813 *Echeverriburunza*. Lis.t. de A.
 1818 *Echeverriburunza*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Echeberri-burunza*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Echeverri Burunza*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Echeberri Burunza*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Echeverri Burunza*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Etxebeti-buruntza, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Buruntza Etxeberri. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago, Illurramendi eta Elizalde (Aundi) baserrien artean.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta ordutik gaur arteko dokumentu guztietan izenak ez du aldaketarik jasan. Hitzegite-rakoan, ordea, aipagarria da, adibidez, zenbait informatzailek esandako *Itxuburrunza*. Izen honen osagaien ordenari dagokionez, ikus GALTZADA ETXEBERRI, oharrak. Baserri zahar honen egoera ez da oso ona, eta tamalgarria da, eraikinak ezaugarri interesgarriak baititu. Eraikin nagusiaren ezkerretan, eta beroni horma batez itsatsita, eraikin txikiago bat dago. Azken honen aurrekaldea egurrezko bilbaduraz egina da. Bi eraikinak elkartzen dituen hormaren behelaldean, berriz, erdi-puntuko arku ederra dago. Hormaren egoera, ordea, ez da batere ona, goiko aldea jadanik erdi erorita aurkitu baitugu.

TOP.: IRURAIN BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Irurain Berri* (2)
Irurain
Iruiñ (Iturralde)

DOKUMENT.:

1970 *Irurain-berri*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: Bi solairuko etxe honen lehen aipamena 1970. urteko erroldan aurkitu dugu. Izena aurrekaldeko horman idatzita dago eta galdeturiko lau informatzaileek ezagutzen dute berau (ikus IRIGOIEN GARAIOA ETXEA, oharrak).

TOP.: IRIGOIEN GARAIOA ETXEA / IRURAIN GOIKOA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Irurain* (3)
Irurain (2)
Iruiñ (Gaztañaga)
 6/1 *Irigoyen*

DOKUMENT.:

- 1615 *Yrigoyen de Suso*. I.E.A.
 1813 *Yrigoién Garaicoa*. Lis.t. de A.
 1818 *Yrigoyen Garaicoa*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Irigóyen-garaicóá*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Irigoyen*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Irigóyen Garaicoa*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Irurain Goicoa*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Irigoyen*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

Irigoyen-garaikoa, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: *Irigoién Garaikoa* baserri zaharra gaur hiru solairuko etxe dotore bat da. Jatorrizko izena, etxeko eskrituretan ere azaltzen denez, aipatu hori izan arren, baserria 1937. urteko erroldatik aurrera *Irurain Goikoa* izenaz azaltzen da eta hori da ere informatzaileek erabiltzen dutena. Bigarren izen horretan oinarrituta ondoko etxeari *Irurain Berri* izena eman zitzaion. Errolda berean, 1937. urtekoan, alegia, *Irurain Azpikoa* izeneko etxea ere aipatzen da eta, orain artekoa kontutan izanik, *Irigoién Azpikoa* izan daitekeela pentsa daiteke.

TOP.: GURE ATSEGIÑA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Gure Atsegiña* (2)
Gure Atsegiña

DOKUMENT.:

- 1960 *Gure Atzeguiña*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Gure Atzeguiña*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Luberritzako bidearen bazterrean.

OHAR.: Lau solairuko etxe honen lehen aipamena 1960. urteko erroldan jaso dugu. Irigoien Garaikoa etxearen eskuinean dago.

TOP.: ILLURRAMENDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Illurramendi* (4)
Illurramendi (3)
Illorramendi

DOKUMENT.:

- 1615 *Yurramendi*. I.E.A.
 1813 *Yurramendi, Yllurramendi*. Lis.t. de A.
 1818 *Yllurramendi*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Illurramendi*. Nomen., 83. orr.

- 1897 *Yllurramendi*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Illurramendi*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Illurramendi*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*Illurramendi Aldea; cereal; (...)* Paraje: *Buruntza...*". Amil.,
 jabea: M.U.A.

BIBLIO. *Illurramendi, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Illurramendi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago. Bertara joateko Ubalategi baserrira doan bidea hartu eta iritsi baino metro batzuk lehena-go honen eskuinetara dagoen beste bidea hartu behar da.

OHAR.: Etxearen horman ipinitako errotuluan, galdeketan parte hartu duten hiru informatzaileek esan duten antzera, *Illurramendi* azaltzen den arren, dokumentu gehientsuenetan jasotako aipamenak ez datoz honekin bat. Mitxelena *Ap.v.* liburuan esaten duenez, 1615 eta 1813. urteko dokumentuetan azaltzen den *Yurramendi*-ren oinarria **i(h)aurr-* (**i(h)urr-*) izan daiteke. Jatorrian, beraz, *-au-* diptongoa izango genuke eta, diptongo horren eta *a*, *o*, edo *u* bokalen artean gerta daitekeen alternantziari dagokionez, gaurko ahozko erabileran topatutako egoera bitxia aipatu behar da, emandako erantzunetan hiru aukeren adibideak jaso baititugu: *Illurramendi*, *Illurramendi* eta *Illorramendi*. Iturri idatzietan, ordea, alternantzia beti *u*-ren alde gertatu da eta dokumentuetan topatutako batasun honek *Illurramendi* normalizatzeraz bultzatu gaitu.

TOP.: UBALATEGI (AUNDI) BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Ubalatei* (7)
 Ubalategi (1)
 8/1 *Aitzondo*

DOKUMENT.:

- 1813 *Ubalategui la Maior, Ubalategui*. Lis.t. de A.
 1818 *Ubalategui*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Ubalátegui Mayor*. Nomen., 83. orr.
 1897 *Ubalategui Mayor*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Ubalategui*. Cen.p. 70H/2.
 1911-12 *Ubalategui*. Sol.c.c. 71H/10.
 1913 *vega de Ubalategui*. Cam.v. 34H/3.
 1937 *Ubalategui*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*Ubalateguico Soro Ondo; pradera, bajo y matorral; (...)* Paraje: *Buruntza...*". Amil., jabea: J.A. eta F. A.M.

BIBLIO. *Ubalategui, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Ubalategi Aundi. I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago, harrobiaren pean eta errepide nazionalaren ondoan.

OHAR.: Bertako baserritarrak baserriak *Ubalategi* eta *Aitzondo* izenak dituela esan digun arren, dokumentazioan ez dugu bigarren horren aipamenik aurkitu. Baserria Oria ibaiaren bazterrean dago eta bere egoera oso ona da. Ondoan Arrantzuko benta eta *Ubalategi Berri* izeneko etxeak ditu.

TOP.: TELLERIA (aurriak)
† UBALATEGI TXIKI BASERRIA

DOKUMENT.:

- 1813 *Ubalategui Lamenor*. Lis.t. de A.
1818 *Ubalategui Chiqui*. Est.p.i. 62H/7.
1857-64 *Ubalátegui-chiqui, casa de labor; Telleriyá, fábrica de tejas y ladrillos*. Nomen., 83. orr.
1897 *Ubalategui Menor* "no existe"; *Tejeria*. Est.e. 48H/4.
1910 *Tejeria*. Cen.p. 70H/2.
1937 *Tejeria*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Telleria, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago, Ubalategi Berri etxearen ondoan.

OHAR.: Aurri hauen inguruan bizi direnek *Ubalategi Txiki* baserriarenak direla uste duten arren, jabeak baserriaren izena *Telleria* dela dio eta dokumentu ezberdinetan jasotako datuak ere horren alde daude. *Ubalategi Txiki* baserriaren lehen aipamena 1813. urtean jaso dugu eta 1897. urterako jadanik desagertutzat ematen da. *Telleria*, ordea, nomenklatorean aipatzen da lehenengoz eta zutik jarraitzen du 1937. urtean.

Telleria-ren teiltuaren arrastorik ez da geratzen, baina hormen zati handiek diraute oraindik zutik. Inguru honetan zegoela jakin arren, ez dugu *Ubalategi Txiki* baserriaren kokapena zehatz ezagutzerik izan (ikus UBALATEGI BERRI ETXEA).

TOP.: ARRANTZU AZPIKOA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Beko Arrantzu* (4)
Arrantzu Bekua (2)
Beko Arrantzu Txiki
Arrantzu
8/3 *Benta de Arrantzu* (3)
Arrantzuko Benta (2)
Benta

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Arranzu-azpicóa*. Nomen., 81. orr.
1897 *Arranzu Azpicoa*. Est.e. 48H/4.
1900 "...intransitable el camino vecinal comprendido en el trayecto de *Arranzu-abajo á Arranzu-erdi...*". Cam.v. 34H/3.
1910 *Arranzu Becoa*. Cen.p. 70H/2.
1950 *Arrantzu-Arratibel; Arrantzu-Rezola*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Añantzu-azpikoa, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren mendebalean dago, Oria ibaiaren bazterrean eta errepede nazionalaren aurrez-aurre.

OHAR.: Nomenklatorrean jaso dugu *Arrantzu Azpikoa* etxearen lehen aipamena. L. Eleizalde baserritzat jaso duen arren, gaur etxe bat da eta, honen itxura ikusita, eraberrituta dagoela pentsatzera jo dugu. Informatzaile zenbaitek *Beko Arrantzu* edo *Arrantzu Bekua* izenarekin batera *Arrantzuko Benta* ere aipatu du, hauen esanetan hemen 'benta' bat izan omen zelako. Dokumentu ezberdinetan jasotako datuen arabera, ordea, bi etxe ezberdin dira aipatu biak, nahiz eta litekeena den oraingo hau ere inoiz 'benta' izana.

TOP.: ARRANTZU ERDIKOA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 8/3 *Arrantzu Erdikua* (2)
Erdiko Arrantzu
 8/3 *Arrantzu Goikua* (2)
Goiko Arrantzu
 8/2 *Arrantzu*
Arrantzu Baserriya

DOKUMENT.:

1857-64 *Arranzu-erdicóa*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Arranzu Erdicoa*. Est.e. 48H/4.
 1901 "...*Intransitable el camino vecinal comprendido en el trayecto de Arranzu-abajo á Arranzu-erdi...*". Cam.v. 34H/3.
 1910 *Arranzu Erdicoa*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Arrantzu Erdicoa*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Añantzu-erdikoa, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren mendebaldeko maldako lautadaxo batean dago, bertara joateko Arrantzu Azpikoa etxearen parean —errepedearen bestaldean— dagoen bidea bukaera arte jarraitu behar delarik.

OHAR.: Egun *Arrantzu Goikoa* baserria desagertuta dagoenez, hau da kokapenaren aldetik goien dagoena, eta, horregatik, zenbait informatzailek honentzat berez desagertutakoaren izena dena erabiltzen du. Baserriaren egoera ez da txarra, bertan zenbait eraberritze lan egin baitira.

TOP.: † ARRANTZU GOIKOA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Arrantzu Goikua* (3)
Goiko Arrantzu
 5/1 *Arrantzu Txiki*

DOKUMENT.:

1857-64 *Arranzu-goicóa*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Arranzu Goikoa*. Est.e. 48H/4.

1907 *Arranzu-goiena*. Corr.c. y r. 54H/10.

1910 *Arranzu Goicoa*. Cen.p. 70H/2.

1950 *Arrantzu-goicoa*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Arantzu-goikoa, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren mendebaldeko maldan zegoen, Arrantzu Erdi-
koa izeneko baserria baino goraxeago.

OHAR.: Ez dugu baserri honen kokapen zehatza ezagutzen eta litekeena da honen aztarnaren bat geratzea. Nomenklatorrean jaso dugu lehen aipamena eta zaila da noiz arte iraun zuen jakitea, hau desagertzean honen izena beste bat izendatzeko erabiltzen hasi baitzen (ikus ARRANTZU ERDI-KOA BASERRIA, oharrak).

TOP.: KUTTUN BAITA ETXEA

KOKAP.: Arrantzu Erdikoa baserriaren ondoan dago, Buruntza mendiaren mendebaldeko maldan.

OHAR.: Txalet gisako etxe berria da eta, horrelako askori ematen zaizkion izen bitxiren aurrean ez dago jakiterik hauek idazteko zein erizpide jarrai daitekeen.

TOP.: ARRANTZUKO MALDA

DOKUMENT.

1777 *"...en el parage llamado Arranzu jurisdiccion concegil de esta villa..."*. Lib.c.f., 113. orr.atz.

1783 *partido de Arranzu*. Lib.c.f., 167. orr.

1895 *"...en la falda del monte Buruntza y punto denominado Arrantzuko-malda existen dos caleros en terreno publico de la villa..."*. Sol.c.c. 71H/10.

1908 *"...canteras llamadas de Arranzu propiedad de esta villa..."*. Sol.c.c. 71H/10.

1913 *"...el desmonte por el lado de Arrantzu..."*. Cam.v. 34H/3.

1917 *"...cantera denominada Arrantzuko Buelta tres mil metros cúbicos de piedra y arena que necesita..."*. Sol.c.c. 71H/10.

KOKAP.: Buruntza mendiaren mendebaldeko malda da, Oria ibaia eta errepi-
de nazionalaren aldera dagoena, alegia.

OHAR.: XVIII. mendeko dokumentuetan *Arrantzu* Buruntza mendiko toki izentzat azaltzen da eta, malda honetan izen bereko lau oikonimo izan diren arren, hauena gerokoa da, hots, baserrien izenak maldarenean oinarrituta daude eta ez alderantziz, maldaren izena XVIII. mendeko dokumentuetan azaltzen delarik baserriak ez baitira 1857. urteraino agertzen. Malda bizia eta harkaitsua da eta mende hasierarako jadanik harrobia zegoen bertan.

TOP.: EGUARAS AUNDI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 11/11 *Eguats Aundi* (4)
 Eguas (3)
 Eguats (2)
 Eguas Aundi (2)
 Egues (2)
 11/3 *Txoriyanía* (3)

DOKUMENT.:

1615 *Eguaras*. I.E.A.
 1766 *casa de Eguaras*. Lib.c.f., 66. orr.
 1813 *Eguaras maior*. Lis.t. de A.
 1818 *Eguas Aundi*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Eguarás Mayor*. Nomen., 82. orr.
 1897 *Eguas Mayor*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Egües Aundi*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Egüesaundi*. Pad.m.h. 65H/1.
 1945 "...*Eguas Aldeco Soroa; cereal; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil.,
 jabea: M.A.A.

BIBLIO. *Eguarats*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.
Eguaraz, caserío de Andoain. L. Eleizalde, *Lista*.
Egues Aundi. I. Linazasoro, *Baserriak*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Galtzada Etxeberri eta Zalbide baserriaren arteko gainean.

OHAR.: Mitxelenak izen honen bigarren osagaia *-ara(t)s* dela aipatzen du (*Ap.v.*, 51. orr.). Informatzaile gehienek *-ts* txistukari afrikatua zein *-s* txistukari frikaria erabiltzen dute, baina azpimarragarria da afrikatua gehienbat hurrengo hitza bokalez hasten denean esaten dela, hau da, *Eguats* eta *Eguats Aundi* baina *Eguas Txiki*. Hala ere, nahiz eta zenbaitek hitzegiterakoan hauek era ezberdinetara ahoskatu, bi kasuetarako era bakar bat proposatzea iruditu zaigu zuzenena, *Eguaras* ipintzea erabaki dugularik. 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Bere ondoan *Eguaras Txiki* baserria eta *Eguaras Berri* etxea daude eta bere egoera ona da.

TOP.: EGUARAS TXIKI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 11/11 *Eguas Txiki* (8)
 Egues Txiki (2)
 Eguatxiki (1)

DOKUMENT.:

1813 *Eguaras Menor*. Lis.t. de A.
 1818 *Eguas Chiqui*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Eguarás Menor*. Nomen., 82. orr.

- 1897 *Eguas Menor*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Egües Chiqui*. Cen.p. 70H/2.
 1937 *Egües-chiqui*. Pad.m.h. 65H/1.

BIBLIO. *Egues Txiki*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 60. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Eguaras Berri etxea eta Eguaras Aundi baserriaren ondoan.

OHAR.: 1813. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Bere egoera ona da (ikus EGUARAS AUNDI BASERRIA, oharrak).

TOP.: EGUARAS BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB. 3/3 *Eguas Berri* (2)
Eguesko Etxe Berriya

DOKUMENT.:

- 1960 *Egüés-berri*. Cen. y p. 28/1.
 1970 *Egüés-berri*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Eguaras Aundi eta Eguaras Txiki baserrien artean.

OHAR.: 1960. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena (ikus EGUARAS AUNDI BASERRIA, oharrak).

TOP.: BURUNTZA MENDIA

AHOZKO ERAB.: 18/18 *Buruntza* (16)
Buruntza Mendiya (2)
 18/4 *Buruntza Aurria*
 18/4 *Buruntza Atzia*

DOKUMENT.:

- 1751 *termino llamado Buruzpe*. Lib.c.f., 80. orr.atz.
 1780 "...en el partido de Legarazu Barrio de Burunza...". Lib.c.f., 117. orr.
 1794 "...en el partido de Buruzpe, y parage nombrado Benedicu...". Lib.c.f., 161-62. orr.atz.
 1910-10-28 *Burunzamendi*. Corr.c. y r. 54H/10.
 1916 "...Montes comunales exceptuados de la desamortización (...) Burunza (...) al oeste con el camino Real Nuevo...". Inv.p.d. 13H/9.
 1945 "...Buruntza Aldea; pradera con maizal; (...) Paraje: Buruntza...". Amil., jabea: I.Z.A.
 "...Burunza Gaña; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...". Amil., jabea: A.C.G.

“...*Buruntza Mendi; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*”.
Amil., jabea: M.L.E.

“...*Buruntzaco Ataria; bajo y matorral, pradera; (...) Paraje: Buruntza...*”. Amil., jabea: V.L.L.

“...*Buruntzapea; bajo u matorral: (...) Paraje: Buruntza...*”.
Amil., jabea: R.M.G.

“...*Burunzabe; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*”. Amil.,
jabea: J.B.E.O.

“...*Buruzpe; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*”. Amil.,
jabea: M.B.S.

“...*Buruntzaspe; bajo y matorral; (...) Paraje: Buruntza...*”.
Amil., jabea: M.S.O.

BIBLIO. “...*contra las incursiones que podrían venir de aquel Reino a través de Hernani y Urnieta (por la calzada Real de la ladera este de Buruntza)...*”. M. Lecuona, *Berrospe*, 7. orr.

“...*BENERIKA mendialdea, 1855 urtea (...) LEGARAZU lurtsaila, 1817 urtea...*”. L.M^a Mujika, *ETM VI*, 291 eta 317. orr.

KOKAP.: Mendi honen maldetan aurkitzen dira izen bereko auzoko baserri eta etxeak. Herrigunearen ifarrean dago.

OHAR.: Edozein andoaindarrek ezagutzen du mendi honen izena. Galdeteketan parte hartu duen zenbait informatzailek, gainera, mendiaren hegoaldea eta ifar-ekialdea *Buruntza Aurria* eta *Buruntza Atzia* esanez bereizten ditu. XVIII. mendeko liburuan mendi honetan dauden *Buruzpe*, *Legarazu* eta *Benedicu* izeneko tokiak aipatzen dira, baina informatzaileek ez dute hauen berririk eta ez dakigu zein den horien kokapen zehatza. Amilaramenduetan, berriz, mendiaren izenean oinarrituriko lursail ugariren izena jaso dugu. Hauetako gehienak xaradiak dira. Izan ere, Buruntza mendi harkaitsu eta lehorra da —bertan ez dago errekarik eta iturri gutxi dira—. 444 metro ditu eta ekialdetik Oria ibaiak inguratzen du.

TOP.: SAN ROKE ERMITA

AHOZKO ERAB.: 9/9 *San Roke* (9)
9/2 *San Roke Plaza*
San Rokealdia

DOKUMENT:

1898 *mina titulada San Roque*. Ofi.j.g. 41H/7.

1909-1-24 “...20 carros en San Roque leña...”. Corr.c. y r. 54H/10.

BIBLIO. “...*En la falda del monte Buruntza, se levantó una ermita bajo la advocación de San Roque, hará cosa de 16 años. Es de cemento armado: los vecinos de aquel barrio le tienen mucha devoción...*”. F. Etxeberría, *Anuario*, 78. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren mendebaldeko maldan dago, harrobiaren gainean.

OHAR.: Informatzaile guztiek ezagutzen dute ermita honen izena, zenbaitek honen inguruari *San Roke Plaza* edo *San Roke aldia* esaten diolarik. 1924. urteko *Anuario*-an esaten denez, 1908 urtearen inguru eraiki zen. Abuztuaren 15-ean santuaren eguna erromeriaz ospatzen da.

1898. urteko dokumentuan *San Roque* izeneko meategia aipatzen da, baina goian azaldutako datuaren arabera, meategiaren izena ermita baino zaharragoa litzateke. Ez dugu horren kokapenari buruzko daturik.

TOP.: Aterpetxea

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Refujiyua*

KOKAP.: Buruntza mendiaren mendebaldeko maldan dago, San Roke ermitaren ondoan.

OHAR.: Eraikin berria da eta guztia, barruko mahaia eta eserlekuak barne, porlanezkoak dira. Ez da toki itxia, aurrekaldean hormaren ordez zuta-beak baitaude.

TOP.: Buruntzako Gurutzea

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Buruntzako Gurutzia* (5)
Gurutzia

KOKAP.: Buruntza mendiaren gailurrean dago.

OHAR.: Andoain aldera dagoen gailurrean dago porlanez eginiko gurutze zuri handi hau.

TOP.: FUERTEKO ZABALA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Fuerteko Txabala*
Puerteko Txabala, Puerteko Xabala

KOKAP.: Buruntza mendiak gailurrean dituen bi tontortxoaren artean dago.

OHAR.: Informatzaileetarikoa batek esan digunez, garai batean Buruntza mendiko gailurrera joatean *Puerteko Xabalea noa* esaten zen. Hemen soilik bi informatzailearen erantzuna jaso dugun arren, ondoren egindako irteeretan ingurukoentzat leku eta izen ezagunak direnaz ohartu gara. Zabal honetan harria eta belarra besterik ez dago. Izenak harresi edo *fuerte* bati egiten dio erreferentzia, baina ez dugu honen zergatia ezagutzen.

TOP.: ELORDI

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Elurdi*

DOKUMENT.:

1768 "…en los partidos de (...) y Elordi concexiles de ella...". Lib.c.f., 142. orr.atz.

1777 "...plantios de roble trasplantados en el paraje llamado Elordi en dho partido de Burunza para brabos...". Lib.c.f., 152. orr.atz.

1783 "...en el partido de Legarazu, fueron trasplantados en el paraje nombrado Elordi (...) el mismo bivero de Legarazu se rancaron ademas sesenta y ocho plantios de castaños, y fueron tam.en trasplantados en el paraje arriba nombrado de Elordi...". Lib.c.f., 162. orr.atz.

KOKAP.: Buruntza mendiaren ekialdean dago, Erausoko harrobiaren atzean.

OHAR.: Informatzaile guztiek *Elurdi* esaten duten arren, XVIII. mendeko liburuan jasotako aipamen guztietan *Elordi* azaltzen da idatzita. Izenak leku honetan inoiz elorri ugari izan dela adierazten digu. XVIII. mendeko liburuan, berriz, gaztainondoak eta haritzak landatu zirela aipatzen da. Gaur, ordea, harrobia kasik bertaraino iritsia da eta *Elordi*-n oso zuhaitz gutxi izateaz gain, harrobi lanetarako erabiltzen diren tresnak eta ibilgailuak uzten dira bertan. Hemen jasotako dokumentuetan aipatzen den beste tokiari dagokionez, ikus BURUNTZA MENDIA, oharrak.

TOP.: AKELARRE

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Akelarre*

DOKUMENT.:

1905 "...mina 'Asunción' (nº3318) sita en el paraje Akelar...". Minas 41H/8.

1945 "...Aquelar; pradera; (...) Paraje: Buruntza...". Amil., jabea: M.B.E.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago, Garagartza baserriaren ondoan.

OHAR.: Garagartzako baserritarraren esanetan, garai bateko zaharrek ere *Akelarre* esaten zioten baserriaren ondoko belazeari, agian, noizbait akerrak bertan *larrian* ibiliko zirelako izango omen. Mende hasierako dokumentu batean eta amilaramenduetan jaso ditugu toponimo honen aipamen bakarrak, baina bigarren horretan aipatzen den kokapena bat dator informatzaileek emandakoarekin. Belaze honen muga mendebaldetik Larramendiko borda eta ekialdetik Garagartza baserria dira. Ez dugu 1905. urteko dokumentuan aipatzen den meategiaren aztarnarik aurkitu.

TOP.: GAZTAINXOKO

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Gaztañtxoko* (6)
Gaztañtxulo (3)

DOKUMENT.:

1751 "...robles, (...) desde el paraje de Gaztañadizuloa hasta la jurisdiccion confinante con la villa de Urmietá...". Lib.c.f., 122. orr.

1765 *parttido de Gaztñañadizuloa*. Lib.c.f., 137. orr.atz.

1905 "...del hospital a Gaztña(gui)-zulo...". Cam.v. 34H/3.

1916 "...Caminos vecinales. Trozo de Gastanadi Barrena a Lubarritza...". Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldeko maldan dago. Gorostidi baserrira doan bidetik joanda, bertara iritsi aurretik dagoen aldaparen hasieran dago *Gaztaintxoko*, bidearen eskuinetara.

OHAR.: Dokumentu ezberdinetan jasotako aipamen gehienetan *Gaztñañadizulo(a)* azaltzen den arren, gaur erabiliago da *Gaztaintxoko*. Dena den, ez dugu dokumentazioan jasotako toponimoen kokapen zehatza ezagutzen eta baliteke beste toki baten edo batzuren izenak izatea. Gaur *txoko* edo arro honetan ez dago gaztainondorik, pinuak, makalak edo akeziak (*Robinia pseudacacia*) baizik.

TOP.: † **LUBERRITZA BASERRIA**
LUBERRITZAKO BIDEA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Lubarritza* (4)
Luberritza (2)
Lugarritza (2)

DOKUMENT.:

1857-64 *Luberritza*. Nomen., 83. orr.

1897 *Lubarritza*. Est.e. 48H/4.

1908-9-15/16 *Lubarritza*. Corr.c. y r. 54H/10.

1910 *Lubarritza*. Cen.p. 70H/2.

1916 "...camino vecinal trozo de Gastanadi Barrena a Lubarritza...". Cam.v. 34H/3.

1937 *Luberritza*. Pad.m.h. 65H/1.

1945 "...Pertenecidos del caserío Luberritza; (...) Paraje: Buruntza...". Amil., jabea: J.O.M.

BIBLIO. *Luberritza, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.
Lugarritza (en ruinas). I. Linazasoro, *Baserriak*, 61. orr.

KOKAP.: Buruntza mendiaren mendebaldeko maldan zegoen, gaur harrobia dagoen tokian.

OHAR.: Harrobiaren hedapenak *Luberritza* baserrira desagertzea ekarri zuen, baina 1974. urtean oraindik honen aztarnak geratzen zirenez, informatzaile ugari gogoratzen du baserrira eta beronen izena ere. Aipagarria da Andoainen 'berri' esaten den arren, informatzaile gehienek, dokumentu zenbaitetan azaltzen den antzera, *Lubarritza* esatea.

Irigoiñen Azpikoa jauregitik gora doana da desagertutako *Luberritza* baserrira zihoan bidea —baserrira bidearen muturrean zegoen— eta honentzat izen ofizialik ez dagoenez, oso egokia litzateke desagertutako baserriaren izena bidea izendatzeko berreskuratzea. Bidea zolatuta dago.

TOP.: ARANTZALUZE BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Antzaluze* (3)
Aantzaluze (2)
Arantzaluze

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Aranzaluce*. Nomen., 81. orr.
 1945 "...*Aranza Luce Lurrac; pradera; (...)* Paraje: *Buruntza...*".
 Amil., jabea: A.B.S.
 "...*Aranzaluce; bajo y matorral; (...)* Paraje: *Buruntza...*". Amil.,
 jabea: M^aD. A.E.
 "...*Aranzalucecobarrutia; pradera; (...)* Paraje: *Buruntza...*".
 Amil., jabea: M^aD. A.E.

BIBLIO. *Arantzaluze, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldeko maldan dago, Gaztaintxokoren gainean.

OHAR.: Nomenklatorrean eta L. Eleizalderen zerrendan jaso ditugu baserri honen aipamen bakarrak. Hala ere, informatzaileen artean ezaguna da, guztiek esan baitigute honen izena. Gaur artzain batek *Arantzaluze* baserriaren aurriak borda edo estalpe gisa erabiltzen ditu —geratzen diren hormen zatiak uralitaz estaliz—. Bertara joateko Luberritzako bidetik Sorotxiki etxearen pareraino joan behar da, eta hor eskuinetara dagoen belar arteko bidezidorra hartu. Bide honetatik joanda alde honetan dagoen lubeta ezker-eskubi zeharkatu behar da, berehala aurkituko ditugularik aipatu aurriak. Esan beharrik ez dago bidea ez dela batere ona.

TOP.: MUGITZA BASERRIA (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Muitza*

DOKUMENT.:

- 1818 *Muguitza*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Muguitza*. Nomen., 83. orr.

BIBLIO. *Mugitza, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago. Bertara joateko Derrepente baserritik aurrera (hego-mendebalderantz) doan bidezidorra jarraitu behar da eta bidearen ezker-eskubi dauden bi dorre elektrikoak igarota berehala topatuko ditugu ezkerretara baserriaren aurriak.

OHAR.: Informatzaile zenbaitek esan digunez aspalditxo desagertu zen baserri hau eta zenbaitzuk honen berri baduten arren, beste zenbaitek ingurua izendatzeko erabiltzen du, bertan izandako baserri baten izenean oinarrituta dagoenik jakin gabe. Bertara inguratu ginenean ez genuen honen aztarnarik aurkitzea espero, baina sasiz eta belarrez kasik estalita hormen zati batzuk topatu genituen.

TOP.: † ARANETA BASERRIA (?) / ANTSANEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Antzania* (3)
Antsania (2)

DOKUMENT.:

- 1615 *Ara(n)eta*. I.E.A.
 1751 *Domingo de Araeta*. Lib.c.f., 180.orr.atz.
 1769 *Angel de Ansa*. Lib.c.f., 103. orr.
 1857-64 *Areta*. Nomen., 81. orr.
 1945 "...*Ansa-nea*; (...) *Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: M.A.U.

BIBLIO. *Areta, caserío de Andoain*. L. Eleizalde, *Lista*.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego mendebaldean zegoen, Ubalategiko iturritik metro batzuk gorago.

OHAR.: Bost informatzailek aipatu digute Ubalategi aldean izan zen baserriaren izena, baina, hauek esandako izenarekin behintzat, dokumentazioan aipamen urriak aurkitu ditugu. Joxe Eizmendi jaunak osatutako baserrien zerrendan, berriz, Buruntza auzoan desagertutako baserrien artean *Ansanea* edo *Arantzeta* izenekoak aipatzen du. Lehenengo izena informatzaileek aipatu diguten bera da eta *Arantzeta* beste inon aurkitu ez dugun arren, bai, ordea, *Ar(a)(n)eta* izenekoak. Egia da bi hauek etimologia ezberdinetan oinarrituta daudela, baina ezin ukatu fonetikoki duten antza. Kontutan izan behar da ere Joxe Eizmendi izan dela izena aipatu digun bakarra eta, beraz, ezaguna ez izateak eragina izan dezakeela. Dena den, *Araneta Antsania* deituriko baserriaren jatorrizko izena izatearena oinarri handiegirik gabeko susmoa besterik ez da. Aipatu ere, 1615-etik 1857-ra bitarteko dokumentuetan ez dela *Araneta* baserriaren aipamenik egiten.

Bertara inguratu garen arren ez dugu baserriaren aztarnarik aurkitu, baina tokia sasiz beteta dagoenez, baliteke estalita egotea.

TOP.: GARAGARTZA GOIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Gaartza Goya* (3)
Garagartza Goya (2)
Gaartza Goikua (2)

DOKUMENT.:

- 1945 "...*Garagarza Goya; bajo y matorral*; (...) *Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: C.M.I.
 "...*Garagarza Goya; pradera con maizal, pradera, bajo y matorral*; (...) *Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: V.L.L.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdeko maldan dago, Erausoko harrobitik gertu.

OHAR.: *Gaartza Goya* izenaz ezagutzen den toki honetan daude *Garagartza Goikoa* baserriaren aurriak eta beheherago dago beste *Garagartza*.

Gain honek 229 metro ditu eta bertan zuhaitzez -pinuak gehienbat- inguratu-tako belaze zabal bat dago.

TOP.: ARRANTZUKO HARROBIAK / ‘Cementos Rezola’

- AHOZKO ERAB.: 7/6 *Rezola* (3)
Rezolan (H)arrobiya (2)
 7/1 *Buruntzako (H)arrobiya*
 7/1 *(H)arrobiya*
 7/1 *Goostiko (H)arrobiya*

DOKUMENT.:

- 1897 (*septiembre*) “...*Burunza, se halla situado en las faldas que miran al oriente mediodía y norte en el monte del mismo nombre (...) por el norte con los pertenecidos de Rezola...*”. Bie.c. y p. 44H/5.
- 1906 “...*pedra, de la cantera Arranzu, sita en el monte Burunza de este término municipal, que necesita para elaborar cal...*”. Sol.c.c. 71H/10.
- 1906 “...*pedra, de la cantera de Arranzu y Picay sita en el monte Burunza de este termino municipal...*”. Sol.c.c. 71H/10.
- 1908 “...*carros de grava o piedra menuda de las canteras llamadas de Arranzu propiedad de esta villa...*”. Sol.c.c. 71H/10.
- 1910 “...*pedra, de la cantera Arrontyu sita en el monte Burunza de este término municipal...*”. Sol.c.c. 71H/10.
- 1913 “...*pedra y extracción de la misma de las canteras de los montes comunales de esta villa de la cantera denominada de Soro Chiqui...*”. Sol.c.c. 71H/10.
- 1916 “...*encontrándose la cantera de Pikadi inutilizada, sucia, llena completamente de escombros, podría el recurrente limpiarlo...*”. Sol.c.c. 71H/10.
- 1917 “...*desea extraer de la cantera denominada de Picabi o Abolotz...*”. Sol.c.c. 71H/10.
- 1917 “...*cantera denominada Arrantzuko buelta tres mil metros cúbicos de piedra y arena que necesita...*”. Sol.c.c. 71H/10.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago.

OHAR.: Gaur harrobia *Cementos Rezola* enpresak ustiatzen du eta informatzaile gehienek izen horren bidez ezagutzen dute. Harrobia udalaren jabetzakoa da eta 1935. urtean aipatu enpresari *Canteras de Burunza* direlakoak (dokument.: A-25, 37H/2) errentan eman zizkion. Dokumentazioan jasotako datuetan oinarriturik, garai batean inguru honetan harrobi txiki ugari zegoela uste dugu, hauen izenak inguruko baserrien izenetan edo maldarenean oinarriturikoak zirelarik (ikus ARRANTZUKO MALDA). Aipatzen da ere *Picay*, *Picadi*, *Picabi* o *Abolotz* izenekoa, baina gure ustez harrobi hori Buruntza mendiaren atzean, hots, ifarrean egongo litzateke (ikus Abalozko erreka non elkartzen zaion Oria ibaiari). Gure ustez, beraz, inguru honetako harrobiak

garai batean *Canteras de Arranzu* izenaz ziren ezagun, gaur aipatu enpresak erazuten duen harrobi erraldoiak bereganatu dituelarik.

TOP.: ERAUSOKO HARROBIA / Lasaren Harrobia

AHOZKO ERAB.: 7/4 *Lasan (H)arrobiya* (3)
Lasa (H)arrobiya
 7/2 *Easoko (H)arrobiya*
 7/1 *(H)arrobiya*

DOKUMENT.:

1889 *borda de Eranso; borda de Erauso*. Des. y a. 71H/4.
 1889 *peñascal de Eranzo; peñascal de Erauso*. Des. y a. 71H/4.
 1916 "...*cantera denominada de Erauso doce metros cúbicos de piedra...*". Sol.c.c. 71H/10.
 1945 *Eraso; Erauso (Buruntza)*. Amil., jabea: JA.E.L.
Erauso aundi (Buruntza). Amil., jabea: V.L.L.

KARTOG.: 1980 *Canteras de Easo* (I.G.N.)

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdeko maldan dago, Andoain eta Urnietaren artean.

OHAR.: Egun informatzaile guztiek harrobia erazute lanak egiten dituen enpresa edo jabearen deituraz ezagutzen duten arren, horietako bik garai batean honi *Easoko (H)arrobiya* esaten zitzaiola azaldu digute. Izen honekin, hain zuzen, agertzen da harrobia 1917. urteko dokumentuan eta I.G.N. mapan ere. Beste dokumentu batzutan izen bereko beste leku batzuen aipamenak aurkitu ditugu eta, dirudienez, guztien oinarria Urnietako aldean harrobiaren ondoan dauden hiru baserrien izena da, hots, *Erauso Handi, Erauso Txiki* eta *Erauso Erdi* (izen hauek Urnietako Udalak argitaratutako mapatik zuzenenan hartuta daude).

TOP.: (harrobia)

AHOZKO ERAB.: 4/3 *Crematorio de Basuras*
Kremadoria, Erreteya
Krematoyua
 4/2 *Bazkardoko (H)arrobiya* (2)
 4/1 *Ubalateiko (H)arrobiya*
 4/1 *Buruntzako (H)arrobiya*

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago, *Cementos Rezola* enpresak erabiltzen duen harrobiaren pean.

OHAR.: Duela urte batzuk bertako erazute lanak eten eta bertan zaborrak erretzeko labea eraiki zuten. Gaur, ordea, ez da ez bata eta ez bestea egiten (ikus ARRANTZUKO HARROBIAK, oharrak).

TOP.: AZPIKOLAKO ZUBIA

AHOZKO ERAB.: 4/3 *Azpikolako Zubiya* (3)
4/1 *Sanoniko Zubiya*

KOKAP.: Errepide nazionaletik Donostiarantz goazela, Arrantzuko bentaren aurretik igaro eta 150-en bat metro aurrerago, ezkerretara dago.

OHAR.: Oria ibaiaren gainkaldean dago eta, ibaia denez Sorabilla eta Buruntza auzoak banatzen dituena, zubi honek bi auzoak elkartzen dituela esan daiteke. Harrizkoa da eta honen ezker-eskubi errepide nazionala igarotzen denez, zubia ia baliogabea suertatzen da gaur.

TOP.: UPATEGIKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 4/3 *Upateiko Itturriya*
4/1 *Beko Itturriya*

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago, Upategi baserriaren ondoko zokoan.

OHAR.: *Upategi* baserrikoak *Beko Itturriya* esaten dion arren, beste informatzaileek aipatu baserriaren izenaz ezagutzen dute. Iturriaren ondoan duela gutxi etxe berri bat eraiki dute eta bertara joandakoan ez dugu urik ikusi, iturriaren ordez porlanezko ur-biltegitxoa dirudiena egin dutelarik.

TOP.: EGUARASKO ITURRIA(K)

AHOZKO ERAB.: 4/3 *Eguasko Itturriya* (2)
Eguastxikiko Itturriya
Egwestxikiko Itturriya
4/2 *Salbiako Itturriya*

DOKUMENT.:

1895 “...se encuentra en mal estado la fuente denominada de Egües de esta jurisdicción...”. Exp.f.p. 20H/13.

1945 “...Eguesco Iturriandoa; pradera con maizal; (...) Paraje: Buruntza...”. Amil., jabea: F.I.E.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-ekialdean dago/daude, Eguaras eta Zalbide baserrien arteko zokoan.

OHAR.: Informatzaile batek esan digunez, *Salbiako Itturriya* ere deitzen zaion arren (ikus ZALBIDE BASERRIA), *Eguaras Txiki* baserriaren lurretan dago. Berez, bi iturri dira eta biak leku ezberdinetan sortzen diren arren, iturriak bata bestearen atzean daude. Atzekoaren ura burnizko kanila batetik aska luze batera erortzen da. Bigarrena, ordea, harrizko estalpe batean dago, ura aska batera erortzen da eta ezker-eskubi bi arraska daude. Ezaugarri hauek direla eta, atzekoa abereentzat eta aurrekoa arropa garbitzeko erabili ohi direla esan daiteke.

TOP.: ITURRIME

AHOZKO ERAB.:	6/3	<i>Itturmine</i> (2)
		<i>Itturmene</i>
	6/1	<i>Beko Itturriya</i>
	6/1	<i>Xeoteiko Itturriya</i>
	6/1	<i>Elizaldeko Itturriya</i>

DOKUMENT.:

1905 "...*Los que suscriben, vecinos de esta villa y que viven en el barrio de Burunza en la proximidad a la fuente llamada Yturri-me...*". Exp.f.p. 20H/13.

KOKAP.: Buruntza mendiaren hegoaldean dago, Serorategi baserritik Elizalde (Aundi) baserrira doan bidearen eskuinetara.

OHAR.: Tokieder etxeakoak esan digunez, garai batean Berrozpe dorretxeko serorek iturri honetatik hartzen omen zuten ura. Beste informatzaile batek *Iturrime* ur gutxiko iturria delako esaten zaiola azaldu digu. Gaur, ordea, ez asko eta ez gutxi, iturriaren kanila ezpal batez itxututa baitago.

TOP.: UBALATEGIKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.:	7/6	<i>Ubalateiko Itturriya</i>
	7/1	<i>Itturriya</i>

KOKAP.: Buruntza mendiaren hego-mendebaldean dago, Ubalategi baserriaren ondoan.

OHAR.: *Itturriya*-z ezagutzen duen informatzailea, noski, *Ubalategi* baserrikoa da, beste guztiek iturria aipatu baserriaren izenaz ezagutzen dutelarik. Iturriaren ura aska batera erortzen da eta, zenbaitetik esan digunez, bertako uraren ontasunagatik iturri ezaguna da. Hala ere, gaur honen ura kotxeak garbitzeko erabiltzen da eta bere inguru guztia zaborrez beteta dago.

TOP.: † LOIDI BASERRIA
 † LOIDI TXIPI BASERRIA
 † LOIDIKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.:	4/2	<i>Loidiko Itturriya</i> (2)
		<i>Loidi</i>
	4/2	<i>Etxeberrigaltzako Itturriya</i> (2)
	4/1	<i>Izaltzikiko Itturriya</i>

DOKUMENT.:

1615 *Loydi, Loydichipi* "...*ambas están juntas...*". I.E.A.

1813 *Loidi Maior; Loidi Menor*. Lis.t. de A.

1818 *Loidi*. Est.p.i. 62H/7.

KOKAP.: (5) Buruntza mendiaren hegoaldean zeuden, Idiazabal Txiki eta Kamio Txiki baserrietatik gertu.

OHAR.: Gaur iturria estalita egon arren, lau informatzaileek oraindik gogoan dute. Jasotako izenen artean aipagarria da bi informatzailek esandako *Loidiko Itturriya*, 1850. urterako desagertu ziren bi baserriren izenetan oinarrituta baitago. Iturria, beraz, inguruan zituen hiru baserriren izenez zen ezagun eta hirurak dira baserri zaharrak, 1615. urteko dokumentuan aipatzen baitira. Gaur horietariko bakarra dago zutik, baina *Loidi* izenekoak dira lehen-dabizi desagertu zirenak. Egun inguru guztia lantegiz beteta dago.

TOP.: JENERALANEKO BORDA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Jenealaneko Borda*

KOKAP.: Buruntza mendiaren mendebaldeko maldan dago, *Buruntza atzia* izenez ezagutzen den tokian (ikus BURUNTZA MENDIA, oharra).

OHAR.: Bertara joateko Arrantzu Erdikoa baserrira iritsi baino 100-en bat metro lehenago eskuinetara dagoen bidea hartu behar da, ondorengo bidegurutzean ezkerretara eta bigarreanean eskuinetara jo behar dugularik. Borda pago ederrez inguratuta dago eta bere egoera ona da (ikus ELIZAGARATE AUNDI BASERRIA).

SORABILLA AUZOA: TOPONIMOAK

Aintzinean Aiztondo izeneko alkatetza nagusiaren baitan zegoen eta aldi batez herri burujabe izan zen arren, XIX. mendearen bukaeran Andoaingo auzo bihurtu zen. Oria ibaiaren mendebaldera dagoen lurraldea da *Sorabilla*. 6 kilometro karratu inguru ditu eta bigarren auzoa da luze-zabalerari dagokionez. Muga hego eta hego-ekialdetik Aduna, ifar-ekialdetik Zizurkil eta ifarraldetik Zubietarekin egiten du, ekialdetik, esan bezala, Oria ibaiak mugatzen duelarik. Sorabilla eta aipatu herri horien artean, gehienetan, erreka daude. Auzo honetakoak ez dira erreka garrantzitsuak, baina horien artean ezagunak Abalozko erreka eta Errekaleor dira. Mendiei dagokienez, berriz, nagusia Belkoain da, baina oso ezaguna da ere Aizbeltz. Aipatu lehenak 492 metro ditu eta besteak 304, eta auzoaren ifarraldean 400 metrotako beste bi gailur ere badiren arren, herritik ikusten ez direlako edo, haiek ez dira hain ezagunak. Belkoain eta Aizbeltzen artean daude, bien artean babesturik, Sorabillako baserri eta etxe gehienak eta inguru honetakoak gehienbat laborantzako lurak dira —belaze eta soro atlantikoak—. Mendien maldetan koniferak dira nagusi, baina aipagarriak dira ere auzoaren ifarrean dauden iradi zabalak. Erreka bazterretan, berriz, zuhaitz autoktonoen basoak aurki daitezke, zonalde hauek naturari dagokionez interesgarriak direlarik. Belkoain mendiaren goiko maldak eta Aizbeltzetik ifarralderako baso gehienak herriarenak dira.

Aipatu dugu auzoko etxe eta baserri gehienak non dauden kokatuta, auzoko eliza eta, beraz, erdigunea, ere hego-ekialdean dagoelarik. Guztira 27 baserri —zutik daudenak— eta 18 etxe —txalet gisakoak— daude, Errekaleorretik gora —ifarrera— soilik lau baserri dagoelarik eta hauetako bi, gainera, hutsik.

Informatzaileen erantzunetan ikus daitekeenez, auzoaren izena zein den guztiek dakiten arren, ez dirudi zenbait entitatek honen berririk dutenik, Sorabillako baserritar batek azaldu zigunez, Telefonikako eskutitzak *Elizaldea* eta Iberdrolakoak *Auzoa Ubillos* izenaz bidaltzen baitituzte.

AHOZKO ERAB.: 14/14 *Sorabilla* (8)
Soabilla (3)

Barrio Sorabilla (2)
Sorabilla Barriyua
Soabillako Barriyua
Soabilla Barriyua

- BIBLIO. "...Andoain (*Leyzaur*) (...) confina por N. Urnieta, al E. Berastegui, al S. Villabona, y por O. Sorabilla..." P. Madoz, *Diccionario*, XIV. alea, 287. orr.
 "...En el pueblo de Andoain hay dos parroquias (...) y la de Sorabilla, a la cual pertenecen los caseríos de la parte izquierda del mismo río..." F. Etxeberria, *Anuario*, 64, 65. orr.
 "...Sorabilla desde tiempo inmemorial perteneció a la alcaldía mayor de Aiztondo..." R. Arregui, *Andoain*, 39. orr.

TOP.: BAZKARDO BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Bazkardo Berri*

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Arbitza baserritik gertu.

OHAR.: Txalet gisako etxe berri hau Sorabillako *Bazkardo* baserrikoek eraikitakoa da eta horregatik informatzaile guztiek *Bazkardo Berri* izenaz ezagutzen dute.

TOP.: BALLESTAGIN BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Balastrain (4)*
Ballestarain

DOKUMENT.:

- 1818 *Ballestain*. Est.p.i. 62H/7.
 1857-64 *Ballestáguin*. Nomen., 103. orr.
 1897 *Ballestaguin*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Ballestain*. Cen.p. 70H/2.
 1940 *Balastrain*. Pad.m.h. 18/3.
 1945 "...*Balastrain Aldea; cereal, pradera, pradera con maizal, huerta; (...) Paraje: Soravilla...*". Amil., jabea: J.V. Z.E.

BIBLIO. *Balestrain*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Andoain eta Adunaren arteko mugatik oso gertu.

OHAR.: Gaur baserriari *Balastrain* esaten zaion arren, 1940. urteko errolda arteko dokumentu guztietan *Ballesta(g)in* azaltzen da idatzita. Bertako baserritarrak ere badu gaur erabiltzen den izena jatorrizkoa ez denaren susmoa, eta bere ustez jatorrizkoa *Ballestarain* edo antzeko zerbait da. Etimologiari dagokionez Mitxelenak "...*balezta* «ballesta»: (...) el nombre del instrumento se habrá empleado como apodo de profesión..." (*Ap.v.*, 65. orr.) aipatzen du eta, jasotako datuen arabera, badirudi gartzelerazko 'ballesta' horretan oinarrituta sortu dela baserri honen izena.

Andoaindik Adunara goazela hau da Andoaingo lurretan dagoen azken baserria. Bi bizitza ditu eta bere egoera oso ona da. Honen parean Matxinea dago.

TOP.: MATXINEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Matxinia* (2)
Matxine

DOKUMENT.:

- 1818 *Machienea*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Machinéa*. Nomen., 103. orr.
- 1897 *Machinea*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Machinea*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Machinea*. Pad.m.h. 18/3.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Andoain eta Adunaren arteko mugatik oso gertu.

OHAR.: 1818. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Ez dirudi bertan inor bizi denik, baina baserriaren egoera ona da. Bere ondoan Ballestagin baserria dago.

TOP.: (SORABILLAKO) ERRETORETxea

AHOZKO ERAB.: 3/2 *Erretoetxia*
Errotetxe
Errotetxia
3/1 *Apaizetxia*

DOKUMENT.:

- 1818 *Casa Rectoral*. Est.p.i. 62H/7
- 1897 *Rectoral*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Rectoral*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Rectoral*. Pad.m.h. 18/3.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Azelaingo zubitik joanez Sorabilla auzoaren sarreran.

OHAR.: 1818. urtean jaso dugu etxe honen lehen aipamena eta ordutik aurrerako dokumentu guztietan (*Casa*) *Rectoral* gisa azaltzen da, hau da, gazteleraz idatzita. Galdeketaren emaitzetan ikus dezakegunez, ordea, informatzaileek euskaraz esaten dute, nahiz eta dardarkaria ez ahoskatzearen ondorioz eta bi bokalen arteko metatesiagatik izena asko aldatuta azaldu.

Oso etxe ederra da eta egun etxearen zaharberritze lanetan dihardute.

TOP.: Sorabillako tailerra / eskola

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Eskolak* (4)
Eskola

KOKAP.: Sorabilla auzoko etxagunean dago, bertako elizaren parean.

OHAR.: Garai batean hau zen Sorabillako eskola eta informatzailerik aipatutako izena horretan oinarrituta dago. Gaur, ordea, bertan eskultura-tailerra dago. Solairu bakarreko eraikina da.

TOP.: BIDEGAIN ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Bidegain* (2)
Bidegain

DOKUMENT.:

1960 *Bide-gain*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Bidegain*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Sorabilla auzoko etxagunean dago, eskultura-tailerra eta Errekalde baserriaren artean.

OHAR.: 1960. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena. Hiru solairu ditu eta aurrekaldeko horman etxearen izena jasota dago.

TOP.: ERREKALDE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Errekalde*

DOKUMENT.:

1818 *Errekalde*. Est.p.i. 62H/7.

1897 *Errekalde*. Est.e. 48H/4.

1910 *Recalde*. Cen.p. 70H/2.

1945 " *...Errekalde Aldea; cereal; (...) Paraje: Buruntza...*". Amil., jabea: M.U.A.

KOKAP.: Sorabilla auzoko etxagunean dago, Seroretxea eta Bidegain etxearen artean.

OHAR.: 1818. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta informatzaile guztiek ezagutzen dute bere izena. Ez dugu uste gaur baserri lanik egiten denik, bertan taberna eta jatetxea baitaude. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: SERORETXEA / ELIZONDO ETXEA

AHOZKO ERAB.: 4/3 *Elizondo* (3)
4/2 *Seroretxia*
Seroretxea
4/1 *Xegote, Xeote*

DOKUMENT.:

1859 *Serore Eche, casa campo*. Est.e. y h. 96H/2.

1940 *Seroral Soravilla*. Pad.m.h. 18/3.

1950 *Seroreche*. Cen. y p. 44/1.

KOKAP.: Sorabillako San Martin elizaren ondoan dago.

OHAR.: Etxe honen orubean zegoen Sorabillako *Seroretxea*, baina ondoren eraikitako hau *Elizondo* izenaz ere ezagun da. Balkoi zuriduneko etxe grisa da.

TOP.: SAN MARTIN ELIZA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Soabillako Eliza (2)*

Eliza

Elisa

DOKUMENT.:

1857-64 *Santo Cristo del Socorro, Ermita*. Nomen., 104. orr.

BIBLIO. “...*La parroquia de Sorabila tiene cerca de 300 habitantes: la mayor parte se dedican a la labranza. El patrón de la misma es San Martín de Tours, que se venera en el altar mayor (...). Sirven esta parroquia un cura ecónomo y un sacristán-organista (...)* En Sorabila hay otra ermita de Santa Cruz. Los feligreses de quella parroquia llevan a bendecir el día 24 de Junio las hierbas, hortalizas y otras cosas que ya hemos mencionado al tratar la misma costumbre en la parroquia principal...”. F. Etxeberria, *Anuario*, 67, 68 eta 78. orr.

“...*San Martin (iglesia de Sorabila en Andoain). Se halla servida (1862) por un rector, que es de presentación del dueño de la casa solariega de Azelain...*”. D. Irigoyen, *Anuario*, 67. orr.

“...*Soravilla: Parroquia de San Martín (1564). Ermita: Sto. Cristo del Socorro (1633)...*”. L. Murugarren, *Relación*, 85. orr.

“...*684. Iglesia parroquial de San Martin. 685. Ermita del Santo Cristo del Socorro. La cita Murugarren, en 1633, como existente en esas fechas...*”. L.P. Peña Santiago, *Las ermitas*, 252. orr.

KOKAP.: Sorabilla auzoko etxagunean dago.

OHAR.: Galdeketa Sorabillan bertan egin dugulako edo, ez du inork elizaren izeneko santua aipatu. Murugarrenek 1564. urtean eraiki zela aipatzen du, eta honekin batera gaur desagertutako *Sto. Cristo del Socorro* ermita. Nomenklatorean ere izen bereko ermita topatzen dugu, baina ez dator bat F. Etxeberriak honentzat ematen duenarekin, bigarren honek *Santa Cruz* izeneko zela esaten baitu. Ermita hau Azelain dorretxearena zen eta honekin batera desagertu zen orain dela 20-ren bat urte.

TOP.: MENDIOLA BASERRIA / TUDURINEA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *Mendiola* (3)
Mendiolania
 5/4 *Tuduri* (3)
Tudurinia

DOKUMENT.:

1818 *Mendiola*. Est.p.i. 62H/7.
 1897 *Mendiola*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Mendiola*. Cen.p. 70H/2.
 1940 *Mendiola*. Pad.m.h. 18/3.

BIBLIO. *Mendiola*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: San Martin elizaren atzean dago.

OHAR.: Baserri honen jatorrizko izena *Mendiola* den arren, eta informatzaileek aipatu hori ezagutzen badute ere, bertan bizi direnen abizena da baserria izendatzeko sarriago erabiltzen dena. Baserri txikia da.

TOP.: ERRAMUSENEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Erramuxenea* (4)
Erramosene

DOKUMENT.:

1818 *Erramusenea*. Est.p.i. 62H/7.
 1897 *Erramusenea*. Est.e. 48H/4.
 1910 *Erremosenea*. Cen.p. 70H/2.
 1940 *Erramusenea*. Pad.m.h. 18/3.

BIBLIO. *Erramusenea*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: San Martin elizaren eta Mendiola baserriaren atzean dago.

OHAR.: 1818. urtean jaso dugu baserriaren lehen aipamena eta ordutik hona izenak ez dirudi aldaketarik jasan duenik (ikus ERRAMUSENEA, kale Berrian). Baserriaren egoera ona da.

TOP.: BEKO ETXEBERRI (aurriak)

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Bekoetxeberri* (2)
Beeko Etxeberri

DOKUMENT.:

1818 *Echeverria*. Est.p.i. 62H/7.
 1897 *Echeverri*. Est.e. 48H/4.
 1857-64 *Echeverría*. Nomen., 103. orr.
 1910 *Echeverria*. Cen.p. 70H/2.
 1940 *Beco-echeverria*. Pad.m.h. 18/3.
 1950 *Beco-echeverri*. Cen. y p. 44/1.

BIBLIO. *Bekoetxeberri*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Sorabilla auzoko etxaguetik Goiko Etxeberrira doan bidearen eskuinetara.

OHAR.: Baserriaren teilatua jadanik erorita dago, baina hormek zutik diraute. Informatzaileek esan digutenez, baserri hau *Goiko Etxeberri* baino zaharragoa da eta horregatik 1818. urtetik 1910. urteko erroldara arte aipatzen den *Echeverri(a)* hau zitekeela pentsatzen dugu.

TOP.: AIZEPE ETXEA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Aizepe* (3)
Aixepe (2)
 5/1 *Arrospide*

DOKUMENT.:

1970 *Aizepe*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Erretoretxearen parean —eskuinetara— dagoen bidearen bazterrean.

OHAR.: 1970. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena. Etxea harrizko hormatxo batez inguratuta dago eta parean Presagaña etxea eta errepe nazionala ditu.

TOP.: PRESAGAÑA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 6/3 *Presagañ*
Fresagañ
Presagaña
 6/4 *Errota*

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Erretoretxearen parean —eskuinetara— dagoen bidearen bazterrean.

OHAR.: Etxe berria da eta, nahiz eta informatzaile gehienek jakin badakiten honen izena, berez, *Presagaña* dela, honetan bizi den familia lehen auzo honetako errotan bizi zenez, informatzaileek azken honen izena erabiltzen dute etxea izendatzeko (ikus ERROTA, oharrak). Etxearen atzean errepe nazionala dago eta parean Aizepe etxea.

TOP.: ERROTA

DOKUMENT.:

1818 *Molino*. Est.p.i. 62H/7.

1857 *Molino*. Pad.h.s. 96H/3.

1857-64 *Errotaburu*, *molino harinero*. Nomen., 103. orr.

1859 *Erróta*. Est.e. y h. 96H/2.

1897 *Errota*. Est.e. 48H/4.

1910 *Errota*. Cen.p. 70H/2.

1940 *Errota*. Pad.m.h. 18/3.

1945 "...*Terrenos del caserío Molino; pradera, cereal; (...) Paraje: Soravilla...*". Amil., jabea: R.L.L.

BIBLIO. *Azelain-errota o Sorabilla-errota*. A. Aguirre Sorondo, *Molinología*, 303. orr.

KOKAP.: Errepide nazionala eta Oria ibaiaren artean dago, Kordoba baserriaren parean.

OHAR.: Dokumentu gehienetan jasotako aipamenetan errota izandako hau izen espezifikorik gabe azaltzen da, hau da, *Errota* edo *Molino* aipatzen da soilik. Nomenklatorrean, ordea, Sorabillan azaltzen den errota bakarra *Errotaburu* izenez agertzen da eta A. Aguirre Sorondok, berriz, *Azelain-errota* edo *Sorabilla-errota* izenez jaso du. Informatzaileek, dokumentu gehienetan azaltzen den antzera, soilik *Errota* esaten diote (ikus PRESAGANA ETXEA, ahozko erab.) eta, aipatu bezala, espezifikoa inon gutxitan azaltzen denez, horrek auzo honetan ez dela errota gehiago izan pentsarazten digu (ikus GARAIKOETXEA, oharrak).

Gaur ez da bertan inor bizi eta errotaren egoera ez da batere ona, aurreko estalpearen teilatua jadanik erori delarik.

TOP.: KORDOBA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Kordoba*

DOKUMENT.:

1818 *Cordoba*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Córdoba*. Nomen., 103. orr.

1897 *Cordoba*. Est.e. 48H/4.

1910 *Cordoba*. Cen.p. 70H/2

1940 *Cordoba*. Pad.m.h. 18/3.

BIBLIO. *Cordova* A. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

"...*Soravilla: (...) Otra de las casas más antiguas de este lugar es la denominada Córdoba...*". P. Gorosabel, *Diccionario*, 506. orr.

Cordoba. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Presagañara doan bidearen muturrean.

OHAR.: Gorosabelek dioenez, auzo honetako baserri zaharrenetarikoa bat dugu *Kordoba* izenekoa eta, hain zuzen, Isastik 1625. urtean idatzitako liburuan jadanik aipatzen du. *Kordoba Baserria* errepide nazionalaren gainean dago eta bere egoera ona da.

TOP.: (etxea)

AHOZKO ERAB.: 3/2 *Mendiola*
Mendiolania
 3/1 *Txaleta*

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdeko maldan dago, Erramueta eta Borda baserrien artean.

OHAR.: Orain dela gutxi arte etxe honen jabea zenaren abizena *Mendiola* denez, gure informatzaileetarako bik etxea aipatu horren deituraz ezagutzen dute. Etxearen jabe zirenek ere, abizenean oinarrituriko izena emateko asmoa zuten, baina, jakinik auzo honetan bazela *Mendiola* izeneko baserria, etxea gabe utzi zuten. Orain jabez aldatu da eta ez dakigu hauek zein asmo duten. Etxea bere eraiketa mota bereziagatik oso ezaguna da Andoaindarraren artean.

TOP.: ERRAMUETA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Erramuta*

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Erramueta*. Nomen., 103. orr.
- 1897 *Erramueta*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Erramueta*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Erramueta*. Pad.m.h. 18/3.
- 1945 "...*Erramueta Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*".
 Amil., jabea: V.O.I.
- "...*Erramueta Aldia; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*".
 Amil., jabea: J.M^a. I.A.
- "...*Erramueta Azpia; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*".
 Amil., jabea: C.A.U.

BIBLIO. *Erramueta*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdeko maldan dago.

OHAR.: Nomenklatorean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Gaur ez da inor bizi bertan, nahiz eta ikuiluan abereak izan. Bertara joateko Goiko Etxeberrira iritsi baino metro batzuk lehenago ezkerretara dagoen bidea hartu behar da. Bere ondoan karobi baten aztarnak daude. Baserriaren egoera ez da oso ona.

TOP.: BORDA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Borda*

DOKUMENT.:

- 1765 "...*para la reedificación de su casa Borda...*" Lib.c.f., 64. orr.atz.
- 1818 *Borda*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Borda-eche*. Nomen., 103. orr.

1897 *Borda-eche*. Est.e. 48H/4.

1910 *Borda*. Cen.p. 70H/2.

1940 *Borda*. Pad.m.h. 18/3.

BIBLIO. *Borda*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdeko maldan dago.

OHAR.: Baserri honen lehen aipamena 1765. urtean jaso dugu eta, liburu horretan aipatzen denez, urte hartan birreraikitzeke asmoa zuten, ez ezagutu arren zerk suntsiarazi zuen etxea. Baserria, beraz, 1765. urtea baino askoz lehenago eraiki bide zela pentsatzen dugu. Hala ere, aipatu urtean egingakoa ez da izan baserri honetan gertatutako aldaketa bakarra. Orain dela urte batzuk, jatetxea eta dantzalekua ipini asmoz, baserri zaharrari eraikin handiago bat itsatsi zitzaion aurrean, eta jendeak gaur *Borda* izena baserriarekin baino jatetxea eta dantzalekuarekin lotzen du.

TOP.: AITZETA ETXEA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Aitzeta*

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdeko maldan dago, Borda baserriaren eskuinetarako maldan.

OHAR.: Txalet gisako etxe berri hau orain dela zortzi urte eraiki zen eta auzokoek ez dute honen izena ezagutzen, etxearen izena esan digunetakoa bat bertakoa eta bestea honen familiakoa delarik.

TOP.: INTXUSARAN BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Intxusar* (5)

Intxusaran (2)

Intxusañ

DOKUMENT.:

1818 *Insusaran*. Est.p.i. 62H/7.

1857-64 *Isusaran*. Nomen., 103. orr.

1897 *Insusaran*. Est.e. 48H/4.

1910 *Insusaran*. Cen.p. 70H/2.

1940 *Inchusaran*. Pad.m.h. 18/3.

1945 "...*Intzusaran Aldia; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*".
Amil., jabea: M.A.C.

BIBLIO. *Intzuzaran*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdeko maldan dago eta bertara joateko bordara iritsi baino 200-en bat metro lehenago eskuinetara dagoen bidea hartu behar da.

OHAR.: Dokumentazioan jasotako aipamen zaharrenen arabera, badirudi garai batean **Intsusaran* erabiltzen zela, baina gaur informatzaile guztiek *Intxusaran* esaten dute. Mitxelenak ere, bi eratara jasotzen du: "...324. *Intsusa, intxusa* «saúco»..." (*Ap.v.*, 105. orr.). Baserriaren egoera ona da.

TOP.: BAZKARDO BORDA

DOKUMENT.:

1859 *Bazcardo Borda, albergue ganado*. Est.e. y h. 96H/2.

1945 "...*Bazcardo Borda Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Sorabilla...*". Amil., jabea: M.A.C.

KOKAP.: Menditxoren ekialdean dago, Intxusaran baserria igaro eta metro batzuk aurrerago ezkerretara dagoen bidearen muturrean.

OHAR.: Informatzaile batek eman digu borda honen berri. Borda handia da oso eta, teiltuaren zati bat erori egin den arren, eraikinak oraindik zutik dirau. Hiru gelatan banatuta dago. Bi handienak abereen gordeleku izan dira eta hauetan egurrezko ganbelatxo ugari dago. Hirugarrenean, artzainaren gela izandakoan, subajua aurki daiteke. Dena den, ez dirudi gaur inork erabiltzen duenik.

TOP.: LAKATXEKO BORDA (aurriak)

KOKAP.: Arbitza baseritik Elkor gainera doan bidearen ezkerretara dago.

OHAR.: Informatzaile batek azaldu digu borda honen izena. Borda, desagertutako *Lakatxe* baserrikoena zen eta baserriaren antzera, hau ere, suntsituta dago. Geratzen diren hormak sastraka eta huntzez erdi estalita daude. Ondoan Arbitzako borda dago.

TOP.: MURKAIKO BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Murkayo* (5)
Murkaio

DOKUMENT.:

1897 *Murcayo*. Est.e. 48H/4.

1910 *Murcayo*. Cen.p. 70H/2.

1940 *Murcayo*. Pad.m.h. 18/3.

1945 "...*Murcayen Aldea; bajo y matorral...*". Amil., jabea: J.M^a G.B.

BIBLIO. *Murkaio*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Errekaleor Oria ibaiari elkartzen zaion tokiaren gainaldean dago, Belkoain mendiaren ifar-ekialdean.

OHAR.: 1897. urteko dokumentuan aurkitu dugu baserri honen lehen aipamena eta orduan bezala gaur baserriaren izena *Murkaio* da. Honen ondoan duela urte gutxi batzuk eraiki dute *Murkaio Berri* izendatu den etxea. Baserria mendi-mutur baten ertzean dago, lehen aipatu erreka eta ibaitik 100en bat metro gorago. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: MURKAIKO BERRI ETXEA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Murkayoko Etxe Berriya* (2)
Murkayo Berri

KOKAP.: Belkoain mendiaren ifar-ekialdean dago, Murkaio baserriaren ondoan.

OHAR.: Bi solairuko etxe berria da eta ezker-eskubi bi etxebizitzetan banatuta dago. Honen izena ondoan duen baserriarenean oinarrituta dago.

TOP.: AZPIKOLA BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Azpicola* (3)
AzpiKoola

DOKUMENT.:

- 1818 *Aspico-ola*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Azpicola, casa de labor*. Nomen., 103. orr.
- 1897 *Aspico-ola*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Azpicola*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Azpicola*. Pad.m.h. 18/3.
- 1945 "...*Azpicola Urbitarte; pradera...*". Amil., jabea: J.M^a G.B.

KOKAP.: Aizbeltzen hego-ekialdeko maldan dago, harrobiaren azpian.

OHAR.: Harrobi baten azpian dago eta, gaur honetan erauzte lanik egiten ez bada ere, inguruko baserriarrek bertan leherketa izugarriak izaten zirela azaldu digute. Horien ondorioz gertuko baserrien leihotako kristalak sarritan apurtzen omen ziren. *Azpicola* horren azpian dago eta, aipatu egoeraren aurrean, pentsatzekoa da garai hartan ez zela bizitzeko tokirik egokiena. Gaur hutsik dago.

TOP.: OLABIDE BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Olabide*

DOKUMENT.:

- 1857-64 *Olabide*. Nomen., 104. orr.
- 1897 *Olavide*. Est.e. 48H/4
- 1910 *Olavide*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Olabide*. Pad.m.h. 18/3.

BIBLIO. *Olabide*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdean dago, Oria ibaiaren bazterrean.

OHAR.: Nomenklatorrean jaso dugu baserri honen lehen aipamena, informatzaileek gaur erabilitako era berean. Bertara joateko Bordaberrialdeako etxeak igaro eta metro batzuk jarraitu behar dira bide beretik. Baserriaren egoera, itxuraz behintzat, ez da txarra.

**TOP.: BORDABERRI BASERRIA
BORDABERRIALDEA AUZUNEA**

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Bordaberri* (3)
Bordaberrialdia
Bordaberri Barriyua

DOKUMENT.:

- 1813 *La Borda Nueva*. Lis.t. de A.
- 1818 *Borda-verri*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Borda-echeberri*. Nomen., 103. orr.
- 1897 *Borda Berri*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Borda-berri*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Borda Berri*. Pad.m.h. 18/3.

BIBLIO. *Bordaberri*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdean dago, Oria ibaiaren bazterrean, Bazkardo Txiki eta Olabide baserrien artean.

OHAR.: Gaurko hau ez da XIX. mendeko dokumentuetan aipatzen den *Bordaberri* bera, duela urte batzuk eraikitako baserri berria baizik. Garai bateko baserriaren aztarna, borda zahar baten itxuraz, eraikin berriaren parean dago. Baserri berria itsatsitako bi eraikinez osatuta dago eta honen ondoan, guztiak lerrune berean, bost etxe berri eraiki dira. Dirudienez, hauek ez dute izenik eta etxe multzo hau *Bordaberrialdea* izenaz da ezagun, Udaleko dokumentuetan ere horrela azaltzen delarik. Informatzaile batek, ordea, lehenengo etxeak (ordenaren arabera) *Txokomaite* izena duela esan digu, baina hori hala izanik ere, horren izena ez da ez ezaguna ez eta erabilia ere.

**TOP.: ALLURRALDE GARAIKOA BASERRIA - MENDILUZE
BASERRIA**

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Mendiluze*
3/1 *Allurralde Goiko*

DOKUMENT.:

- 1818 *Allurralde-garaicoa*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Mendiluce*. Nomen., 103. orr.
- 1897 *Mendiluce*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Mendiluce*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Mendiluce*. Pad.m.h. 18/3.
- 1945 "...*Mendiluce Aldia; cereal, pradera; (...) Paraje: Soravilla...*".
Amil., jabea: B.U.E.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdean dago, Sorabillako Bazkardotik Goiko Etxeberrira doan bidearen bazterrean.

OHAR.: Inguruko baserriaren batek baserri honen jatorrizko izena *Allurralde Goiko* dela esan digu, baina aipatu hori batere ezaguna ez denez,

berak ere *Mendiluze* izena erabiltzen omen du. 1818. urtean topatu dugu *Allurralde-garaicoa* baserriaren lehen eta azken aipamena, baina adierazgarria da ordutik honako dokumentuetan *Mendiluce* izenaz azaltzen den baserriaren kokapena, ustez jatorrizko den izenaren adierarekin bat, *Allurralde* eta *Allurralde Txiki* baserrietatik gertu eta metro batzuk gorago egotea. Hala ere, ezin dugu ziurtasunez baieztatu eta, nomenklatorrean jadanik baserria gaur erabiltzen den izenarekin azaltzen denez, hori mantentzearen aldekoak gara. Baserriaren egoera ona da.

TOP.: KOSKARAN BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Koxkan* (4)
Koskan
Koxkaran

DOKUMENT.:

- 1818 *Coscaran*. Est.p.i. 62H/7.
- 1857-64 *Coscaran*. Nomen., 103. orr.
- 1910 *Coscaran*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Coscarán*. Pad.m.h. 18/3.
- 1945 "...*Coscan Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*".
 Amil., jabea: R.T.A.
- "...*Coscaran Aldea; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*".
 Amil., jabea: P.A.G.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdean dago. Borda baserrira doan bidearen pean.

OHAR.: 1818. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena eta izenak ordutik hona aldaketarik jasan ez badu ere, hitzegiterakoan ez da bokalarteko dardarkaria ahoskatzen: *Koska(r)an*. Baserria, izenak adierazi bezala, haran txiki batean kokatuta dago eta bere ondoan ez dago beste baserririk. Bere egoera ona da.

TOP.: ALLURRALDE BASERRIA ALLURRALDE KIROLDEGIA

AHOZKO ERAB.: 6/6 *Allurralde* (5)
Allorralde

DOKUMENT.:

- 1615 *Allurralde*. I.E.A.
- 1857-64 *Allurralde*. Nomen., 103. orr.
- 1862 *Alurralde*. I.c.h., H-532.
- 1897 *Allurralde*. Est.e. 48H/4.
- 1910 *Allurralde*. Cen.p. 70H/2.
- 1940 *Allurralde*. Pad.m.h. 18/3.
- 1945 "...*Allurraldeco Erribera; cereal, pradera...*". Amil., jabea: J.A.
 eta F. A.M.

BIBLIO. *Allurralde*. L. Isasti, *Compendio*, 102. orr.

Allurralde Aundi (3 viv.). I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdean dago, errepide nazionalaren gainean eta eraiki berri den kiroldegiaren parean.

OHAR.: 1615. urtean jaso dugu baserri honen lehen aipamena. Baserria, beraz, oso handia izateaz gain zaharra ere bada. Informatzaile batek esan digunez baserriak hiru bizitza ditu, baina gaur hauetako bi hutsik daude. Tamalgarria bada ere baserri eder honen egoera ez da batere ona, alde bateko teilatua jadanik eroria delarik. Baserri honena zen Oria ibaia eta errepide nazionalaren artean dagoen lur saila —amilaramenduetan *Allurraldeco Erribera* izenaz azaltzen dena— eta horregatik eta baserria parean dagoelako bertan eraiki den kiroldegiari *Allurralde* izena eman zaio.

TOP.: ALLURRALDE TXIKI BASERRIA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Allurralde Txiki*

DOKUMENT.:

1857-64 *Allurralde-chiqui*. Nomen., 103. orr.

1897 *Allurralde Chiqui*. Est.e. 48H/4.

1910 *Allurralde Chiqui*. Cen.p. 70H/2.

1940 *Allurralde Chiqui*. Pad.m.h. 18/3.

1945 "...*Allurralde Chiqui Garomena; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*". Amil., jabea: P.B.A.

BIBLIO. *Allurralde Txiki*. I. Linazasoro, *Baserriak*, 62. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdean dago, Allurralde baserriaren ondoan.

OHAR.: Nomenklatorrean jaso dugu gaur hutsik dagoen baserri honen lehen aipamena eta, beraz, *Allurralde* baserria baino askoz beranduago eraikitakoa da. Honen egoera, itxuraz behintzat, ez da ona.

TOP.: AIZPURUANEIA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Aixpurua*
Aixpuruana
Aixpuruania

DOKUMENT.:

1960 *Aixpurua*. Cen. y p. 28/1.

1970 *Casa Aixpurua*. Cen. y p. 45/1.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdean dago, Txistokiko zubia igaro eta metro batzuk aurrerago.

OHAR.: 1960. urteko erroldan jaso dugu etxe honen lehen aipamena eta hiru informatzaileek ezagun dute jabearen abizenean oinarriturik dagoen oikonimoa.

TOP.: BELKOAIN MENDIA

AHOZKO ERAB.: 15/15 *Belkoañ* (13)
Belkoain (3)

DOKUMENT.:

1889 "...Y siguiendo la misma direccion sur á distancia de quinientos metros en el mismo altito del monte de Belcoain se encontró otro mojon de piedra...". Des. y a. 71H/4.

BIBLIO. "...Varios elevados montes dominan el territorio guipuzcoano (...) Belcoáin sobre Andoáin...1808 (pies de altura sobre el mar)...". P. Gorosabel, *Noticia de*, 79. orr.
 "...Monte Belcoain. Sobre Andoain en la cuenca del Oria...". S. Múgica, *Geografía*, 20. orr.

KOKAP.: Sorabilla eta Adunaren arteko mugan dago, ekialdeko maldak Sorabilla aldera daudelarik.

OHAR.: Mendiak 492 metro ditu eta Sorabillako baserri eta etxe gehienak honen maldetan daude. Duela gutxi sutea izan zen bertan eta, Sorabilla aldeko maldetan behintzat, gaur ez dago zuhaitz alerik. Andoaindaren artean mendi ezaguna da, zenbaitek mendiaren gainari *Belkoaingo Gurutzia* esaten diolarik. Gurutzearen ondoan *Belkoaingo Trikuharria* dago. Gailurre-raino kotxez igo daiteke.

TOP.: MENDITXO

AHOZKO ERAB.: 11/10 *Menditxo* (10)
 11/1 *Menditxoko (H)arkaitza*

KOKAP.: Belkoain mendiaren ifar-ekialdeko maldan dago, Borda baserria eta Aitzeta etxearen gainean.

OHAR.: Informatzaile guztiek 225 metrotara dagoen gain hau *Menditxo* izenez ezagutzen dute, hauetako batek bertan dagoen harkaitza ere aipatu duelarik. Duela gutxi inguru honetan izandako sutearen ondorioz *Menditxo*-ren maldak zuhaitzik gabe geratu dira, baina hego-ekialdekoetan norteko (h)aritza (*Quercus rubra*) ugari landatu berri dute.

TOP.: ERREKAZABAL

AHOZKO ERAB.: 11/11 *Errekazabal*

DOKUMENT.:

1889 "...Desde el mojon del cruce de los caminos vecinales de Garate y Pagarte la comisión de Andoain siguió la linea que á su juicio y conforme la indica el plano que obra en su poder es la verdadera ó sea á la parte de Elquezabal...". Des. y a. 71H/4.

- 1889 “...sigue la regata Erdoista-aldea en ciento ochenta y seis metros donde forma angulo á la derecha encontrándose un mojon de piedra arenisca á los tres metros de la regata que divide a la parte de Elquezabal...”. Des. y a. 71H/4.
- 1896 “...camino carretil que desde la plaza de Soravilla se dirige a Pagarte se halla en muy mal estado (...) a causa de las lluvias en los puntos denominados de Ondarzulo y Errecazabal...”. Cam.v. 34H/3.
- 1945 “...Errecazabal Errecalegor; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...”. Amil., jabea: J.L.Z.

KOKAP.: Belkoain mendiaren gailurretik gertu dago. Erreferentzia gisa inguru horretan egun kokatuta dagoen telebista errepitidorea har daitekeelarik.

OHAR.: Belkoain mendiko telebista errepitidorea eta Garate eta Pagarte baserrien artean dagoen zabalari ematen zaion izena da. 1889. urteko dokumentuan, ordea, informatzaile guztiek aipatu duten *Errekazabal*-en ordez *Elkezabal* izena azaltzen da. Kokapenari buruz ematen diren datuengatik biak toki berari dagozkiola dirudien arren, bi horien etimologia guztiz ezberdina da: “...elge, *elke, «campo cultivado» (...) erreka «arroyo»...” (Ap.v., 82 eta 86. orr.).

TOP.: ERREKALEOR

AHOZKO ERAB.: 7/6 *Errekaleor* (6)
7/1 *Errekabeltz*

DOKUMENT.:

- 1945 “...Regata Errecalegor; (...) Paraje: Errecalegor, Bº Soravilla...”. Amil., jabea: C.A.P.G.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ifar-ekialdean jaiotzen da eta Azpikolako zubiaren parean bere urak Oria ibaira isurtzen ditu.

OHAR.: Errekaren arroa estua eta sakona da eta, izenak adierazten duen bezala, informatzaileek euririk egiten ez duenean erreka lehortu egiten dela azaldu digute. Sorabilla auzoa mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du. Esan behar da ere, informatzaile batek aipatutako *Errekabeltz* Leizotz auzoan dagoela.

TOP.: ERDOIZTA ERREKA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Erdoixta Erreka*

DOKUMENT.:

- 1889 “...ambas comisiones discutieron detenidamente pues afirmaba Aduna que le pertenecian los montasgos denominados Erdoista-aldea...”. Des. y a. 71H/4.
- 1889 “...siguió la línea cuesta abajo en dirección a Andoain (...) Desde este mojón sigue la regata Erdoista-aldea en ciento ochenta y seis metros...”. Des. y a. 71H/4.

KOKAP.: Errekazabalen ekialdera dagoen maldan sortzen da, Erdoizta base-
rriaren pean.

OHAR.: Hemen informatzaile bakar baten erantzuna jaso dugu, eta
besteren batek ere honen izena aipatu digun arren, ez da erreka ezaguna. Izan
ere, laburra eta ur gutxikoa da, sorreratik Errekaleorri elkartzen zaion gunera
arte 500 metro baino gutxiago dagoelarik. Izena errekaaren bazterrean dagoen
baserrian oinarrituta dago.

TOP.: BORDATXURI

AHOZKO ERAB.: 7/7 *Bordatxuri*

DOKUMENT.:

1945 “...*Borda Churi; bajo y matorral; (...)* Paraje: Soravilla...”.
Amil., jabea: P.B.A.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Arbitza baserritik Erra-
muetara doan gurdibidearen amaieran.

OHAR.: Dirudienez, garai batean toki honetan *Bordatxuri* izeneko
artzain-borda zegoen eta, gaur, honen aztarnarik geratzen ez den arren, tokia
bera ezagutzen da haren izenez. San Migel baserrikoak *Bordatxuri* izeneko
tokian izugarrizko lizarra zegoela esan digu, gaur honen enbor ihartuak bertan
dirauelearik.

TOP.: ELORDI

AHOZKO ERAB.: 9/9 *Elordi*
9/1 *Antzuleta*

DOKUMENT.:

1916 “...*Cantera denominada Elordi. Sita al mediodía del antes lugar*
de Soravilla...”. Inv.p.d. 13H/9.

1945 “...*Ansoleta; bajo y matorral; Paraje: Soravilla...*”. Amil., jabea:
R.M.Z.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdeko maldan dago, Erramueta base-
rriaren mendebaldera.

OHAR.: Zenbait informatzailek *Elordi* eta *Antzuleta* leku beraren
izenak direla esan digun arren, galdeketa parte hartu duen beste batek bata
bestetik ezberdindu du. Dena dela, ez dugu honi buruzko argibide gehiegirik
jaso eta informatzaile gehienek esandakoari jarraiki, ez dugu bien arteko be-
reizketarik egin, izenik erabilienaren alde eginaz. 1916. urteko dokumentuan
izen bereko harrobia ere aipatzen da, baina ez dugu honen kokapenari buruz-
ko datu zehatzik. *Elordi* bi malden arteko zokoan dago eta bertara joateko
Erramueta baserrira iritsi baino 250-en bat metro lehenago ezkerretara dagoen
bidezidorra jarraitu behar da.

TOP.: SORGINZULOAHOZKO ERAB.: 2/2 *Sorginzulo*

KOKAP.: Elordin dago, Belkoain mendiaren hego-ekialdean.

OHAR.: Elordin dagoen zulo hau ez da oso ezaguna, edo ez behintzat bere izena, baina bai dela bitxia izenaren jatorriaz emandako zenbait arrazoi. Informatzaile batek esan digunez, zulo honetatik noizbait sorgin bat atera omen zelako deitzen omen zaio *Sorginzulo*.

TOP.: ELKOR GAINA

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Elkor* (3)
Ekorro Gaña (2)
Ekoor
Ekoar
Elkoarre

DOKUMENT.:

1945 “...*Elcor; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*”. Amil., jabea: R.A.C.

“...*Ecaor; pradera; (...) Paraje: Soravilla...*”. Amil., jabea: P.B.A.

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean dago, Matxineko eta Igelusko erreken iturburuen artean.

OHAR.: Galdeketa jasotako erantzunetan ageria da izen honen finkotasun eza, zortzi informaitzaileri galdetu eta izen bera bost era ezberdinetara jaso baitugu. Dokumentazioan, berriz, ez dugu egoera hau argituko duen daturik aurkitu. Aipamen bakarrak amilaramenduetan azaldu zaizkigu eta hemen ere izena bi era ezberdinetara dago idatzita. Datu urri hauekin ezin dugu jakin zein den izen honen etimologia ez eta zein eratara normalizatu. Agian, izenaren etimologia **Elke* + *go(gor)* liteke “...*Elcorri*, que puede ser *elke* + *gorri...*” (*Ap.v.*, 82. orr.).

146 metrotara dago eta bertan elkartzen dira Arbitza eta Matxinea baserrietatik datozen bideak. Gaur *Elkor Gaina* otez josita dago.

TOP.: ARBITZAKO BORDA

KOKAP.: Arbitza baserrietik Elkor gainera doan bidearen ezkerretara dago.

OHAR.: Borda belaze baten erdian dago, eta oso egoera on eta txukunean. Belar biltegi gisa erabiltzen da.

TOP.: AIZBELTZ

AHOZKO ERAB.: 8/8 *Aizbeltz* (4)
Aizpeltz (4)
Aizbeltz Mendiya
Aitzbeltz

DOKUMENT.:

1945 *Aizbeltz*. Amil., jabea: C.I.Z.

BIBLIO. "...*La cueva de la Dama en Murumendi, las de Aitz-beltz en Soravilla...*". S. Múgica, *Geografía*, 177. orr.

KOKAP.: Belkoainen ifar-ekialdean dago, errepide nazionalak ekialdetik inguratzen duelarik.

OHAR.: Haitz honek 304 metro ditu eta bi errekek eta ibai batek inguratzen dute hiru aldetatik, alegia: ifarraldetik Pagarteko errekek, ekialdetik Oria ibaiak eta hegoaldetik Errekaleorrek. Izena, bere maldan dagoen harrobian ikus daitekeenez, bertako arbeletik datorkio. Haitz honetan pentsatzekoa da leize eta harkaitz zulo ugari izango dela —Donostiatik gatzela errepidearen eskubitan ikus daitekeenaren antzekoak—, baina ez dakigu S. Mujikak aipatzen duen hori non dagoen kokatuta.

TOP.: TELEGRAFOA (aurriak)
TELEGRAFOKO GAINA

AHOZKO ERAB.: 6/3 *Telegrafua* (2)
Telegrafoa
6/3 *Kastillua*

DOKUMENT.:

1859 *Telegrafía*. Est.e. y h. 96H/2

1857-64 *Telegrafía, torre telegráfica*. Nomen., 104. orr.

KOKAP.: Aizbeltzen mendebaldean dago.

OHAR.: 324 metrotako gain honetan garai batean seinale-dorre izandakoaren aurriak daude, eta honetan oinarrituta jaso dugu informatzaile batzuek esandako *Telegrafoko Gaña* eta *Kastilluko Gaña*. Dorre horrek hiru solairu eta 10-en bat metro zituen jatorrian, baina gaur, huntzez estalita, erdia baino ez da zutik geratzen. 1846. urtean inaguratu zen Madrid Irunekin elkartzen zuen seinale edo komunikabide telegrafikoen egitura. Guztira 52 dorre ziren, batetik bestera 10 km. zeudelarik. Bertatik ikusmira paregabea da eta bi edo hiru herri ikus daiteke.

TOP.: AZPIKOLAKO HARROBIA

AHOZKO ERAB.: 5/4 *(H)arrobiya*
5/2 *Zanonin (H)arrobiya*
(H)arrobiya, Zanoni jabe
5/1 *Aizpeltzeko (H)arrobia*
5/1 *Saeka*

KOKAP.: Aizbeltzen hegoaldeko maldan dago.

OHAR.: Informatzaile gehienek harrobia jabearen abizena edota garai batean erazte lanak egiten zituen enpresaren izenaz ezagutzen duten arren, 1967. urtean S.A.E.C.A. enpresak aurkezturiko proiektuan *Cantera de Azpicola* izenarekin azaltzen da, harrobiaren pean dagoen baserriaren izenean

oinarriturik dagoena, hain zuzen. Egun harrobian ez da erauzte lanik egiten (ikus AIZBELTZ, oharrak).

TOP.: GARATE GAINA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Gaategaña* (2)
Gaatealdia
Gaateko Gaña
Gaatemendi

DOKUMENT.:

1889 “...siguiendo las trazas de los mojones hasta el alto de Garate...”. Des. y a. 71H/4.

1889 “...en jurisdiccion de este referido lugar de Soravilla, repitiéndose este mismo concepto con relación a los repetidos montes y al de Garate...”. Des. y a. 71H/4.

KOKAP.: Sorabilla auzoaren ifarraldean dago, Garate baserriaren gainaldean.

OHAR.: 401 metrotako mendi hau, *Garate* baserriaren aldetik salbu, beste guztietatik errekez inguratuta dago. Ekialdeko maldan ez dago apenas zuhaitzik eta mendebaldekoan —*Learberro* izenekoa—, berriz, harrigarria da oteen ugaritasun eta mardultasuna. Azken hau bidezidorrez zeharkatuta dago eta nabarmen da hauetatik ez dela jende askorik ibiltzen, bide ugari otez zikinduta eta itxita ere bai baitago. Galdeketa jasotako erantzunetan ikus daitekeenez, informatzaileek ez dute bokalarteko dardarkaria ahoskatzen (ikus GARATE BASERRIA).

TOP.: PAGARTEKO GAINA

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Paarteko Gaña* (2)
Paarteko Gañe
Paarte

KOKAP.: Sorabilla auzoaren ifarraldera dago, Garate gainaren parean.

OHAR.: 391 metro ditu eta gailurrean *Pagarte* baserria dago. Bere maldetan zuhaitz gutxi dira; xaradiak, ordea, ugari. Bere ekialdeko maldan *Pagarteko Erreka* sortzen da. Jasotako erantzunetan ikus daitekeenez, informatzaileek ez dute bokalarteko herskari ahostuna ahoskatzen (Ikus PAGARTE BASERRIA). Esan behar da ere *Paarteko Gañe* esan duen informatzailea amezketarra dela eta, erantzun horretan atzematen denez, azken 45 urteak Andoainen igaro arren ez ditu jaioterriko euskararen arrastoak galdu.

TOP.: MUGARRILUZE
MUGARRILUZEKO ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Moerluze*
Moarluxe
Moarriluxe

BIBLIO. "...MUGARRILUZE EDO MUGARRILUZEKOITURRIA Soravilla aldeko txaradia, tolosako jab.erreg. ...". L. M^a Mujika, *ETM VI*, 322 orri.

KOKAP.: Garate gainaren ifar-ekialdean daude.

OHAR.: Bertara joateko Garate baserritik Garate gainera doan bidea hartu eta gailurreraino joan behar da, ondoren eskuinetara doan bidetik biraguneraino eta puntu honetan bidea utziz zuzen jarraitu behar da metro batzuk aurrerago hesi batekin topo egin arte. Inguru honetan ote ugari eta bikainak daude eta *Mugarriluze* ikustea lortu bagenuen ere, ezinezkoa gertatu zen iturriraino iristea. Mugarrria harri beltzez egina da, oina karratua eta alboak laukiluzeak dituelarik. Toponimo hauek aipatu dizkiguten bi informatzaileak Garate eta Pagarte baserrikoak dira.

TOP.: ABALOZKO TXARA

AHOZKO ERAB.: 1/1 *Abalozko Txara*

KOKAP.: Pagarteko gainaren ifarraldeko maldan dago, Latxeko erreka aldera, alegia.

OHAR.: Izen hau aipatu digun informatzailea Pagarte baserrikoa da. *Abalozko Txara* deiturikoa malda laiotzean —ospelean— dago eta bertan garoa eta otea besterik ez da hazten.

TOP.: ONDARZULO

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Ondarzulo*

DOKUMENT.:

1896 "...Camino carretil que desde la plaza de Soravilla se dirige a Pagarte se halla en muy mal estado e intransitable (...) a causa de las lluvias en los puntos denominados de Ondarzulo y Errecazabal...". Cam.v. 34H/3.

1904 "...vecino de este barrio de Soravilla a U.s. respetuosamente exponemos: que el camino denominado "Ondar-zulo" y camino carretil que se dirige a los caserios llamados Pagarte, Garate y Erdoista en este barrio...". Cam.v. 34H/3.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdera eta Menditxoren hegoaldera dago.

OHAR.: *Ondarzulo* izenaz ezagutzen dena Borda eta Erramueta baserrien artean dago eta bertatik igarotzen zen garai batean Garate baserrira zihoan bidea, berau ere tokiaren izenaz ezagutzen zelarik. Izenak adierazten duen bezala, toki honen ezaugarria zorua hondarrezkoa izatea da, hondar horikoa. Informatzaile zenbaitek garai batean hondar hau erabili egiten zela esan digu. Bertan, lur arrunteko tokitan bezala, belarra eta zuhaitzak hazten dira.

TOP.: MIKELARTZA ITURRIA

AHOZKO ERAB.: 4/4 *Mikelartza* (2)
Mikelartze
Mikeliartza

DOKUMENT.:

1945 “...*Migueliarza; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*”.
 Amil., jabea: R.A.C.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdeko maldan sortzen da, Borda eta Intxusaran baserrietatik datozen bideak elkartzen diren tokiaren pean.

OHAR.: Ura bizpahiru tokitatik sortu eta bertan dagoen ur-biltegitxo batean elkartzen da. Gainezka egiten duen urak errekatxo bat osatu eta Olabide baserriaren ondoan Oria ibaira isurtzen da. Amilaramenduetan iturriaren inguruko lur sail bat *Migueliarza* izenarekin agertzen da. Mitxelena izen honi buruz zera aipatzen du: “...Luchaire no relaciona *García* con (*h*)artz, pero sí *Harse*, (...), *Miguel Arza* (Nav., 1266, cit. por Francisque-Michel)...” (*Ap.v.*, 59. orr.). Horrela, erantzun ezberdinak jaso ditugun arren, *Mikelartza* finkatzearen alde gaude.

TOP.: LEARBERRO

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Learberros*
Learberro
Learbarro

DOKUMENT.:

1889 “...*se procedió a la division del montazgo Learberros (...) dicho montazgo se hallaba enclavado en jurisdiccion de Soravilla hoy agregado a Andoain...*”. Des. y a. 71H/4.

1889 “...*Ambas comisiones discutieron detenidamente sobre á cual de las jurisdicciones pertenecían los montes Learberros y en vista de que no había conformidad...*”. Des. y a. 71H/4.

1889 “...*alegando Aduna que la referida línea desde Picueta Eureka-guratz que es el confin de Learberros era de su pertenencia...*”. Des. y a. 71H/4.

1945 “...*Lealberro y Garate; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*”. Amil., jabea: J.M. C.U.

“...*Lealberro; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*”. Amil., jabea: J.M^a O.G.

“...*Lealberros y Deamillondo; pinar, bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*”. Amil., jabea: C.I.Z.

KOKAP.: Garate gainaren mendebaldeko maldan dago.

OHAR.: 1889. urteko dokumentuan agertzen diren aipamen ugarietan, nahiz eta hemen jasotakoetan ez azaldu, *Learberros* zein *Lealberros* topatu dugu. Berriagoak diren amilaramenduetan bigarren horretan oinarrituriko ai-

pamenak nagusi diren bitartean, informatzaileek lehenengoan oinarriturikoak aipatu dizkigute soilik. Bukaerako txistukariari dagokionez, esan behar da -(h)otz osagaia izan daitekeela horren jatorria, baina azken osagai hori beti azaltzen ez denez, ez idaztea erabaki dugu (ikus GARATE GAINA, oharrak).

TOP.: KAPELAGORRI

AHOZKO ERAB.: 3/3 *Kapelagorri (2)*
Kapelorri

DOKUMENT.:

1945 "...*Capelagorri; bajo y matorral; (...) Paraje: Soravilla...*". Amil, jabea: J.L.Z.

BIBLIO. "...*KAPELAGORRI Sorabilla aldeko iradia, erreg. 48, 496, 20; 1755 urtea...*". L. M^a Mujika, *ETM VI*, 314. orr.

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdeko maldan dago, Borda baserriaren hegoaldeko etxe berriaren pean.

OHAR.: Gaur toki honetan hesituta eta pinuz inguraturiko belazea dago. L. M^a Mujikak aztertutako dokumentazioan eta amilaramenduetan, ordea, iradi eta xaraditzat azaltzen da. *Kapelagorri* 167 metroko gain batean dago.

TOP.: MINAZULO

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Minazulo*
Minatxulo

KOKAP.: Belkoain mendiaren ekialdera dago, Kapelagorri kokaturik dagoen gainaren maldan.

OHAR.: Honen jabea den Koskaraneko baserritarrak *Minazulo* garomena dela esan digu. Kapelagorri inguratzen duen hesiaren bestaldean hasirik maldan behera Elordiko errekaraino iristen da eta pinupean dago.

TOP.: BALLESTAGINGO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 2/1 *Balastraigingo Erreka*
2/1 *Beko Erreka*

DOKUMENT.:

1889 "...*Sigue la linea al sur en mil ciento treinta metros á la regata de Ballestain hasta debajo de la casa del mismo nombre...*". Des. y a. 71H/4.

KARTOG.: *Regata Usotondo* (M.A.)

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean sortzen da eta kasik amaiera arte bera da Sorabilla eta Adunaren arteko muga (ikus MATXINEAKO ERREKA, kokap.).

OHAR.: Informatzaile gehiagori galdetu diogun arren, hauek ez dute honentzat inongo izenik erabiltzen. Izenik ez erabiltzearen arrazoietako bat erreka oso txikia izatea daiteke. Dena den, 1889. urteko dokumentuan informatzaile bakar horrek aipaturiko izen bera azaltzen da. Ez dakigu, bestalde, M.A. mapan agertzen den beste horren nondik-norakoa. *Beko Erreka* izena aipatu duena, noski, *Ballestagin* baserrikoa da (ikus BALLESTAGIN BASERRIA, oharrak).

TOP.: MATXINEKO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 2/2 *Matxineko Erreka*
Matxineko iturritik datorren erreka
 2/2 *Lakatzeko Erreka*

KOKAP.: Belkoain mendiaren hego-ekialdean sortzen da, Elkor gainaren mendebaldeko arroan, Matxinearen ondotik igaro ondoren Ballestagingo errekaekin elkartzen da eta, azkenik, ura Oria ibaian isurtzen dute.

OHAR.: Nahiz eta informatzaileek errekatxo honentzat bi izen aipatu, sorrerako iturria *Matxinea* baserrikoa dela azaldu digute. Zenbaitek erabiltzen duen *Lakatzeko Erreka* izena gaur desagertutako *Lakatz* baserrian oinarrituta dago, erreka horren ondotik igarotzen baitzen (ikus LAKATXE BASERRIA). Erreka txikia da.

TOP.: † GARAIKOETXEA - LAKATXE BASERRIA

DOKUMENT.:

- 1818 *Garaico-echea* (Soravilla). Est.p.i. 62H/7.
- 1857 *Garaicoechea*. Pad.h.S. 96H/3.
- 1857-64 *Garaicoechea, casa de labor*. Nomen., 103. orr.
- 1897 *Lacache, B° Soravilla*. Est.e. 48H/4.
- 1915 *presa del molino Garaico-echea*. Sol.c.c. 71H/10.
- 1940 *Lacache*. Pad.m.h. 18/3.
- 1945 *Garaicoechea*. Amil., jabea: M.A.C.
Lacache. Amil., jabea: P.A.G.

BIBLIO. "...GARAIKOETXEA EDO LAKATXE Sorabilla aldeko base-
 rria...". L.M^a Mujika, *ETM VI*, 305 orri.

KOKAP.: Matxinetik gertu zegoen, hau ere Matxineko errekaen bazterrean.

OHAR.: Auzokoek desagertutako baserri hau *Lakatz* izenaz ezagutzen duten arren (ikus GALTZADA ETXEBERRI, oharrak), badirudi, L.M^a Mujikak jasotako datuaren arabera, horren jatorrizko izena *Garaikoechea* zela. Lan honetan erabilitako dokumentuetan bigarren hori 1818. urtetik 1897.era arte azaltzen den bitartean, *Lacache* soilik 1897. urtetik aurrera topatzen dugu —Amilaramenduetan, berriz, biak— eta, beraz, zilegi litzateke horren arabera bi izenak etxe berari egokitzea. Dena den, 1915. urteko dokumentuan jasotako datua harrigarria iruditzen zaigu. Alde batetik dokumentu

zaharragotan ez delako errota gisa azaltzen eta, bestetik, bere ondotik igarotzen den erreka —*Lakatxe*-ren ondotik— oso isuri txikikoa delako (ikus ERROTA ohar.).

Ez gara bertara inguratu eta baliteke honen aztarnaren bat geratzea.

TOP.: ELKORKO ITURRIA IGELUSKO ERREKA

AHOZKO ERAB.:	5/4	<i>Iyulutsko Erreka</i>
		<i>Iyulusko Erreka</i>
		<i>Iyelusko Erreka</i>
		<i>Igelusko Erreka</i>
	5/1	<i>Antzuletako Erreka</i>
	5/1	<i>Erreka</i>
	5/1	<i>Elkorko Itturriya</i>

DOKUMENT.:

1945 *Regata Igueluz*. Amil., jabea: J.I. U.B.

KOKAP.: Elkor gainaren ekialdeko zokoan sortzen da eta Igeluts baserriaren ondotik igaro ondoren Sorabilla auzoaren erdia zeharkatu eta Oria ibaian isurtzen du ura errepide nazionalaren bestaldetik.

OHAR.: Arbitza baserritik gora doan bidetik joanez, *Elkor* gainera iritsi eta eskuineko bidea hartuta metro batzuk aurrerago ezkerretara dago informatzaile batek baino gehiagok *Elkorko Iturria* izenaz ezagutzen duena. Honen ura kanilatik aska batera erortzen da eta gainezka egiten duenak ematen dio beherago *Igelusko Erreka*-z ezagutzen denari isuria (ikus ISELUTS BASERRIA). Besterik gabe *Erreka* esan duen informatzailea, noski, *Igeluts* baserrikoa da. Beste informatzaile batek aipaturiko *Antzuletako Erreka*-ri buruz, esan behar da, *Antzuleta* edo *Elordi* izeneko tokia gorago dagoela eta bertan sortzen dena beste erreka bat dela (ikus ELORDI, oharrak).

Iturri honen ondotik igarotzen den bidetik aurrera jarraitu ezkerrean —Erramueta baserriaren aldera— karobi bat topatuko dugu bidearen bazterean.

TOP.: ELORDIKO ERREKA

AHOZKO ERAB.:	3/2	<i>Elordiko Erreka</i>
	3/1	<i>Bazkardo Txikiko Erreka</i>

KOKAP.: *Elordi* deituriko tokian sortzen da eta Sorabilla auzoa mendebaldetik ekialdera zeharkatu ondoren Bazkardo Txiki baserriaren parean Oria ibaiari elkartzen zaio.

OHAR.: Informatzaile batek baino gehiagok erreka honek izenik ez duela esan digu. Beste zenbaitek *Elordi*-n ez dela errekarik sortzen dio, baina, ordea, I.G.N. mapan azaltzen da. Dena den, badirudi erreka hau zati zenbaitean izkutatu eta lurrazpitik joaten dela eta, agian, horregatik informatzaile horien zalantzak.

TOP.: ERREKAGURUTZ

DOKUMENT.:

- 1889 "...donde termina la jurisdicción de Zubieta (...) empieza el confín de la jurisdicción de Andoain con Cizurquil y continúa en la misma regata Abaloz hasta el punto denominado Erreca-guruz (...) empezando en dicho Erreca Guruz la jurisdicción de Aduna que confina con Andoain...". Des. y a. 71H/4.
- 1889 "...afirmaba Andoain que desde dicho mojón Picueta hasta el punto de Eurecagurutz le pertenecía en virtud de escrituras y planos...". Des. y a. 71H/4.
- 1889 "...Alegando Aduna que la referida línea desde Picueta Eureka-gurutz que es el confín de Learberros era de su pertenencia...". Des. y a. 71H/4.
- 1889 "...punto de partida el sitio denominado Picoeta debía seguirse el curso del arroyo de este nombre hasta el llamado Erreca-gurutzte donde se unen dos regatas (...) desde dicho punto siguió la regata de Garate...". Des. y a. 71H/4.
- 1889 Eureka-gurutz. Des. y a. 71H/4.

KOKAP.: Learberroren hego-mendebaldean dago, Zizurkil, Aduna eta Andoainen arteko muga dagoen tokian.

OHAR.: Leku honetan Zizurkilen jaiotzen den Iturrieta Garateko errekaekin bat egiten du eta bertan dago aipatu hiru herrien arteko muga. Informatzaile zenbaiti galdetu diogun arren, hauetako inork ez du *Errekagurutz*-i buruzko berririk. Hala ere, Andoaingo mugaz diharduen dokumentuan sarritan aipatzen da eta kokapenari buruz ematen diren datuetaz baliatuz kokatu eta aldi berean berreskuratu ahal izan dugu.

Dokumentu horretan Aduna eta Andoainen arteko mugei buruz izandako gorabehera guztiak azaltzen dira eta, atal horretan *Errekagurutz*-ekin batera *Pikueta* izeneko tokia ere aipatzen da. Bigarren hau inguru honetan dagoela jakin arren ezin izan dugu zehatz kokatu. Herri batek eta besteak esandakoa tartekatu egiten da eta ez dugu ezer garbirik lortu, zenbaitetan, hasieran hain garbi azaltzen den *Errekagurutz*-en kokapena bera ere zalantzan jartzera iritsi garelarik.

TOP.: ATXULONDO ERREKA

AHOZKO ERAB.: 5/5 *Atxulondo* (2)
 Atxulondo Erreka
 Atxolondo
 Atxulondoko Erreka

DOKUMENT.:

- 1945 *Regata Achulondo*. Amil., jabea: J.M. C.U.
Regata Arrulondo o Abaloz. Amil., jabea: C.I.Z.

BIBLIO. "...Soravilla (...) le cruzan y fertilizan el r. Oria, que tiene un puente solidísimo de piedra con 3 arcos, y la regata que llaman de Asolondo...". P. Madoz, *Diccionario*, XIV. alea, 448. orr.

KOKAP.: Learberroren mendebalean dago, berau delarik Zizurkil eta Andoainen arteko muga.

